

1

EUROPAR DIMENTSIOA  
DIMENSIÓN EUROPEA

# EUROPA ESKOLAN

MARGARET SHENNAN

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

1

# EUROPA ESKOLAN

MARGARET SHENNAN

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2005

**SHENNAN, Margaret**

Europa eskolan / Margaret Shennan ; [itzulpena, Lete Itzulpenak Traducciones]. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jauriaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2005

p. ; cm. – (Europar dimentsioa = Dimensión europea ; 1)

Contiene, además, con portada y paginación propias, texto contrapuesto en castellano: «Europa en la escuela»

ISBN 84-457-2229-8

1. Unión Europea-Didáctica. I. Euskadi. Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

II. Título. III. Título (castellano). IV. Serie.

341.176(4-672 UE):37.02

Argitaraldia:	1.a, 2005eko otsaila
Ale-kopurua:	2.000
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Internet:	<a href="http://www.euskadi.net">www.euskadi.net</a>
Argitaratzailea:	Eusko Jauriaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastian, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Egilea:	Margaret Shennan
Itzulpena:	Lete Itzulpenak Traducciones SL
Diseinua eta maketazioa:	Xabin Arzelus
Fotokonposaketa:	Rali, S.A. Particular de Costa, 8 -10 - 48012 Bilbao
Inprimaketa:	Estudios Gráficos Zure, S.A. Carretera Lutxana-Asua, 24 A - Erandio-Goikoa (Bizkaia)
ISBN:	84-457-2229-8
LG:	BI-198-05

## EUROPA ESKOLAN

Europa berria, beharrezkoa, Europa batua eraikitzeko ahaleginak egiten ari gara; bateratze-prozesuan, ugariak dira zailtasunak, kontraesanak, konpromisorik ezak, morrontzak, inertzia historikoak, konpondu gabeko arazoak... Baikortasunak bultzatzen gaitu, baina komenigarria da jarrera kritikoa izatea, eta oraindik ere bada arrazoirik eszeptiko samarrak izateko. Hala eta guztiz ere, sinetsita gaude esaerak dioenez «Europa ez dela arazoa, konponbidea baizik» dioen esaeran sinesten dugu.

Europako Kontseilua 1949an sortu zen, Bigarren Mundu Gerra bukatu eta handik gutxira. Europeismoaren sorkuntzatza joenezake hori. Europarren borondatez bateraturiko Europa eraikitzearen aldeko mugimendu horrek Robert Schuman eta Jean Monet izan zituen gidari. Euskal Herriak ere izan zituen europeista konbentzituak, hala nola, Jose Antonio Agirre Lehendakaria eta Francisco Javier Landaburu. Lan garrantzitsua egin zuten biok Europa bateratzeko prozesuaren hasierako garai haietan.

Europar Batasuna sortzeko Ituna Maastricht-en 1992an sinatu zenetik euroa 2002an indarrean sartu arte, urrats ugari egin dira Europa eraikitzeko bidean. Bide horretan, hezkuntza aipamenik ere ez izatetik, lehentasunezko lekua izatera pasa da azken urteotan. «Hezkuntzaren europar dimentsioa» esapidea 1976an erabili zen lehen aldiz. Gerora Europako Programak egin dira: Erasmus, Lingua... eta Sokrates, 1994an. 2002an Europako Kontseiluak Europako esparrua definitzeko prozesuan lagungarria izango den agiri bat argitaratu zuen: «2010. urterako Hezkuntza eta Prestakuntza Sistemen Helburu Estrategikoen eta Helburu Zehatzen Segimendurako Lan Programa»; agiri horrek, era berean, eragin erabakigarria izango du hamarkada honetan garatu beharreko hezkuntza-helburuak bateratzeko prozesuan.

Hausnarketa orokor horien esparruan eta Europako herritartasunari buruzko kontzientzia lortzeko urrats sendoak egiteko asmo irmoaz, 2001. urtean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Europar Dimentsioa ezarri zuen legegintzaldirako lehentasunen artean; legegintzaldi honetan Lehentasunezko bost Ildoak eta 2003-2006 hiru urterako Hezkuntza Berrizatzeko Programak formulatu dira; euskal hezkuntza-sisteman euskal dimentsioa eta europar dimentsioa garatzea proposatzen da ildo eta programa horietan. Beste ekintza batzuen artean, lehentasunezko ildo horiek honako hauetan gauzatzen dira: irakasleen prestakuntzan, berriztatze-proiektuetan, ikerketa-lanetan, ikasketa-lizentzietan, eta materialen zein argitalpenen garapenean.

Baina, zer da Europa? Zer da europar dimentsioa? Ba al dugu «Europar balioez» hitz egiterik? Nola ulertu behar dugu europar dimentsioa hezkuntzan? Nola hezuramitu hori eskolan? Zein ezagutza, gaitasun, prozedura, jarrera eta portaera garatzea dakar europar dimentsioak?

Margaret Shennanek alderdi horiei eta beste batzuei heldu die hasiera batean Europako Kontseiluak argitaraturiko liburu honetan.

Nire eskerrik beroena adierazi nahi diet Bilboko Udaleko Hezkuntza, Gazteria eta Kirol Sailari eta Euskal Interkulturari, proiektu honetan izandako ekimenagatik eta emandako laguntzagatik.

Espero dut argitalpen honek irakasleei erantzun batzuk emateko balio izatea, Europari buruzko gaiari inguruko hausnarketa kritikorako eta eztabaidarako bidea zabaltzea, eta azkenean, ikasleen, gaur egungo eta biharko Europako herritarren gaitasunetan, jarretan eta balioetan eragina izatea. Horixe da nire nahia.

Anjeles Iztueta Azkue  
**Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua**

## HEZKUNTZA IKUSPEGI BERRIA

Bilboko hiriak betidanik izan du bokazio unibertsal eta europar argia. Ildo horretatik, Bilboko Udalak behar-beharrezkotzat jo du hezkuntzari europar ikuspuntutik heltzea. Hezkuntzaren dimentsio hori, dena den, ez da inola ere kontzeptu berria gure artean.

Badira berrogeita hamar urte eta gehiago Europako Kontseilua eta beste erakunde batzuk alor honetako lanari ekin ziotela: hasieran, bidea irekitzearen, Europar Batasuna osatzen duten herriak, elkarrekin bakeak eginez, elkartasunean bizi zitezten; gero, kohesiorako eta ezagupenerako benetako lanabes gisa, etorkizunari lehiakortasunez aurre egin ahal izateko, iraunkortasuna eta gizarte-justizia ahaztu gabe, ordea.

1976tik hona, badira Europako herrialdeetako irakasleak eta ikasleak elkarlanean aritzeko ekintzak, baita trukeak egitekoak ere, eta 1981ean Eurydice sarea sortu zen, hezkuntza-arduradunei erraztasunak emate aldera erabakiak hartzerakoan, Europan dauden hezkuntza-sistemei buruzko informazio-prozesu zabal eta konplexu baten bitartez. Maastricht-eko itunetik (1992) aurrera, berriz, legezko oinarria eman zaio Hezkuntzaren alorreko estatuen arteko lankidetzari.

Hamar urte geroago, Europako hezkuntza-sistemen konbergentzia edo bat-etortzea hasi da planteatzen lehentasunezko helburu gisa. Hartara, «Hezkuntza eta prestakuntza sistemen etorkizuneko helburuen gaineko Txostena», Hezkuntzako Ministroen Kontseiluak 2001eko otsailean onetsi zuenak, argi eta garbi jarri du hezkuntza-alorreko lankidetzaren areagotu beharra, Europa, ezagutza oinarritzat hartuta, ekonomia-erraldoi bilaka dadin, eta modu iraunkorrean hazteko gai, enplegu eta gizarte-kohesio hobeekin.

Testuinguru honetan, Margaret Shennan historialari eta pedagogo britainiarrak galderak egin eta erantzunak emateko ausardia izan zuen, hezkuntzaren europar dimentsioa zertan den ulertu ahal izateko.

Shennanek laguntza eman nahi izan zien Europa osoko Bigarren Hezkuntzako irakasleei, eta estrategia zehatzak azaldu zituen, kulturartekotasuna, globalizazioa eta eskema politiko, sozial eta are historikoen erlatibotasuna bezalako gaiei heltzeko, guztion proiektu dugun Europar Batasun honetan geure burua herritar gisa finkatzeko garaian.

Horregatik guztiagatik, Bilboko Udalak eskerrak ematen dizkio Margaret Shennani, bere eskubideak onginahi hutsez laga ditu-eta EUROPA ESKOLAN lanaren argitalpen hau egin ahal izateko, gure hirian elkarriketaren alde —elkarbizitza, bake eta tolerantziaren berme gisa— garatu dugun hezkuntza-proiektuari amaiera bikaina emateko.

Iñaki Azkuna  
**Bilboko alkatea**

# AURKIBIDEA

**HITZAURREA: Berrogeita lauk osatutako Europa** 11

**LEHEN ZATIA: Europarako esparru bat bigarren hezkuntzan** 15

1. Aldaketa: XXI. menderako testuingurua 17
2. Europa ikasketa-planean sartzea 29

**BIGARREN ZATIA: Europari buruzko ikaskuntza, ikasketa-plan formalaren bidez** 49

3. Europa eta denbora-dimentsioa 51
4. Europa eta espazio-dimentsioa ikasketa-planean 67
5. Europaren nortasun kulturala 85
6. Hizkuntzen ikaskuntza eta komunikazioa 103

**HIRUGARREN ZATIA: Europar hezkuntzaren parametroen zabalkuntza** 121

7. Bizitzarako prestakuntza europar gizartean 123
8. Ikasgelaz gaindiko hezkuntza 143
9. Europa eta mundua 155

**LAUGARREN ZATIA: Aldaketarako egiturak eta eragileak** 173

10. Europarako hezkuntza eraginkorrerantz 175

**ERANSKINAK** 193

1. **eranskina:** Gomendio eta ebazpen ofizialak 195
2. **eranskina:** Agentzia nazionalak 209





**HITZAURREA**





## BERROGEITA LAUK OSATUTAKO EUROPA

Europako Kontseilua Europako berrogeita lau demokrazia parlamentarioz osatuta dago, eta Europako erakunde politikorik zabalena da. 700 milioi pertsonatik gorako biztanleria ordezkatzeko du Europa osoan —Islandiatik Turkiaraino eta Portugaletik Errusiaraino—.

Europako Kontseilua 1949. urtean sortu zen, eta Bigarren Mundu Gerraren ostean sortu zen Europako lehen erakundea izan zen. Erakunde horren sorburua, Winston Churchillek gerraostean arazoak aztertzeko Nazio Batuen Erakundeaz gain zenbait eskualde-kontseilu sortu beharrari buruz 1943an azaldu zuen ideia bat izan zen. Europako buruzagi nagusiek proposamen hori bidezkoztat jo zuten, eta gerraostean abiarazi zuten.

1949ko maiatzaren 5ean, Europako Kontseiluaren Estatutua berretsi egin zuten hamar estatu eratzailleek: Belgikak, Frantziak, Danimarkak, Irlandak, Italiak, Luxenburgok, Holandak, Norvegiak, Suediak eta Erresuma Batuak. Era berean, gerraosteko adiskidetzaren sinbolo gisa, aho batez erabaki zuten erakundearen egoitza Frantziako kokatzea, Alsaziako hiriburu eta Alemaniarekin mugakide zen Estrasburgo hirian.

Europako Kontseiluaren helburuak honako hauek dira:

- Giza eskubideak, demokrazia plurala eta zuzenbideko estatua babestea;
- Europako kultur nortasunaren eta aniztasunaren ulermena bultzatzea eta haren garapena indartzea;
- Europako gizarteak dituen arazoetarako konponbideak bilatzea (gutxiengoaren diskriminazioa, xenofobia, intolerantzia, ingurumen-arazoak, giza klonazioa, HIESa, drogak, krimen antolatua, eta abar.);
- Europan egonkortasun demokratikoa sendotzen laguntzea, erreforma politiko, legegintza-erloko eta konstituzionaleko prozesuei babesa eskainiz.

Bestalde, Europako herri guztiek bere egiten dituzten ezaugarriak garatzea du helburu: haien bizitzaren «dimentsio europarra». Ondorioz, Kontseiluaren lana gobernuen arteko lankidetzaren bitartez gauzatzen bada ere, haren kezka nagusia norbanakoaren interesetan oinarritzen da.

Kontseiluaren estatutuak adierazten duenez, estatu kide bakoitzak zuzenbideko estatuaren printzipioa onartu behar du, eta bere herritarrei giza eskubideak eta funtsezko askatasunak bermatu behar dizkie. Printzipio horiek onartzen dituen Europako edozein estatuk eska dezake Kontseiluan sartzea. 1949az geroztik, bazkide-kopurua jatorrizko hamarretatik egungo berrogeita lauetera zabaldu da.






# Lehen zatia:

EUOPARAKO ESPARRU BAT BIGARREN HEZKUNTZAN




- 
- 1. ALDAKETA: XXI. MENDERAKO TESTUINGURUA**
  - 2. EUROPA IKASKETA-PLANEAN SARTZEA**



1

**ALDAKETA: XXI. MENDERAKO TESTUINGURUA**



- 
- ALDAKETA POLITIKOA EUROPAN
  - ALDAKETA EKONOMIKOA EUROPAN
  - GIZARTE-ALDAKETA EUROPAN
  - HEZKUNTZA: ALDAKETA SOZIALAREN ISLA

1963. urtean Mendebaldeko Alemaniara egin zuen bisita ospetsuan, John F. Kennedy Presidenteak, Francfort-eko herri-tarrei hitz egiten ari zela, zera adierazi zuen: «Aldaketa bizitzaren legea da. Eta iraganari edo orainari soilik begiratzen diotenez etorkizuna galduko dute seguru aski». Ezegonkortasuna nagusi zen garai hartan, hitz horiek belaunaldi gazte europarren arimara iritsi ziren. Hala ere, Europan ezarritako oreka armatuak beste mende laurden bat iraungo zuen Mijail Gorbaxov presidente sobietarrak hitz horiek bere egin arte. Superpotentzia estatusa batez ere botere militarrengatik zuen estatu baten herentzia jaso zuenean, herri batek haren iragana eta oraina ulertzen badu bakarrik planifika dezake-ela etorkizuna esan zuen Gorbaxov presidenteak. Oso ikuspegi ezberdinak zituzten arren, XX. mendeko garaiko erronka handizat jo zuten aldaketa. Izan ere, komunikazio elektronikoen aurrerakada edo giza errealitateek denboraren joanean duten aldakortasuna atzematen jakin ez duten estatista zaharren intrantsigentzia gertakariak zein azkar gaintzen duten erakutsi zuten 1989ko iraultzek.

Presidenteentz adierazpen horiek mezu bat dute hezkuntzan lanean ari diren pertsona guztientzat. Hezkuntzaren helburu globala bizitzarako prestakuntza eskaintzea denez gero, ikaskuntza-prozesuak —arrazionala izateko— Kennedy presidenteak «bizitzaren legea» izendatu zuenaren azterketa barne hartu behar du iraganaren, orainaren eta etorkizunaren testuinguruan. Alderdi horietakoren bat bazter utziz gero —edo horietakoren batean gehiegi kontzentratu eta besteak bazter utziz gero—, bizitzaren ikuspegia distortsionatuta geratuko da. Adibidez, iraganak irakats dezakeenari uko egitea bizitza ikuspegiak eta memoriarik gabe igarotzea da, eta aldaketaren, haren kausa eta ondorioen, eta haren inpaktu eta erritmo gorabeheratsuen —prozesu horiei bilakaera, iraultza, eraldaketa, gainbehera, azalratzea, berrikuntza eta antzeko terminoak aplikatzen dizkiegularik— ebidentzia ulertzeak, berriz, giza izaeraren ideia bat eratzea dakar. Beste muturrean, ez dirudi iraganean murgiltzen direnek beren potentzial guztia garatu ahal izango dutenik; eta egungo munduari buruzko ezagupen gutxi dituztenek ere arazoak izango dituzte etorkizunean murgiltzeko. Izan ere, zenbait adituk adierazten duenez, egungo informazioaren gizartean eskura dagoen teknologia kontuan izanik, orainaren eta etorkizunaren azterketak ikasketa-planean zeregin handiagoa izan dezake, aldi berean determinismo teknologikoaren tranpan zertan erori gabe.

Idea horiek ilustratzeko, azken ehun urteei begiratzea besterik ez dugu. Izandako aldaketa, ikaragarria eta itxuraz betikoa, XX. mendearen zigilua izan zen. Inperio tradizionalak itzali egin ziren; dinastia zaharrak, antzina garaiezinak zirenak, adibidez, Manchu Ch'ing-rena Txinan edo Romanov eta Habsburg Etxeenak Europan, ezabatu egin zituzten hamarkada garrantzitsu batean 1911. urtetik aurrera. Belaunaldi bat geroago inperialismo europarraren amaiera iritsi zen, Bigarren Mundu Gerraren ondorio gisa. Gerraosteko urteetan, britainiarrek, frantsesek, holandesek, belgikarrek eta portugesez beren lurralde kolonialak utzi zituzten Indian, Afrikan eta Ekialde Urrunean, independentzia emanez euren borondatez edo askapen nazionalako borroka beharturik, Estatu Batuei eta SESBri ordura arte zituzten egitekoak aldatu baino lehen. Mundua lau hamarkada baino gehiagotan bi esparrutan zatiturik egon ondoren, Gerra Hotza duela hamabost urte amaitu zen, batez ere arlo ekonomikoan kostu handia zekarrelako, bereziki Sobietar Batasunarentzat. Gaur egun alde bakarreko mundu batean gaude, zeinak, neurri batean, Errusia «etxe komun europarrera» itzultzera behartu duen.

XX. mendean, muga, hiri, nazionalitate eta herri osoak desplazatuak, ezabatuak edo suntsituak izan ziren «Estatu-arrazoiak» zirela medio. Ondoren, horietako batzuk ahaztuta geratu ziren eta beste batzuk berreraiki edo erreformatu egin ziren, bertan zirkunstantzia politikoen aukera hori ematen baldin bazuten. Ideologia berriak nazio berriak sortu zituzten. Botere-erlazio berriak azalatu ziren, hala nazioartean nola egitura etnikoetan eta klase-egituretan. Aurrerapen zientifiko eta teknologikoaren garaipenak erakutsiz, gizakiari espaziotik ikusitako unibertsoaren irudi berriak transmititu zitzaizkion. 1989-1990. urteetako gertakariak eta azken hamarkadan izandako eszenatoki mundial berrien garapenak XX. mendea aldaketa iraultzaileen garai bihurtu zuten.

## ALDAKETA POLITIKOA EUROPAN

XX. mendeko azken hamarkadak Europari leku zentral bat itzuli zion nazioarteko gertakarietan. 1914. urtearen ondoren, aldaketa eta gainbehera sinonimoak izan ziren estatu europar gehienentzat. Galdera nagusiak hauek ziren: Europak bere botere eta ospea zergatik eta zein neurritan galtzen zituen. Belaunaldi bat geroago, Bigarren Mundu Gerrak Europa pobrezia material eta espiritualeko egoeran utzi zuen. Gerraosteko aldian, oreka politikoa ez zegoen estatu-nazioen sistema berritu batean oinarrituta, bi esparru armaturen eta Alemania zatituaren existentzian baizik. «Europak» ez zuen nor-tasun espezifiko bat 1945aren ondoren: horixe zen bakearen prezioa. 1950eko eta 1960ko hamarkadetan susperraldia izan zen arren, Europa zatiturik zegoen Altzairuzko Hesiaren bitartez: alde batean «sozialismo errearen» blokea, Sobietar Batasunaren menpe, eta bestean, estatu-sorta bat komunismoaren aurka eta, salbuespen garrantzitsuekin, demokrazia liberalaren balioekin eta horien defentsarekin konprometiturik zegoena, eta, behar izanez gero, Estatu Batuen arma nuklearrak zituena. Egoera horren aurrean, hau da, bi ideologiatan zatiturik zegoen lurraldearen aurrean, Milan Kundera idazle txekiarrak honako hau idatzi zuen: «Europaren ideia hiltzen ari da. Europaren bukaera da». Oraindik oso zalantzagarria zen «normalizazio-prozesua» Helsinkiko 1975eko segurtasun eta lankidetzari buruzko Konferentziarekin hasi zela esan badaiteke ere, hamabost urte geroago ordena europar bakarraren ideia oraindik ere ilusio bat besterik ez zen jende askorentzat.

Hala ere, 1980ko hamarkadan aldaketa sakon bat gertatu zen. Sobietar Batasunaren barneko metamorfosiak, Mijail Gorbaxov boterera iritsi zenean, eta Erdialdeko eta Ekialdeko Europako aldaketa iraultzaileek, garai hartan Europako Erki-degoa zenaren garapen handiarekin batera, Europaren estrategia globalak aldatu zituzten, baita bere irudia bera ere. *Perestroika* eta *glasnost* prozesu bikoitzak, Estatu Batuek lasterketa armamentistikoaren amaieran egin zuten presioarekin eta nazioarteko ekonomian gertatu ziren aldaketekin batera, Sobietar Batasunaren kolapsoa ekarri zuten antzinako Varsoviako Ituneko herrialdeetan gertaturiko iraultzen ondorengo bi urteetan. 1989. urtean pentsaezina zena gertatu zen eta Mendebaldeko Europak harridura handiz ikusi zuen herri-botereak estatuko egitura boteretik kentzen zuela «sozialismo errearen» herrietan. Horren ondorioz, Europaren egitura bipolarra bertan behera geratu zen eta eredu desberdin baterako zutabeak jarri ziren. Eredu berri hori 1990eko hamarkadan aurrera gauzatu zen, eta badirudi azkenik XXI. mendeko lehen urte hauetan jaiotzeko zorian dagoela.

Prozesu hori ez da oinazetik gabekoa izan. Alemaniaren batasuna bertako adituek aurreikusitakoa baino bizkorrago eta era ikusgarriagoan lortu bazen ere, Jugoslavia zaharraren desintegrazioak, eta ondorioz Kroazian, Bosnian eta Kosovon izandako gerrek Bigarren Mundu Gerraz geroztiko beste edozein gertakari baino europarren heriotza-kopuru handiagoa ekarri zuten. XXI. mendearen hasiera honetan, erakunde europar bateratu bateranzko ibilbidea ongi bideratuta dagoela dirudi, baina nazioarteko azken gertakariak erakutsi dute Europar elkartearen ideia ez dagoela guztiz definiturik.

Batasunaren bitartez egin beharreko berrikuntza politikoaren ideia 1940ko hamarkadan proposatu zen eztabaidatzeko, errehabilitazioa eta segurtasuna oraindik ere lehentasun nagusiak ziren garaian. 1946. urtean Zurich-en emandako hitzaldi batean, Winston Churchill-ek gerraosteko Europaren gaixotasunetarako errezeta eman zuen: «Europar Familia berrito sortzea [...] eta egitura bat ematea, zeinaren pean bakean bizi ahal izango den segurtasun eta askatasunarekin. Europako Estatu Batuen antzeko zerbait eraiki behar dugu». Orokorrean, Mendebaldeko buruzagi politikoak batasun-motaren baten ideiarekin oso alde agertzen ziren. Jean Monnet, Robert Schuman, Paul-Henri Spaak, Alcide de Gaspari eta Konrad Adenauer estatistek, pro-europar konprometituen lehen belaunaldiak izanik (Jacques Delors, François Mitterand eta Helmut Kohl bigarren belaunaldiak ziren bezalaxe), federazio europar baten premia zegoela uste izan zuten, mundu industrializatu aurreratuan existentzia zibilizatua bermatzeko.

Hala ere, iritzi publikoa oso zatiturik zegoen batasunaren gaiari dagokionez. Erdialdeko eta Ekialdeko Europako biztanleak eksklusiboki Sobietar Batasunarekin eta «sozialismo errearen» ideologiarekin erlazioaturiko batasunaren ideiarekin



menpe egon ziren. Mendebaldean, europar askok 1940ko hamarkadan amaitu berria zen gerraren eragina hurbilegi zeukaten hain aldaketa handia kontuan hartzeko. Beste asko eszeptikoak ziren europar batasunaren edozein ideiaurrean. Hala ere, Europaren batasunaren ideiak zenbait mendetako historia du. Errenazimentuko humanismoak proposatu zuen, Kristautasun Erromatarra batasun-faktore gisa gainbehera zetorrela ikusirik, eta estatu sekularrek gerrak egiteko edo beren bakeak inposatzeko zuten boterearen beldur zirela. Egoera hartan, konfederazio-motaren batek zirudien erantzun egokiena. Enrike IV.a errege frantsesari zor zaion 1610. urteko *Diseinu Handia* izan zen proposaturiko soluzioetako bat. Ondorengo ehun urteetan beste hainbat proiektu utopiko argitaratu ziren. Comenius hezkuntza-erreformatzaile moraviarrak *Proposamen Labur* bat idatzi zuen, gazteriak Europako kultura komuna ikasi behar zuela proposatuz. Baterako existentzia baketsu unibertsal baterako ustean bat zetorren William Penn eta John Bellers kuakero ingelesekin. Saint Pierre-ko Abadeak, Luis XIV.aren zerbitzura zegoen gortesau eta diplomatikoa zenak, «Errepublika Europar» baten ideia bultzatu zuen. Haren *Betiko Bakerako Proiektua* (1713) Bellers-en *Estatu Europar baten aldeko arrazoiak* (1710) idatzkiaren iritziekin bat zetorren. Izan ere, XVIII. mendeak, ilustrazioaren Aroak, lege eta ordenaren nazioarteko sistema bat eraikitzeko erretolirik landuenak ekarri zituen, baita arazo konponbide arrazionalerako eta senidetan unibertsalaren aldeko ideiak ere. 1800. urtearen ondoren, iritzi erromantiko bakartiek lankidetzaren alde hitz egiten jarraitu zuten, baina errealtate askoz ere etsigarriagoa izan zen. Metternich-eko Europako Kontzertua egoismoak gidaturiko superpotentzien klub bat besterik ez zen izan, eta europar batasunaren ametsa ehun urte baino gehiagotan bazterturik geratu zen, aldi horretako joera nagusia nazionalismo karrankaria bihurtu zela.

Xenofobia europarrak bi mundu gerrekin jo zuen gailurra. Baina azken berrogeita hamar urteotan nazioarteko lankidetzara iraukorrerako aurrerapen itzela gertatu da Europan. Lehen une azpimarragarria 1949. urtean gertatu zen, Europako Kontseiluaren ezarpenarekin. Sinatu zuten jatorrizko herriek —Belgikak, Danimarkak, Frantziak, Irlandak, Italiak, Luxenburgok, Holandak, Norvegiak, Suediak eta Erresuma Batuak— zin egin zuten prest zeudela europar batasun handiagorearen alde lan egiteko, baita demokrazia parlamentarioaren printzipioak eta giza eskubideak defendatzeko, eta Europako herri-tarren ondarea zen «dimentsio europarra» garatzeko ere. Berradiskidetzeko asmoz, Alsaziako hiriburu Estrasburgo aukeratu zuten Europako Kontseiluko organo nagusien egoitza izateko: Batzar Parlamentarioa eta Ministroen Batzordea, estatuko kideen gobernuen ordezkari gisa, nazioarteko idazkaritza baten laguntzarekin. Gaur egun bazkideen zerrendan 45 estatu daude, eta sei begirale. Kontseiluak bere kultura eta hezkuntzako arloaren bitartez sare zabal bat eraikitzea lortu du, Kultur Lankidetzarako Kontseilua, hain zuzen (CDCC deiturikoa, siglak frantsesez daudelako).

Europako Kontseiluaren lorpen asko azterlan honetan barrena ikusiko ditugu. Esanguratsuenetako bat Giza Eskubideen Konbentzio Europarra da, 1950. urtean sortu zena Estatuaren boterearen aurrean herritarren oinarritzko eskubideak eta askatasunak babesteko. Bestalde, Defentsarekin erlazioaturiko gaiak kanpo utzi ziren, izan ere, zenbait erakundeen porrota —Defentsako Erkidego Europarra eta Erkidego Politiko Europarra, esaterako— ekarri baitzuen 1954. urtean (eta Europar Batasunaren arazo handienetako bat izaten jarraitzen du gaur egun). Hasiera geldoa izan bazen ere, integrazio europarrerako aldaketa 1950eko hamarkadan bizkortu egin zen, defentsaren gaia integrazio ekonomikotik banandu izanak lagunduta. Europako Kontseilua sortzea aurrerapen handia izan bazen, 1951ko Parisko Tratatuaren eta 1957ko Erromako bi Tratatuaren sinadurek garrantzi handiagoa izan zuten. Garai hartan Belgikako Kanpo Gaietarako Ministro zen Paul-Henri Spaak-ek adierazi zuen hura izan zela «Borondatez eta antolatutik egindako eraldakuntzarik handiena Europaren historian». 1958ko urtarrilaren 1ean sortu zenez geroztik, Europako Ekonomia Erkidegoaren bazkide-kopurua laukoiztu egin da.

Beharbada, europar batasunaren sortzailerik garrantzitsuenak Monnet eta Spaak izan ziren: haien belaunaldiko estatistik gehienek baino ikuspegi zabalagoa zuten. Baina batasunaren kontzeptuak beti izan ditu interpretazio kontrajarriak, eta autonomia nazionala edo herrialdeen aniztasuna defendatzen dutenek beren jarrera oso ozenki aldarrikatzen jarraitzen dute. Zenbaitetan zaila izan da —baina ez ezinezkoa— arazo kolektibo europar batzuk adostea interes nazional irmotu-irrotuak direla-eta, batez ere subiranotasuna, inflazioa edo ingurumenari loturikoak, eta nekazaritzaren modernizazioa edo oinarritzko gizarte-eskubideen definizioa. Eta hala ere, sistema hain berezia denez, behin Erkidegoak (egungo Bata-

sunak) erabakiak hartu ondoren, horiek iraun egin ohi dute. Ildo horri loturik, eta paradoxa bada ere, EB indar kontserbadora bezain dinamikoa izan da. 1986ko Europar Batasunaren Aktak, gehiengo kualifikatuaren botoaren bidezko Tratatu-en sistema hedatu zuen; gertakari horrek garrantzi berezia izan zuen, estatu kideek bozketa-sistema hori normal eta ohikotzat hartzea lortu zuen bitarteko bihurtu zelako, Amsterdamgo eta Nizako ondorengo tratatuetan egiaztatu ahal izan denez gero. Batasunak subiranotasunaren gaiari aurre egin dio, 1992an merkatu bakarra sortuz eta 2002an moneta bakarra abian jarri.

Denboraren poderioz Europa osoko batasun federal bat lortzen bada, Helsinkiko 1975eko Konferentzia lehen urrats gisa hartuko da, bere Azken Aktan ezarri zirelako lehen aldiz segurtasunari eta desarmeari buruzko akordioak. Hala ere, 1989an izandako gertakari berezirik gabe Europa osoan batasunaren ideia planteatzea ere ezinezkoa izango litzateke. Atzera begiratu gero, Ekialdeko Europako 1980ko hamarkadako joera politikoak argi daudela dirudi. Lehenik eta behin, hamarkada horren erdialdean aldaketaren hasiera ikus zitekeen jadanik Sobietar Batasunean, haren gastu militarren eta krisialdi ekonomikoaren zama jasangaitzaren ondorioz. Berrikuntza ekonomikorako alde aurreko baldintza erreforma politikoa zen. Alderdi Komunistaren autoritate morala, Krushev-ek Stalin-i Alderdiaren XX. Kongresuan egindako erasoaz geroztik kalteturik zegoena, oraindik gehiago gainbeheratu zen iraultza boltxebikearen 70. urteurrenerako. Mendebaldeko komunikabideetan hedapen zabala izan zuten 1989ko martxoko eta maiatzeko herri-diputatuen hauteskundeek preso politikoen askapenarekin, tropa sobietarrek Afganistanetik eta Mongoliatik alde egitearekin eta negoziatzaile sobietarrek Vienan armamentuaren nazioarteko murrizketari buruz erakutsitako jarrerarekin gauzatzen hasiak ziren aldaketa politikoa azpimarratu zituzten. Gorbatxov-ek 1989-1990an hasitako lana Errusiako iraultza berri bat izan zen, eragozpen politiko eta ekonomiko etsigarriak eta egitura estalinista irmotu-irmotuak zeuden arren.

Argi zegoen Stalin eta Brezhnev-en doktrinaren ukoari ezin zitzaiola SESBren mugen barruan eutsi. 1989aren joanean *glasnost* Ekialdeko Europa osoan zabaldu zen. Banan-banan, buruzagi zaharrak, Kadar-ekin hasi eta Ceaucescu barne hartuta, boteretik kendu zituzten eta heroi zaharrak (Imre Nagy, Alexander Dubcek edo Lech Walesa eta Solidaritatea sindikatuko gainerako buruzagiak) birgaitu eta txalotu zituzten. Hungaria eta Polonia «sozialismo errearen» erregimenen makina estatalak bertan behera botatzeko eta horien ordez prozedura demokratikoak ezartzeko zereginean aitzindari izan ziren. Horien jarraitzaile Ekialdeko Alemaniako, Bulgariako, Txekoslovakiako eta Errumaniako herritarrak izan ziren, 1989ko udazkenaren joanean gobernu-porroten eta manifestazio handien segida batean, dominoaren teoriaren adibide bihurtuz. Berrogeita bost urteko *statu quo*-a hilabete gutxiren buruan bertan behera geratu zen. 1989. urtearen hasieran ohiko sendotasun-itxura zuten sistema politikoak bat-batean deseginik zeuden; berrogei urtean jasandako jarrerak eta praktikak bertan behera bota zituzten eta ahaztuta geratu ziren.

Sortu ziren indar zentrifugoek SESB bera ere eraginpean hartu zuten. Gorbatxov-en erreformen aurka zegoen sektore gogorak *glasnost* prozesua geldiarazteko egindako ahaleginek indarra hartu zuten 1989ko gertakarien ondoren. 1991ko udarako, Gorbatxov-ek egoeraren kontrola jadanik galduta zuen; porrot egin zuen estatu-kolperako ahaleginak botere sobietarren erorialdia ekarri zuen. Ondoren, lehen hauteskunde «libreak» eta Boris Ieltsin-en goraldia gertatu ziren. Azken horrek ekonomia merkatu libreko indarrei zabaldu zien, eta ongizatearen eta bizi-itxaropenaren mailen gainbehera ikaragarria eragin zuen. Testuinguru horretan, Sobietar Batasunaren kolapsoa saihestezina zen. Errepublikak baltikoak independentzia lortzen lehenak izan ziren eta oso definiturik ez zegoen Estatu Independente Berrien kontsozioak ere ez zuen asko iraun, eta horrek Kaukasoko, Erdialdeko Asiako eta SESB zaharraren mendebaldeko Estatuak independentzia ekarri zuen. Arazoak ez ziren horrekin bukatu, eta nazionalismo eta autodeterminazio-mugimendu indartsuek Mosku Txetxenian bi gerratan sar zedin eragin zuten.

Ekialdeko Europan izandako aldaketa iraultzaileez geroztik hamar urte igaro ondoren, Europa bateratu baten auzia inoiz baino hurbilago dagoela dirudi. Europako Kontseiluko bazkideak Portugaletik Georgiaraino zabaltzen dira. Ikuspegi politikoago batetik, 2003ko apirilaren Atenasen egindako Atxikipen Tratatuaren sinadurak Erdialdeko eta Ekialdeko Europako hamar estatuari Europar Batasunaren zabalkuntzarako atea irekitzen die. Bulgaria eta Errumania 2007. urtean sartzea au-

reikusita dago, baina Turkia sartzeko data oraindik ezarri gabe dago. Europa bateratu horren egitura Europari buruzko Konbentzioan eztabaidatzen ari dira, eta, bertan, egungoaren moduko gobernuen arteko sistema baten aldekoen eta Europa federala proposatzen dutenen artean etengabeko borroka dago. Alderirik negatiboenean, EBk lehen aldiz erabaki du zenbait estatu —Errusia eta Ukraina barne— etorkizunean ez direla bere egituren barne hartuko, baina ahaleginduko da horiekin harreman berezia lortzen, Batasunetik kanpo.

## ALDAKETA EKONOMIKOA EUROPAN

Indar ekonomikoak aldaketa politikoaren ispilu izan dira Europan 1945. urteaz geroztik. Gaur egun gazteriarentzat zaila da berrogei milioi gizon eta emakumeri bizitza kendu zien mundu-gerra batek Europa zein neurritaraino deuseztaturik utzi zuen ulertzea, edo nazioarteko politikari eta erakundeek 1945. urtean hasi zituzten zereginen garrantziaz jabetzea. Paul-Henri Spaak-ek 1947an ikusten zuen zona azpigaratuaren eta XXI. mendearen hasierako gizarte oparoaren arteko erabateko kontrastea, Europaren errekupeazio ekonomikoaren adibide garbia da.

Prozesu hori 1947-48an hasi zen, Estatu Batuen Marshall Plana deituriko laguntza-programa handia kudeatzeko Ekonomi Lankidetzarako Europako Erakundea (OECE) sortu zenean. Laguntza materialaren ekarpen ikaragarri hori Mendebaldeko Europako herrietara bideratu zen eskusiboki, izan ere SESBk, Ekialdeko Europako bere sateliteen izenean hitz eginez, Marshall Planari uko egin baitzion bloke sobietarraren barruan Estatu Batuen esku-hartze ekonomiko eta politikoaren beldur zelako. Ondorioz, harrezkero politika ekonomiko eta bilakaera politikoa aldi berean gauzatu ziren. Gerra Hotzak Mendebaldearen eta Ekialdearen arteko muga-lerroa gogortu zuen, eta Sobietar Batasunak Cominform ezarri zuen Ekialdeko Europako alderdi komunisten ekintzak koordinatzeko. Hurrengo urtean, Elkarrekiko Laguntza Ekonomikorako Kontseilua (COMECON) sortu zen lankidetzak ekonomikoak ziurtatzeko, eta 1955. urtean, Varsoviako Itunaren sinadurak Ekialdeko Europako herrien lankidetzak ziurtatu zuen defentsari eta segurtasunari dagokienez.

Bestalde, Ipar Atlantikoko Tratatuaren Erakundeak (NATO) mendebaldeko potentzientzako defentsa-sistema gisa funtzionatu zuen 1949az geroztik. Perspektibarekin begiratuz gero, ikus daiteke progresio logikoa dagoela politika ekonomiko aldaketetan, 1957an Europako Ekonomia Erkidegoaren eraketarekin amaitzen dela. Horren abiapuntua Belgikak, Herbehereek eta Luxenburgok 1947an sortu zuten Aduana Batasuna izan zen; ondoren, merkataritzan eta inbertsioan erantzukizunak OECE erakundea sortu zen 1948an, eta hilabete bat geroago mendebaldeko ministroek Europaren batasun ekonomiko nahiz politikoaren alde hainbat gomendio egin zituzten Hagan.

Batasun ekonomikoari dagokionez izan ziren jarrera ezberdinak paradoxa bihurtu ziren, eta horrek Europaren ezaugarri iraunkorra dirudi. Jean Monnet-ek Bigarren Mundu Gerrako bi aliatuen, hots, Frantziaren eta Britainia Handiaren ekonomiak bat egiteko gauzatu zuen proposamenari gobernu laborista britainiarrak uko egin zion, eta era berean, Frantziak bi aldiz betatu zuen Erresuma Batuaren sarrera Merkatu Komunean. Baina Robert Schuman-ek bi etsai zaharren (Frantzia eta Mendebaldeko Alemania) industria astunak litzazaren eta Altzairuaren Europako Erkidegoan (CECA) elkartzeko bideratu zuen plan ausartak lankidetzak ekonomikorako ikuspegiak eraldatu zituen, batez ere Belgikak, Italiak, Herbehereek eta Luxenburgok 1951n bazkide fundatzaile gisa barne hartzea erabaki zutenean. Hala ere, berriro ere paradoxa sortuz, 1950eko hamarkadan gertatu zen oparoaldiak bi talde ekonomiko etsai eratzea ekarri zuen. Lehenengoa, 1958an eratu zena, Europako Ekonomia Erkidegoa (EEE) izan zen, CECAko sei herriak barne harturik. Era berean, Atomo Energiaren Europako Erkidegoa (EURATOM) eratu zuten. Bigarrena, urtebete geroago eratu zena, EFTA izan zen, Europako Merkataritza Librearen Elkartea, biztanle-kopuruari eta merkataritza-bolumenari dagokienez txikiagoa zena, baina «zazpi estatu periferikoen» koalizioa ordezkatzen zuena: Austria, Danimarka, Britainia Handia, Norvegia, Portugal, Suedia eta Suitza. Geroago zenbait bazkide lekuz aldatu ziren. 1973 eta 1986 bitartean, Europako Erkidegoa *Seiak* izatetik *Hamabiak* izatera zabaldu zen (Danimarka, Irlanda, Britainia Handia, Espainia, Portugal eta Greziarekin), eta ondoren *Hamabostak*

izatera (Austriaren, Suediaren eta Finlandiaren atxikipena 1995ean). Hala ere, EEEn eta EFTAren arteko lankidetzak ekonomikoa handitu egin da etengabe, batez ere 1984. urtean Espazio Ekonomiko Europarra ezarri zuen Luxenburgoko Deklarazioa sinatu zenetik aurrera.

1970eko hamarkadaren erdialdera arte, mendebaldeko Europaren gogo-aldarteak baikorra eta espantsionista zen, handitzen ari zen oparotasun materialak bultzaturik. Aldaketa bat gertatu zen 1973ko petrolioaren prezioaren igoera ikaragarriarekin batera, mundu osoan inflazioa eta atzeraldia gertatu zirenean. Ondorio larrienak industria astun tradizionalak zituzten zonek jasan zituzten, berregituraketa-prozesuan murgilduta baitzeuden aurrerakada teknologikora egokitzeko. 1988an, oraindik hogeita bat milioi langabetu zeuden Europako Kontseiluko herrietan, eta horietatik hamasei milioi garai hartako Europako Erkidegoko herrietan zeuden. Egoera horri erantzuteko, gobernuek hainbat irtenbide ekonomiko proposatu zituzten, horietako batzuk —Erresuma Batuko thatcherismoak egindakoak, adibidez— politika neoliberalaren hastapenen joera ideologiko indartsu batek bultzaturikoak. Erantzukizun eta ekimen indibiduala azpimarratu ziren, jendea enpresa-kulturara egokitzera behartuz. Oinarriaren zati baten erantzuna negozio txikien ugaritzea izan zen, hazkunde ekonomikorako europar ahalmenaren zati bat liberatu zuena, baina horrek bigarren mailako beste zenbait ondorio ekarri ditu. Europako oinarri industrialaren berregituratze-prozesuan, lan-indarra hirugarren edo zerbitzuen sektorerak lekualdatu da, neurri handi batean. Azken hamarkadan gertatu den beste joera garrantzitsu bat globalizazio-prozesua izan da, herrien arteko mendetasun-maila handiagoetan eta lanaren nazioarteko banaketa berri batean oinarritzen dena, eta neurri handi batean nazioz gaindiko enpresek bultzatu dutena. Enpresa horiek bideratu dituzten deszentralizazio industrialerako politika berriek agerian utzi dute ekonomia globalizatuaren garapenean enpresa horiek duten protagonismoa.

Mendebaldeko Europak 1992an geldialdi eta krisialdi bat, eta 2001etik aurrera beste bat jasan baldin baditu ere, Erdialdeko eta Ekialdeko Europako herriek igaro duten trantsizio ekonomikoa askoz ere bortitzagoa izan da. «Sozialismo erreala- ren» blokea desagiteko arrazoi nagusietako bat, Estatuak zentralizatu eta kontrolaturiko ekonomi sistemaren krisialdi ekonomikoa izan da. 1989az geroztik igaro den denboran, herri horiek beren ekonomiak erabat berregituratu, eta merkatu librerak eta nazioarteko lehiakortasunera orientatu behar izan dituzte, hala Nazioarteko Moneta Fondoarekin hitzarturiko betebeharrak nola Europar Batasunean sartzeko baldintzak direla medio. Mendebaldeko Europan bezala, industria astunak berregituraketa-prozesuan aldaketa garrantzitsuenak jasan ditu, ia desagertu den arte. Errusiak eta Sobietar Batasunaren errautsetatik sortu diren gainerako herriek arazo larriagoak izan dituzte, eta gaur egun munduan desberdintasunik handienetakoak dituen gizarte batean bizitzearen ondorioak jasaten ari dira, ustelkeria-maila eta mafia-taldeek jarduna oso nabarmenak baitira.

1992tik aurrera, Mendebaldeko Europak merkatu komuna izan du, eta 2002tik aurrera, moneta bakarra hamabost estatu kideetatik hamabitan. Schengen-eko Akordioa sinatu zuten herriek —EBko denak ez diren arren— euren artean pertsonen mugimendu-askatasun ia erabatekoa baimentzen dute. Egun Europar Batasuna hogeita bost herrialdek osatzen dute. Hala ere, Europaren ekonomiaren etorkizuna ez dago argi. Atzeraldi baten arriskua dago eta 1945etik aurrera Europako ekonomiaren ezaugarri izan diren gizarte-aurreikuspeneko zerbitzuak desagin nahi dituzten presioak gero eta handiagoak dira.

## GIZARTE-ALDAKETA EUROPAN

Gizarte baten aldaketak paragrafo gutxitan laburtzea ez da erraza, baina maiz ikusi ohi da nazio europarrak berriro beren historiaren une garrantzitsu baten aurrean daudela. XX. mendearen amaierako eta XXI. mendearen hasierako presio eta eraldakuntza sozialak aldaketa ekonomikoekin erlazionatuta daude. Industria eta merkataritza gizarte europar zaharra mundu-gerren biktima izan zen. 1950eko hamarkadaz geroztik, Mendebaldeko Europaren errekonstruzioaren zati bat Mediterraneo kostaldetik eta antzinako kolonietatik zetozen langileen migrazioaren ondorioz gertatu zen. Beraz, biztanle-

riaren osaera eta egitura asko aldatu da azken berrogeita hamar urteotan, Europatik kanpo jaiotako pertsonak hogeita hamar milioi baino gehiago baitira. Duela zenbait hamarkada ezarri ziren komunitateez gain —adibidez, afro-karibetarra Erresuma Batuan, magrebekoa Frantzian edo turkiarra Alemanian—, azken urteotan migrazioak asko handitu dira Saharaz behetiko Afrikatik, Asiatik eta Latinoamerikatik. Erdialdeko eta Ekialdeko Europako herrietan gertatzen ari den merkatu libreko ekonomiaranzko trantsizio-prozesuak eta herri baltanikoetako gerrek jende-emari handiak bideratu dituzte Mendebaldeko Europarantz. Kulturartekotasunaren gaia kezka nagusia da gobernu europarrentzat, edo izan beharko luke behintzat.

Biztanleriaren egitura ukitzen duen beste faktore bat biztanle europarren ugalkortasun-tasaren beherakada da, jaiotzak gutxitzea ekarri duena, eta aldi berean bizi-itxaropena handitu egin da (Errusian izan ezik), eta biztanleriaren zahartzea ekarri du. Gainera, ez dirudi desoreka hori datozen urteotan konponduko denik.

Sexuen arteko berdintasunaren onarpenak, partziala den arren, emakumeen lanerako eskubidearen ondoriozko autonomia ekonomikoa barne hartuz, lan-indarraren osaera aldatu egin du 1970eko hamarkadatik aurrera. Adibidez, emakume ezkonduak lan-indarraren gorakadari egindako kontribuzioa 1975-80 urteetan %100ekoa zen Suitzan, %70ekoa Danimarkan eta %60koa Norvegian.

Azken hogeita bost urteetako beste gizarte-fenomeno azpimarragarri bat familiaren egonkortasuna txikitu izana da. Ezkontza-krisiak eta familia tradizionalaren desagetea, giza eta finantza-kostuen ikuspegitik ebaluatuz, karga garrantzitsutzat hartzen dira gizarte modernoan. Europako zenbait hirigunetan haurren %20 guraso bakarreko familietan bizi dira.

1980ko hamarkadan beste fenomeno bat gaineratu zitzaion bizi-mailen aniztasunari hainbat herrialdetan eta gizarte-taldeetan artean: etxerik gabeko pertsonen eta droga-mendetasunen edo HIESaren ondorioz gizartearen bazterretara bultzatutako pobrezia berria deiturikoa; Europako kontsumoko gizarte oparoaren beste aldea bizitzea egokitu zaie kaltetu horiei. Industri kutsaduraren zorigaitzoko biktimak ere barne har daitezke. 1970eko hamarkadaren erdira arte, jendeak zientziak eta ekonomiak bere bizi-maila hobetzeko zuten ahalmen mugagabearekin konfiantza azaldu zuen. Aurrerapen handiak gertatu ziren aisialdiari eta mugikortasun-aukerei dagokienez, eta bizi-itxaropena eta osasun-mailak hobetu ziren. Ekonomiaren hazkunde iraunkorra, erabateko enplegua, eta gero eta bizi-maila hobek zurratuko zituen, zentzuzko helburutzat jotzen zen herri industrializatuetan. Pluralismo handiagoa izateak prezio arazoizkoa zirudien kontsumoko gizarte oparo baten truke.

Ekonomi zabalkundearen prozesuak izan zuen geldialdiak astindu sakona eragin zuen gizarte horretan. Zeuden arazoak handitu egin ziren, eta gizartea langabezia masiboaren hondamena jasaten hasi zen. Ez zen gazteria bakarrik izan zutabe tradizionalak —familia, Eliza, eskola, legeak— uko egin eta haien ordean hedonismoaren gurtza, bandalismoa eta indarkeria aukeratu zituen. Denbora igaro ahala, gizartea konturatu zen hazkunde ekonomikoa ez zela indar betiraunkor bat, grabitatea bezala, eta ezin ziola gizarte-aurrerapen mugagabe bati eutsi. Langabezia faktore iraunkor bihurtu zen 1980ko hamarkadan, eta orduz geroztik maila kezkagarritan jarraitu du Europa osoan. 1981ean Europako Erkidegoko langabetuen %40 hogeita bost urtetik beherakoak ziren, eta zifra hori ez da asko hobetu gaurdaino. Mendebaldeko gobernuak dis-funtzio horiei erantzuten ahalegindu ziren ekimen-mota berri bat sortuz. Horrek zera zekarren: hainbat aberastasun-iturritarako sarbidea, hirugarren sektoreari laguntza ematea, eta gizarte-gaietan enpresaburuen jarrerak eta hizkera aprobetxatzea. Aldi berean, erreakzio bat gertatu zen industrializazioaren eta materialismoaren gizarte-kostuaren aurrean. Ingurumena babesteko berdeen mugimenduak milioika lagunuen interesa erakarri zuen Europan, ekimenaren eta erantzukizunaren arteko tirabira sortuz. Zalantzarik gabe, garai hartan zenbait herritan giro sozial desberdin bat azaleratu zen, baina hamabost urte geroago oraindik goiz da epe luzean izan ditzakeen ondorioak ezagutzeko.

Kezka hori informazioan oinarritutako ekonomien izaera konplexuak sortu du, fenomeno horrek mundu osoa eraginpean hartzen baitu modu batean edo bestean. 1980ko hamarkadatik aurrera, Mendebaldeko Europa informazioaren gizarte

post-industrial bihurtu zen, informazioaren sorkuntza, prozesaketa eta transmisioa jardura nagusi gisa duen gizartea. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek (IKTB) gure kultur ingurunea sakonki aldatu dute. Baina aldaketa-aren abiaduraren azelerazioak eta teknologia berriek jauzi kualitatiboak eragiten dituzte, eta horien ondorioez erabat jabetzea zaila da. Dakigun gauza bakarra zera da: «gizartearen historian lehen aldiz, gizakiaren borondatearen arabera berri daitekeen eta bere kabuz ere sor daitekeen funtsezko baliabide batean oinarritzen da ekonomia». (1) Baliteke IKTBen ondorio sozialak irakasleentzat erronka garrantzitsu bihurtzea. Beldur hori izanik, Hezkuntzari buruzko Carnegie Batzordeak ondorioztatu zuen lehentasun garrantzitsuena «alfabetatze teknologikoa» zela; hau da, pertsonak ez dugu soilik teknologia gure gizartea nola, noiz eta zergatik itxuraldatzen ari den ulertu behar, hori zalantzan ere jarri behar dugu.

1957. urtean Sputnik-a bidali zuenean, Sobietar Batasunak ez zuen soilik espazioaren konkista hasi, satellite bidezko komunikazio globala ere hasi zuen. Erdialdeko eta Ekialdeko Europan, Gerra Hotzaren joanean, goi-teknologia armadarentzat eta Estatuarentzat erreserbatuta zegoen. Hogeita hamar urtean geldialdi sozialeko egoera bat izan zen jende gehienarentzat, 1956ko matxinada hungariarraren eta 1968ko Pragako Udaberriaren salbuespen laburrekin. *Glasnost* aldian, gizarte sobietarrak izan zituen presioak Mendebaldeko tirabirak baino askoz handiagoak ziren. SESBko biztanleen bizi-maila munduko berrogeita hamar eta hirurogeita hamargarrenaren artean zegoela kalkulatu zen, eta berrogei milioi pertsona inguru pobrezia-atariaren azpitik bizi ziren. Abortu-tasa munduko handiena zen, haurren heriotza-tasa Mendebaldeko herrietakoaren bikoitza zen, eta are okerragoa zen Erdialdeko Asia sobietarreko zenbait lekutan. Merkatu libreko urteek ez dute egoera hobetu; alderantziz, zenbait adierazle okerrera egin dute. Alkoholismoak oso gizarte-gaixotasun larria izaten jarraitzen du; indarkeriazko krimenen kasuak nabarmen areagotu dira.

Erdialdeko eta Ekialdeko Europako herriek 1989an heredatu zituzten atzerapen sozial eta ekonomikoak ezberdinak ziren herri batetik bestera. Bizi-mailak ezberdinak ziren batez ere nekazariak ziren Errumaniako biztanleen eta Txekoslovakia-ko langile kualifikatuen artean. Herri horiek Europar Batasunean sartzeko egutegian islatu dira diferentzia horiek. Hala ere, Mendebaldeko Europan ere desberdintasun sozialak handiak dira. Nazioarteko erakundeek, besteak beste, Europar Batasunak, politikak koordinatzen badituzte bakarrik lor daiteke ekitate sozial handiagoa, aldi berean bizi-mailak hobetzen direla. Europako Batzordearen Gutun Soziala, Europar Batasunaren justizia sozialaren aldeko programen funtsa da. Aurrekari gisa aipa daitezke Europako Kontseiluaren Gutun Sozial Europarra eta Iparraldeko Kontseiluaren lana, azken horrek 1952az geroztik herri eskandinaviarrentzat kohesio sozialeko mailak ziurtatu baititu.

Epe luzean, hala ere, harmonizazio soziala eta nazioarteko elkar aditzea hezkuntzaren eta oinarri-oinarrian gauzatutako lankidetzaren bitartez bakarrik garatu ahal izango dira. Aurrekari garrantzitsuak hainbat organoren lanean, Sindikatuen Konfederazio Europarra edo Tokiko eta Herialdeko Agintarien Konferentzia Iraunkorra, esaterako. Hezkuntzaren alorrean EBren hainbat programa daude, hala nola: ERASMUS, unibertsitate-mailan trukeak sustatzen dituen; COMETT, hezkuntza eta trebakuntza teknologikorako ekintza-programa; YES (Gazteria eta Gizarte Lan Europarra); EU-RYDICE, Europar Batasunaren hezkuntza-informaziorako sarea, eta Zentro Europarrak, beren bazkideen artean benetako espiritu europarra sortzeko ahalegina egiten dutenak. Proiektu eta erakunde horiek, lankidetzaren bitartez delatzen egiaztatzen duten adibide argi dira. Europako Kontseiluak adierazi zuenez: «Haren itxura edozein izanik ere, europar lankidetzaren bitartez, enpresaburuak, sindikalisten, talde profesionalen eta, oro har, herritarren eguneroko bizitzan barne hartuta dago». Hezkuntza ere elementu garrantzitsua da joera horretan; izan ere, Europari buruzko hezkuntzak eta elkarren menpeko Europa batean bizitzeko hezkuntzak XXI. menderako lehentasun sozialak izaten jarraitzen dute.

## HEZKUNTZA: ALDAKETA SOZIALAREN ISLA

1945etik aurrera, hezkuntzak Mendebaldean berrikuntza-prozesu sakona izan du, aldaketa sozialekin bat etorritik. Demokraziak herentzian bi ondare kontrajarri utzi ditu: alde batetik, berdintasunaren ideala, eta bestetik, eskubide eta askatasun

indibidualen nozioak. Igualarismoak oso balio handia ematen dio hezkuntza unibertsalari giza ahalmen guztia garatzeko bitarteko gisa, eta Bigarren Mundu Gerraren ondoren hezkuntza-aukerak hedatzeko eta gerra aurretik zeuden zatiketa sozialak konpontzeko ahaleginak egin ziren. Herriaren babes handia zegoen ekimen asko gauzatzeko, hala nola: eskolaurreko hezkuntza sartzea, derrigorrezko oinarrizko irakaskuntza hobetzea, derrigorrezko hezkuntzako urte-kopurua handitzea, goi-mailako hezkuntza eta prestakuntza hedatzea, eta ikasketa-planaren ikuspegia zabaltzea ikasleen gaitasun-maila guztiak kontuan izanik. Baina demokrazian irudikatzen diren askatasun indibidualaren eta aukeratzeko eskubidearen kontzeptuek uniformetasun berdintzaileari eragozpenak jartzen dizkiote. Mendebaldeko Europan zaila da desberdintasun eta anomalia zaharrak ezabatzea; aniztasun handia dago oraindik ere, eskola laikoen eta erlijiosoen arteko edo sistema erabat zentralizatuen eta oso deszentralizatuen arteko dikotomiak agerian uzten duenez, adibidez.

Ekialdeko eta Erdialdeko Europan, 1989ra arte, igualitarismoak desberdin funtzionatzen zuen. Emakumearen diskriminazioa zegoen, baina Mendebaldekoa baino txikiagoa zen; lan fisiko gogor gehienetan parte har zezaketen emakumeek. Berdintasun sozialaren printzipioa ezarrita egon arren, Alderdiko eliteek abantaila asko lortzen zituzten. Hala ere, 1989ko iraultzak gertatu arte, aniztasuna eta eraldakuntzak ez ziren hain begi-bistakoak, ortodoxiarekiko eta plangintza zentralizatua arduratzen ziren agintariak hartutako erabakiekiko desbiderapena ekartzen zutelako. Hezkuntza gizarte demokratikoetan, berriz, ezin da inoiz ere egonkorra izan, herritarrek eskubidea dutelako irakasleek eta legeriaren arduradunek beren premia aldakorrei erantzun egokia eman diezaieten. Izan ere, sinbiosia dago aldaketa sozialaren eta hezkuntzaren artean. Horrela, masen kontsumo-gizarte baten bilakaera, eta hurrengoren oinarritutako hezkuntza baten garapena eta familien aldetik aukeratzeko askatasunaren eskaera handiagoa aldi berean gertatu ziren. Gizarteak aukera-berdintasunaren alde duen gero eta jarrera handiagoa azpimarratzen du sexu-estereotipoak saihesteko ardurak. Ekialdeko nahiz Mendebaldeko Europa osoan nagusi bihurtu den enpresa-kulturak kostuei dagokien eraginkorra izango den eta gizarte teknologiko baten premietara moldatzen den hezkuntza bat eskatzen du. Elkarmenpeotasuna nazioarteko harremanetarako lelo berria denez gero, eskolaren eta irakasleen zereginak familiekin, erkidegoarekin eta komunikabideekin lankidetzan aritzeko erlazio bihurtu behar izan du.

Gaur egun, goi-teknologiaren inpaktua hezkuntza eta bizimoduak eraberritzen hasia da gure informazioaren gizartean. Hezkuntza, orain, bizitzaren joanean gauzatzeko etengabeko prozesutzat jotzen da. Prozesu horretan, pertsonen beren ahalmena garatzeko eta inguru aldakor batera moldatzeko aukera handiagoak izan ditzakete, eta eskola pertsonaren bazkidetzat hartzen da eta ez hezkuntzaren eragile bakartzat.

Hezkuntza-prozesuan haur-hezkuntzako eta lehen hezkuntzako hasierako urteak funtsezkotzat jotzen dira geroko ikas-kuntzarako oinarri sendoa emateko. Etapa horretan hurrek oinarrizko trebetasun kognitibo eta sozialak bereganatzen dituzte; adibidez, irakurtzea eta idaztea, zenbakiekin lan egitea, eta komunikatzeko gaitasuna. Jarrerak eratzen dira eta jokabide toleranteak, sormenezkoak, demokratikoak eta solidarioak bultzatzea daitezke. Azkenik, bigarren hezkuntzako eskolan eta helduaran, gehiago gara daitezkeen ezagutza-esparru bat ezarri behar da. Atzerriko hezkuntza bat esfortzurik gabe ikasteko oinarriak ezartzeko eta «etxe komun europarrako» enpatia haurren irudimenean barneratzeko oinarriak une horretan ezarri behar dira.

Hezkuntza europarraren arduradunek hainbat lehentasun izan behar dituzte kontuan. Lehenik eta behin, hezkuntza profesionaleko sistema dinamikoen plangintza, eta finantzaketan irudimena eta ikuspuntu egokia ezinbestekoak dira, irakasleei estatus handiagoa emango dietelako, eta ikasgelan malgutasuna eta berrikuntza, eta informazioaren teknologia berrien aprobetxamendua sustatzen dutelako. Gainera, erabakiak hartzen dituztenek gogoan izan behar dute hezkuntzak helburu bikoitza duela: kulturaren sustrai positiboak eustea, eta, aldi berean, bizkor aldatzen ari den gizarte batean fruitua emateko gaitasuna duten hazi berriak ereitea. XXI. mendearen hasierako testuinguru europarrean, horrek europeismoaren zentzua lantzea eta irakaskuntza osoan dimentsio europarra ezartzea dakar. Gazteei gizarte europarrean bizitzeko eta lan egiteko hainbat trebetasun ematea ere badakar. Hala ere, Europak aurrera egin dezan, bere herritarrek berezkoa duten dinamismoa erreperatu behar dute, baina ez zentzu atabikoan, baizik eta hurrengo belaunaldiari animuak emateko.

nez elkarren menpeko mundu baten erronkei aurre egiteko, jarrera baikorra azalduz eta balio europarrekin konpromisoa hartuz.


Dimentsio europarra barne hartzen duen hezkuntza hedatzeko zeregina une honetan gobernu nazionalen erantzukizuna da. Europako Kontseiluaren eta Europar Batasuneko adituek, aholku ematen dutenean, herrien arteko aniztasuna errespetatzen dute. Hala ere, azken erabakia gobernuetako ministroen esku dagoen arren, onartu behar da programen arrakasta irakasleen konpromiso eta gaitasunaren, eta zuzendaritza-langileen gidaritzaren menpe dagoela. Pertsona horiek, eta soilik beraiek, lor dezakete Europa ikasketa-planean ezartzea.

Azterlan honen helburua prozesu horretan inplikaturiko gaiak ikertzea da. Ikasketa-plan osoaren ikerketa eginez, liburu honek aurrerapen-arloak biltzen ditu, oraindik ebatzi gabeko arazoak eta etorkizuna duten garapenak adierazten ditu, eta hezkuntza-zerbitzuek Europan mende berriaren aurrean dituzten erronkak zehazten ditu.

---

(1) Balle, Francis (1991), 'The information society, schools and the media' (Report for the sixteenth session of the Standing Committee of European Ministers of Education), Eraut, M (koord.), *Education and the Information Society*, London: Cassel, 88. or.





# 2

## EUROPA IKASKETA-PLANEAN SARTZEA



- ZERGATIK EUROPARI BURUZKO IRAKASKUNTZA?
- EUROPA IKASKETA-PLANEAN:  
ZEREGINAREN NONDIK NORAKOA
- ZER DA EUROPA? DEFINIZIO-ARAZOAK
- IRAKASKUNTZARAKO KONTZEPTU BAT
- IKASKETA-PLANERAKO INPLIKAZIOAK

## ZERGATIK EUROPARI BURUZKO IRAKASKUNTZA?

Europako gazteentzat, hezkuntza «europarra» beharizan politiko, ekonomiko eta sozial bat da gaur egun, baita beren kultur ondarearen baieztapena ere. Adierazpen hori nahikoa da bigarren hezkuntzako eskolako ikasketa-planean dimentsio europar koherentea sartzeko justifikatzeko. Horixe da hezkuntzaren alorreko Europako erakunde profesional gehienek ikuspuntua. Nazioarteko erakunde nagusien politiken oinarrian ere barne hartuta dago, adibidez, UNESCOn eta Kultur Lankidetzarako Kontseiluan, zeinak Europako Kontseiluaren hezkuntza arloko interesak ordezkatzeko dituen.

Europako ikasketa-plana gauzatzeko ardura duten agintariak jadanik ezin dute alde batera utzi Europari buruz irakatsi eta ikasteak duen garrantzia. 1949az geroztik, Europako Kontseiluak Europaren batasunaren ideiarekin eta europarren aurreko belaunaldiengandik oinordetzan jasotako ideal eta printzipioen babesarekin bat egin zuenetik, gazteek Europako ondare konpartitua ulertu eta baloratu behar zutela errepikatu da behin eta berriz. Handik bost urtera, Europako Kultur Konbentzioa sinatu zuten gobernuek Europako hizkuntzen, historiaren eta zibilizazioaren ikasketa sustatzeko konpromisoa hartu zuten. Une horretatik aurrera, hezkuntzaren alorrean ikuspegi esplizituki europarrerako oinarriak ezarri ziren. Hala ere, historiak erakutsi du belaunaldi batek ereindako ideiek denbora behar dutela ernamuindu eta loratzeko. Hezkuntzari dagokionez, ideiak eztabaidatu, gelan frogatu eta ebaluatzeko denbora jakin bat igarotzen da. Europako zenbait herrialdek Europari buruzko ikasketei loturiko prozesu hori garatu zuten hirurogeiko hamarkadaren amaieratik aurrera.

Oro har, gizarte demokratikoetan onartuta dago hezkuntzak zerikusia duela pertsonen —bereziki neska-mutilek— beraiei eta beste buruz dituzten ezagutzak gehitzearekin, beren esperientzia zabaltzearekin eta, ondorioz, munduaren ulermenearekin. Bigarren hezkuntzaren etapa garrantzitsua da, aldi horretan haurtzaroan eskuratutako iritziak sendotu eta zabaltzen direlako; pertsona helduek kanpoko munduarekiko dituzten jarrerak eta portaera-patroiak, ordea, nerabezaroan eskuratutako esperientziaren eraginez mugatuta daude. Adituek askotan analogia bat erabiltzen dute neska-mutileen ikaskuntza ikasleen ezagutzen egituraketa sekuentzialaz eta ikasleen jardueren progresioaz baliatzen dela azaltzeko. Haur batek egiten duen kanpoko munduaren kontzeptualizazioa zirkulu zentrokideen taldekatze baten modura erakusten da. Barneko zirkuluak bere auzo, hiri edo etxaldeko kaleak eta lekuak irudikatzen ditu. Auzoko giro horretatik kanpo, haurrak, era berean, barne hartuta dauden beste «zirkulu» edo komunitate batzuetan. Beraz, eskolaren lehen jardueren artean, bertakoa izatearen —eskualde historiko, probintzia, geografi area edo barrutikoa— sentsazio zabalagoaren garapena dago; eta, distantzia handiagoan baina bere herritarren identitate eta leialtasun berezi batekin elkartuz, Estatu-nazioko komunitatekoa izatearen sentsazioa. Azkenik, haur guztiak nazioarteko komunitate bat badagoela jakin behar dute. Herritar bakoitza, zibilizazio komun batekoak izateagatik erlazioan dauden nazioek osatutako familia bateko kide da, eta pertsona guztiak elkartzen dituen komunitate global bat dago.

Lehen ikasgaia kontzientziazioa izanik, bigarren ikasgaiak harremanak lantzen ditu. Europako gazteak jabetu behar dira beren nazio-familiak gero eta elkarmenpekotasun eta erantzukizun lotura handiagoak dituela. Antzina, nazioarteko harremanetan nagusi ziren gaiak, hala nola hurbiltasun geografikoa, erlijioa edo liskar dinastikoak, gaur egun, ez dira hain garrantzitsuak. Ekonomia globalak pragmatismoa, adostasuna eta ekintza bateratuak exijitzen dituen errealismo berri batera bultzatu gaitu. Beraz, gazteek ikas dezaten lortu behar dugun hirugarren ikasgaia elkarlanean aritu beharra da.

Azkenik, harmonizazio, esperientzia konpartitu eta uniformetasun handiagoa duen gizarte baterantz goaz. Gaur inoiz baino gehiago, gure nazio-familiak, Europak, alegia, norbanako heldu nahiz gazteen eguneroko bizitzan eragiten du. Gure gustukoa izan ala ez, Europaren zati handi batek aurrerantzean milioika herritarren bizitzan eragiten jarraituko duten auzitegi, lege, organo parlamentario, ministro, batzorde eta funtzionarioen marko instituzional bat badu jada. Arrazoi hori kontuan izanik —soila baina oso garrantzi handia duena—, Europako hurrek gizarte europar baten barneko bizitzarako

prestatzeko eskubidea dute. XXI. mendearen hasieran, Europari buruzko irakaskuntza eta ikaskuntza lehentasunezko gaitzat hartu behar dira.

Hezkuntza-arrazoi horiek, nazioartean garrantzi handia izan duten zenbait gertakari politikotan oinarritzen dira. Gertakari historikotzat hartzen da, adibidez, Europako Erkidegoko Hezkuntza Ministroen Kontseiluak 1976. urtean «lehen eta bigarren hezkuntzako irakasle eta ikasleen esperientzia europar dimentsio batez hornitzeko» ekintza-programa bat bateratzeko hartu zuen erabakia. Halakotzat har daiteke ere Europako Kontseiluaren Ministroen Komiteak 1983. urtean egin zuen gomendioa, estatu kideek bigarren hezkuntzan Europari buruzko sentsibilizazioa bultzatu behar zutela adierazten zuena. Zirkunstantzia politiko eta sozialak hezkuntzaren teoriaren eraldaketekin bat datozenean, boterea eta eragiteko ahalmena dutenek jarduteko ausardia izan behar dute. Shakespeare-ren Julio Zesarrek dioen bezala: «Giza gaietan bada marea bat, itsasgoran hartuz gero zorionera bideratzen dituena».

Europako garapenaren erritmoa aldatzeko hiru joera garrantzitsu elkartu dira. Lehena Europaren eraikuntzaren sakontze-prozesua da, gaur egun Europako Kontseiluaren eztabaidatzen ari dena; bigarrena teknologia berrien garapenean datza, Europako herritarren artean loturak sortzeko aukera paregabeak zabaltzen baititu. Hirugarren joera, hogeigarren mendeko bigarren erdiko zatiketak gaintzen dituen Europa hedatu eta batu baten aukera da. Hedapen eta batze horiek 1990. urtean hasi ziren eta 2004. urtean amaituko dira, Erdialdeko eta Ekialdeko Europako kide berriak Europar Batasunean barne hartzen direnean. Testuinguru horretan, argi dago hezkuntza-politikak programa azeleratu batekin erantzun behar duela europar nortasunaren zentzua sustatzeko eta gazteak etorkizuneko erkidego polifazetikoan beren gain zeregin bat har dezaten prestatzeko.

## EUROPA IKASKETA-PLANEAN: ZEREGINAREN NONDIK NORAKOA

Errakuntza larria izango litzateke irakasleek erabat berria den arlo batean sartzen direla pentsatuko balute. Azken hogeita hamar urteak irakasleen ahalegin garrantzitsuen lekuko izan dira; izan ere, ahalegin horiek lagungarri gertatu dira ikasketan planean Europaren parametroak perfilatzeko, eta erakusten dute «europar hezkuntza» ez dela soilik azken urteotan izan diren gertakariei eman zaien erantzun bat. Erakunde askok azpimarratu dute europar hezkuntza berrogeita hamarreko hamarkadaz geroztik. Kontsortzio garrantzitsu batek, hots, Europar Etxeen Nazioarteko Federazioak (FIME, siglak frantsesez baititu), 64 erakunde barne hartzen ditu 16 herrialdetan, eta Irakasleen Prestakuntzarako Europako Institutua babesten du, Berlingo Europako Akademiaren barnean, Europari buruzko irakaskuntzarako mintegien nazioarteko zentro bihurtu dena. Curriculum-ikerketako sareetarako ardura duen beste erakunde bat *Centrum voor Europese vorming in het Nederlandse onderwijs* (CEVNO) da. Erresuma Batuan, bigarren hezkuntzako eskolek beren kabuz hartu zuten Ikasketa Europarren jakintzagai berri bat garatzeko ardura. Hala ere, ekimen nagusiak Kultur Lankidetzarako Kontseiluarenak eta Europako Erki-degoarenak izan dira 1976tik aurrera. Bi erakunde horien arteko lankidetzak gai horien garapen nabarmena ekarri du lau-ogeiko hamarkadatik aurrera, Musikaren Urte Europarra eta Gazteriaren Nazioarteko Urtea antolatu zirenean.

1989an, Europako Kontseiluaren parlamentuaren Biltzarrak 1983an onartu ziren europar sentsibilizazioari buruzko gomendioen indarraldia berretsi zuen. Era berean, Biltzarrak europar dimentsioarekin erlazionatutako estrategia berriak hartzea gomendatu zuen eta Ministroen Komiteari Europar Batasunarekin, herrialde izangaien gobernuekin eta UNESCO-rekin lan egitea eskatu zion. Urtebete lehenago, Europako Erkidegoko Hezkuntza Ministroen Kontseiluak europar dimentsioa bigarren hezkuntzako eskolen jakintzagai guztietan barne hartzeko lehen plana aurkeztu zuen. Estatu kideei Europari buruzko sentsibilizazio-programak lantzeko neurri nazionalak garatzeko zeregina eskatu zitzaion.

Ikus daiteke zenbait adierazpen errepikatzen direla, hala nola: «europar sentsibilizazioa», «europar dimentsioa», «Europa ikasketa-planetan» eta «europar hezkuntza». Termino horiek hala eztabaida informaletan nola dokumentazio ofiziale-

an erabiltzen dira. Ikasketa-planaren bi alderdiri buruzkoak dira: ikaskuntzaren edukia eta irakaskuntza-prozesua. Zer esan nahi du horrek zehatz-mehatz? Lehenik eta behin, prozesuak ikasleen ezagutzen kalitate eta hedapenaren hobekuntza dakar, Europa funtsezko puntu bihurtuz eskolako eguneroko esperientzian. Era berean, Europako gaiak —Historia, Geografia, Atzerriko Hizkuntza, Arteak— lantzen dituzten jakintzagaiak beste ikuspuntu batetik aztertzea dakar, Europari buruzko irakaskuntzari egindako ekarpena berrikusteko. Bestalde, gaur egungo Europan eragina duten jakintzagai berriagoak ere —Politika eta Gizarte Zientziak, Ekonomi Zientziak, Ingurumen Hezkuntza— ikasketa-planean barne hartu behar dira hezkuntza osatuagoa ziurtatzeko. Politika hori egin ahal izateko, lehenik zenbait galdera egin behar dira. Adibidez: Ba al dago ikasleek bigarren hezkuntza amaitzen dutenean Europari buruz izan beharko duten behin betiko ezagutza-multzo bat? Eskura dagoen informazio-masa guztiaren artetik, nola defini eta hauta daitezke ezinbesteko ezagutzak? Zein ezagutza-mota da egokia ikasleen garapen-etapa bakoitzerako? Nazioen edo eskualdeen lehentasunei tarte bat utzi behar al zaie? Nola antola daitezke Europari buruzko ezagutzak ikasketa-planaren barruan, irakaskuntza eragingorria ziurtatzeko? Galdera horiek arazoaren zailtasuna erakusten dute.

Argi utzi behar dugu ezagutzak ikaskuntzaren alderdi bat besterik ez direla eta irakaskuntza ikasleei informazioa transferitzea baino askoz gehiago dela. Jakiteak beste prozesu batzuetarako tranpolin gisa jardun behar du, adibidez, ikasleengan erantzun eta jarrera positiboaren sustapenerako, eta zentzu horretan Europa bitarteko emankorra da balioak transmititzeko. XXI. mendeko Europa gero eta gizarte pluralista eta parte hartzaileagoa da. Esperientziaren alderdiak hezkuntzan lehentasunezko zatitza jotzen dira eta bizitzarako prestakuntzak honako hauek barne hartu behar ditu: moldagarritasuna, mugikortasuna, soziabilitatea, eta komunikazioan teknika menperatzea eta arintasuna izatea. Mugikortasunerako eta trebetasunak baliatzeko gaitasuna azpimarratzen da. Europari *buruz* eta Europaren *bitartez* ikasteaz gain, ikasleak Europan bizi eta lan egiteko erronkari aurre egin behar dio, bere potentziala gauzatzeko eta bere eskubide demokratikoak erabiliz.

«Europar dimentsioak» ikasketa-planean gai horiei guztiari erantzun behar die. Hala ere, gutxienezko homogeneotasun bat izateko, europari ikasketa-planek zenbait kasu komun izan behar dituzte abiapuntu. Ikasketa-planerako inplikazioekin hasi baino lehen, aztertu behar dugu «Europatzat» zer ulertzen den.

## ZER DA EUROPA? DEFINIZIO-ARAZOAK

Espezialista ez den edonorentzat, «zer da Europa» galderak erraza dirudi, baita erantzunak ere. Hala ere, esperientziak erakusten digu gai horrek ikuspuntu kontrajarriak edo idealaren eta errealitatearen arteko bereizketa lausoa sortzen dituela. Gaia saihestea ohiko erreakzioa da eta honako honen gisako erantzun barregarriak eman izan dira: «Zaila da elefante bat definitzea, baina bat ezagutzen dut ikusten dudanean». (1) Arazoa zera da, gai hori maila intelektual batean baino gehiagotan interpreta daitekeela.

Azken mendean, Europaren gaiak eztabaida bizia sortu du zehaztasun akademikoa ezartzeko kezka azaldu duten geografio, historialari eta filosofo profesionalen artean. XX. mendearen bigarren erdian, pertzepzioen sorkuntzaren alderdirik garrantzitsuenak Alzairuzko Hormaren existentzia izan zen. Bi aldeetan zegoen informaziorik ezak honako sententzia hau sortu zuen: «beste Europak» ez zuela garrantzirik. Europako Kontseiluak aurreko mendeko berrogeita hamarreko eta hirurogeiko hamarkadetan egiten zituen inkestek hainbat oztopo azaleratu zituzten, Mendebaldeko Europako bigarren hezkuntzako ikasleei kontinentearen pertzepzio orekatua, informatua eta muinbakarra izatea eragozten zieten oztopoak, hain zuzen ere. Hutsune horiek 1970eko hamarkadan sendotu egin ziren, hezkuntza-sistemak Mendebaldeko Europako alderdi komunetan edo eskualdetan, adibidez, EEEko herrialdetan, oinarritzeko joera izan zuelako. Gainera, eskoletako irakasleek eta goi-mailako hezkuntzako mailen arteko komunikazio-maila ez zen nahikoa, eta horrek esan nahi du zegoen informazioa ez zela konpartitzen, ez eta hedatzen ere. Estatu-nazioen edo eskualdeen Europari buruzko eztabaidak, gaur egun indarrean jarraitzen dutenak,aldi horretan sortu ziren Charles de Gaulle-ren edo Alemaniako zenbait *Land* edo es-

kualdetako ordezkarien diskurtso politikoekin, eta Europa eskualde banatua zela zirudien. Berlingo Harresiaren erorketa, eta Erdialdeko eta Ekialdeko Europako herrialdeetan izandako sistema-aldaketak kontuan izanik, mende berrian Europaren esanahia berriz planteatu behar izan dugu. Zenbaiten ustez Europa definitzeko gaitasuna diziplina bat baina gehiagotan aditua den pertsona batek bakarrik izan badezake ere, eskoletarako soluzio praktikoa zera da: Europari buruzko ikuspuntu berria diziplina anitzeko zeregin gisa hartzea. Ez dago erantzun behar den galdera bat bakarrik, zenbait galdera baizik: ez da soilik zer galdetu behar, *non*, *nola*, *zergatik*, *noiz* eta *nor* ere galdetu behar da.

Lehen galderarekin hasten bagara, pertsona gehienek Europari buruz termino espazialean pentsatzen dute. Hitz hori adierazpen geografiko baten modura erabiltzen dute, lur-azalera garrantzitsu bat aipatzeko. Urrunago ere iristen dira, eta «Europako kontinentea» aipatzen dute. Hala ere, garbizaleek definizio horri uko egin diote oso estatikoa delako, eta lur-azalera hori era askotakoa delako eta oso zatitua dagoelako. Jean Gottmann-ek, errusiarra jaiotzaz eta Oxford-eko Unibertsitateko geografia irakasleak, aldaketa politiko eta demografikoen arabera igo eta jaisten den «mareen Europa» kontzeptua proposatu zuen. Lehenagoko teoria batek, Halford J. Mackinder-enak (1904), errusiar inperioa Eurasiaren «zentrotzat» edo «funtsezko zonatzat» hartu zuen, mendebalderantz zegoen lurraldea (Europa gisa ezagutzen duguna) eranskin edo «azpikontinente» soil bat izanik. Harrezkero, Europaren definizioa behin eta berriz berrikusi da. (2)

Europa kontinente gisa sailkatu zuten lehenengoak antzinako greziarrak izan zirela esan ohi da. «Europa» hitza lehen aldiz erabili zutenak izan ziren, baina beraientzat Greziako kontinenteko lurak eta Kristo aurreko 6. mendea baino lehen iparralde eta mendebalderantz kolonizatu zuten eskualdea adierazten zituen. Genesiaren Liburuan adierazten den tradizio hebraitarrek eta Kristoren ondorengo bigarren mendean Ptolomeok emandako munduaren ikuspegiak Europa lurreko hirugarren kontinente gisa berretsi zuten. Beraz, garai klasikoaz geroztik, astronomoen, kartografoen eta beste zenbait adituren kezka nagusia Europaren ekialdeko muga izan zen: non amaitzen da Europa eta hasten da Asia? Erantzunetako bat Louis Morerik eman zuen *Grand Dictionnaire Historique* hiztegian (1683): «marra bat marrazten bada Don edo Tanaï ibaitik Obi ibaira, eta gero iparralderantz Ozeano Artikora, ezkerrean geratzen den guztia European barne hartuta dago eta eskuinean geratzen dena Asian». (3) Hala eta guztiz ere, XIX. mendeko hainbat unetan geografoek Europaren muga «naturala» Errusiako ibai nagusietako bakoitzean ezarri zuten, Dniester ibaitik hasi eta Yenisei ibairaino. Ondoren, gehienak Uralak Mendikateko mendien eta ibaien arteko muga konbinatuaren alde agertu ziren. Baina auzia ez zen une horretan amaitu.

Oso eragin handia izan duen *Study of History* obran, Arnold Toynbee filosofoak geografoen lanbidea kritikatu zuen Uralak Mendikatea oso izen ezagun bihurtu zutelako, Ingalaterra hegoaldeko Chiltern Hills mendixkek baino garrantzi handiagoa ez zuten arren. Toynbeek honako gertakari historiko hau azpimarratu nahi zuen: errusiarrek ekialderantz hedatzeko joera izan dutela Yermak kosakoak XVI. mendean Ural Mendiak zeharkatu zituenetik, eta une horretatik aurrera Siberia modu iraunkorrean Errusiaren eraginpean geratu zela. Haren tesia geografo fisikoen eta klimatologia-adituen iritzia aurkakoa zen, izan ere, horien ustez Siberiako topografia eta klima «ez-Europarrak» zirelako. Etorkizunean, Siberia European sartzearen auzia bere ekialdeko kostaldeak erabakiko du, Errusiaren barruan jarraitzea edo Ozeano Bareko herrialdeekin elkartzea erabakitzen duenaren arabera. Bitartean, Gordon East geografoak eztabaida horretan iritzi eszeptiko bat gaineratu du, Uralak Mendikatea Europaren ekialdeko muga izatearen esanahia zalantzan jarriz. Hala ere, Europa eta Errusiaren auziak gaur egun dagoen eztabaida politiko beroenetakoa izaten jarraitzen du. (4)

Halford Mackinder-ek lurralde zentralari buruzko bere teoriarekin Errusia European sartzearen auzia hankaz gora jarri bazuen ere, Mijail Gorbatxov-ek berriro plazaratu zuen «Europa gu guztion etxea da» adierazi zuenean. Presidente sobietarraren kezka nagusia mendebaldekoiei zera gogoraraztea zen: sei hamarkadako isolamenduaren ondoren ere, herri errusiarrek bihotzez europarra izaten jarraitzen duela. Zenbait adituk ez zuten modu berean pentsatzen. Toynbeez gain, Klyuchevsky errusiarra eta Halecki historialari poloniarra Reynold suitzarrarekin ados agertu ziren honako hau esan zuenean: «Errusia ez dago European barruan... Errusia European antitesi geografikoa da». (5)

Irizpide geografikoak soilik kontuan hartuz, bi eskola daude: baztertzalea eta pragmatikoa. Pragmatikoak SESB zaharren barneko zatiketa bat onartzen zuen, eta bere ustez Errusiaren mendebaldeko lurraldeko gune politiko eta kultural historikoek —Kiev, Novgorod, Mosku eta San Petersburgo— «Errusia Europarra» osatzen zuten. Kontzeptu horren sustrai historikoak eztabaida akademikoa hasi baino lehenagokoak dira. XVI eta XVII. mendeetan, mendebaldeko askoren ustez «Moscovia» Europar nazioen familatik kanpo zegoen. Sullyko Dukeak, adibidez, Errusia XIII. mendean mongolek egin-dako inbasioen ondorioz herrialde asiarrak moldatu gabetzat jo zuen. Orduz geroztik, Errusia Mendebaldeko Europako eragin kultural eta ekonomikoetatik bananduta zegoen eta isolamendu politiko, sozial eta espiritualetan garatu zen. Erdi Aroko adituek, ordez, Errusiaren ondare eta jatorri eslaviarra, Moskuk «Hirugarren Erroma» gisa duen tradizioa, eta kristautasun erromatarraren eta bizantziarraren arteko harreman sinbiotikoa azpimarratu zituen. Era berean, akademiko moder-noek erakutsi dute Errusiar Inperioak, lehenik, eta Sobietar Batasunak, ondoren, Europar politikaren zurrunbiloan parte hartu zutela. Sobietar isolamenduaren hirurogeita hamar urteak europar bidetik aldi baterako desbideratzea izan direla argudia daiteke .

Iragan sobietarrak Mendebaldeko eta Ekialdeko Europaren artean zeuden harremanen pertzepzioa ere ukitzen zuen. 1979. urtean herri poloniarren aurrean emandako hitzaldi batean, Joan Paulo II.a aita santuak honako hau adierazi zuen: «Ez al da ba Espiritu Santuaren borondatea aita santu poloniarrek, aita santu eslaviar honek, une honetan bertan Europa kristauaren batasun espirituala aldarrikatzea?» Handik denbora gutxira James Joll historialariak gaur egun agerikoa dirudiena adierazi zuen, hau da, Ekialdeko Europak eta Errusiak tradizio komuna dutela mendebaldearekin batera, eta Europak berriro Kracovia, Wroclaw, Budapest eta Goethe-ren Weimar barne hartzen dituela.

Hori guztia hezkuntzaren ikuspuntutik hartuz gero —ikasketa-planen, baliabideen, liburuen, irakasleen profesionaltasun eta esperientziaren, eta beren prestakuntzaren ikuspuntutik—, 1990etik aurrerako errealitateak arazo handiak sortu dizkie irakasleei. Mende erdi batez, ikasleek mendebaldeko herrialdeen Europari buruz ikasi zuten, eta Atlantikotik Ural Mendietaraino doan Europaren ideia erabaki gabe zegoen oraindik ere. Telekomunikazioetan izandako iraultzak chauvinismoa borrokatzen lagundu duen arren, irakasleek bakarrik erabaki dezakete arazoa noraino iristen den. «Europar bateratzearen» atarian gaudenez gero, interesgarria izango litzateke Italia edo Greziako haurrei galdetzea zenbat dakiten herrialde eskandinaviarrei buruz, edo Portugaleko haurrei galdetzea zer ikasi duten Poloniako geografiari buruz. Zer dakite Belgikako ikasleek herrialde baltikoen historiari buruz? Zer dakite Ingalaterra eta Galeseko ikasleek Bulgaria edo Errumaniako bizi-baldintzei buruz? Europar esperientziaren aberastasuna eta aniztasuna hurbileko iraganaren ikuspegi bipolar baten atzean ezkutatutik zegoen. Gorbaxov Presidente ohiak egin zituen galderek indarrean diraute Europari buruzko hausnarketa egiteko. Nola transmiti diezaiekete irakasleek beren ikasleei Europan «etxean» daudela? Zein etxe komun mota izango da eredu? Metaforarekin jarraituz, nolakoa izango da gure etxe komunaren arkitektura? Nola eraikiko da eta nola beteko altzariz? (6)

Errusiaren arazoa garrantzitsua den arren, ez ditugu beste gai garrantzitsu batzuk ahaztu behar. Europar gehienek ez dute zalantzan jartzen Europaren existentzia, ez eta bertan barne hartuta daudenik ere. «Tradizio kontinental» errealitate politiko eta kulturala izan da mendeen joanean (periferian bizi direnek argi eta garbi antzematen duten bezala). Tradizio horren jatorria, neurri handi batean lotura komuna da, herri askorentzat antzina mendebaldean erromatarren edo karolinjioen inperioan barne harturik egon izanak edo Goiz Erdi Aroan kristautasunera bildu izanak dakarren lotura komuna, hain zuzen ere. Oso normala dirudi herri kontinentalek, erabat edo partzialki lurrez inguratuta daudenek, «lurralde-mentalitatea» garatu izana. Hala ere, Europak 80.000 kilometroko kostaldea du, ekuatoreari bi itzuli osorik ematea bezain luzea, eta, era berean, uharte ugari dauzka, britainiarrak, adibidez, baita hainbat penintsula handi ere, Eskandinavia, esaterako, Europa kontinentalarekin zerikusirik ez duten esperientziak dituztenak. Intsularitate britainiarrak, adibidez, indar handia izaten jarraitzen du eta gaur egun oraindik ere bertako jendeak hitz egiterakoan «Europara joatea» edo «Britainia Handiaren eta Europaren arteko loturak sortzea» esateko joera dago. Islandia, Malta eta Zipre europartzat hartzen dira, lehenengoak beste biekin klimari edo iraganean loturarik izateari dagokionez oso zerikusi txikia duen arren. Eta zer esanik ez Groenlandiari buruz, munduko uharterik handienari buruz, alegia, Danimarkako erresumaren eskualde autonomia-

duna baina kontinente Ipar Amerikarraren alboan dagoena, zirkulu polarraren barruan baitago, eta ez zona epel batean. Azore irlak ere, XV. mendeaz geroztik Portugalen barnean eta mendebaldeen dagoen artxipelagoa, nekez barne har daitezke Europan. Kasurik korapilatsuena beharbada Turkia da, historikoki Asia Txikia gisa ezagutua izan dena, zeinaren sultanago otomandarra Balkanetako lau mendetako okupazioan kristautasunaren eta Habsburgeko etxea nagusi zen Europan zigorra izan baitzen. Gaur egun NATOk eta Europako Kontseiluko kide da, baina Europar Batasunean sartzeko egin duen eskaerak errezelo handia sortzen du oraindik ere. Bistan da, beraz, ez dagoela auzi horientzako erantzun errazik.

Anomalia horiek definizio geografiko zurrun baten mugak azaleratzen dituzte. Horixe izan zen Jean Gottmann-en «Mare-en Europari» buruzko teoriaren argudio nagusia, baita Hans Freyer filosofoaren adierazpenena ere. Azken horren ustez, Europa kontinente bat da ez bere izaeragatik, baizik eta bere historiagatik. Ikuspuntu hori bera adierazi zuen Geoffrey Barraclough historialariak: «Europa terminoak ez du neurri finko bat ordezkatzeko; izan ere, ideia historiko batean datza». Historiak iritzi horren aldeko frogak eskaintzen ditu, adibidez, erromatar inperioan eta Erdi Aroan kontzeptu alternatiboak nagusitu izana. *Pax Romana*, *Res publica Christiana* edo *Civitas Mundi* terminoak erabili ziren historia europarraren milurteko bat deskribatzeko, eta Europa terminoa oso gutxi erabili zen. Barraclough-ek argudiatzen du «Europa» Errenazimentuko historialarien asmamenaren ondorio dela, Errenazimentuan hedatzen ari zen munduari zentzuren bat aurkitu nahian zenbiltzala; garai hartan gertatu zen *kristautasuna* terminotik *Europa* terminorako aldaketa kontzeptu definitzaile gisa. Beste historialari ingeles batek, R. A. Wake-ek, honako hau adierazi du: «Aldaketa-prozesu bizkor batean sartuta dagoen gizarte horretan (XV. mendearen amaierakoa eta XVI. mendekoa), gero eta gutxiago erabiltzen da *Kristautasuna* hitza, eta gero eta gehiago *Europa* hitza; azken horrek kristautasun banandua, tirabiratsua, agresiboa eta espantsionista izendatzen zuen». (7)

Adjektibo horiek Aro Modernoan azalera zuen dinamismo-mota ulertarazi nahi dute. Barraclough-ek dioenez, «Europarrek izarretara heltzea izan dute beti helburu», eta Denis de Rougemont aditu suitzarrak honako hau dio: «Europarra da beti urrunago doana, naturak ezarritako mugak gaindituz, bere arbasoek ezarritako tradizioak gaindituz, baita norbere burua gaindituz ere, abenturaren bila». Bietako inor ez da dinamismo europarra bakarrik dela aldarrikatzera iristen, baina Richard Hoggart-ek ezaugarri horixe aukeratu zuen Europa «kontinente geldiezia» gisa definitu zuenean. (8) Horren ebidentzia ez dugu soilik espezia bila zebiltzala Esperantza Oneko Lurmuturra igaroz Ekialde Urrunerako itsasbidea aurkitu zuten nabigatzaile portugesen esperentzian, edo Ekialdeko Indiak eta Australia esploratu zituzten merkataritza holandesetan, edo beren kabuz Mundu Berria bizileku hartu zuten *konkistatzaileetan*, edo Ipar Amerikako kostaldea esploratu zuten eta bertan geratu ziren, eta ondoren ia mundu osoan zehar hedatu, hura kolonizatu eta bertan merkataritzan jardun zuten britainiarretan, edo Siberiako ibai-bideak ustiari zituzten eta ingurune babesgabe bat zeharkatuz Txinara, Zirkulu Polarrera eta Pazifikora iritsi ziren kosakoetan. 1870. urtetik Lehen Mundu Gerraren hasierara bitartean emigratu zuten 34 milioi europarretan ere badugu, baita 1939. urtean Europako mugetatik kanpo bizi ziren europar jatorriko pertsonetan ere, Europako gutxi biztanleen laurdena baitziren.

Aipamen horiek zibilizazio europarrari, hots, mundu osoan eragina izan duen eta, era berean, kanpoko eraginak jaso dituen kultura bati buruzko iruzkin bat dira. «Kultura» hitza hemen ez da erabiltzen lorpen artistikoei buruz hitz egiteko, sinismen, balio eta bizimodu komunek batzen dituzten pertsona-multzo bat deskribatzeko baizik. Beste hitz batzuk erabiliz, Europa bereizten duenaren zati bat bere herrien izaeran aurkitzen dela esan nahi da. Haren balioetako askok sustrai sakonak dituzte iraganean, eta mendeen poderioz eraldatu dira. Hiri-zabalkuntza eta industrializazioa sortu zituzten indar ekonomikoen aurrean asmamena eta moldagarritasuna zuela erakutsi zuen bertako jendeak. R. A. Wake-ek Europa definitu du «ideia eta jarreraren jokotzat, denbora luzez munduko beste zona batzuetakoa baino askoz aurreratuagoa zen garapen teknologikoaren babesa izan duena», eta ez du alderdi hori azpimarratzen beste zibilizazio batzuekin alderatuta inolako nagusitasunik adierazteko asmoz, Europan berezitasunen eta ezberdintasunen adibide bat jartzeko baizik. (9) Bere aniztasuna, konplexutasuna eta pragmatismo sortzailea dela medio, Europak kontinente «kontraesankorra» eta «hauskorra» izatearen ospea bereganatu du. (10)




## IRAKASKUNTZARAKO KONTZEPTU BAT

Bat egiten duten ezagutza-arloetan hainbat interpretazio biltzeak sortzen dituen arazoak argitu nahi izan ditu eztabaida horrek. Eta definizioa argitzeko lagungarri al da? Europako irakasleek ahots bakarrarekin hitz egiten ez duten arren, se-guru aski interpretazio okerrak eta nahasmena sor ditzakeen formula esoteriko baten aurka egongo lirateke. Ikasketa-pla-naren diseinurako ez da baliagarria, ezta egokia ere, Europa, adibidez, harreman-sorta baten emaitza gisa deskribatzea, edota balio jakin batzuk arau bihurtzen diren lekuzat deskribatzea. Europar hezkuntzako sistema uniforme bat ez dago-enez, irakasle gehienek beren eskolako egoera partikularrean egoki dezaketen definizio errealista eta ulergarri bat bila-tzen dute. Izan ere, irakatsi behar duten ikasketa-planaren baliotasun akademikoaz ziur egon nahi dute.

Europa ez da kontzeptu erraza: nozio konplexua da, hiru dimentsio dituena. Hemen, kontzeptuzko prozesua eta kontzep-tu horren funtsa erakustea aukeratu dugu, elkar loturik dauden eraztunen diagrama bat erabiliz (1. irudia).

1. Irudia Europar dimentsioa



Erdian Europa dago, funtsezkoak dituen denbora, area eta kulturaren dimentsioetan barne hartuta. Ezagutzen alderdi desberdinak badira ere, era berean, ikuspegi asko barne hartzen dituzte. «Kulturak», lehen aipatu den bezala, gizarte baten ezaugarri partikularrak adierazten ditu, baita zibilizazio baten oinordetza sortzailea ere; «denborak» ez du iragana bakarrik adierazten, oraina eta etorkizuna ere adierazten baititu. Gainera, hiru osagaiek elkarren artean dihardute etengabe: horrela, Europaren lorpen artistikoak eta haren oinordetza multikulturala denboraren emaitza dira, eta ingurune europarrak bere herrialdeetako bakoitzaren bizitzeko estilo eta gizarte-lehentasunen aniztasuna islatzen du. Irakasleek kontzeptu horrek definizio entziklopediko bat erabiltzera behartzen dituela senti dezaketen arren, lasaitu beharko liriateke kontuan izaten badute «Europa denbora, area eta kultura gisa (TAC)» gida-printzipio bat besterik ez dela eta hainbat interpretazioarekin aplika daitekeela. Hala ere, abiapuntu gisa Europaren ezaugarri espazialak, denborazkoak, giza mailakoak eta kualitatiboak behar bezala baloratzen dituen ikuspegi bateratu bat izatea oso garrantzitsua da. Europako Kontseiluaren espezialisten sinposium batek puntu hori azpimarratu zuen duela bi hamarkada baino gehiago, honako hau proposatu zuenean:

Bigarren hezkuntzarako, Ipar Lurmuturretik Mediterraneoraino, eta Islandiatik eta Roca Lurmuturretik Ural Mendietaraino zabaltzen den zona geografikoan bizi diren herrien iragana, oraina eta etorkizuna gisa defini daiteke Europa. Ez da inolako erakunde europarretan parte hartzearen sinonimotzat hartu behar. (11)

Zenbait irakasleren ustez esaldi hori murriztaileegia den arren, hiru dimentsioko definizio argia dela onartuta dago.

## IKASKETA-PLANERAKO INPLIKAZIOAK

### Ezagutza eta kontzeptutarako helburuak eta ikuspegiak

Ezagutzekin hasiko gara, irakasle guztiek ulertzen duten gaia baita. Ezagutzen —hots, eduki objektiboaren— helburu nagusia ikasleei informatzea da, iritzi arrazoituak eman, eta zentzuz eta gizalegez erantzun ahal izan dezaten. Hala ere, ez dago Europari buruzko ezagutzen multzo mugatu bat, Europari buruz irakasteko metodologia bakar bat ez dagoen bezala. Ezagutzen transmisioan, irakasleek diskriminazio zorrotza egin behar dute, ikasleek ezin dutelako informazio-masa amorfo bat bereganatu. Zein irizpide erabili behar dira Europari buruzko edukia aukeratzeko?

*Guidelines on European Awareness* argitalpenean, Europako Kontseiluak hiru funtsezko gomendio egiten ditu edukien aukeraketari loturik. Lehenik, Bigarren Hezkuntzako ikasketa-plana Lehen Hezkuntzako urteetako lanean oinarritu behar da. Bigarren, ikaskuntzaren nolabaiteko koherentzia bermatu behar du irakaskuntzak. Hirugarren, ezagutzek Europak berezkoa —baita bakarra ere— duena islatu behar dute. Laugarren gomendio bat barne hartu behar dugu: edukiak praktikoa eta enpirikoa izan behar du, dimentsio europarraren nondik norako dinamikoa agerian jartzeko. Ikasketa-planak lantzera-koan funtsezkoak diren irizpide horiek argi eta garbi uzten dute edukien aukeraketa zeregin zaila dela.

Gaur egun, Europari buruzko edukia, ikastetxe gehienetan, hainbat jakintzagai tradizional, Historia, Hizkuntza Modernoak edo Geografia, esaterako, ematen dituzten irakasle espezialisten erantzukizuna da. Gainera, lehendik adierazi den bezala, badago espazio bat beste zenbait Giza Zientziatarako, Arte Ederretarako baita Natur Zientziatarako ere. Praktikan, Europa hainbat diziplina-oinarriren gainean kokatuta dago. Egoera osasuntsua da hori, erakusten duelako Europari buruzko irakaskuntza jakintzagai bakar baten eskumena ez dela eta ez duela izan behar. Europa alderdi asko dituen kontzeptua dela onartzen badugu, Europari buruzko ikaskuntzak hainbat metodologia erabiltzen dituen diziplina anitzeko ariketa izan behar du. Zeharkako zabalkundearen maila handitzeko presioa badago ere, arrazoi garrantzitsuak egon daitezke europar dimentsioaren zuzendaritza irakasle espezializatuen eskuetan uzteko, eta Europako Kontseilua jakintzagai tradizionaletan oinarritzen den ikuspegiaren alde agertu da askotan. (12)

Hala ere, bananduta dauden departamentuen sistema batean ikaskuntzaren jarraitutasuna eta koherentzia bermatzea zaila da. Europako Kontseiluak arazo hori onartu du, eta eskolek zeharkako loturak ezartzeko ekimen bereziak har ditzaten gomendatu du. Adostasuna zenbait neurriren bitartez lor daiteke: eskolaz kanpoko ekintzen bitartez, hainbat jakintzagaitako irakasleen parte-hartzearekin; hainbat irakasleren artean helburu komunei buruzko kontsultak maiz eginez edo europar dimentsioa ohiko ebaluazio-prozedurei lotzearen bitartez. Beste aukera bat, muturrekoa bada ere, irakaskuntza-sistema ezberdin bat hartzea da. Irakaskuntzarako edukiak aukeratzeko oinarri logikoa zeharkako helburuak izango balira, jakintzagaien araberako egungo egituretan oinarritu beharrean, errazagoa izango litzateke jakintzagaiak kontuan hartuko litzatekeen baina horien menpe egongo ez liratekeen helburu berriak ezartzea. Edukia helburuetan oinarrituz aukeratu litzateke. Europako Kontseiluaren *Guidelines* deiturikoek onartzen dute «posible dela Europari buruz irakastea jakintzagai bananduen bitartez edo *diziplinarteko ikastaroen bitartez*». Baina europar dimentsioaren ikaskuntza zeharkako gai gisa garatzeko erronkaren aurrean, eskolek beren irakaskuntza-egiturak berriro ebaluatu beharko dituzte eta beren antolamenduan aldaketa nabarmenak egin beharko.

Azken batean, europar ikasketen irakaskuntzarako hiru ikusmolde daude: jakintzagai indibidualen bitartez, diziplina antzeko ikusmoldearekin, edo diziplinarteko ikusmoldearekin. Bigarren ikusmoldean, irakasle-talde batek lankidetzan dihardu jakintzagaiak osagarri diren eta gainjartzen diren ikastaro bat irakasteko, eta ideien arteko erlazioa arakutzen da. Metodo hori Eskozian Ikasketa Modernoen ikastaroetan eta Alemanian *Gemeinschaftskunde*-etan erabiltzen da. Hirugarren ikusmoldearekin puntu komunak ditu, baina ez dira ikusmolde berdinak. Bertan irakasle bakoitzak jakintzagaien arteko mugen gainetik zeharka doazen eduki europarren laburpen bat irakasten du. (13) Diziplinartekotasuna ezagutzak kontzeptu modura asimilatzeke praktikari lotzen zaio. Prozedura hori Berlingo Akademia Europarrean ezarri eta erabili zen lehen aldiz, Gunter Renner-en zuzendaritzapean. Gako-kontzeptuen ideia, era berean, hirurogeiko hamarkadaz geroztik 11 eta 16 urte bitarteko ikasle britainiarren Ikasketa Europarren plan askotarako oinarria izan da. Hainbat diziplinarteko eredutan (integratuak deiturikoak) oinarritzen ziren, normalki Historia, Geografia eta Gizarte Ikasketak Hizkuntza Modernoko osagai batekin konbinatzen zituztenak. Haren ahulezia (eta Erresuma Batuan jakintzagai minoritarioa izaten jarraitzeko arrazoa) ez da kontzeptuen ikusmoldearekin izandako arazoen ondorio, jakintzagai bakoitzaren berezko metodologia ezberdinak kontserbatzeko edo horiek beharrezkoa den zehaztasunarekin aplikatzeko zailtasunaren ondorio baizik. 1986. urtean, Europako Batzordeak eta Irakasle Sozialisten Elkarteak kontzeptuen ikusmoldean argiago oinarritzen zen Berlingo Akademia Europarraren ekimen bat babestu zuten. Orduz geroztik, integrazio eta lankidetzaren europarrari buruzko irakaskuntzarako ikusmolde askorekin esperimentatu da, eta gai hori oraindik ere indarrean dago gaur egun.

Kontzeptutan oinarritzen den ikusmoldeak zenbait abantaila ditu: alde batetik, lehen hezkuntzako eskola askotan erabiltzeko irakaskuntza-estilo malguen nahasketa batekin ikaskuntza harmonizatzen du eta horri jarraitutasuna ematen laguntzen du; bestalde, mendebaldeko eskoletan gero eta gehiago erabiltzen diren plangintza eta gainbegirapen koordinatuak gauzatzeko aukera ematen du; eta azkenik, baina aurrekoak bezain garrantzitsua izanik, kontzeptuen erabilerak Europaren alderdi bereizgarri eta funtsezkoen ikaskuntza hobeto bideratzen laguntzen dio irakasleari. Abantaila horiek ikusirik, irakasleentzat baliagarria izan daiteke Europari buruzko irakaskuntzan hogeitau hamarkadaz zerranda kontuan izatea, izan ere, ikasleei Europaren ulermena erraztu behar dieten kontzeptu, trebetasun, jarrera eta balioak erabiliz aurkezten baitira. Helburu horiek irakasle espezializatuarekin pentsatuz bildu ziren, baina, era berean, sentsibilizazio europarrari buruzko zeharkako programetarako lagungarriak izango dira.

Diziplinarteko ikastaroen sarreraren ondorioz sortutako gaiei buruz hiru ikuskari Europar ospetsuk beren aholkularitza ere eskaini zuten CDCCren *Innovation in Secondary Education in Europe* izeneko argitalpenean. (14) Argi utzi zuten diziplinarteko irakaskuntza ez zela aukera erraza, eta honako azpítitulu hau ere jarri zuten: «Mina-zelai bat arduragabeentzat». Irakasleek konbentzita egon behar dute beren esperientzia eta profesionaltasunaren bateratze-lanaren bitartez zenbait helburu errazago lortuko dituztela metodo tradizionalen erabilerarekin baino. Beren autonomiaren zati bati uko egiteko eta plangintza koordinatzen nahiko denbora luzea igarotzeko prest egon behar dute.

Zuhurtziarekin jarraituz, kontuan izan behar da kontzeptuak arreta handiz zorrotzu behar diren tresna kamutsak direla. Adibidez, bereizketa bat dago gako-kontzeptuen (edukiak antolatzenko diagnosi-tresna gisa baliagarriak diren ideia orokorrak) eta prozedura-kontzeptuen (ikaskuntzaren prozesu metodologikoz arduratzen dira) artean. Gainera, ezberdintasuna dago bi kategorien artean eta ezaugarri, eskumen eta balioen arlo lausoenarekin elkarturik dauden eta balio-kontzeptu gisa ezagutzen diren kontzeptuen artean (zenbait espezialistak prozedurazko balio deritze: ikus 1. Taula). Hori guztia ez da zorrotasun semantiko hutsa. Esanahian erlazionatuta dauden arren, kontzeptu-mota horiek hainbat funtzio dituzte. Gako-kontzeptuak, ikasketa-planaren kanpoko markoa ezartzen duten aterki-terminoak dira. Edukiak aukeratzeko, orokorretik zehatzagora joan behar dugu, kontzeptuak lehendabizi gai zabaletara eta ondoren kasu praktikoetara murriztuz. Prozesu horretan, balioen kontzeptuak diskriminazio-tresna gisa baliagarriak dira ikasketa-planaren zeharkako gaiak eta ondoren ikasketa-unitate txikiagoak, kasu praktikoak, ezartzeko. Burutzapen-metodoak ere adierazten dituzte, prozedura-kontzeptu egokienak definituz. Eskola bakoitzean dauden baldintzak kontuan izan behar badira ere, eduki-aukeraketak espezifikaturiko kontzeptuak zehaztasun handiz islatu behar ditu, eta bai gaiek baita kasuen azterketek ere baliozkoak eta koherenteak izan behar dute. Irizpide horiek kontrol-zerrendak erabiliz egiazta daitezke. Plangintza xehatua aurrera, barne harturiko trebetasunei ere denbora eskaini behar zaie. Azkenik, ikasleen adin eta gaitasun-maila bakoitzarekin bat datorren estrategia eta ezagutza-mailen progresio bat ezarri behar da, etengabeko ebaluazioa egitea ahalbidetuko duena.

## 1. Taula Europar dimentsiorako kontzeptu egokien adibide batzuk

Funtsezko kontzeptuak	Balioen kontzeptuak	Prozeduren kontzeptuak
		Metodologia Ikerkuntza Ebidentzia
Batasuna	Berdintasuna/Unibertsaltasuna, Integrazioa/Internazionalismoa, Lankidetzaren/Elkartea/Federazioa	Ikuspegi globala/Indukzioa, Orokortzea, Korrelazioa/Koordinazioa
Dibertsitatea	Aniztasuna/Multiplicitatea, Desberdintasuna/Oparotasuna	Paradoxa/Kontrastea, Dedukzioa
Aldaketa	Iraultza/ Erreforma, Igoera/Gainbehera, Aurrerapena	Prozesua, Kausa/Ondorioa, Ebaluazioa
Jarraitutasuna	Tradizioa/Ohiturak/ Erakundeak, Bilakaera	Batasuna, Koherentzia
Interdependentzia	Interkonezioa/Lankidetzaren, Pluralismoa, Afiliazioa/ Komunikazioa, Tolerantzia	Elkarrekotasuna, Kooperazio Aktiboa, Harremanak, Aurreiritziak gabeko pentsaera
Gatazka	Boterea, Gerra/Borrokak, Nazionalismoa, Xenofobia	Antitesia, Dialektika, Desadostasuna
Askatasuna	Giza Eskubideak eta Askatasuna, Justizia/Indibidualtasuna, Demokrazia/Autodeterminazioa, Erradikalismoa/Matxinada/ Subertsioa/Anarkia	Errespetua, Originaltasuna, Parte-hartzea, Inkonformismoa
Segurtasuna	Sozialismoa, Kolektibismoa/Zentralizazioa, Totalitarismoa, Bakea/Ordene/Ez-biolentzia	Konpromisoa, Agintea, Erabakitasuna, Ulerkuntza
Arazionaltasuna	Legaltasuna, Erantzukizuna/Moderazioa, Arazoimena	Analisisa/Kritika, Esperientzia/ Objektibotasuna, Adimena/Interpretazioa
Hunkiberatasuna	Sorkuntza Adierazpena, Kultura, Sentsibilitatea/Gizatasuna	Esker ona/Sentsibilizazioa, Erpatia, Subjektibotasuna
Materialismoa	Kapitalismoa/Aberastasuna, Hirigintza/ Industrializazioa/Kutsadura, Zaharkitzapena, Birbanatzea	Ekimena/Hautaketa, Errepikapena/Pragmatismoa, Aisialdia/ Birgaikuntza
Espiritualtasuna	Balioak/Idealak, Etika/Moralitasuna Ondarea	Tolerantzia, Irudimena, Zaintza
Naturalismoa	Zainketa/Moderazioa, Ambientalismoa/Kontserbazioa, Osasuna	Oreka, Intuizioa, Jarduna
Sistematizazioa	Antolamendua/Produktzioa, Estatutuak/Sozietatea/Sailkapena, Teknologia	Sistemak/Ereduak/Metodoak, Kategoriak, Gaitasun teknikoak
Antzekotasuna	Komunitatea/Komunalismoa Homogeneitatea/Uniformetasuna	Konparazioa, Analogia/Eredua
Desberdintasuna	Gutxiengoa, Hierarkia, Desbideratzea	Idiosinkrasia, Hautakortasuna/Diskriminazioa, Banaketak/Berezitasuna

## Helburuak, trebetasunak, jarrerak, balioak eta ezaugarriak

Bada kontzeptu alternatiboetan oinarrituriko ikuspegi bat, gizarte-zientzietako irakasle askok gomendaturikoa. Eredu alternatibo horrek ezagutza-kontzeptuak ordezkatu egiten ditu erabakigarri gisa ikasketa-planean, haien ordez balioak eta balio-kontzeptuak jarrita. Europako Kontseiluaren *Guidelines* deiturikoez lehenetsuna ematen diete balio-kontzeptuei, esaterako, demokraziari, giza eskubideei, askatasunari, tolerantziari eta pluralismoari. Europako Kontseiluak Gizarte Hezkuntza eta Giza Eskubideetako Hezkuntzari buruz egindako lanaren zati handi bat balioen zentraltasunean oinarritzen da. Hasiera batean, honako bi akats hauetako bat izaten zuen balioetan oinarrituriko plangintzak: edo ez zegoen helburu argi eta eskuragarri, edo adierazpen hotsandiko gehiegi zegoen, antolaturiko edukirik gabekoak. Horren alde zera esan liteke, humanitateak eta gizarte-zientziak irakasteko alde aurreko justifikazioak balioetan adierazten direla normalean; hortaz, argudia liteke badaudela arrazoizko argudioak ikaskuntza-prozesua balio-kontzeptuen inguruan antolatzeko.

Zehazki esanda, mugimenduak hezkuntzari dimentsio europarra emateko erabiltzen dituen helburu nagusiak balioen eta jarreraren hizkuntzan laburbil litezke, eta hori oso argi nabarmentzen da 15-20 helburuetan, kapitulu honen amaieran dagoen hogeitau helburuko taulan. Ikasleei nolakotasun positiboak garatzeko laguntzeak duen garrantzia azpimarratzen dute: sentsibiltatea, enpatia, errespetua eta tolerantzia besteekiko eta haien balioekiko, erantzukizunaren zentzua eta lankidetzarako jarrera. Hala ere, norberaren ezagutza eta nortasun-kontzientzia garatzeko aukera alde aurreko premia da, familiar oinarriturikoa, eta ondoren, filiazio erregional, etniko eta nazionalen. Leialtasun horien artean, estatu-nazioaren nortasuna izan da filiaziorik erabakigarriena Europar azken 150 edo 200 urteetan. Dena den, ez dago nahitaezko kontrastanik aberri bateko kide izatearen eta nortasun europarraren artean. Lehen hezkuntzako irakasle europarren talde baten honako hau adierazi zuen, bere esperientzia abiapuntutzat hartuta:

Europarantz orientaturiko mentalitatea gizabanakoa bere berezko herrialdean «kokatuta» badago soilik da posible. Haurrak euren jaioterrira lotuta sentitu behar dira kontzientzia europarra garatu aurretik [...] Geroago, sentimendu nazionalak eginkizun txikiagoa izango dute, eskualde-mailako talde zabalagoetako kide izatea azpimarratuko da geroz eta gehiago, eta orduan errazagoa izango da Europarako leialtasun komunaren nozioa gauzatzea [...] Lehen hezkuntzako irakasleen zeregin premiazkoena ikasleengan Europarako hurbiltze emozionala piztea izango da: elkar ulertu eta errespetatzeko, eta elkarrekin bizitzeko gai izan behar dute guztiek ere [...] Aldi berean, euren harrotasun abertzaleari eta euren jaioterrirako amodioari eutsi behar diete, mentalitate europarreko pertsona bihurtzen diren bitartean. (15)

Zeintzuk dira bigarren hezkuntzako ikasleentzako inplikazioak? Kontzientzia europarreko erabateko zentzua gara al liteke dimentsio europarra ikasketa-planean sartuta? Iruzkina eskatzen du bigarren galdera horrek. «Kontzientzia europarra» ez da eurozentrismoarekin nahastu behar, «kontzientzia nazionala» eta xenofobia pareko ez diren modura. Funtsezko galdera horietarako erantzunak CDCCren programa «europarretan» daude modu inplizituan bilduta: abiapuntutzat hartzen duten suposizioa honako hau da; gazteek Europari buruz zenbat eta informazio hobea izan eta sintonia handiagoa lortu haren balioekin, orduan eta gehiago garatuko dute «benetako kontzientzia europar» bat. Alemaniako Land-etako Hezkuntza Ministroek ere erabaki zuten, kontzientzia europarra irakasgai pedagogiko gisa jorratu behar da eskola guztietan. (16) Horrenbestez, ikasteko prozesua ezagutza-gai baten zati da (hurrengo kapituluetan ikusiko denez), baina gehienbat jarrera eta pertzepzio «egokiak» garatzea da kontua. Izan ere, edozein aditu akademikok ikasketa-planaren balio-arloa arazoaren funtsezko zatitzat hartuko du gazteek euren burua Europako komunitate («k» minuskulaz) handiagoren zatitzat ikus dezaten lortzeko, eta arlo hori giltzarria da abertzaletasuna, eta kontzientzia eta harrotasun nazionala berezko kontzientzia europarra bihurtzeko. (17)

Zenbait azterlanek iradokitzen dutenez, gazteek hobeto hartzen dute Europaren kontzeptua biztanleek, oro har, baino, eta gainera, zaharrak baino modu naturalagoan erlazionatzen dira. Aurreiritzietatik libre dagoen mentalitatea funtsezkoa da besteekin eta beste nazionalitateekin izan beharreko harremanerako. Adimen harkorraren jarrerak jakin-mina, ezagutza,

enpatia eta bake-nahi positiboa uztartzen ditu (liskarrak eta gatazkak saihesteko nahi sinplearen aurretik). Eskola-zuzendari austriar batek bere esperientzian oinarrituta argitu zuenez, ikasleak honako hauek izatera animatzea zen irakasleen zeregina:


- Kritikoagoak komunikabideekin.
- Arretatsuagoak prentsak beste herrialdeei buruz ematen duen informazioarekiko.
- Irekiagoak eta, esate baterako, beste herrialdeetako abestiak entzuteko aldekoagoak.
- Tokiko inguruneaz gehiago jabetu beharrekoak, baita beste zenbait gairi buruz ere, esaterako, mugak, tokiko hizkuntza eta dialektoak, ohitura etnikoak.
- Jakin-min handiagoa agertu beharrekoak leku historikoei eta kondairei buruz.
- Prestatuagoak atzerrian familiarlekoekin harremanak izateko (edo beste pertsonekin).
- Ulerkorragoak beste herrialdeetako ezaugarri bereziekin.
- Bizkorragoak beste herrialdeetako lorpen kulturalak, zientifikoak edo kirol-arlokoak aintzat hartzeko. (18)

Zenbait datuk erakusten duenez, errazagoa da herrialde txikietatik —Danimarka edo Irlanda, esaterako— datozenentzat jarrera mental harkorra garatzea herrialde beso luzeko eta handietako herritarrentzat baino. Kontzientzia europar bat sartzeko ikasketa-planen ereduak fase esperimentalean daude oraindik (ikus 2. irudia), baina zenbait estrategia praktikoa bihurtzen ari dira jada. Lehenik, zenbait frogak erakusten duenez, eskola-egitura irekiak eta jarrera komunalak tolerantziaren, enpatiaren eta berriarekiko irekitasunaren aldeko ingurunea errazten dute. Hori dela-eta, gazteei erabakiak hartzeko modu aktiboan parte hartzeko aukerak ematen bazaizkie, modu naturalagoan egokituko da harreman batera. Bigarrenik, gazteentzako arteko harreman pertsonalak eta jarraituak dira oraindik ere komunitatearen zentzua eta elkar errespetua bultzatzeko modurik eraginkorrena, «europar izateko» zentzua, alegia. Hirugarrenik, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek bitarteko eraginkorrena dira Europako gazteei beste pertsonen esperientziak eskaintzeko lankidetzan eta elkarlanean. Eskola-loturen sareak eta komunikazio-proiektu bereziak dira hezkuntza-lehentasunak XXI. mendearen hasieran.

Kontzientzia europarrak balioen, jarreraren eta trebetasunen arloak barne hartzen ditu. «Trebetasun» hitzak gaitasun eta eskumen mota ugari hartzen ditu. Azken urteotan garrantzi handiagoa eman zaie trebetasun parte-hartzaile eta aktiboari, gizalege-erantzukizunak baliatzeko beharrezkoak. Era berean, garrantzi handiagoa eman zaie kreatibitatearen, irudimenezaren eta ikus-entzunezko pertzepzioaren gaiei. Gizarte-lehentasunaren aldaketak gehiago azpimarratu ditu ekintzen eta entretenimenduetan oinarrituriko esperientziak, eta horretarako funts-funtsezkoak dira trebetasun fisikoak. Iraganeko, bazezgoen bigarren hezkuntzan goi-mailako trebetasun kognitiboak aztergai hartzeko joera, ikasleak azterketetarako eta lan-munduan sartzeko aukerarako prestatzeko joera, alegia. Trebetasun kognitiboak oso garrantzitsuak dira oraindik ere alfabetizazioa osatzen duten trebetasun multzoaren oinarri gisa, gaitasun matematikoaren maila handirako eta alfabetizazio teknologikorako. Dimentsio europarra alor emankorra da gaitasun alor horiek guztiak sendotzeko. Hala ere, bada esperientzia europarrerako garrantzi berezia duen arlo bat, hizkuntza eta komunikazioarena, hain zuzen. Azken hogeita urteotan nabarmen egin da aurrera komunikazio-gaitasunaren hobekuntzan, eta bultzada horri eutsi behar zaio Europako horizonteak zabalduko diren honetan. Hizkuntza modernoak funtsezko elementua dira Europako herritarrek elkar ulertzeko, mugikortasun, enplegu eta kulturarako komunitate europarrean. Hizkuntzak eta komunikazioak dira, beste ezer baino gehiago, zabalkuntzan dagoen Europa demokratikoan bizitza errazten duten trebetasunak.

Profil horrek adierazi du azterketa horren gainerakoa zein alorretan garatuko den. Hurrengo ataletan dimentsio europarrari eskainiko zaio arreta ikasketa-plan normalean. Jakintzagai tradizionalak irakatsi eta ikasteko gaiak hartuko dira kontuan, baita irakasgai berriak ere, Europari buruzkoak horietan gai ugari pizten dituela kontuan izanda.

2. Irudia Kontzeptuetan oinarrituriko europar dimentsioranzko urratsak





## HOGEI HELBURU EUROPARI BURUZKO IRAKASKUNTZARAKO

### Ezagutzak

1. Ikasleei Europako paisaiari, ingurune fisikoaren alde eta antzekotasun nagusiei eta bizimoduei buruzko oinarritzko ideiak ematea
2. Ikasleei giza asentamenduetako patroik eta aurrerabideen aniztasuna eta produkzio-moduak ulertaraztea
3. Joera politiko eta ekonomikoak gaur egun eta etorkizunean Europako gizartean dituzten ondorioen araberaztertzea
4. Jendearen eta naturaren arteko ingurumen-arloko elkar ekintzarako sentsibilizazioan eta ulerkuntzan lan egitea, baita horiek gaur egunerako eta etorkizunerako dituzten inplikazioei buruz ere
5. Ikasleek jarraitasun-maila eta aldaketa-kontzeptua Europan garatu den bezala ulertzen dutela ziurtatzea, aldaketaren nondik norako, arrazoi eta ondorioez gain
6. Frogaren esanahiaren, erabileraren eta barietatearen ulerkuntza sustatzea ondorengo judizio baterako oinarri gisa.
7. Europako ondare kulturalaren aniztasun aberatsaren ulerkuntza sustatzea, zuzeneko esperientziaren bidez, ahal den neurrian
8. Ikasleek informazio zuzena jasotzen dutela ziurtatzea, baita aniztasun eta dibertsitate europarraren inplikazioak ulertzen dituztela ere, gatazkari eta banaketari aurre egiteko batasun eta lankidetzari handiagoa sustatzen duten erakunde, antolamendu eta ideiez gain
9. Ikasleei gizarte modernoaren egiturak, ohiturak, erakundeak, kezkak eta arazoak ulertzen laguntzea
10. Europako gizartean aldaketak eragiten ari diren nazioarteko joerak, pentsatzeko moduak eta portaera-patroiak ezagutu eta ulertzeko aukera sustatzea, horiek ikasleak adin-nagusi direnean haiengan eraginik badute

### Trebetasunak

11. Norberaren ama-hizkuntzaz gain, gutxienez Europako beste hizkuntza batez jabetzeko aukera erraztea, komunikazio eraginkorra ahalbidetzen duen mailaraino
12. Hizkuntza-eskakizunak komunikazio eraginkorreko bitarteko gisa babesten dituzten trebetasun sozialak garatzea
13. Ikasteko oinarritzko trebetasunak eta gaitasun kognitibo aurreratuak sendotzea
14. Ikus-entzunezko eta imajinaziozko trebetasunak garatzea sentsibilitate estetikoaren eta forma kulturalen sorta zabala estimatzeko aukera sendotzeko
15. Ikasleei aukera ematea trebetasun politikoen sorta zabala praktikatzeko, herritartasun aktibo baterako prestakuntza gisa

## Jarrerak eta balioak

16. Ikasleak kontzientziatzea eta beste gazte europarrekin konpartitzen duten ondare historiko aberatsa errespetatzen laguntzea
17. Ikasleak balio europarrak, oro har, eta balio demokratikoak, bereziki, (tolerantzia eta berdintasuna, esaterako) estimatzera animatzea
18. Ikasleen artean sentsibilitate eta enpatia handiagoa garatzea gizarte kulturantz eta pluralista batean bizitzearen balioari buruz, eta, aldi berean, Europar batasuna sustatzen duten mugimendu eta erakundeetan inspiratzea
19. Enpatia-garapena bultzatzea Europako herrien artean ulerkuntza handiagoa eta lankidetzako kooperatiborako aldeko jarrera handiagoa bultzatzeko
20. Ikasleei erantzukizunak euren gain har ditzaten ahalbidetzea eta jarrera konstruktiboak garatzea hainbat gai garrantzitsuri buruz, esaterako, bakea eta giza eskubideak mundu osoan

- (1) Honako honetan aipaturikoa; Otto Ernst Schüddenkopf (1967) *History Teaching and History Textbook Revision*, Estrasburgo: CDCC. «Europa» terminoaren azalpen historiografiakorako, haren erabilera geografikoaren azterketarekin batera, ikus Sattler, R.J. (1971), *Europa: Geschichte und Aktualität de Begriffes*, Braunschweig: International Schoolbook Institute.
- (2) Eztabaida horren tarte interesgarri bat honako honetan dago; Parker, W.H. (1968), *An Historical Geography of Russia*, Londres: Londres Univeristy Press, 27-9 orr.
- (3) Honako honetan aipaturikoa; Shennan, M. (1976), *The European Dynamic*, Londres: A&C Black, 28. or.
- (4) East, Gordon (1967), «Europe and its Regions» honako honetan; *Geography Teaching and the Revision of Geography Textbooks and Atlases*, Estrasburgo: CDCC, Errusia kanpoan uztea azpian dagoen gaia da honako honetan; Scoepflin *et al* (1989), *The Search for Central Europe*, Oxford: Polity Press.
- (5) Honako honetan aipaturikoa; Parker, *Historical Geography*, 27. or.
- (6) Mijail Gorbaxov-ek Europako Kontseiluaren Parlamentu Biltzarrari eginiko hitzaldian, 1989ko uztaila.
- (7) Wake, R. A., (1980), «The idea of Europe», argitaratu gabea, 6. or.
- (8) Hoggart, Richard eta Douglas Johnson (1987), *An Idea of Europe*, Londres: Channel Four Publications 10-11. orr.
- (9) Wake, «The idea of Europe», 9. or.
- (10) Hoggart eta Johnson, 9-11 orr.
- (11) Peacock, D (1981) *Report of the CDCC Symposium on Europe in Secondary School Curricula: Aims, Approaches and Problems*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 31. or.
- (12) Kontseiluaren eta Hezkuntza Ministroen ebazpena, hezkuntzako dimentsio europarrari buruzkoa, 1988ko maiatzaren 24koa (88/C177/02).
- (13) Esate baterako, Peacock, *Report on Europe in Secondary School Curricula* Gomendio-zenbakia, R (83) 4, bigarren hezkuntzako eskolan kontzientzia europarra sustatzeari buruzkoa.
- (14) Wake, R. A. *et al* (1979), *Innovation in Secondary Education in Europe* Estrasburgo: CDCC.
- (15) Trybus, K. (1986), *Report on the 30<sup>th</sup> European Teachers' Seminar on Europe in Primary Schools*, Estrasburgo: CDCC.

- (16) 1111 (1989) (1) gomendia, Europako Kontseiluaren Parlamentu Biltzarrarena, hezkuntzako dimentsio europarrari buruzkoa; Alemaniako Land-etako Hezkuntza eta Gai Kulturaletako Konferentzia Iraunkorraren Ebazpena, 1990eko abenduaren 7koa.
- (17) Jacobsen, Bo, «How to develop a European consciousness in pupil's minds: some research perspectives» en *Report of the European Teachers' Seminar on Teaching about European Co-operation and Integration in Upper Secondary Schools*, Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- (18) Halbritter, Herman (1985), «Europe in the Primary School» honako honetan; *Report on Europe in Primary Schools*, 15-16 orr.







# Bigarren zatia:

EUROPARI BURUZKO IKASKUNTZA,  
IKASKETA-PLAN FORMALAREN BIDEZ




- 
3. EUROPA ETA DENBORA-DIMENTSIOA
  4. EUROPA ETA ESPAZIO-DIMENTSIOA  
IKASKETA-PLANEAN
  5. EUROPAREN NORTASUN KULTURALA
  6. HIZKUNTZEN IKASKUNTZA  
ETA KOMUNIKAZIOA



3

EUROPA ETA DENBORA-DIMENTSIOA



- 
- HISTORIA: ASMOA ETA METODOLOGIA
  - PARTZIALTASUN HISTORIKOAK:  
ARAZOAK, INPLIKAZIOAK ETA EZTABAIDAK
  - HISTORIAK KONTZIENTZIA EUROPARRARI  
EGINIKO EKARPENA



## HISTORIA: ASMOA ETA METODOLOGIA

Datozen orrialdeetan ikasketa-planetak jakintzagai konbentzionalak aztertzea izango dugu abiapuntu, jakintzagai horiek europar kontzientziari modu zuzenagoan egiten dioten ekarpena juzkatzea ahalbidetzen duelako. Tradizionalki, Europari buruzko irakaskuntza eta ikaskuntza Humanitateen ekarpenaren mendean egon dira. Horien artean nabarmentzekoa da Historia, daukan funtsezko garrantziagatik. (1) Oraindik ere Europako herrialde askotan historia *nazionala* da ikasketa-planaren bizkarrezurra, nahiz eta beste batzuetan ikuspegi *globalagoranzko* mugimendu bideratu bat nabari den. Egoera horrek zerara behartzen gaitu: ikasketa-planetan Historiako jakintzagaian Europak duen lekua argitzera. XXI. mendearen hasieran, irakasleen zati batek zalantzan jar zezakeen gizarte kulturantz eta hizkuntzantz batean hazi den ikasleentzat egokia ote zen ardatz gisa europar zibilizazioaren historia duen programa bat. Ez dago adostasunik, ordea, zer Historia erakutsi behar den erabakitzeko garaian, eta adostasun handiagoa dago jakintzagaia *nola* erakutsi behar den erabakitzeko garaian. Historiako ikasketa-planean Europako gaia txertatzeko, horrek ikasleentzat bistako onura ekarriko duela egiaztatu behar da. Onura hori jarreraren aldaketa konstruktiboan eta adimen-ikuspegi eta aukeren zabalpenean datza. Beste hitz batzuetan, argi eta garbi eman behar du kontzientzia europar handiagoa, bai eta ulerkuntzaren hobekuntza ere.

Historiak eginkizun nagusia izan behar du europar dimentsioa sartzeko errazteko garaian, hiru arrazoirengatik. Izan ere, Europa historiaren emaitza da eta historia denborari lotuta dago. Hala eta guztiz ere, ez dago lehenaldiarekin bakarrik lotuta. Giza portaeraren eta gertaeren, pentsamenduen eta emozioen eremu osoaren ikerketa gisa, Historiak gaur egungo Europako jendearen ekintza eta oraingo gizartearen balioak esplikatzeko laguntzen du. Historiak Europaren etorkizuna ere jorra al dezake? Historia errepikatu egiten dela dioen baieztapena topiko bihurtu da, egia-zati bat baitaika. Gizateriak gaur egunera iristeko ibili dituen prozesuak asimilatzeak etorkizuneko arazoei aurrea hartzen laguntzen du. Bigarren kontsiderazio bat, lehenengoaren osagarri dena, hura errepikatzen ez duelarik, honetan datza: Historiak Europaren dimentsio kualitatiboaren zentzua aurkitzea ahalbidetzen digu. Kultura europarra ez da une honetako emaitza, bi milurte dituen historiaren herentzia adierazten baitu. Azkenik, Historiaren jakintzagaia europar erudizioaren emaitza autoktonoa da eta, bereziki, ilustrazio europarrarena. Espezialisten sinposio bateko adierazpenei jarraituz: «Historia jakintzagai bakarra da, adimenaren eta irudimenaren osaera-mota berezi batez arduratua». (2)

Ikasketen tradizio liberalaren barruan, Mendebaldean nagusia dena, eurek lehenaldiari ematen dizkieten esplikazioen oinarri gisa dogma eta ideologia klase edo joera determinista oro ahanzi behar dute historialariek. (3) Haren betebeharrak profesionala egia aurkitzean datza, desatsegina suertatzen bazaio ere, horretarako ikerketa-prozesu desinteresatua gauzatu. Izan ere, mendebaldeko erudizioak, politika liberal demokratikoak bezala, nahiago ditu erdibideak. Alderaturiko bi prozedurekiko duen mendekotasunean, kontraesan bat dago oinarrian. Lehenik eta behin, alde aurretik ezarritako ideiarik gabe ebidentzia interpretatzeko askatasuna onartzen du, bai eta hertsadura intelektualik gabe irudimena eta judizio intuitiboa aplikatzeko askatasuna ere. Ez da zeregin erraza, izan ere, historia interpretatu beharreko gai emotiboez josita baitago, eta interpretazioa, bere horretan, prozesu anibalentea da. Bigarren *modus operandi* dei dezakeguna, hau da: egokia eta arrazoizkoa izan daitekeenari buruzko adostasuna bilatzea, muga-mugako interpretazioak edo interpretazio irrazionalak, giza balioen aurkakoak, baztertzeko dituen adostasuna.

Horrela beraz, metodologia historikoak ez du Zuzenbideak duen zehaztasuna, erudizioaren arauen mendekoa, nahiz eta demokraziak legearen barruan askatasun indibiduala ahalbidetzen duenez, mendebaldeko historialariek interpretaziorako askatasuna duten. Euren zintotasun profesionalak ez die uzten egia nahita desitxuratzen edo euren aurreiritzi pertsonalak eta anakronismoak plazaratzen. Pertsonak eta gertakariak errespetatu behar dituzte, ebidentzia kontu handiz iragazi eta euren interpretazioei arrazoiketa eta sen ona aplikatu. Baina euren ondorioak ez dira interpretazio soilak besterik eta, nahiz eta objektiboak izaten saiatu, historialariek neurri handi batean baliatzen dute euren iritzi pertsonalerako

eta aukeraketarako gaitasuna. Horregatik, desadostasunak izan ditzakete eta elkarren artean desadostasunak izaten dituzte, eta, horregatik, euren desadostasunak iritzi-riabarduretan gauzaten dira. Eta, horregatik, eztabaidek Historiako ikasketa-planak eta haien irakaskuntza zipriztintzen dituzte. (4)

Dauzkan inplikazioengatik, Historiaren irakaskuntza ez da iraganeko gertakariak gogoratzea eta berean egozte bakarrik. Edozein irakasle gaituk badaki bere esperientziaren arabera, Historiak aukera ona ematen duela ikasleekin batera giza sormenaren herentzia aztertzeko eta pertsonen euren gizartean, euren inguru fisikoan eta ideietan duten eragina ebaluatzeko. Aldi berean, ondorioak eta giza ekintza eragin zuten edo baldintzatu zuten faktoreak kontuan hartzea ahalbidetzen du. Historiaren irakaskuntzak enpatia eta informazio jakin-mina garatzen laguntzen die ikasleei, eta horrek ondare historikoaren balorazioa dakar loturik. Beste pertsona batzuekin identifikatzeko sentiberatasun eta joera hori ikaskuntzaren emaitza garrantzitsua da. Trebetasun afektiboak, hala ere, trebetasun kognitiboaren osagarriak dira. Ikasteko oinarriko trebetasunak indartzen dituen aldi berean, Historiak ebidentziarantz bideratzen du gazteria, eta horrek trebetasun-mota garrantzitsu bat jokoan jartzea ahalbidetzen du: modu kritikoan pentsatzeko gaitasuna, modu objektiboan aztertzea; ebaluatzea, extrapolatzea, ondorioztatzea, materialak laburbiltzea eta iritzi arrazoitueta iristea. Trebetasun horietaz baliatuz, ikasleek alde batera utzi behar dituzte ageriko partzialtasunak eta aurreiritziak. Pertsonen euren lagun hurkoa hobeto ulertzea ahalbidetzeaz gain, Historiak ikertzen eta zalantzan jartzen laguntzen die, batzuetan beste batzuen hitza edo arrazoiak, edo haien jokabidea zalantzan jartzen. Gazte jendeak giza kondizioa edo izaeraren gaia ikasten duenean, eszeptizismo osasuntsua eskuratu behar du egia bilaketan ari denean. Zalantzarik gabe, horregatik etiketatu zituen Nikita Kruschov-ek historialariak «jende arrisku-tsu» gisa.

Historia gorago adierazi dugun bezala, irakasteko modua poliki-poliki errotu da Europan. Ikerketarako ikuspegi hori *Historia Berri* gisa ezagutu zen Erresuma Batuan 1970eko hamarkadan. Eskola Batzordearen Historia 13-16 Proiektuan hezurramitu zen. Proiektu hori izan da Ingalaterran eta Galesen gaur egunera arte Historiaren irakaskuntzaren teoria eta praktika bideratzen jarraitu duena. Eztabaida ugari sortzen du oraindik gai horrek: ikasleen gehiengoak ulermen historiko heldua lortuko ote duen —beti izango dira Historia datu ezagunen biltegi gisa ikusiko duten irakasleak— baina ikuspegi ikertzailea arian-arian barneratu da ikastetxeetan. Trebetasunetan oinarritutako ikuspegiarantz mugimenduak eragin handia izan zuen halaber Alemania federalean. 1954 eta 1979 urteen artean *Länd*-etan derrigorrezko bigarren hezkuntzan ikasketa akademikoak egiten ari zen ikasle-kopurua sei bider hazi zen. Historiako programa egokiak garatzeko premia larria sortu zen eta testuinguru horretan jakintzagai erreformatu bat sortu zen, Historiaren Didaktikak gisa ezagutzen den irakasgaiaren metodologian oinarritua. (5)

Aldaketa horien ondorioz, irakasleak itxurazko tentsio batez konturatu ziren, metodoaren eta edukiaren lehentasunen arteko tentsioaz, alegia. Historia garapenaren eta aldaketaren ikasketari loturiko jakintzagai modura ikusten bada, kronologia eta jarraitasun osagaiak, funtsezko osagaiak izaki, ikasleen ikaskuntzaren barne-barneko zati izan behar dute. Ezaugarri metodologiko horiek bistako inplikazioak dauzkate Historia Europarreko programen edukirako, bai eta irakaskuntza-metodoetarako ere. Historiaren arloan interes profesionala duten pertsona guztiak kezkatu dira ikasketa-planaren edukiarekin erlazioatutako gaiarekin, *Historia Berriaren* hasiera baino askoz ere lehenago. 1950etik 1980ra Europako Kontseiluak honako neurri hau hartu zuen: bere espezialistek Historiako testu-liburuak aztertu eta eztabaidatu zituzten, bai eta heziketa-gaiak eta Europako Historiaren aldiak ere, Historiako ikasketa-plan globalean dituzten inplikazioekin, bai eta diziplinarteko ikasketa-ikastaroetan dituztenekin ere. (6) Ikerketa eta solasaldi haiek Europako Kontseiluaren hezkuntza-agendaren lehen planoan eduki zuten gai hori. Mende berri honen hasieran, Historiaren irakaskuntza berrikusten jarraitzen dugu jakintzagai horrek Europari buruzko ezagutza espezializatu eta bereizleak nola transmititu ditzakeen ezarri ahal izateko. Zeregin horretan ari garela Europako historiaren arazo bereziak gogoratu behar ditugu, joera berriak kontuan hartu eta Europaren iraganaren gauzarik bereizgarrienak hobeto komunikatzeko modua erabaki, eta edukia kontu handiz hautatu.

## PARTZIALTASUN HISTORIKOAK: ARAZOAK, INPLIKAZIOAK ETA EZTABAIDAK

Historia zientzia guztiz arrazionala eta objektiboa balitz, ez legoke partzialtasun eta aurreiritziei buruz eztabaidatzeko arrazoirik. Horrela ez denez, agian arreta bereziz egin beharko genuke ohartarazpen honen inguruko gogoeta: «testu-liburugileek ez dituzte balio-judizio esplizitu edo inplizituak egin behar [...] Ez dute izan behar ez apologista ez aurkako. Ez dituzte euren balio pertsonalak edo egungoak lehenaldirantz proiektatu behar, hori anakronikoa litzateke eta.» (7) Gertatu ohi denez, irakasleek, idazleek edo komunikabideetako produktoreek moda akademikoaren arabera lehenatasunak adierazten dituzte edo hari loturiko aurreiritziak azaltzen dituzte, baina partzialtasun esplizitua normalean beste faktore batzuen ondorioa izaten da. Historiarako ikasketa-planak gizarte arauen eta balioen isla bihurtu direnez, gizartearen egungo eta iraganeko lehenatasunen artean dagoen ezberdintasunaren eragina jasaten dute.

Historian gauzatzen den partzialtasunarekin eta diskriminazioarekin loturiko arazoak identifikatzeko, Europako Kontseiluak programa zabal bat sustatu zuen hiru hamarkadatan. Lehen fasean, lehen arreta-unea testuliburuaren inguruan antolatu zuen, haiek baitziren —eta askotan oraindik ere horiek baitira— ikasleentzako informazio-iturri nagusia. Liburuetako partzialtasunak errotiko eragina du, ez bakarrik edukiaren zehaztasunean eta orekan, baizik eta baita sustatzen edo bultzatzen diren jarreraren eta balioengan, modu kontzientean izan ala ez. Gai horiek CDCCk «Mendebaldeko Europako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Portugalarren Aurkikuntzei buruzko Irakaskuntza» gaiari buruz Lisboan antolatu zuen sinposium batean aztertu ziren. Espezialistek gai hori ereduzkotzat hartu zuten arraza-nagusitasuneko joera eta jarrera etnozentrikoak ezabatzeko. Itsas bidaiak garaipen nazional gisa jorratu beharrean, herrien arteko harreman eta truke fenomeno europar zabalago baten zati gisa joratzeko premia azpimarratu zuten. Ekimen horrek izan du jarraipenik Testuliburuari buruzko Nazioarteko Ikerketarako Georg Eckert Institutuarekin batera egindako proiektu batean, zeina azken urteotan Europako erdialdeko eta ekialdeko eskoletako jarrerak aztertu baititu. (8)

CDCCren programaren lehen ikerketen emaitza gisa, hirurogeiko hamarkada arte izandako partzialtasun-modu arruntean iraganaren interpretazio nazionala izan zela egiaztatu zen, Historia Potentzia Handien handitasun eta gainbeheraren kronikatza hartuta. Testu-liburuak berraztertzeo ekimenetan konprometituriko E.H. Dance-n arabera: «Europari eta bere testu-liburuari kalte handiena eragin dien partzialtasun nazionala zera da: estatu europarren beraien barne-nazionalismoa». (9) Testu-liburuek norberaren nazioaren lorpenak gehiegi goraiatzeko duten joera nabarmena azaldu zuen. Horrela, testu-liburu frantziarrek zein ingelesek Ehun Urteko Gerran eta XVIII. mendeko gerra kolonialetan *euren* indarrek loturiko garaipenak azpimarratzen dituzte, eta nazio bakoitzak demokraziaren garapenean eta ordezkaritza-gobernuan izandako eginkizuna, baita euren asmatzaile eta kapitalistek Europako industria-iraultzan eginiko ekarpena ere. Italiarrek (Kristobal Kolonen jatorri genoarra tarteko) zein espainiarrek (Errege Katolikoek bidaia finantzatu izanagatik) Amerikaren aurkikuntza erreklamatzeko. Testu-liburu alemaniarrek Koperniko alemaniarizat jotzen dute, eta beste batzuek, ordea, poloniarizat. Demokrazia europarraren jatorrien azalpen askotan ez zaie garrantzirik ematen kantoi suitzarrei, Erdi Aroko hiri-errepublikari edo demokraziaren bertsio marxistari.

XX. mendeko azken hamarkadarako adibiderik okerrenak baztertu baziren ere, joera horrek iraun egin zuen laurogeita hamarreko hamarkadan. 1990eko CDCCren txosten batek baieztatu zuenez, frantziarrak erabat konbentzitu zaiden euren iraultzaren mundu-mailako garrantziaz, eta Errusiakoa edo Ipar Amerikakoa baino garrantzitsuagoa izan zela. (10) Azken hamar urteotan, Erresuma Batuak Historia Nazionala berriz sustatu du Historiako ikasketa-planen erreforma tarteko. Sobietar Batasun ohiaren ondorengo eta Ekialdeko Europako herrialdeek nazionalismoaren gorakada eragin dute, eta horrek ere ondorio garrantzitsuak izan ditu hezkuntza-arloan. Polonian, esaterako, bigarren hezkuntzako ikasle guztiek Auschwitz bisitatu behar dute euren esperientzia historikoaren zati gisa: sobera daude justifikazioak. Ekialdeko Alemania ohian, 1945az geroztik egindako testu-liburuek damu osoa eta adiskidetzeko giroa azaltzen zuten. Baden-Württembergoko *Gymnasium* batean gehiengoan eta gutxiengoan arteko tolerantziako eta demokraziaren garapeneko testuinguruan

jorrotzen zituzten judutarren genozidioa, nazien kontzentrazio-esparruak eta Nazional Sozialismoaren beste zenbait alderdi. Bigarren hezkuntzako hainbat eskolotako ikasle eta irakasleek aurrekari bat ezarri zuten *Reichskristallnacht* deiturikoaren berrogeigarren urteurrena gogoratzeko erakusketa antolatzean. (11) Argi dago historia-eskolak deklarazio politikoak izan litezkeela. Joera nazionalista izan zuen Historiaren irakaskuntzak Sobietar Batasunean zazpi hamarkadatan, eta 1988ko maiatzean, sistema jada krisiak jota zegoela, agintariek Historia azterketak atzeratu egin zituzten eskola sobietar guztietan, testu fidagarriak ez zegoelako. (12) Estatuak jakintzagaia kontrolatzearen arriskuak erakutsi zituen Historia Modernoaren aurreikuspen berriak, zalantzan jartzeko aukera eta pentsamendu kritikoa kentzea baitakar, eta historialariak erregimenaren propagandista eta publizista gisa jokatu behar izatea. *Glasnost* eta *perestroika* prozesuetan, eta erregimen sobietarraren erorialdiaren ondoren, Historiaren eskola berria sortu zen. Eskola horrek, purga stalinisten dimentsioa eta nondik norakoa zehatz-mehatz aztertu zuen.

Oraindik ere «Potentzia Handien» mentalitatearen arrasto ugari daude Historiako ikasketa-planetan, baina estatu txikia- goetan ere badira tradizio idiosinkrasikoak. Ikasle frantziarrek Frantziako Iraultzari buruzko azterketa sakonak egin behar dituzte (15 eta 17 urte dituztenean), eta Danimarkan, berriz, ikasketak denboraldi termodoriarra barne hartzen du soilik. Ingalaterran, Lehen Inperio Frantziarra Napoleonen aurkako hainbat kanpaina paneuropar gisa jorrotzen dute, eta daniarrek, berriz, Armada britainiarren erasoari aurre egin izana dute aztergai. (13) Lehentasun orokorrak ere aldatu egiten dira. Ikasketa-plan eskandinaviarrek gehiago azpimarratzen dute Munduko Historia Modernoa, eta Italian, berriz, garrantzi handiagoa ematen diote Historia Zaharrari eta Erdi Arokoari. Modu askotan agertzen da partzialtasuna. Estereotipoetan pentsatzeko edo hitzak modu sinplistan erabiltzeko joerak zehaztasun objektiboarekiko axolagabetasuna agertzen du. Historia-eskoletan erabiltzen diren hitz asko anbiguoak dira: «bilaua», «ortodoxoa», «zibilizatu», «demokrazia», «nazionalismoa», baita «germaniarra» ere. Pentsamendu estereotipikoak talde etniko edo nazio osoak barne hartzen ditu. Frantziarren belaunaldi askorentzat «Albion zitala» zen Ingalaterra. Alemaniako ekonomiaren *Gastarbeiter* gehienak turkiarrak badira ere, Historian herri gerrazale eta barbarotzat hartzen dituzte, preso kristauak krudeltasun handiz tratatzen zituztela. Judutar hitza mailegu-emailearen sinonimo zen (erabat ahazten ez bazituzten, behintzat). (14) Estereotipo horiek guztiak agian baztertu egin dira azken argitalpenetan, baina haien hondar-eragina oraindik ere bizirik dago herri-pentsamoldean. Dena den, azken hiru hamarkadetan hainbat nazioarteko erakunde borrokatu dira aurreiritzi horiek zuzentzeko, eta horretan jarraitzen dute oraindik ere.

Ikasketa-plan orokorretan ahaztutako zenbait arlo serio bezain harrigarriak dira. Mendebaldeko eskoletan arreta gutxi eskaintzen zaio Historia errusiar eta sobietarrari. Arlo horretako interesa oso mugatua da; mendebaldeko potentziak ere tartean hartzen dituzten kanpo-politikaren gertaerak barne hartzen ditu soilik. Horrela, garrantzi handiagoa ematen zaie Pedro Handiaren mendebaldartze-politikei, Katalina II.aren espantsionismoari, ekialdeko gaiari eta bi mundu-gerretako ekialdeko fronteari, barruko gai garrantzitsuen kontura. Siberia zabaltzea, ortodoxia errusiarrak gizartean duen eragina, errusiar morrontza, eta nekazaritza eta industriaren modernizazioa, egitura soziopolitikoetako aldaketa iraultzaileak eta nazionalitateen gaiek ez dute merezi zuten arreta izan (nahiz eta garrantziaren zati bat berreskuratu duten, Txetxeniako gerrak direla-eta). Era berean, herrialde eskandinaviarren eta balkanikoen Historiak denbora-tarte etenetan jorrotatu dira (nahiz eta, berriz ere, Jugoslavia ohiko gatazkek akats hori zuzendu duten). Gainera, oso geldo egin du aurrera honako ideia honen ulerkuntzak: «Europatik haratago beste lau kontinente daude, eta bakoitzak irakasbide politiko, ekonomiko, erlijioso eta kultural bezalakoak du». (15) Europako gazteek Europako Historia isolamenduaren historia ez dela jakin behar dute, baizik eta etengabeko esplorazio, migrazio, nahaste kultural eta gurutzaturiko ongarritze-historia.

Puntu sentsiblea ukitzen du gai horrek, eta, zenbaitetan, eztabaidatsua, Europa gizarte askotarikoa izatearen ondorio. Honako hau galdetu behar diote euren buruari Historia irakasten dutenek: «zenbateraino izan behar du desberdina Historiako ikasketa-planak Europa kulturantzian bizitzeagatik?». Haren izaeran egongo da inplizitua eskola bakoitzaren erantzuna. Aurrerago ikasketa-planari nazioarteko dimentsioa nola eman aztertuko da. Hala eta guztiz ere, aniztasun kulturalak eragindako arazo eta gaizkiulertuei aurre egin behar zaie. Zenbait espezialistak Historiako ikasketa-plana ego-kitzerakoan ikuspegi zehatza erabiltzea gomendatzen dute; esate baterako, sentsiblea izan litekeen gai bakoitza denbo-

rari dagokionez urruneko testuinguruan jorratzea iradokitzen dute, batez ere gatazka-egoera batean. Beste batzuek, berriz, estrategia hori errefusatu egiten dute, desadostasun kulturalak konpontzeko lagungarria ez den koldarkeria-modua delakoan. Beste batzuek tokiko eta eskualdeko Historiak irakasbide baliotsuak eskaintzen dituela uste dute, aniztasun zahar batetik datorren aberastasun kulturala azpimarratzen baitute. Europa modernoko komunitate askok kolonizazio europarraren garaia baino askoz ere lehenago loratu eta euren nondik norako bereizgarria erakutsi zuten kulturak biltzen dituzte. Talde etniko zahar horiek euskaldunak, zeltak, laponiarrek eta ijitoak barne hartzen dituzte. Garrantzitsua zera da, desberdintasuna funtsezko ezaugarria dela Europako Historian, eta gai eztabaidagarriak ezin direla erabat saihestu, ia bateraezinak diren ikuspuntuak ere bilduta. Hala ere, Islamaren eta Kristautasunaren elkarren arteko mesfidantza termino historikotan azal badaiteke ere, horrek ez lieke eragotzi behar irakasleei Islamaren historia grinatasunik gabeko objektibitatearekin aurkeztea.

Partzialtasun onartezina izan duten beste bi gai gehigarri gelditzen dira. 1980aren aurretik argitaraturiko testu-liburu gehienek Historiaren bazterretara zokoratu zuten genero femeninoa. Ikasketa-planek emakumeen gaia jorratu zutenean, ohiz kanpoko lidertza baliatu zutenak izan zituzten batez ere aztergai: Joana Ark-ekoa, Isabel I.a Ingalaterrakoa edo Gaztelakoa, Kristina Suediakoa, Maria Teresa, Katalina Handia... Arreta pixka bat eskaini zaie, nahiz eta berandu, emakumeen emantzipazio-borrokei, mugimendu sufragistari, esaterako, eta emakumeen eta lanaren gaiari etxearren, industriaren, medikuntzaren eta estetikaren arloan. Hala ere, hirurogeita hamarreko hamarkada arte pertsona guztien historia modu egokian barne hartuko balu bezala irakasten zen *gizonen* historia. Argia da egoera horren azalpena. Kontua ez da gizonek, historia-liburuen egile zirenez, iragana desitxuratzea, baizik eta emakumeek ez zutela zeregin nagusirik historia politiko, militar eta diplomatikoan, eta hortaz, ez dute berezko lekurik Historiaren *hots eta handitasunezko* bertsioan. Hala ere, Erresuma Batuko Eskola Ikuskaritzako erakundeak 1985ean onartu zuenez, «emakumeek aldaketa-eragile gisa parte hartu dute, eliteetan zein masa-mugimenduetan» eta, hori kontuan izanda, «ez zen onargarria hain arreta gutxi eskaintzea Historian emakumeek izan duten bizitzari». (16) Iritzi hori azpimarratu zuen Irlandako presidente ohi eta NBEko Giza Eskubideen Goi Mandatari ohi Mary Robinson-ek, kargua hartzeko bere hitzaldian honako hau adierazi zuenean; «emakume naizenez, euren burua historiari kanpo ikusi duten emakumeek Historiara idatzita itzultzea nahi dut».

Izan ere, emakumeak lanbide askotan aritzen ziren gizonekin batera, esate baterako, nekazariak, iruleak, errementariak, kinkilariak eta dendariak, eta botikari eta mediku lanak ere egiten zituzten, etxeko lanez arduratzeaz gain. Emakumezko artista askoren kasurik egin gabeko kreatibitatea aditzera eman du Germain Greer-ek. Duela oso gutxi arte, iruzkingile literarioek baztertu egin zuten XVII. mendeko Errestaurazio Ingeleseko emakumezko autore dramatikoaren talentua, nahiz eta zenbait nobelagilek, hala nola Jane Austen-ek eta Charlotte Brönte-k, miretsi zituzten, bizi ziren bitartean. Emakumeek XIX. mende amaierako Errusiako erakunde iraultzaileetan parte hartu zuten, Lurra eta Askatasuna mugimenduan, esaterako, eta emakumezko langileek hasi zituzten Petrograden 1917ko iraultzara eraman zuten grebak. Lurraren Emakumezkoen Ligeak ardatz-lanak bete zituzten nekazari maizterrak babesteko 1880ko hamarkadako Irlandan. Frantzia, emakumeek elkarte errepublikarren sorreran parte hartu zuten Frantziako Iraultzaren garaian, baita 1848ko eta 1871ko altxamenduetan ere. Emakumeek gobernatzaile eta zuzendari gisa jardun dute, eta baita arteetako matriarka gisa mendeetan. Aurreko guztia dela-eta, garrantzitsua da Europako herrialde guztietako ikasketa-planek emakumeek pairatu zituzten mugak, hainbeste denbora iraun zuten lege eta ohitura murriztaileak eta emakumeak behe-mailako eginkizunetan aurkeztu zituzten liburuen hizkuntza zalantzan jartzea, eta emakumezkoen emantzipazio-prozesua nola eta zergatik garatu zen galdetzea. Irakasle Europarren Mintegiak XX. mendeko emakume europarren historiari buruzko saioa antolatu zuen 1997an, eta Europako Kontseiluak gida bat argitaratu zuen ikasgelan nola bideratu behar zen bilduz, bi urte geroago.

Proporzioko edo proportzio gabeko partzialtasuna deiturikora hurbiltzen gaitu eztabaidak. Sarritan gatazkei, gerrei, krisaldi diplomatikoei eta iraultzei garrantzi handiegia ematea leporatzen zaio Historiaren irakaskuntzari, ekimen bakezaleei, eta nazioarteko lankidetzaren marko legal eta juridikoak hornitzeko saioei garrantzi handiagoa eman beharrean. Bestalde, gaur egun Gizarte Historiaren garrantzia aintzat hartzen bada ere, gutxitan jorratzen dira Europako mugimendu kultural eta intelektualak merezi duten sakontasunarekin. Lorpen zientifikoen arloari dagokionez, Dance-k zera azpimarratu du:

historia-liburu eskandinaviarrek zientziaren historiaren tratamenduan erakusten duten harritzeko moduko iragarmena, eta giza aurrerabidearen historian aurrerapen zientifikoaren garrantzia aintzat hartu izana.

Mundu modernoan aldaketa nagusiak eragin dituena zientzia izan bada, erlijioari egokitu zitzaion eginkizun hori Erdi Aroko eta Aro Modernoaren hasierako Europan. Hori gorabehera, sektore sekular askotan elizaren historia ez da modako jakintzagaitzat hartzen. Erresuma Batuko ikasketa-plan nazionalen Erreforma berariazko gai gisa irakasteari utzi zitzaion 1990ko hamarkadan. Testuinguru horretan, Europako historia hainbeste zikindu duen ikuspegi erlijiosoak Historiaren bertso propioak sortu zituela gogoraraztea merezi du. Interpretazio katoliko eta protestante desberdinek bizirik irauten dute Europako Mendebaldeko zenbait lekutan, eta oso inuzentea litzateke Europako komunitate kulturantzako zati diren erlijioak Historiaren eztabaiden gainetik daudela pentsatzea. Dilema serioak eragin ditzake puntu horrek historia-irakasleentzat. Alde batetik, materialismo eta sekularismoak, estatu-politiken babespean, Europako herrialde askotako erlijio antolatua ahuldu dute, erlijio-historia gai erabat desegokia bihurtu arte. Baina mendebaldeko ikasketa-planek eta testu-liburuek Eliza Ortodoxoari eta Ekialdeko Inperioari dagokiena emateko erakutsitako ezintasuna balore-judizioen adibide tristea da, 1.200 urteko historia, kultura eta espiritueltasuna ahaztu baitugu horren ondorioz, eta honako hau gogorazteko bidean jartzen gaitu:

Aro guztietan ere, erlijioa gizartearen osagai garrantzitsua izan da. Haren irakaskuntza saihestea egiari uko egitea da. Ondorioz, ez da onargarria erlijioa egungo testu-liburu eta historia-programetatik ia erabat desagertu izana. (17)

Orain nahiko argi dago duela hogeita hamar urteko ikasketa-planak nazionalistak, politikoak, monokulturalak eta etnozentrismoak zirela. Lehenik, Historia Mendebaldeko Europan zibilizazioaren historiatzat ikusten zen, eta Europan eta munduko gainerakoaren arteko harremanak, Aurkikuntzen eta Kolonizazioaren Aroak, esaterako, ikuspegi etnozentrismoetik ikusita irakasten ziren. Bigarrenik, Europako Mendebaldearen zibilizazioa ikuspuntu estatualistatik begiraturata aurkezten zen, nazionalismoak koroaturiko 1.000 urteko historia gisa. Negatiboa, baita desegokia ere, irudi lezake egoera horri denbora eskaintzea, baina azken batean ez da horrela: lehenik, oraindik herrialde guztiek ikuspegi horiek alde batera utzi ez dituztelako, eta bigarrenik, babeslekua delako erroturiko konbentzioei eusten dieten irakasle lotsatiagoentzat. Modu ironikoan, 1970eko hamarkadan, konbentzio zaharrak alde batera utzi eta ezaugarri kulturantz, elkarren mendeko eta nazioz haraindiko garrantzitsuak dituen gizarte konplexu gisa ulerturiko Europan egokitzeko mugimendua agertu zenean, zenbait ahots entzun ziren Europako historia zeharo eurozentrismoa zela salatuz. Jakina, hipernazionalismoa bezain pobrea litzateke Historiarako eta ikasleentzat eurozentrismo miopea; edozein partzialtasun-mota ez da beharrezkoa, ezta egokia ere.

XIX. menderako Historiarako ikasketa-plan berri baten plangintzan funtsezkoa da, hasteko, Europa eurozentrismoaren salaketa peioratiboa gainditzeko moduan ulertzea. Era berean, beharrezkoa da ikasleek zera ezartzea: Europa ulertzeko Historiaren zein arlo izan litezkeen lagungarri.

## HISTORIAK KONTZIENTZIA EUROPARRARI EGINIKO EKARPENA

Historia zenbait alderditan irakasgai zaila edo konplikatu bada ere, Europari buruzko irakaskuntzaren hogeit hamar urteko helburutik erdiak baino gehiagok adierazten dute irakasgai horrek duen zeregin garrantzitsua, beste zenbaitekin lankidetzan sinbriotik, kontzientzia europar baten iratzartzeari dagokionez. Historia denboraren ezagutzarako, ondarearen baloraziorako, ikuspegiaren zentzurako eta Europa entitate generiko gisa ulertzeko lagungarria izan liteke. Faktore horien artean, lehenik Historiarena da eskusiboki, eta denbora historikoaren bilakabidea da garapen europar osoaren ardatza.

Funtsezkoa da Historiak gazteei denboratasunaren zentzua ematea. Europako historiak zabaltasun kronologiko nahikoa du kronologiaren kontzeptuari berezko zentzua emateko, eta historia nazionalak, berriz, bitarteko aldakorragoa dira. Eu-

ropa oso baliabide baliagarria da jarraitasunaren indarrari eta aldaketaren kontraindarrari buruz ikasteko, eta horrek ikasleei garapen-erritmoak, eta kausa eta efektuko azalpenak identifikatzea ahalbidetzen die. Irakasleen zeregina ikaskuntzaren aurrerabidea ziurtatzean datza, ikasketa etena galga baita kontzientzia europarrak jabetzeko. Garai klasikoko Erromako eta Greziako lorpenak garrantzitsuak dira Europako historiaurreako, baina ezin dute ondorengo garapena azaldu. Erdi Aroko Europak sistema ekonomiko edo hierarkikoen jarraitasuna frogatzeak, eta ikasleentzat lagungarria izan liteke aldaketa aurreraketa zein atzeraketa izan daitekeela konturatu daitezkeen, baina nazionalismoak edo ideologia sekularrak giza ekintzan duen indarra ezin liteke Erdi Aroko Europaren azterketa batetik soilik atzeman. Zenbait espezialista bigarren hezkuntzako azken urteetako ikasleei XX. mendeko Historia irakastearen aldeko badira ere, ezagutza horiek Europako Historiako aurreko denboraldien azterketaren funtsetan oinarritu behar dira, garaiko arazoak testuinguru historiko batean sustatuta baitaude. Hainbat gai, hala nola Irlandako arazoak, Alemaniaren bateratzea, Poloniako mugen bortxaezintasuna, gobernu demokratikoarentzako aurrerabidea eta giza eskubideen babesa, neutraltasuna eta herrialde neutralak, erregionalismoaren boterea eta elkartzeko-zonaldeen —Europako bidegurutzeak, esaterako, Belgika, Luxenburgoko, Alsazia-Lorena, Italiako hegoaldea, Txekoslovakia edo Hungaria— garrantzia, denbora-tarte luze bat aztertuta soilik uler litezke arrazoizko moduan. (18) Eta horrela, Historiak Europa zer den zehazten duen bitartean, ikasleak aberastu egiten dira Europako iraganaren ulerkuntza kronologikoa tarteko.

Puntu hori inplizitua zegoen Europako Kontseiluaren bi elkartzeko garrantzitsuren gomendioetan. Helsingör-en, Danimarkan, 1965ean eginiko Historiaren Irakaskuntzari buruzko Sinposioan hogeita bost gai proposatu ziren Europako garapenaren adierazgarri. 1986an Larkollen-en eginiko Bikingoan Aroari buruzko CDCCren irakasleen mintegiaren ondorioek egiaztatu zuten, ikasketa-planaren printzipioa hedadura kronologiko handia biltzen duten gai zabaletan oinarritu behar da (ikus 2. taula eta 3. irudia). Bi gomendio-taldeek zibilizazio erromatarrek, grekoak eta islamikoak, baita beste zenbait herri ere (juduak eta arabiarak, esaterako), Europari eginiko ekarpena barne hartzen dute; Erdi Aroko elizaren zenbait alderdi, ordena erlijiosoak, erromes-mugimenduak eta gurutzadak, esaterako; migrazioek eskala handian izandako inpaktua; bankaren, kapitalismoaren eta merkataritzaren garapena Aro Modernoaren hasieran; Errenazimentua, zientzien eta teknologien garrantzia; Industria iraultza; eta, azkenik, XVIII eta XIX. mendeetako iraultzak liberalismoaren, nazionalismoaren eta demokraziaren gorakadari lotuta.

Larkollengo ordezkariak gehiago azpimarratu zuten gizarte-historia eta pertsona-talde berezien garrantzia, emakumeak barne, Helsingörko gaien nondik norakoa, ordea, abstraktuagoa edo politikoagoa izan zen; lehenetsun historikoen aldaketaren adierazgarri dugu hori. Hala ere, bi zerrendak alderatzeak edukien bateragarritasun nahikoa erakusten digu esperientzia historiko europar komunetako arlotan taldekatzeko, eta horiek kontuan har litezke (zenbaitek kontuan hartu behar direla esango dute) Historiarako ikasketa-planen diseinuan. Zalantzarik gabe, Helsingör-Larkollengo gaiak oinarri egokia dira Europari buruzko ikuspegi historiko propiorako edo diziplina arteko ikuspegiarako, tokiko edo nazioaren lehentasunen arabera.

Historiaren bigarren ezaugarri garrantzitsua *ondarearen* kontzeptua pizteko gaitasuna da. 1980ko hamarkada arte iraganaren herentziari buruzko herri-kontzientzia urria zegoen: profesional espezializatuentzako gai erreserbatua izan zen, esate baterako, artearen historialariak, antikuariak eta arkeologoak. Harrezkero, erro-erroko aldaketa izan da jendearen jarreretan, eta horrek ondareak berriz baloratzea eragin du. Gaur egun, oro har kontsideratuta dago Europaren iragana polifazetikoa dela, eta arlo pertsonalean eta espiritualean aberasteko iturri denez baloratu eta babestu behar dela; etorkizunerako kontserbatu beharra da batez ere kezka nagusia. Historiaren herentzia eraikin batean zehatz liteke soilik, edo herri edo eskualde baten berezitasunarekin egon liteke lotuta; mugimendu edo kreatibitate-mota baten emaitza izan liteke, nazio-mugak zeharkatzen dituen zonalde zabala duela adierazgarri, Ibilbide Kulturaleri buruzko Europako Kontseiluaren ekimenean ikus daitezkeen bezala. Pentsamenduaren eta etikaren alorrean ere aurki liteke: Kristautasunak eta Frantziako iraultzak Europa demokratikoarentzat legatu desberdinak utzi badituzte ere, haien ideien inpaktua objektuak eta monumentuak bezain garrantzitsuak da ondare europarrean. Hain askotarikoa den herentzia azaldu eta ebaluatzea da Historiaren eginkizunetako bat.

2. taula Helsingör eta Larkollengo gaien arteko alderatzea

Helsingörko hogeita bost gaiak	Larkollengo hogeita hiru gaiak
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Europak iraganeko eta egungo zibilizazioekin duen zorra: grekoa, erromatarra, bizantziarra,* Judaismoa, Kristautasuna, Islama, eta abar</li> <li>• Europako migrazio handiak</li> <li>• Feudalismoa</li> <li>• Eliza</li> <li>• Landa-baldintzak eta Erdi Aroko hiriak</li> <li>• Gurutzadak</li> <li>• Ordezkaritza-erakundeak eta printzipio legalak</li> <li>• Pentsamendua eta Erdi Aroko arteak</li> <li>• Humanismoa: Errenazimentua</li> <li>• Erreforma erlijiosoko mugimenduak</li> <li>• Aurkikuntza-bidaia eta itsasoaz haraindiko bidaiak</li> <li>• Kapitalismoaren garapena</li> <li>• Estatu modernoaren bilakaera</li> <li>• Gobernu absolutua eta ordezkaritza-gobernuak</li> <li>• Klasizismoa eta Barrokoa</li> <li>• Ilustrazioaren Aroa</li> <li>• Nekazaritza eta industria iraultzak</li> <li>• XVIII eta XIX. mendeetako iraultzak eta liberalismo/nazionalismoa</li> <li>• Sozialismoa</li> <li>• XIX eta XX. mendeetako garapen intelektualak, artistikoak, zientifikoak eta teknikoak</li> <li>• Zabalkunde europarra munduan eta inperio kolonialak eratzea</li> <li>• Bi mundu-gerrak</li> <li>• Demokrazia, komunismoa eta faxismoa</li> <li>• Europa egungo munduan</li> <li>• Europaren batasunerako joerak Europako Historiaren hainbat unetan</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tokiko eta Europako historiaren arteko harremanak, edo tokiko ingurunea erabiltzeko moduak Europako Historia irakasteko baliabide gisa</li> <li>• Zientzia eta teknologia Europako Historiako gaiak direnez</li> <li>• Emakumearen emantzipazioa Europako Historian</li> <li>• Europako Historiako migrazioak</li> <li>• Bankuak eta bankariak Europako Historian</li> <li>• Judutarrak Europan</li> <li>• Europa eta mundu arabiarra</li> <li>• Europa eta Islama</li> <li>• Mediterraneoa Europako Historian</li> <li>• Baltikoa Europako Historian</li> <li>• Europako hegoaldea, kulturen bidegurutzea denez</li> <li>• Danubio ibaia Europako Historian</li> <li>• Grezia klasikoa</li> <li>• Erromatarak Europan</li> <li>• Gurutzadak</li> <li>• Monasterio-ordenak</li> <li>• Erromesak eta erromesaldiak Europan</li> <li>• Kristauak, musulmanak eta judutarrak elkarrekin bizi izana Erdi Aroko Toledon</li> <li>• Hansa</li> <li>• Errenazimentua</li> <li>• Industria Iraultza</li> <li>• Frantziako Iraultza</li> <li>• 1848 Europako Historian</li> </ul>
<p>* Arreta berezia eskaini behar zaio Bizantzioko historiari Erdi Aroko zibilizazioan izandako garrantziari. Kultura bizantziarra aztertu eta elementu komunak ikusi behar dira ekialdeko eta mendebaldeko historiaren artean, baita aldeak ere.</p>	

Historiaren ikuspegiak zentzua ematen dio ikasleen ikaskuntzari, eta hori da gaia zehaztasunez aztertzearen onura nagusietako bat. Gertaerak, pertsonak eta ideiak ebaluatzen ditugun testuinguru historikoa da denbora-ikuspegia, eta oso garrantzitsua da ikasleek sekuentzia-zentzua eratzea. Aldi berean, espazio-elementuez ere arduratzen da Historia, beti izan baita denboraren eta espazioaren arteko erlazioa. Ikasleen zati batek ikasketa-planaren eredu zentrokidea tresna eraginkorra dela uste du ikuspegi konbinatu hori garatzeko. Tokiko historia da programaren abiapuntua, eskala zabalagoan martxan dauden prozesuak biltzen baititu sarritan. Tokian tokiko adibideak hautatuta gai baterako konparazio-ikuspegiak gara liteke. Estrategia berria ez bada ere, oso eraginkorra izaten da sarritan.



Oreka ziurtatzeko ezin da alde batera utzi nazio-ikuspegi, betiere gertaera nazionalak tokiko eta Europako mugimenduen erlazionatzen badira. Gainera, ezin da galdu ikuspegi zabalagoa erabiltzeko aukera aztertu beharreko gaiak tratamendu nazioarteko eta orokorrerako bidea zabaltzen dutenean. Europako historiaren zenbait gaik, esplorazioak eta kolonizazioak, esaterako, balio berezia dute «beste kulturetarako leihoak direnez, hau da, Ekialde Hurbileko eta Urruneko, Afrikako eta Ameriketako zibilizazio aberats eta askotarikoetarako sarrera, Europa haiekin hainbat modutan ere zorretan dagoela kontuan izanda.

Azkenik, Europaren Historia lagungarria izan liteke kontzientzia europarra garatzeko irakaskuntzak esperientzia konpartituak eta Europako biztanleak batzen dituzten ingurune-eragin komunak baditu aztergai. Hori ez da aniztasunaren aurka deia, batez ere arlo kulturalari edo sozialari dagokionez. Ez du esan nahi, era berean, Bruselak edo Estrasburgok Europako Historiaren interpretazio bakarra ezarri behar dutenik, ikasketa-plan bateratua tarteko. Dena den, bada zenbait sektoretan joera zital bat, ekimen europar komun printzipioa babestu baina batzen gaituen iraganaren ezaugarriak bideratzeko saio zehatzak errefusatzeko dituen. Helburuei eta emaitzei buruzko pentsamendu nahasia bultzatzen du zenbaitetan. Bigarren kapituluko Hogei Helburuen zerrendako 18. puntuaren esentzia onartzen badugu («Ikasleengan sentsibilitate eta enpatia handiagoa garatzea gizarte kulturantz eta pluralista batean bizitzearen balioari buruz, eta, era berean, Europaren barruan batasuna sustatzen duten mugimendu eta erakundeetan inspiratzea»), ez guke lotsatiak izan behar gelan batasunak izan ditzakeen inplikazioei dagokienez.

Historiaren Irakaskuntzako Europaren Ideari buruzko Europako Kontseiluaren lehenengo mahai-inguruak, 1953an egini-koak, «historiari buruzko ikuspegi europarra sortzeko» itxaropena adierazi zuen. Iritzi hori errepikatu egin zen Helsingör-en 1965ean: «Historia ikuspegi europarretik aurkeztu behar da, ahal den neurrian». (19) Denbora asko igaro da Europa-ko historiaren laburpenaren aldeko deklarazio horiek izan zirenetik. Nozioak, eurozentrismoaren adibidea omenenez, eraso ugari jaso bazituen ere, bultzada berria izan zuen Portugalderen Aurkikuntzen Irakaskuntzari buruzko 1983ko sinposioaren eta 1988an izandako Bigarren Hezkuntzako Eskolako Frantziako Iraultzaren Irakaskuntzei buruzko Europako Irakasleen 39. Mintegiaren gomendioekin. Bi bilerek konpartituriko herentzien garrantzia azpimarratu zuten, eta iradoki zuten, irakasleak orain laguntzeko prest daudela dirudi, betiere Europako historiaren zenbait mintegiren interpretazio homogeneous bilatzeko. Harrezkero, hainbat eskaera entzun dira Historiako testu-liburuak Europa osoan erabiltzeko. Agintari guztiak ez daude ados politika horrekin, eta irakasleen zati batek nahiago izan dezake komunikazioaren teknologian inbertsio bat egitea, informazio eta dokumentazio trukearen mesedetan. Dena den, Frantziako Iraultzari buruzko mintegiko ordezkariak euren babesa adierazi zioten «eskala handian koordinaturiko operazioari, egiazko “testu-liburu europarra” produzitzeko helburuarekin, ikuspegi nazionalak testuinguru zabalago batean kokatzeko mesedetan, aldi berean Historia idatzi beharreko moduari buruz adostasuna lortzeko lan eginda». (20)


Batasunaren gaiak beste zenbait galdera ere eragiten ditu. Esaterako, irakasleek propio erabaki behar al dute integrazio eta lankidetzara europarrari buruz? Erantzuna baiezkoa bada: nola irakats daitezke gai horiek? 1965az geroztik, Helsingör-ko Sinposioak «Europaren batasunerako joerak Europako Historiaren hainbat unetan» gaia gomendatu zuenean, galderari emandako erantzuna baiezkoa zela irudi zuen, Helsingör-en ondoren beste zenbait kongresu izan baitziren, eta horietan gogo biziz aztertu zituzten batasunaren eta integrazioaren gaiak. Praktikan, hala ere, askotariko emaitzak izan dituzte historia-irakasleek. Erresuma Batuan 1970eko hamarkadan Historiako proiektu nazional batean «Europaren batasunerako mugimendua»ri buruz irakasteko saio batek ez zuen 13 eta 16 urte bitarteko ikasleak arreta erakarri. Bigarren hezkuntzako irakasle baten iruzkinaren arabera: «Gerraosteko Europa gai aspergarria da». (21) Jarrera-mota horrek estres-egoera nabarmena dakar irakaslearentzat, baina, era berean, zalantzak planteatzen ditu gazteen ikasteko moduei eta pertzepzioak aldatzeko zailtasunei buruz. Hamarkada bat geroago, «Integrazio europarraren historia»ri buruzko nazioarteko programa batek, antzeko programarekin, emaitza askoz ere konstruktiboagoak izan zituen, parte hartu zuen irakasle daniar baten iruzkinen arabera. (22) Proiektuaren ebaluazioak giltzarri oso garrantzitsua deskubritu zuen emaitza positiboak lortzeko: ikasleei ikaragarri gustatu zitzaizkien proiektu europar bateratua parte hartzeko ideia. Gertaera horrek

iradokitzen duenez, batasuna eta lankidetzaz ezin dira metodo formalak tarteko *irakatsi*, baina agian adibidea baliatuta pitz liteke, edo ikaskuntza aktiboaren bidez esperimentatu.

Aldi berean, batasunaren nozioa ezin liteke jada jorratu ikasketa-planean Mendebaldeko Europaren integrazioa gisa, eta are gutxiago Hamabosten Batasuna gisa. XXI. mendeko Historia Modernoko programek alde biko eskema zaharrak alde batera utzi behar izan dituzte, eta Europa Zentraleko eta Ekialdeko Europako herrialde asko, bloke sobietarreko kide ohiak, Europar Batasunean sartu izanak irakasleak truke-programak zabaltzera behartzen ditu herrialde horiei buruzko euren ezagutzak, eta euren ikasleak, hobetu ahal izateko. Ikuspegi ikertzaileak, ikaskuntza aktiboa, eta informazio eta komunikazioaren teknologia berriak irakaskuntza-metodo tradizionalak arian-arian nagusitzen ariteak inplikazio bat du irakasleentzat zein ikasleentzat. Harremanak eta trukeak sustatzeaz gain, dimentsio historikoa biltzen duten eskolaz kanpoko jardueren kopurua areagotu behar du, ibilbide kulturalak garatzeko CDCCren programen ildo nagusiei eta Historialari Gazteen programa britainiarri jarraiki, ikasleak ikerketako proiektu aktiboetan parte hartzera animatzeko. (23)

Ez dago zalantzarik Historiak kontzientzia europarrerako izan duen ekarpen bereziari buruz. Dena den, identifikatutako lau elementuetatik hiru —batasunaren (eta aniztasunaren) kontzientzia, ikuspegi-zentzua eta ondarearen balorazioa— beste zenbait jakintzagarekin konpartitzen dira Humanitateetan eta Letretan. Europaren beste bi dimentsioak ikusteko, jakintzagai horien nondik norakoa eta ekarpena aztertu behar da, berezko loturak diziplinanitzeko edo diziplina arteko ikasketen erabilerarekin aprobetxatzeko modua bilatuta (ikus 3. irudia).

3. irudia «Helsingör-Larkollen» gaiak europar historian eta zeharkako loturak




## HISTORIAKO IKASKETA-PLANA TARTEKO KONTZIENTZIA EUOPARRA SUSTATZEKO PRINTZPIOEN LABURPENA

1. Europaren iraganaren nondik norako bereizgarria adierazi behar dute programek, baita jakintzagaien edukien konplexutasunean eginiko aurrerabidea ere.
2. Europaren zati batean edo Europa osoan konpartituriko esperientziaren elementuek lehentasuna behar dute izan banaketa-faktoreen gain. «Konpartituriko esperientzia» ahalik eta modu zabalenean interpretatu behar da; ez du unitate politikoari buruzko enfasi neurrigaberik egon behar.
3. Europako Historia edukien sintesizat hartu behar da kontuan, esate baterako, sozialak, ekonomikoak, kulturalak, artistikoak, espiritualak, etikoak eta politikoak.
4. Historiarako ikasketa-planak, osorik, barne-oreka bermatu behar du: Europa ez da bakartuta kontuan hartu behar, baizik eta toki, eskualde eta nazio mailako garapen-prozesuekin lotu (gaien edo kasuen ikerketaren bidez), baita beste zibilizazioen testuinguru orokorrean kokatu ere.
5. Europako Historiaren irakaskuntzak ikerketa-metodoak hartu behar ditu kontuan eta metodo historiografiko kontzeptu nagusiak gaineratu, esaterako, kronologia, jarraitasuna, aldaketa, kausa, ondorioa, inpartzialtasuna, ebidentzia eta enpatia.
6. Zenbait mekanismori jarraitu behar zaie beste jakintzagaiekiko loturak garatzeko, Historiako ikasketa-planean edo diziplina arteko markoan.
7. Ikaskuntza-metodo aktiboek lehentasuna behar dute izan metodo formalekiko, eta ahalik eta gehien aprobetxatu behar dira IKTBak, komunikabideak eta eskolaz kanpoko ikaskuntza Europako herrialde batean edo gehiagotan.
8. Ebaluazio-formek Europarekiko jarrera positiboen motibazioa izan behar dute aztergai, baita kontzeptuen ulerkuntza eta trebetasun historiografikoen garapena ere.

- (1) Esate baterako, honako honetan; Goodson, I.F. eta V. McGivney (1985), *European Dimensions and the Secondary School Curriculum*, Lewes: The Falmer Press.
- (2) Bigarren Hezkuntzako lehen urteetako Historia Irakaskuntzari buruzko sinposioa, Brauschwig, Alemaniako EF, 1969, honako honetan txostena duela; (1985), *Against Bias and Prejudice*, Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- (3) Joera deterministaren forma arruntena marxismoa da, baina ez da ahaztu behar Espainiako tradizio erreakzionario kontserbadorea: Montes, Rafael (1983), *The interpretation of Spanish History and its Ideological Roots*, Valentziako Unibertsitatea: ICE.
- (4) Audoin-Rouzeau, Stephane (1988), *Report of the 39<sup>th</sup> European Teachers' Seminar on Teaching About the French Revolution in Secondary Schools in Europe*, Estrasburgo: Europako Kontseilua; Frantziako Iraultzaren interpretazioei buruz eskoletan ikasitako Historiaren eragina azaltzen du, hainbat historialarik eginikoak, esaterako, Soboul, Godochot, Furet, Cobb eta Cobban.
- (5) Honako honetan argitzen da hori; Rudenng, Erik (1979), *Report on the 4<sup>th</sup> European Teachers' Seminar on New Trends in History Teaching*, Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- (6) Historiaren irakaskuntzari dagozkion testu-liburu eta sinposioei buruzko kongresu nagusiek honako hauek jorratu dituzte: Europaren ideia Historiaren irakaskuntzan; Erdi Aroa; XVI. mendea; XVII eta XVIII. mendeak; 1789 eta 1871 bitarteko denboraldia; 1871 eta 1950 bitarteko denboraldia; erlijioa Historiako testu-liburuetan; lankidetzaren Europar 1945az geroztik. Horretaz gain, Historiaren irakaskuntzaren alderdiei buruzko mintegiak egin dira, honako hauek barne hartuta: bikingoen aroa, Frantziako Iraultzaren irakaskuntza; eta portugaldarren aurkikuntzak.

- (7) *Report of the Symposium on Religion in School History Textbooks* lanaren laburpena honako honetan; *Against Bias and Prejudice*.
- (8) Slater, J., (1990). *Report on the Educational Research Workshop on History and Social Studies*, Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- (9) Dance, E.H., (1967). *History Teaching and History Textbook Revision*, Estrasburgo: Europako Kontseilua
- (10) *Report of the 39<sup>th</sup> European Teachers' Seminar on Teaching About the French Revolution in Secondary Schools in Europe*, 4. or.
- (11) Mariet, F. (1980), *Report of the 8<sup>th</sup> European Teachers' Seminar on Teaching of Human Rights in Upper Secondary Education*, Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- (12) SESB ohian eta Europako Ekialdeko herrialdeetan 1990ean eta hurrengo urteetan izandako gertaerek programa zentralizatuaren berraztertze urgentea eragin zuten. Slater, *Report on the Educational Research Workshop on History and Social Studies*, 6. or.
- (13) *Report on Teaching About the French Revolution*, 13-14. orr.
- (14) Dance *History Teaching*, 78-9, 91. orr.
- (15) *Ibid*, 74. or.
- (16) Department of Education and Science (1985) *History in the Primary and Secondary Years: An HMI view*, Londres: HMSO, 29-30. orr.
- (17) *Against Bias and Prejudice*, 19. or.
- (18) Esate baterako, giza eskubideen esperientziari dagokionez, Mariet-ek gogorarazten digu ikuspegi historiakoa izateko ezinbesteko premia dagoela. Historiak gogorarazi diezaguke legearen eta errealitatearen arteko tartea. (*Report on Teaching Human Rights*, 6. or.)
- (19) *Against Bias and Prejudice*, 10, 29. orr.
- (20) *Report on Teaching About the French Revolution*, 8. or. Ikuspegi minoritarioa ere kontuan hartu behar dugu, hau da, «testu-liburuen eginkizuna gutxitu edo marjinala bihurtzen den etorkizuna aurreikusi behar dugu», Slater, *Report on the Educational Research Workshop on History and Social Studies*, 15. or.
- (21) Goodson eta McGivney *European Dimensions* 74-75. orr.
- (22) Hojris, Orla (1987) «An example of European Teaching» honako honetan; Shennan, M., *Report of the European Teachers' Course on Teaching about European Cooperation and Integration in Upper Secondary Schools*, Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- (23) Gehiago eztabaidatuko dira eskolaz kanpoko jardueren testuinguruan.



4

**EUROPA ETA ESPAZIO-DIMENTSIOA IKASKETA-PLANEAN**



- EUROPA ETA GEOGRAFIAREN FUNTSA BIGARREN HEZKUNTZAKO ESKOLAN
- EUROPAKO KONTSEILUA ETA GEOGRAFIAREN IRAKASKUNTZA
- IRAKASKUNTZAREN HELBURUAK ETA EUROPAKO IKASKETA-PLANA
- INGURUMEN HEZKUNTZA: EUROPA ESPAZIALERAKO JAKINTZAGAI ANITZEKO HURRERATZEA
- NATUR ETA GIZA ZIENTZIETAKO BESTE JAKINTZAGAI BATZUEN EKARPENA

## EUROPA ETA GEOGRAFIAREN FUNTSA BIGARREN HEZKUNTZAKO ESKOLAN

Europari buruzko irakaskuntzarekin zerikusia duten txosten gehienek Geografiari garrantzi nagusia ematen diote. (1) Horren arrazoia bistakoa izan daiteke: eguneroko bizitzako gaurkotasunezko gaiekin lotura zuzena duen irakasgaia da, eta ikasleei ekonomia, politika, gizarte eta ingurumen gaiei buruzko iritziak adierazteko informazioa ematen die. Justifikazioa, ordea, errazago azal daiteke. Europa *leku* bat da —inguru bat, lur-eremu bat eta kontinente bat—, eta Geografian tokiak edo lekuak aztertzen dira batez ere. Kontzeptu horrekin duen lotura dela-eta, Europari buruzko irakaskuntzarako irakasgai naturala da.

Geografia-arluko profesionalak ez direnentzat ideia horrek logika naturala du, eta ikasketa-planean Europari buruzko ideia jorratzearekin konprometituta dauden irakasle gehienek eskertuko lukete euren ikasleek Europako egitura fisikoa-ri eta ingurumenari buruzko oinarritzko ezagutzak lortzen jarraituko balute. Bestela esanda, Geografiako programa tradizionala, nazio-mailako esparruan eskualdeen ezaugarri fisikoak eta bereizgarriak —ibaiak, mendiak, kostak, haranak, hiriak, produktuak, laboreak eta baliabide naturalak— azpimarratzen zituen programa, alegia, erabilgarria zen. Ikasleei funtsezko informazioa ematen zien, Europako *azkoinak eta torlojuak* ematen zizkien. Analitikoa izan beharrean edukia deskribatzailea izatea, eta, batez ere, datuak buruz ikasteen datzan ikaskuntza-mota izatea, lorturiko ezagutzeekin alderatu beharreko hutsunetat hartzen da gaur egun. Hala ere, ikuspegi mugatua eta mekanikoa izan arren, *lurmuturrak eta badiak* deituriko metodoak —Historiako *hots eta handitasuna* deituriko eskolaren antzekoa— 1950eko hamarkadara arte iraun zuen.

Praktikan, Geografia fisikoa eta eskualde-mailako Geografia tradizionala ez dituzte berdin tratatu Europako ikasketa-planetan. Geografiako programa tradizionalak kritika asko jaso zituzten, batez ere Erresuma Batuan eta Europako iparraldeko herrialdeetan, honako arrazoi hauek direla-eta: haurtzarora ardatz duten Ipar Amerikako hezkuntza-teorien eragina, gizarte-zientziak ugartzea, eta ezagutzen eklosioa. Aldi berean, «eskualde» nozioa ere kritikatzeko zuten, «lekuaren» jarraipena eta bakartasuna azpimarratzen zuelakoan. (2) Jatorritzko premisak huts egin zuen, Europa eta bere eskualdeak ez baitira harrizko elementu aldaezinak. Europa kontzeptu dinamikoa da, eta gero eta gehiago estimatzen dira Jean Gottmann-ek Europari buruz emandako iritziak. Europako Nekazaritza Politika Komuna zela-eta, britainiar geografo baten zera esan zuen: «Mendiek, ibaiak eta haranek dagoeneko ez dute lehengo eragin bera. Europa Berria gizakiaren obra da aurrekoa baino hein handiagoan. “Behi-haragizko mendia” edo “ardo-lakua” epe luzean benetako mendiak eta lakuak baino garrantzitsuagoak izan daitezke». (3) Gaur egungo Europa ulertzeko Geografiak eginiko ekarpena, beraz, lehen uste zena baino askoz ere konplexuagoa da. Aldi berean, haren aplikazio-eremua zabaldu egin da, eta gaur egun hainbat jakintzagai hartzen ditu barne. Gaur egungo irakasgaiaren barruan, hiri-geografia (gizarte-historiarekin antzekotasun asko ditu), garapenari eta ingurumenari buruzko azterlanak, geografia politikoa edo kulturala, eta geomorfologiari eta klimatologiari buruzko hainbat alderdi ikasten dira. Ez da harrizkoa adituek Geografia «ikasketa-esparrutat» hartzea, jakintzagai bereiztat bainoago.

Dena den, arrazoirik egon badago Europari buruzko geografia fisikoa eta eskualdekoa Europako ikasketa-planean eduki-tzen jarraitzeko, edota berriro ere txertatzeko. Izan ere, Frantzia eutsi egin diote geografia fisikoa, hau da, herrialdeak irizpide fisiko eta klimatikoaren arabera sailkatzen dituen, eta mugak zein herrialdeak eskualdetan zatitzen dituzten muga fisikoak azpimarratzen dituen geografiari. Espainiako, Suitzako eta Belgikako hezkuntzan ere eragina izaten jarraitu du; izan ere, leku horietan Geografia-eskola frantziarrak (Vidal de La Blanche ospetsuarena sorburu izan zuen) zeukan indarrari eutsi dio. (4) Dokumentazio geografikoari buruzko CDCCren sinposio batean eginiko gomendioak ikuspegi horren oihartzuna ziren; izan ere, horren arabera, Geografiak lehenik eta behin ekarpen hau egin behar dio ikasketa-planari: «Europako inguru fisikoaren eta gizatiarren kokapena, konfigurazioa eta aniztasuna ulertzearen» garapena. (5) Baina espazio-



dimentsioa oinarritzat hartzen bada ere, gaur egun gero eta modu konplexuagoan interpretatzen da. Aipatutako sinposioaren bukaeran, hizlariak honako laburpen hau egin zuen:

Geografiak gaur egun espazio-bereizteari, espazio-interakzioari eta espazio-antolamenduari buruzko gaiak jorrazteak, estatuaren eta eskualdeen deskribapen estatikoak egin ordez, bereziki erabilgarri bihurtzen du ikasleek Europan izaten diren aldaketa-dinamikak ulertzeko gaitasuna garatzeko. (6)

Beraz, geografia-eskoletan ikasketa-planen arlo aldakorra dela aintzat hartuz, irakasleek ikasleei Europako baliabide fisikoaren eta gizatiarren berri emateko aukera erabiltzeko proposamena onargarria da.

Baliteke gomendio horrek helburu komuna eman izana Geografiako Europako irakasleei. Zalantzarik gabe, lehen aipaturiko Geografia Berriaren sorrerak aldaketa asko ekarri zizkion irakasgaiari. Edukien orekari eta geografia gizatiarraren eta fisikoaren garrantzi erlatiboari buruzko eztabaida pizarazi zuen. Hala ere, esanguratsuen izan zen giza zientzia gisa sailkatu izana, eta metodologia zientifikoa erabiltzen dutela baieztatu izana. Gaitasunak eta espazio-teoriaren, ereduaren eta datu kuantitatiboaren erabilera azpimarratu zituzten. Ingalaterran, Eskozian, eta Suedian (Estatu Batuetan ere bai), Geografia Fisikoak eta Eskualdekoak atzera egin zuen, gai orokorrei buruzko azterlan sakonak eta kontzeptu berriak argitzeko gaitasuna zutela-eta aukeraturiko kasuei buruzko azterlanak lehenetsi zirenean, ereduak eta prozesuak adibide zituztela. (7) Tentsioa zegoen ezagutzen edo prozesuen garrantzi erlatiboaren eta ikaskuntza-metodoen artean. 1980ko hamarkadan, britainiar irakasle batzuek honako kezka hau azaldu zuten: euren ustetan ikaskuntza-*prozesuari* garrantzi handiegia eman zitzaion, *edukiaren* kaltetan. Hori Europari buruzko ikaskuntzaren aldeko argudioekin lotuta agertu zen bereziki.

Geografia Berriaren testuinguruan Europa ote zegoen ez zuten ikerkuntza-objektu garrantzitsutzat hartzen; aldiz, gai orokorrak osatzeko irakasleek erabil zezaketen kasu-azterketarako iturri bilakatu zen. Irakasleek geografia-metodologiaren garapenak une hartan sustatzen ari zen europar dimentsioaren aurkako mehatxutzat hartzen zuten. Michael Williams-ek garbi azaldu zuen irakasleek aurrez aurre zuten arazoa:

Geografo batzuen arabera, zein toki aztertu behar den aukeratzea ez da funtsezko arazoa [...] Tokiak, aldeztu zehazturiko ikaskuntza-prozesuetarako zeintzuk diren onuragarrienak kontuan izanda aukeratu behar dira. Beraz, Europako tokiak beste inguruetakoen maila berean jarriko dira, eta Europan egote soilagatik ez zaie garrantzi handiagorik emango. (8)

Aldi berean, 1970etik aurrera, eskolan ikasten den Geografiak hainbat ildo hartu zituen. Europako herrialde batzuetan utzi egin zioten irakasgai hori irakasgai bereizitzat irakasteari. Alemaniako Errepublika Federalean, Norvegiar eta Suediar jakintzagai anitzeko programetan txertatu zuten eta Gizalege Hezkuntzaren edo Gizarte Ikasketen zati bilakatu zen. Espainian beste arazo bat sortu zen, askotan irakasgai hori Historiako edo beste jakintzagai batzuetako irakasleek ematen baitzuten. Ikasleen pertzepzioak askotan okerrak ziren: 1989ko inkesta batek erakutsi zuen batxilergoko ikasleen %40k ez zekitela Holandako hiri bakar baten izenik esaten, eta horietako askok uste zutela Brusela Holandako hiri bat zela. Europari buruzko informazioa zatikatua zegoen testuetan. (9) Europako beste muturrean —Jugoslavia— Geografia «konpartimentatuegia» zegoelako iritzia sortu zen. (10) Baina Erresuma Batuan, ikuspegi berriek —batzuetan erradikalak— garai bateko Geografia Berria eraldatu zuten, eta irakasgaiari ikuspegi murriztailea kendu eta ikuspegi orokorra eman zioten. Metodo estatistikoak eta trebetasunekiko obsesioak alde batera utzi eta gizartearen giza, politika eta kultur alderdietarako interes berria piztu zen. Pertsonen/ingurumenaren ikaskuntzak auzi eta arazo berriak plazaratu zituen, eta onespen handiagoa lortu zuen. Horrek erakutsi zuen Geografia erabat aldatu zela 1880an Frantziako gobernuaren erabaki batek elkar ulertzeko enpatia sustatzeko eginkizun afektiboa azpimarratu zuenetik. Izan ere, jarrerak garatzeko kezka, kulturaren kontzeptuari buruzkoa, betiere kultura gizabanakoen, taldeen edo erakundearen portaeratzat hartuta, eta giza harremenen testuinguru soziokulturalaren gaineko kezka, Utrecht-eko Sinposioaren hasierako hitzaldian berretsi egin ziren. (11) Hala ere, Geografiaren ikaskuntzak, teoriarik zein praktikan, onarpen zabala duten europar oinarriak izan arte egin beha-

rreko bidea luzea da oraindik. Europari buruz eskuragarri dagoen informazioa bateratzeko beharra urrats garrantzitsua da prozesu horren barruan. Geografia Irakasleen Elkartearen Europako Sareak *Eurogeo* izenburua duen buletina argitaratzen du 1981etik, Geografia irakasgaiaren europar dimentsioaren irakaskuntza bultzatzeko. Europako Batzordeak 1994an finantzazioa murriztu bazuen ere, nazio-mailako Hezkuntza Ministerioek (zehazki, Austriakoak, Herbehereetakoak eta Luxenburgokoak) defizit hori fondo propioez bete dute. Dena den, testuliburu, atlasen eta IKTB agentzien bidez eginiko Geografiaren irakaskuntza eta ikaskuntzaren finantzazioa berebiziko interesa duen gaia da.

## EUROPAKO KONTSEILUA ETA GEOGRAFIAREN IRAKASKUNTZA

Duela hogeita hamar urte baino gehiago, Europako Kontseiluak Geografiako testuliburuaren kalitatea aztertu zuen eta ga-bezia larriak atzeman zituen. 1961-1964 denbora-tartean nazioarteko lau konferentzia egin ziren Europako eskualde nagusiei buruzko irakaskuntzan erabiltzen ziren materialak aztertzeko. Denetan ahulezia ugari atzeman zituzten: itxuraldazte eta partzialtasun adibide ugari, exotikoa zabalago azaltzeko eta informazioa laburtzeko joera, informazioa okerra edo engainagarria bihurtzeraino gainera (adibidez, Herbehereak honela aurkeztea: errotez, txokoloz eta gazta-azokaz betetako lurraldea), eta baita herrialde txikiagoen berezitasunak azaltzeko gaitasunik eza ere (Austria, Belgika, Danimarka eta Portugal, besteak beste). Kritika horien ondorioz, 1967an Kontseiluak E. C. Marchant-i honako lan hau egiteko eskatu zion: *Geografiaren Irakaskuntza, eta Geografiako Testuliburuaren eta Atlasen Berrikuspenerak*. Lan horretan zazpi puntuko praktika-kodea ere bildu zuen, eta Geografia-irakasleak honela jardutera animatu zituen:

- Edozein herrialderen deskribapena ez egiteko aukera tentuz azterzea.
- Herrialde baten elementu erromantiko eta koloristak gehiegi azpimarratzeko aukera saihestea.
- Kontuz ibiltzea inguru fisikoaren zailtasunak ez azpimarratzeko, eta batez ere, ez ematea zeraren itxura: ez dela behar zen guztia egin zailtasun horiek gainditzeko.
- Ziur egotea orokorpenak egiteko erabilitako estatistikak eguneratuta daudela eta akatsik gabeak direla.
- Materiala ikasle gazteagoentzat laburtzen denean, faltsukeriak, egia-erdiak eta aurreiritziak saihestea.
- Beste batzuekiko harreman atsegina sustatzen saiatzea eta, era berean, horiei buruzko informazio osoa ematea.
- Gogoraraztea Europako ezin herrialde ez dela entitate bakandu eta autosufizientea, baizik eta herrialde bakoitza Europako zibilizazio komunaren zati bat dela. (12)

Dena den, mailei dagokienez oraindik ere beharrezkoa da kontu handiz jardutea, eta horretan, egileek erantzukizun handia izaten jarraitzen dute.

Gainera, 1967tik ikus-entzunezko baliabideek eragin handia izan dute geografiari buruzko ezagutzen zabaltasunean eta horiek eskuratzeko aukeretan. Hala ere, informazio estatistikoa argitaratu baino lehen zaharkituta gera daitekeenez, Danimarkako aditu batek, Ove Billmann irakasleak, aditzera eman du egileek informazio hori IKTBetarako utzi eta «ikasleengan lekuaren eta herrialdearen, bai eta harremanen, gatazken eta eskualde-bilakaeren, eta bilakaera globalen irudiak garatzeko ahaleginean jarri behar dutela arreta». (13) Geografiako programaren planifikazioan, irakaskuntzan eta ebaluazioan laguntzeko, CDCCk hainbat laguntza-obra egin zituen, besteak beste, sei hizkuntzatan argitaraturiko ohiko geografia-terminoen glosategia. Era berean, bigarren hezkuntzako Geografia-programei buruzko azterlanak ere egin zen, J. W. Morris-ek koordinatuta, Europako Ikasketa Planei buruzko Azterlanen sailaren barruan. (14)

1960ko hamarkadan CDCCk ere ekin zion informazio zehatza bildu eta hedatzeko estrategiari. Gaur egun lehentasuna izaten jarraitzen du haren hezkuntza-politikan. 1965ean Ministro Batzordeak informazio eta dokumentazio zentro nazionalak sortzeari buruzko ebazpen bat onartu zuen. Gerorago, Herbehereetako Geografiarako Informazio eta Dokumen-

tazio Zentroa (IDG) zabaldu zen Utrecht, eta Braunschweig-eko Eskola Liburuen Nazioarteko Institutua Historia eta Geografiako testuliburuari buruzko informazioa trukatzeko egoitza izendatu zuten. Institutuz horiek maila ofizialean edo gobernu-mailan ezarritako hainbat erakunde nazionalen lana osatzen dute, edo organismo pribatuena, Montpellier-eko (Frantzia) *La Maison de la Géographie* erakundearena, esaterako. Ezin da neurtu IDGk instituzio gisa duen eragina, jasotako informazio-eskaeren kopurua kontuan hartuta bakarrik. Herbehereetan argitaraturiko material-adibideek erakusten dute akatsik gabeko informazioa eskura izateak, ikasleen pertzepzioak nabarmen hobeto ditzakeela. Dena den, argitaraturiko materialaren berrikuspenean etengabeko lana da. Eskolako atlasak lehen baino hobeto dira teknikari dagokionez, baina argialetxeek gogoan izan behar dute XXI. mendeko eskaerak asetzeko Europari buruzko gaiak ez ezik —komunikazioak, merkataritza, turismoa, kultur ezaugarriak— herrialde bakoitzari buruzkoak ere jorratu behar dituztela, estatuen arteko harremana azaltzeko. Akatsik gabeko datuak irakasleek eskuragarri izatea ahalbidetzeko kezka horrek bultzatuta, CDCCk eta IDGk Utrecht-eko Herbeherei buruzko Informazio eta Dokumentazioari buruzko Sinposioa babestu zuten. Sinposio hori datuen transmisioan lorturiko aurrerapenak ebaluatzeko eta aurreko hamarkadan Geografiaren irakaskuntzan izandako aldaketan, eta IKTBen eraginak, eta batez ere ikasketa-planean europar dimentsioa ezartzearen ondorioak —betiere Europako eremuan, nazio-mailan bainoago— berrikusteko.

Sinposio hori erreferentzia-puntutzat har genezake Geografiaren irakaskuntzan. IKTBen erabilera eta irakasleak Europa integratuaren erronkaren aurrean gaitzeko beharrei buruzko akordioak lortu ziren. Era berean, gomendatu zen Europako herrialdeen geografiari buruzko informazio-iturrien gida bat, Geografiaren irakaskuntzari buruzko inkesta bat eta obra berri bat —E. C. Marchantena baztertzeko— egitea. Gai-zerrendako hiru arlo orokorren artean, hainbat eskola-sistematako testuliburuetan ageri zen Europako herrialdeen geografiaren azalpena izan zen, agian, ikasketa-planetan eragin zuzena izan zuen alderdia. Parte hartu zutenek honako hauei buruzko informazioa trukatu zuten: irakasten zenari eta artean jorratzen ez zenari buruzkoa, programetan, testuliburuetan eta atlasetan eginiko hobekuntzei buruzkoa, eta baita 1990eko hamarkadan hasi zen aldaketa sozial, politiko eta ekonomikoaren testuinguruan garrantzi handiagoa eman behar zitzaizkeen arloei buruzkoa ere. Europar dimentsioari dagokionez, Europar Batasunaren eta Europako Kontseiluaren baldintzei buruz ere eztabaidatu zuten. Euren deliberamenduen ondorioz, bi alderdi garrantzitsurako jarraibideak sortu zituzten: lehenik, hurrengo hamarkadan Geografiaren irakaskuntzan izan beharreko helburuak zehaztu zituzten, eta bigarrenik, Europako ikasketa-planaren eduki egokirako iradokizunak egin zituzten. Haien ondorio eta proposamen gehienek baliagarriak izaten jarraitzen dute gaur egun ere.

## IRAKASKUNTZAREN HELBURUAK ETA EUROPAKO IKASKETA-PLANA

Europar hezkuntzan eginkizun garrantzitsua izateko, Geografiak hainbat errealitatei erantzun behar dio. Lehena, Europak ingurune fisiko eta gizatiar gisa duen konplexutasuna. Ikasleek ezaugarri desberdinak dituzten hainbat talde politiko daudela jakin behar dute. Eta, adibidez, Errusiaren zabalera Europako muga tradizionalak baino haratago iristeak eta antzinako SESBko herrialdeekin dituen loturek haren izaera politiko eta sozialean eragina dutela. Bigarrena —aurrekoarekin alderatuta kontraesankorra, hein batean— Europar Batasunaren zabalkuntza-prozesuan gero eta uniformeago bihurtzen ari den mapa politikoko muga sozioekonomikoak deuseztatzean datza. Integrazioaren ondorioak auzi geografiko hutsa baino askoz ere gehiago dira. Dagoeneko eskala handiko ekonomiak daude, eta korporazio handien eta nazio-mailako enpresen arteko lehia handiagoa da. Testuinguru horretan are garrantzitsuagoa da gazteek azpiko eredu geografikoak ezagutzea eta beste herrialde batzuei buruzko informazio ona izatea, goi-mailako hezkuntzan hasi eta lan-merkatuan sartu baino lehen.

Garai batean, aldaketa-prozesuek eta ekonomia-lehiak Europako herrialdeak gerrara eraman zituzten gehiegitan. 1945etik aurrera ikasitako ikasgai nagusia hau da: Europako eremuko lankidetzak bereizketa sortzen duen lehia gainditu ahal dezake eta gainditu behar du. Ikasleek aldaketaren erronka ulertu eta beste europar batzuekiko lankidetzarako gai-

tasuna garatu beharra dute arazo komunak konpontzeko. Horretarako, besteekiko ulertze enpatikoa garatu beharra dago, batez ere kultur jatorri desberdineko bizimodua dutenekiko. Kontua da kultur elementu komunak eta kultur aniztasun aberatsa balioestea, horrela partzialtasuna eta pentsamendu estereotipatua deuseztatzeko eta kultur nortasunari eusteko Europa Berrian. Geografia funtsezko tresna da prozesu horretan. IDGko zuzendariak esan zuen bezala, «Informazio geografiko sendoa ezinbestekoa da Europako herrialdeetako "ikuspegi" egokiak sortu eta hedatzeko, geografiak jarduera ekonomiko, sozial eta kultural askoren esparrua zehazten baitu». (15)

Aldi berean, Geografiaren irakaskuntzak —Historiarenak bezalaxe— eurozentrismoan erortzeko joera saihestu behar du. Garai batean, atlasak egiten zituzten argitaletxeek akats horixe egin zuten. Holandako argitaletxe batek esan du premi azkoa dela oreka hobea lortzea, Belgikan, Suitzan, Danimarkan, Finlandian eta Herbehereetan eginiko atlasetan oinarrituta, bertako atlasetan Europako mapak liburuaren eduki osoaren %30 hartzen baitute. (16) Etorbizunean, munduko mapak lur-banaketa desberdinak eta erdigune gisa Europa ez duten proiektzioak irudiztatu beharko dituzte. Testuinguru orokorrak herrialdeen arteko mendekotasuna azpimarratu behar luke, horixe baita Europaren eta munduko gainerako herrialdeen arteko harremanen oinarria. Europako irakasle gehienek iritziz, Geografia irakasgairik onena da ikasgelan nazioarte-mailako gaiak hartzeko eta beraz, egokiena da nazioarte-mailako elkar ulertzea sustatzeko.

Azkenik, Geografiak trebetasunen garapenarekin du zerikusia. Gainera, trebetasun afektiboek gain, tolerantzia eta empatiaz gain, alegia, ikasleek trebetasun kognitibo sorta zabala —analisi, ebaluazioa, sailkapena eta sintesia, kontzeptu eta teoriaren aplikazioa— bereganatu eta aplikatu behar dute, bai eta Europako testuinguru desberdin batean landa-lanak egitearekin loturiko trebetasun praktikakoak eta parte hartzeak ere. Geografiako irakasleak aitzindariak izan dira txangoak, bidaiak, trukeak eta ikaskuntza aktiboko beste modu batzuk aprobetxatzen. Hala ere, gaur egun onartzen dute baliabide elektronikoen berriak eta bideo interaktiboek aukera handiak eskaintzen dituztela ikastegi desberdinetako ikasleek euren artean harremanak egiteko eta proiektu komunak garatzeko. Kasu batzuetan, Irlandako eta Britainia Handiko Europari buruzko Ikasketa Proiektua, esaterako, helburua Historia eta Geografiari buruzko lanetan lankidetzan aritzeko aukerak ematea da —ikasle-taldee, ikasgelei eta ikasle solteei—, posta elektronikoen erabilera eta bizilekuetan bertan aurrez aurreko harremana uztartuz. Proiektu-mota horren funtsa ikasleak informazio-teknologietarako beharrezkoak diren trebetasunen inguruan gaitzea da. (17)

Europako Geografiaren irakaskuntzaren helburuak ikaskuntzaren ohiko baldintzen, eta ezagutzak, trebetasunak, jarrerak eta balioak bereganatzearen araberrakoak dira. Programen edukiek zehaztu diren helburu orokorrak hartu behar dituzte barne, kontuan izanda ikasleen adina eta gaitasuna. Bigarren hezkuntzako ikasle gazteenentzat egokiagoa izan liteke trebetasun afektiboak bereziki jorratzea giza gaiei buruzko interes-oinarri bat —eta baita kezka ere— sortzeko; ikasle helduenentzat (16-19 urte), ordea, programak gehiago azpimarratuko du egitura ekonomiko eta politiko aldakorra, bereziki arazo konponbidea, eta Holandako aditu baten arabera, «ikasleei Europako hiritar gisa moldatzen laguntzen dieten ezagutza praktikakoak eta egokiak» landuz. (18) Praktikari dagokionez, berariazko helburuen sailkapena egingo da, adin eta gaitasun-tarte bakoitzerako egokiak diren ezagutzen mailaren arabera. Helburu horiek gauzatzeko modua nazio-mailako agintarien baitan egongo da; hala ere, gero eta ikasketa-plan gehiago dira nazioarte-mailakoak. Geografia irakasleen Elkarteen Biltzar Iraunkorren ordezkari batzuek ere lanean dihardute Europako geografiako irakasleen artean informazio efektiboa aldira trukitzea ahalbidetzeko. Hori lagungarria izan daiteke programak gehiago estandarizatzeko.

Hala eta guztiz ere, Europako herrialde guztietako geografiari buruzko informazio osoa txertatzeko helburua lortu ezinenez, edukia aukeratzea oso garrantzitsua da, eta bultzada izan du Europako dimentsioa zehazteko handituz doan presioa dela-eta. Irakasle elebidunen talde garrantzitsu batek hainbat alderdiri buruzko hausnarketa egiteko eskatu die bere kideei: Geografiak, adibidez, zenbateraino islatzen du nazio/eskualde-mailako aniztasuna edo Europako eremuko uniformetasuna eta nortasuna? Zenbateraino plazaratzen ditu Europako eremuko irtenbide komunak eskualde-mailako arazo nagusietarako edo arazo nagusi globalerako? Zenbateraino azpimarratzen du eskualde jakin batean irtenbide partikularrak aurkitzeko beharra? Nola azpimarratzen ditu irakasgai horrek Europako ondarea eta lotura komunak, eta nola

lagutzen du elkar ulertzeko? Zenbateraino biltzen ditu garapen-bidean dauden herrialdeen helburuak eta arazoak, eta zenbateraino azpimarratzen du garapenerako beharrezkoa den Europaren eta kanpoko munduaren arteko lankidetzat? Nola heltzen die Geografiak Europako hainbat herrialdek gaur egun dituzten arazo eta auzi sozioekonomikoei, eta lankidetzat-ahaleginen bidez irtenbideak bilatzeari? (19) Galderak lehentasunak zehazteko modu bat dira, eta kasu horretan hainbat kontzeptu adierazten dituzte: batasuna, aniztasuna, erregionalismoa, aldaketa, ondarea, ereduak, prozesuak, lankidetzat eta elkarrekiko mendekotasuna. Kontzeptu horiek ez dira Geografia-arlokoak bakar-bakarrik; denak irakats daitezke jakintzagai arteko esparru batean (ikusi 3. taula), baina Geografiak gehiago argi ditzake gai egokien bidez (kasuen azterketaren bidez). Gaiak abantaila bat dute, kiribil moduko ikasketa-programa baten hainbat mailalara egokitzen baitira. Hala, energiaren gaia herri, eskualde edo nazio mailako auzizat ikas daiteke, edota arazo paneuropar gisa, trebetasun-progresio bat erabiliz.

Praktikan, Europako ikasketa-planek dagoeneko Europako dimentsioa duten geografiari buruzko gai-gune bat barne hartzen dute. Honako hauek daude arruntenean artean:

- Urbanizazioa (auzo degradatuen egiturak, eginkizunak eta arazoak; adibidez, Paris, Hanburgo, Glasgow).
- Industrializazioa (produktzio-ereduak, kokapena, aldaketa, berariazko industriak, enplegua, langabezia eta postindustrializazioa; adibidez, Ruhr eskualdea).
- Lurzoruaren erabilera (Itsasertzeko padurak berreskuratzea eta garatzea; adibidez, Scheldt-Rin, Rodanoren Delta, Veneto).
- Nekazaritza (motak, produktzioa, aldaketak; adibidez, EBko Nekazaritza Politika Komuna).
- Biztanleriaren baitako aldaketak (migrazioa, Alemaniako *Gastarbeiter*-ak, esaterako; kultura anitzeko komunitateak, Suitza, Frantzia, Erresuma Batua, Errusia, besteak beste).
- Energia (moduak eta erabilerak; Frantzia, Erresuma Batua, Norvegia, Polonia, Errusia, ...).
- Merkataritza (portuen kokapena; adibidez, Benelux-eko herrialdeak).
- Garraioa/komunikazioa (Flandes-eko bidegurutzak, Baltikoa, Danubio).
- Ingurumena (Rin, Ipar Itsasoa, Norvegiako euri azidoa, Dalian Badiako Proiektua, Turkia).

Hori ez da behin betiko zerrenda; irakasleen arteko eztabaiden lagina baino ez da. Kasuen azterketa oro har erabili ohi denez, beharrezkoa da irakasleak animatzea euren adibideak Europako testuinguruan kokatzera eta Europako dimentsioaren eskala zabalagoa azpimarratzera. Aldi berean, arreta handiz jardun behar da estereotipoak saihesteko.

Ikuspegi berriak bilatze horretan, Geografiako irakasle batzuek Geografia «sortzaile» bihurtzeko ideien ildotik jo eta etorkizuneko jokalekuei buruzko hainbat argudio ikasgelara ditzakete. (20) Beste batzuek uste dute futurologia esoterikoa dela, eta Europako gizartearen kezka aldakorrei aurre egiteko irtenbidea gai konbentzionaletik abiatuta gaikako ikuspegia zabaltzean datzala. Horiek nahiago lukete gaiak modu sistematikoagoan jorratzea: mugei eta aldatzeko prozesuan dauden harreman politikoei buruzkoa (adibidez, Ipar Irlandan edo Berlinen); herrigune/periferia dikotomia (Milan eta *Mezzogiorno* deiturikoa); energia nuklearra (Frantzia; Txernobilen ondorioa); aisia/turismoa, turismo alternatiboa, kultur turismoa (adibidez, mediterranean kostaldea; Languedoc; geomorfologia glaziala eta kirola Alpeetan; daniar baserria; greziar taberna; austriar pentsioa; logelen alokairua Poloniako arrantza-portuetan; Europako kultur ibilbideak eta Ardenetako, Eifel-eko, Frantziako Lorrenako, Luxenburgoko, Moselako eta Sarreko landa-habitategi zirkuituak). Kutsadurari eta kontserbazioari buruzko gaiak aski ezagunak dira, eta ekologia gai nagusia bihurtu da geografia-irakaskuntzan 1990eko hamarkadaz geroztik.

Laburbilduz, XXI. menderako Geografiako ikasketa-planaren ardatza «Europa Berriaren» errealitateak, arazoak eta eskaintzen dituen aukerak izan beharko lukete. (21) XXI. mendearen hasieran, Europa berri hori batez ere Europar Batasunaren zabalkuntzak irudikatzen du, garai batean Varsoviako Ituna osatzen zuten herrialde gehienek sartzeko zituzten arazoak gainditu ondorengo zabalkuntzak, alegia. Azken hamalau urteetako aldaketa azkarra dela eta atlasak eta Geo-

3. taula Jakintzagai arteko ikuspegia: funtsezko kontzeptuak eta gaiak garatzeko proposaturiko edukiaren laburpena

Europa: espazio-dimentsioa	Europa: denbora-dimentsioa	Europa: kultur eta gizarte dimentsioa
<p><b>Kontzeptu nagusia: aniztasuna</b></p> <p>Gaiak Eskualde, nazio eta herri mailako ereduaren aukera:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ingunumen fisikoa</li> <li>• Klima</li> <li>• Baliabide naturalak: motak, kokalekua, eta kopurua</li> <li>• Baliabideen erabilera</li> <li>• Landa/hiri kokaleku gizatiarrak</li> <li>• Ingunune artifizialak</li> </ul>	<p>Gaiak Ondare politiko anitza, honako hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Teoria politikoak</li> <li>• Moduak eta praktikak: muturreko individualismotik kolektibismoraino (Estatuaren kontrol zentrala)</li> </ul> <p>Historian izan den lehia eta gatazkaen oinordetza:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Europako agintaritzak versus estatu subiranoak</li> <li>• Europatik kanpoko harremanak</li> </ul> <p>Doktrina, gizarte eta kultur mailako hausturen tradizioa, hauen artean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Mendebaldeko Kristautasun Erromatarra</li> <li>• Ekialdeko Kristautasun Ortodoxoa</li> <li>• Protestantismo modernoa</li> <li>• Beste erlijio-gubiengo batzuk</li> </ul>	<p>Gaiak Gizarte -ereduetako eta esperientzietako aldaketak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Aberastasuna/Pobrezia</li> <li>• Estatus motak eta sistemak</li> <li>• Gubiengo etnikoak</li> <li>• Kultur anitzeko komunitateak</li> <li>• Herri ohiturak eta tradizioak</li> <li>• Hizkuntza</li> <li>• Erlijioa</li> </ul>
<p><b>Kontzeptu nagusia: batasuna</b></p> <p>Gaiak Lankidetzaren esperientzia honako hauen bidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Sistema ekonomikoak edo itunak, Zolverein esaterako, Europar Batasuna</li> <li>• Komunikazio natural eta artifizialak; ibaiak, ubideak, trenbideak, itsasontziak, hegazkinak</li> <li>• Kontsumitzailearen ekonomia</li> <li>• Teknologia aurreratuak, defentsa-sistemak</li> </ul>	<p>Gaiak Ondare komuna, honako hauei dagokienez:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kristau-etika – moraltasun publikoa/privatua</li> <li>• Hedatze koloniala/inerpiala</li> <li>• Nazioarteko harremanak: botere-oreketako esperimentuak, lankidetzak/diplomazia</li> <li>• Nazioaz gaindiko mugimenduak eta lorpen intelektual, kultural eta artistikoak</li> </ul>	<p>Gaiak Lankidetzaren integrazioaren artean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gobiernuak: adibidez, Europar Batasuna</li> <li>• Pareko aberastasun-maila eta estatusa duten europarren artean gero eta bizimodu-uniformetasun handiagoa</li> <li>• Kontsumo-gizartearen berdintze-efektua, porraera-ereduetan</li> <li>• Sistema demokratikoak</li> <li>• Gazteen kulturaren eragina</li> </ul>
<p><b>Kontzeptu nagusia: aldaketa</b></p> <p>Gaiak Hauen garapena XX. mendean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ingunumena</li> <li>• Merkataritza-egiturak</li> <li>• Industria-ereduak</li> <li>• Komunikazioak</li> <li>• Energia-moduak</li> <li>• Lurzoruaren erabilera</li> <li>• Enplegu-ereduak</li> <li>• Klima: berotegi-efektua</li> <li>• Mugak</li> </ul>	<p>Gaiak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• XVIII eta XIX. mendeetako industria eta nekazaritza iraultzak</li> <li>• Ideia zientifikoaren bilakaera eta pentsamendu arrazionalaren garapena</li> <li>• Estatu subiranoen garapena/XIX eta XX. mendeetako nazionalismoa</li> <li>• Kolonialismoaren atzerakada gerraostean</li> <li>• Separatismo sozial eta politikaren berpiztea</li> <li>• Eliza kristauen eginkizun aldakorra/etika Europako politikan</li> </ul>	<p>Gaiak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Landa-gizartea, klase-egitura duen industria-gizarte bihurtzea</li> <li>• Gizarte eta erlijio jarriaren aldaketa: emakumearen eginkizuna; haurrak; familia</li> <li>• Tolerantziaren, giza eskubideen eta balioen hazkundera</li> <li>• Erlijio antolatua gainbehera: kristau-moraltasun tradizionala</li> <li>• Materialismoaren eta sekularismoaren sorrera</li> <li>• Migrazioak direla-eta, gizarte kultur anitzaren garapena</li> </ul>

grafia testuliburuak argitaratzen dituzten argitaletxeek euren materiala berriro idatzi behar izan dute. Berlingo Harresia erori baino lehenagoko egoera atzean geratu da oso, eta hala, Espainiako aditu batek Utrechteko Sinposioan egin zuen bezala, Europa hiru blokeetan banatzea —Ekialdeko Europa komunista, Europako Erkidegoa eta «gainerakoa»— «ez da Europaren ikaskuntzarako esparru egokia». (22) Bestalde, beharrezkoa da Europar Batasuneko estatu kideetako geografia fisikoa, ekonomikoa eta gizatiarra kontuan hartzea, integrazio-geografia aldakorra ulertzeko. Ikasleek prozesu politikoei buruz duten informazioan Geografiak duen egitekoak agian ez dio iraganari behar adinako garrantzia eman, baina gaur egun onartzen da «Geografiak egiteko garrantzitsua izan dezakeela gazteen hezkuntza politikoan». Europako batasuna, lankidetzeta eta demokraziari buruzko gaiak Geografiako irakasleen lanaren atalak dira; izan ere, «Europako integrazioarako mesedegarriagoa izango da gaur egungo Europako errealitateari buruzko informazioa, iraganeko irudiekiko nostalgia baino». (23) Baliteke irakasleek laguntza behar izatea ideia politikoak jorratu behar dituztelako nozioa onartzeko. Gizalege Hezkuntzaren inguruan badira herritarren prestakuntzan Geografiak duen garrantzia erakusten duten esperientziak, batez ere Suedian. (24)

Giza Geografiarako interesa berpiztu egin bada ere, testuliburuetan ez dira behar bezainbeste zaindu Europako bizitzaren kultur alderdiak. Hainbat gai soziokulturalek (kirolak, jaiak, janaria, familia-bizitza) badu lekua lehen hezkuntzako edo bigarren hezkuntzako aurreneko urteetako jakintzagai anitzeko edo jakintzagai arteko ikaskuntzan. Hala ere, hobeto aprobetxatu litezke Europako gizarte, erlijio, hizkuntz ereduak, bai eta teknikoak eta kultur ondarea ere, bigarren hezkuntzako azken urteetako Geografia historikoaren bitartez. Gainera, Europako kultur ibilbideei buruz Europako Kontseiluak abiarazitako ekimenak eginkizun berezia ematen dio Geografiari eta gazteentzat duen erakargarritasuna azpimarratzen du, eskolaz kanpoko jardueren bidez teoria eta praktikaren arteko mugak gainditzen dituen gai gisa. Europako Kontseiluak, Europari buruzko kontzientzian oinarritutako ikuspegiaren bidez, adierazi du elkarren menpeko munduan bizitzeko presatzeko beharrezkoa dela Geografia irakasgaia, Europari buruzko gaiak testuinguru orokor batean aurkezteko. Nazioarteko lankidetzaren kontzeptua argitzeko, Europako Kontseiluak Geografiari buruzko zenbait gai proposatu ditu, hala nola energia eta natur baliabideen erabilera hobea (adibidez, petrolio eta ura), komunikazioen eta merkataritzaren esparruetako behar aldakorak (adibidez, Europako eta Ozeano Bareko inguruko estatuak), garapen-bidean dauden herrialdeetako harremanak (Ipar-Hego elkarriketa), migrazioek biztanlerian duten eragina (kultura arteko politikak), eta oreka ekologikoa zaintzea. Azken gai hori —gaur egungo Europarentzat arazoa ez ezik aukera ere bada— oso egokia da Geografiako ikasketa-planerako. Izan ere, eskola askotan Ingurumen Hezkuntzaren sinonimo bilakatu da Geografia.

## INGURUMEN HEZKUNTZA: EUROPA ESPAZIALERAKO JAKINTZAGAI ANITZEKO HURRERATZEA

Europako paisaia artifiziala da gehien bat. Gure inguruneko ezaugarri asko, bai eta arazo asko ere, XX. mendean sortu ziren; Gro Harlem Brundtland-en hitzei jarraiki, ingurumen-arloko bataila garrantzitsuenak gaur egun gertatzen ari dira eta funtsezkoa da horiek ez galtzea. (25) «Bataila» horietako batek zera du helburu: Europako gobernuek praktikan jartzea erabat hezkuntzan ingurumen-dimentsioa txertatzeari buruzko nazioarteko ebazpenak. Hiru hamarkadaren joanean, nazioarteko erakunde garrantzitsuenek azpimarratu dute beharrezkoa dela ingurumen sentsibilizazioa eta zaintza ikasketan txertatzea. Europako Kontseiluko Ministro Batzordeak 1971n ebazpen bat onartu zuen natura zaintzearen printzipioa eta ekologia printzipioa lehen eta bigarren hezkuntzako eskoletan txertatzearen alde. Geroago, UNESCOk eta (garai hartako) Europako Erkidegoak adierazpen garrantzitsuak plazaratu zituzten ingurumen-hezkuntzaren alde. Publizista baten iritzi, «ez dago arrazoirik “planeta zaintzearen aldeko” derrigorrezko hezkuntza ez txertatzeko Europako eskola bakoitzaren ikasketa-planean 1992ren aurretik». (26)

NBEk onartzen du ingurumenaren ustiapena eta kutsadura, eta ekosistemak suntsitzea arazo globala direla. Europako herrialde industrializatuentzat —prozesu horietako asko horietan sortu ziren— nabarmena da neurriak hartzeko beharra-

ren premia eta erantzukizuna. Irtenbide bat nazioarte-mailako akordioak onartzea da, hala nola berotegi-efektua sortzen duten gasen murrizketari buruzko Kiotoko Protokoloak. Beste bat Nekazaritza Politika Komuna aldatzeko berariazko estrategiak abiaraztea da, «ingurumenari dagokionez zonalde ahulak» babestuz edo nekazaritza organikoa sustatuz; izan ere, naturan eta ingurumenean nekazaritzak duen eraginak handitzen jarraitzen du, bere pisu ekonomiko eta soziala murrizten ari bada ere. Era berean, epe luzean garrantzitsua da gizartea jarrera positiboak eta portaera-ereduak —taldekoak zein pertsonalak— hartzera bultzatzea, paisaia, fauna, flora eta Europako beste natur baliabide batzuk berriztatzea eta zaintzea bermatzeko. Eredu horretan, gazteen hezkuntza funtsezkoa da lehen zein bigarren hezkuntzan.

1970eko hamarkadan, mundu-mailako joerari jarraiki, Europako herrialde askotako ikasketa-planetan Ingurumen Ikasketak ezarri zituzten. 1975ean, UNESCOk eta UNEPEk (Ingurumenerako Nazio Batuen Programa) aurkezturiko Ingurumen Ikaskuntzako Nazioarteko Programan (IEEP, ingelesez) 200.000 ikaslek baino gehiagok hartu zuten parte 130 herrialde-tan baino gehiagotan. IEEPk hogeita hamar proiektu pilotu baino gehiago garatu zituen, besteak beste honako hauek: Ingurumen Hezkuntzako (IH) metodologiari buruzko azterlan pilotuak Frantziako eta Ukrainako bigarren hezkuntzako eskolentarako; hiriko ingurumen-ikaskuntzako programei buruzkoak Erresuma Batuan; IHko programa orokorreko buruzkoak eskola-maila guztietarako (garai hartako) Txekoslovakian; eta Biologiako eta Geografiako irakaskuntzan ingurumen-dimentsioa txertatzeari buruzkoak Polonian eta Portugalen. Geroago, Nazio Batuen bi txostenek —UNEPena bata, eta Brundtland Batzordearena bestea— IHren funtsezko eginkizuna berretsi zuten. Europako berariazko testuinguruan, 1988an UNESCOk antolatutako Europako Hezkuntza Ministroen Laugarren Biltzarren 2. ebazpenak gai bakarria izan zuen: IH Europa osoan garatzea. Horren jarraipenean, IEEPk mintegi eta sinposio gehiago bultzatu zituen, eta UNESCOk IH hartu zuen bere lehenetsun garrantzitsuenen artean.

Prozesu horietan laguntzeko, Europako Erkidegoak —eta geroago Europar Batasunak— Ingurumenari Buruzko Ekintza Programen sorta bat abiarazi zuen. Horietako azkenak 2001-2010 tartea hartzen du barne. Hezkuntza-eremuan, Europar Batasunak ingurumenari buruzko alderdietan hezkuntza sustatzea lehenesten du adin guztietarako. Gaur egun, Europako Batzordeak onartzen du hezteko batetik estatu kide bakoitzaren ardura dela. Hala ere, animatu egiten ditu euren ikasketak-programetan ingurumenari buruzko elementuak txertatzera.

Europako Kontseiluko estrategiak Europar Batasuneko enbakoak dira. Kontseiluaren bederatzi jardueraren-erloetako bat Europako Ondareari eta Ingurumenari buruzkoa da. Bi kontzeptu horiek lotzeak ikuspegi orokorra izatea ahalbidetzen du Europako «espazioa» etorkizunerako zaintzeko. Politikei dagokionez, ondarea/ingurumena binomioak ekologia, kultura, balioak, ekonomia eta turismoaren arteko lotura hartzen du barne. Aldi berean, hezkuntza horrek ikasketak-plan osoan du eragina, Natur Zientzietan hasi eta industria-arkeologiaraino (Ikus 4. irudia). Kontseiluak antolatutako *Hiria Berrizteko Kanpainak* hiri-politikei kultur, gizarte eta ingurumen alderdiak aztertu zituen, eta horri esker, espazio irekiak zaintzeko eta erabiltzeko estrategiak hartu ahal izan ziren. Praktika onen adibideak Estrasburgon —Mendebaldeko Europako hiriburua «berdea»—, Vitosha Mendiaren inguruan, eta Bulgariako hiriburuan, Sofian, aurki daitezke. (27) Aldaketa-prozesuek kalteturiko landa-inguruen gaineko kezkek bultzatuta, Kontseiluak *Landarako Kanpaina Europarra* egin zuen, Europako Kontseiluak Ingurumenaren Urte Europarra antolatu zuen urte berean. Faktore askok izan dute eragina landa-komunitateen arazoetan; garrantzitsuenetakoa bi gainproduktzioa eta dibertsifikatzeko beharra dira, baina inguru atzeratuak eta gainbeheran daudenek jasan dituzten tentsioak ez dira garapen intentsiboak izan dutenak jasan dituzten bezalakoak. Turkiako landa-inguruen, adibidez, lagun asko bizi dira, baina azpiegituren eta zerbitzuen premian daude; Eskoziako landak zerbitzu hobekitu, baina oso jende gutxi bizi da bertan; aldi berean, Ingalaterrako landa-inguruetan biztanleriaren eta urbanizazioaren presioari eusteko ahaleginak egiten ari dira. Kanpaina Europarrak Europako landa-biztanleak XXI. menderako prestatzeko helburua zuen, arazoak zehaztearen, irtenbidean aurreratzearen eta gazteak eztabaidan parte hartzearen bidez. (28) Erresuma Batuan «behi eroekin» eta sukarrak aftosoarekin izandako arazoek, Espainiako PER deiturikoaren krisiak, eta Nekazaritza Politika Komuna (NPK) aldatzea lortzeko zailtasunak erakusten dute kanpaina ez dela izan espero bezain arrakastatsua.



Europar Batasunaren eta Europako Kontseiluaren politiken funtsean honako uste hau dago: «gazteengan ingurumen-sentsibilitatea garatzea» dela hezkuntza-helburu nagusia. IHk bizitza osoan jarraitu behar badu ere, beharrezkoa da gazteek eskolan ikastea Europako ingurumenak modu arrazionalen zaindu eta kudeatu behar den kapital natural garrantzitsua eskaintzen duela. Era berean, ikasi behar dute ingurumenaren alderdiak —lurra eta itsasoa, airea eta ura, hiria eta landa, flora eta fauna— gure ondare komuna direla. Beraz, jarrerak IHren funtsezko arloa dira. Lehen hezkuntzako eskolak Europako haurren hezkuntzan egin dezakeen ekarpen baliotsuenetako bat naturarako eta ingurunerako jakin-mina piztea, eta naturarako hurreratze positiboa eta adeitsua lortzea da. Halako oinarririk gabe askoz ere zailagoa da bigarren hezkuntzako irakasleentzat ezagutza-arlo konplexuak transmititzeko eta ikasle helduenek ingurumenarekin lotura duten natura, zientzia, teknologia, lege eta giza arazo sorta zabal bat —eta horietarako irtenbideak— ulertzea errazteko lana. Azkenik, argi dago Europako ingurumena zaintzea, giza osasuna babestea eta oreka ekologikoari eustea laster helduak izango direnen jarrera konstruktiboen eta portaera arduratsuaren baitan daudela.

IHK barne hartzen duen materialaren aniztasunak erakusten du IH ez dela jakintzagai bakandua, gizakien eta euren ingurunearen arteko elkarrengana barne hartzen duen ikaskuntza-esparru zabala baizik. Jakintzagai anitzeko testuinguruan bakarrik irakats daiteke, Europako Kontseiluko Ministro Batzordeak duela hiru hamarkada adierazi zuen bezala! (29) Jakintzagai anitzeko edo jakintzagai arteko ikuspegiak —edukiak kontzeptuen, gaien eta kasuen inguruan antolatuturik— luze eztabaidatu ziren 1970eko hamarkadan. Hala ere, ekologiarri dagozkion arloan hainbat jakintzagai berezitan txertatzeko

4. irudia Ondarea-ingurumena binomioa



aukera ere badago, materia bakoitzari ingurumen-dimentsioa emanez. Tokian tokiko edo nazio-mailako sistemarako egoia den estrategia edozein izanik ere, Geografiako irakasleek funtsezko eginkizuna izango dute IHn, bai «mamian» aditu gisa gizarte-zientzietako ikasketa-programa batean, bai ikasketa-plan osoan ezagutzak eta trebetasunak zeharka txertatzeko zeregina duten koordinatzaile gisa. Ingurumen-ikasketen planerako geografia lagungarria izan daitekeen hainbat eduki-arlo azpimarratu ditu Europako Kontseiluak: lursailen osaera eta bilakaera, giza jarduerak landa eta hiri paisaian duen eragina, garapenerako teknikak, natur baliabideak eta planifikazioa, besteak beste. Era berean, aditzera eman du beharrezkoa dela Geografian gai zientifikoak jorratu ahal izatea, kutsadura eta uraren zikloa, esaterako. Argi dagoena da Geografia eta IH arlo bateragarriak direla; eskola batzuetan modu trukagarrian landu dira. Hala ere, iritzi nagusiaren arabera, gai eta ikuspegi sorta zabal batek aberats dezake IH. Ingurumen-sentsibilitatea lortzeko beharrezkoa da honako hauekin aldizkako harreman zuzena izatea: lorategi botanikoak, natur parkeak, ohiko eta atari zabaleko museoak, eta parke zoologikoak. Ingurumen-dimentsioa eskolaz kanpoko jardueretan zein ikasketa-plan formalean txertatu beharko litzateke (Ikus 4. irudia).

## NATUR ETA GIZA ZIENTZIEKAKO BESTE JAKINTZAGAI BATZUEN EKARPENA

Europako Kontseiluak 1971n natura zaintzeari buruz eman zuen ebazpenak garbi utzi zuen bigarren hezkuntzako eskoletan natur zientziak lagungarriak izan zitezkeela ingurumenari buruzko gaiak azaltzeko. Gai batzuk modu egokian jorra daitezke Geografian, batez ere, ikasle gazteenekin; baina giza eta gizarte alderdiak azpimarratzeko irakasgai horretan egin beharreko aldaketak, eta zientzia eta teknologia arloetan lorturiko aurrerapenak direla medio, ezagutzen konplexutasunak eta bolumenak izan duten hazkundeak, ikasleek ikasketa zientifiko osatutako oinarria edukitzeko premia ekarriko dute, betiere ingurumen-gaiak uler ditzaten lortu nahi badugu.

Biologiari dagokionez, 1971ko ebazpenak ekologiaren oinarriko printzipioak (izakien eta ingurumen fisikoaren elkarren arteko mendekotasuna; kate trofikoak; energia-fluxuak; biztanlerien aldaketak; oreka naturalak eta euren dinamikak; segidak, klimak, ekosistemak) biltzen dituen eduki-zerrenda bat hartzen du barne: giza eragina espezieen banaketan; baliabide genetikoak babestearen garrantzia; natur erreserben eta beste inguru babestuen esanahia eta garrantzia; pestizidek eta beste kutsatzaile batzuek oreka naturalean duten eragina. Kimika lagungarria izan daiteke honako hauek txertatuta: sintesi eta deskonposizioari buruzko ezagutzak; klorofilaren sintesi-prozesua; pestiziden eta nitratoen egitekoa; lurzoruen kutsadura; keak eta sufreak airean eragiten duten kutsadura; fenolek eta detergenteek ur gezan eragiten duten kutsadura; petrolio-isuriek eragindako itsas uraren eta bizitzaren kutsadura. Biologiarekin eta Kimikarekin batera, Fisikak uraren zikloa ezagutzeko aukera emango digu, eta baita Ipar Itsasoak, Irlandako Itsasoak eta Mediterraneoaren zati batek, besteak beste, jasaten duten kutsadura-mota ugariak ere ezagutzeko aukera. Fisikak, halaber, erradiazioak, erradioaktibitateak, hondakin erradioaktiboen produkzioak eta bilketak duten eragina azal dezake. Printzipio horiek oso garrantzitsuak dira Europako herrialdeentzat gaur egun.

Europako Kontseiluak eta Europar Batasunak Ekonomia Zientzien garrantzia baiesten dute; hala ere, onartzen dute gutxienez gaia dela, jakintzagai horretako elementuak gizarte-zientzietako ikastaro orokorretan irakasten diren arren. 1960ko hamarkadan irakasgai hori bigarren hezkuntzako azken ikasturteetako ikasketa-planetan txertatu zenetik, erakunde horiek presioak egin zituzten Europako ekonomia-egiturei buruz gehiago irakasteko, ekonomia-teoria orokorra gutxiago azpimarratuta. CDCCk 1972an eginiko inkesta batean, honako argudio hau bildu zen:


Europak munduko merkatuan duen kuotari eusten badio, berrikuntza sustatzen badu eta bere baliabide ekonomikoak bere lehiakideek baino hobeto kudeatzen baditu bakarrik eutsi ahal izango dio bere bizi-mailari. Helburu ho-

riek lortzeko ekonomia-erloto iaiotasun europarra zabaltzea baino bide hoberik ez dago; horretarako, ekonomia-ikasketak txertatu behar dira Europako hezkuntza-sistemetako maila egokietan. (30)

1970eko hamarkadan behatzaile progresistek mendebaldeko Europako ekonomia nahitaez ikastearen alde agertu ziren; izan ere, Merkatu Bateratuaren hedapena zela-eta entitate ekonomiko berezia eta garrantzitsua zen. Europar Batasuneko hainbat estatuk, Ekonomia-hezkuntzaren esparruan eta Europako eremuan, ikasle adinduentzat bultzaturiko ekimen garrantzitsuek markatu zuten hamarkada hura. (31) Hala ere, Ozeano Bareko 80ko hamarkadako ekonomien sorrerak eta 1989ko gertakizunek aurreko ikuspegiak aldatu zituzten. Azken hamarkadan, Europako Merkatu Bakarra abiarazteak, Alemania batzeak, euroa merkaturatzeak eta Europar Batasuna zabaltzeko prozesuak, ekonomia-zientzien oinarriak Europako testuinguruan ikastea zein garrantzitsua den frogatu dute. 1988tik Europako Batzordeak Ekonomia-ikasketetako ikasketa-planetan europar dimentsioa txertatzeko gomendatu die bere estatu kideei. (32) Gainera, askok uste dute (iritzi horrek beste ikasteko modu bat sorrarazi du, Garapenerako Hezkuntza, alegia) hein berean hartu behar dela aintzat herrialde garatu eta garatzeko bidean dauden elkarren arteko gero eta handiagoa den mendekotasun ekonomikoa.

Bukatzeko, abiapuntura itzuliko gara: Europako ingurumenak dituen ondorio ekonomikoak. Landa-giroko eta hiri-giroko Europak aurrez aurre dituen arazoei buruz eztabaidatzen denean, askotan faktore ekonomikoak eta merkataritza-pragmatismoko faktoreak baloratu behar dira, ekologiako edo estetiko alderdien aurrean. Era berean, gaur egungo faktore ekonomikoak ondare historikoari kontrajarri behar zaizkio (Ikus 5. irudia). Aurreko kapituluaren ikusi den bezala, Historia askotan Geografiaren kide naturala bihurtu da landa eta hiri ingurunearen ikaskuntzan. Gizakiak naturan duen gero eta eragin handiagoari —historiaurretik gaur egungo gizartera arte— kontrajarri behar zaio gizakiak migrazioen, gerraren eta epidemien bidez, eta natur baliabideak ustiatuz eta espoliatuz ingurumenaren oreka hondatzeko duen ahalmena. Geografiako irakasle batzuk konturatu dira beharrezkoa dela euren irakasgaiaren parametroak zabaltzea, geografia historikoa, industria-arkeologiaren, tokian tokiko arkitekturaren eta etnologiaren teknikak eta edukiak txertatzeko. Soziologiak ere eginkizun garrantzitsua du ingurumenari buruzko ikastaroetan, gizarte-egiturak eta giza arazoak jorratzea gai egokia baita hiri eta landa garapenerako. Herritar hezkuntza, giza eskubideetako hezkuntza, hezkuntza pertsonala eta gizarte-hezkuntza modu berean izan daitezke lagungarriak Europako ingurumena ikasteak sorrazten dituen etika eta portaera alderdietarako. Elementuotako batzuk aurrerago eztabaidatuko ditugu. Laburbilduz, ondorio orokorra hau da: Europako espazio-dimentsiorako lagungarriagoa da ikasketa-plana malgutasunez antolatzea —eduki edo jakintzagai arloen arteko lotura kontzeptualak aprobetxatzen dituen ikasketa-plana, alegia— irakasgai baten edo biren edukiaren menpe egotea baino. Puntu hori argitzeko, adibiderik hoberenetako bat «Mugarik gabeko Rin eskualdea» gaiari buruz Alemaniako, Frantziako, Herbehereetako eta Suitzako ehun bat ikasleentzako proiektu pilotu bat da. Talde eleanitza Rotterdam-etik Estrasburgoraino joan zen, eta arkitekturari, idazkuntza eta komunikazioari, etnologiari, landa-bizimoduari eta ekonomiari buruzko lantegietan hartu zuen parte. (33) Ingurumenari eta ondareari buruzko hezkuntzara hurbiltzeko eredu-mota modu orokorragoan landu behar da.

## 5. irudia Ingurumena eta ikasketa-plana



## GEOGRAFIA ETA EUROPAR DIMENTSIONA: EUROPAR KONTZIENTZIA GEOGRAFIKO IKASKETA-PLANAREN BIDEZ SUSTATZEKO PRINTZIBIOEN LABURPENA

### Ezagutzak

1. Ikasleek Europako inguru fisikoen eta gizatiarren kokapenari, konfigurazioari eta aniztasunari buruz duten ezagutza eta ulerkuntza garatzea
2. Europako ingurumena babesteko egokiak diren balioen eta beste alderdi batzuen ulerkuntza garatzea ikasleengan
3. Europako integrazioak Europako estatuetakiko ekonomietan eta gizarteetan dituen ondorioen ulerkuntza sustatzea
4. Ezagutza praktikoak garatzea etorkizunean Europako herritar gisa izan beharreko parte-hartzeari lotuta
5. Europaren eta munduko gainerako herrialdeen elkarren arteko mendekotasunaren ulerkuntza sustatzea


### Jarrerak, gaitasunak eta balioak

6. Europan dauden bizimodu guztiekiko sentsibilizazioa eta ulerkuntza enpatikoa sustatzea
7. Tolerantzia sustatzea eta beste batzuei —Europakoak zein Europatik kanpokoak— buruzko pertzepzio eurozentrikoak edo estereotipatuak kentzea
8. Aldaketari aurre egitea beharrezkoa dela konturatzea, eta Europako arazoak konpontzeko beste pertsona batzuekin lankidetzan aritzeko prestasuna garatzea

### Trebetasunak

9. Trebetasun kognitibo sorta zabala garatzea, hala nola analisia, sintesia, kontzeptu zein teorien aplikazioa, eta ebaluazioa
10. Trebetasun afektiboak osatzea herritarren trebetasun praktikoak, aktiboak eta parte hartzeak garatuz

- (1) Geografia letra larriz idatzi dugu eskola-irakasgaia adierazteko, eta letra xehez zentzu orokorrean erabili dugunean.
- (2) Williams, Michael (1982), 'Europe in School Geography', *Teaching about Europe*, 9 (2).
- (3) Waites, B., (1982), 'Ways of Teaching about Europe in School Geography', *Teaching about Europe*, 9.
- (4) Graves, Norman (1992), *Report of the Symposium on Geographical Information and Documentation on European Countries, Utrecht*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 14. or.
- (5) *Ibid*, 27. or.
- (6) *Ibid*, 33. or.
- (7) Goodson, I. F y V. McGivney, (1985), *European Dimensions and the Secondary School Curriculum*, Lewes: The Falmer Press, 80. or.
- (8) Williams, 'Europe in School Geography'.
- (9) Graves, *Report of the Utrecht Symposium*, 14. or.
- (10) *Ibid*, 19. or.
- (11) *Ibid*, 7-9, 27, 32. orr.
- (12) Marchant, E. C. (1967), *Geography Teaching and the Revision of Geography Textbooks and Atlases*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 100. or.
- (13) Graves, *Report of the Utrecht Symposium*, 13. or.
- (14) Morris, J. W. (1976), *Geography, European Curriculum Studies*, 10. zka., Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- (15) Meijer, H., '10 points for reflexion' Graves, *Report of the Utrecht Symposium-en*, 1. Eranskina, 3. puntua
- (16) Graves, *Report of the Utrecht Symposium*, 20-21. orr.
- (17) Austin, Roger (1989), *Report on the European Studies (Ireland and Great Britain) Project*, Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- (18) Knoester, P. J. (Netherlands National Institute for Curriculum Development) Graves, *Report of the Utrecht Symposium-en*, 19. or.
- (19) Peacock, D. (1982), *Report of the CDCC's Symposium on Europe in Secondary School Curricula*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 32-33. orr.
- (20) Graves, *Report of the Utrecht Symposium*, 19. or.
- (21) *Ibid*, 33. or.
- (22) *Ibid*, 14. or.
- (23) *Ibid*, 9. or.
- (24) *Ibid*, 19, 26-27. orr.
- (25) Bruntland, Gro Harlem (1989), *Naturopa*, 63, editoriala.
- (26) Anderson, A. (1989), 'Influencing behaviour', *Naturopa*, 61, 11. or.
- (27) Rudloff, Marcel (1988), 'Strasbourg – the green capital'; Stoyanov, Dimitar (1988). 'Oxygen for Sofia'; *biak Naturopan*, 59, 10-12. orr.
- (28) (1988) *Report of the Study Session of the European Committee for Young Farmers*, Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- (29) Europako Kontseiluko Ministro Batzordea, (71) 14 Ebazpena (1971eko ekainaren 30a).
- (30) Rust, W. (1972), *Economics, European Curriculum Studies*, 7. zka., Estrasburgo: Europako Kontseilua, 18. or.
- (31) Ryba, R. (1977), 'The recent evolution of economics education' Ryba y Robinson (coords.) *Aspects of Upper Secondary Economics Education-en*, Haywards Heath: Economics Association.
- (32) Shennan, M (1987), *Report on the European Teachers' Course on Teaching about European Co-operation*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 11. or.
- (33) (1989) *A Future for our Past*, 35, 24. or.



5

EUROPAREN NORTASUN KULTURALA



- HIRUGARREN DIMENTSIOA: FENOMENO KULTURALA
- EUROPAKO KULTURAKO KORRONTE ERLIJOSOAK
- ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIAK EUROPAKO KULTURAN DUTEN EGINKIZUNA
- ARTE EDERRAK EUROPAKO KULTURAN
- HERRI-KULTURA ETA BERE HEZKUNTZA-INPLIKAZIOAK
- EUROPAREN NORTASUN KULTURALAREN ZENBAIT INPLIKAZIO IKASKETA-PLANEAN



## HIRUGARREN DIMENTSIOA: FENOMENO KULTURALA

Denbora eta espazioa kontzeptu sinpleak dira, eta Historia eta Geografia jakintzagaien edukiaren baliokidetzat hartzen dira. Kultura, Europako hirugarren dimentsioa, bestelako kontua da. Hainbat jakintzagairekin hornitzen den kontzeptu berezia da. Hortaz, gaian adituak direnek zuhertasunez egiten dituzte euren definizioak. Douglas Johnson historialariak ikusi zuenez, «historialari kulturek anbigotasun mingarria erakusten dute kulturatzat zer hartzen duten argitzerakoan». (1) Richard Pring hezkuntza-filosofoa kexu agertu zen, «hainbat kontzeptu edo uste, edo ezaugarri kulturalen tartean inor Europako pentsamendu edo kultura unitate bat bilatzen zenbat eta gehiago saiatzen den, orduan eta kritika gehiago jaso baititzake». (2) Henri Janne-n neurriko aditu batek ere, Belgikako Hezkuntza Nazional eta Kultura Ministro izandakoak, onartu behar izan zuenez, «kultura kontzeptu anbigua da... [eta azkenean] oso zaila da egoera “soil-soilean” atzema-tea». (3) Hori gorabehera, kulturak ikasketa-planean duen lekua aztertu behar da. Arteen Kontseilu Britainiarraren zuzen-dari izandako baten ustez: «Europako etorkizun politikoaren aukerak esploratu nahi badira, Europako kulturaren garape-na aztertu behar da». (4) Kasu horretan, bigarren hezkuntzako irakasleen lana da eztabaida akademikoa xehatu eta fenomeno kulturalak errealitate pedagogiko bihurtzeko modua bilatzea.

Ikasketa-planaren ikuspuntutik begiratuta «kultura»ren kontzeptuaren bi funtsezko interpretazio daude. Lehengoak denboratik eta historiatik eratorritako produktutzat jorratzen du «kultura», prozesu zibilizatzaile baten emaitza: «zibilizazio»ren sinonimoa da hitz hori zenbaitentzat. Honela deskribatu zuen Matthew Arnold-ek: «munduan esandako eta ezaguturiko onenarekiko hurbiltasuna, eta hortaz, giza espirituaren historiarekikoa». Erakargarritasun berezia du interpretazio horrek artistentzat eta humanistentzat. Emerson-ek uste izan zuenez, «edertasunaren zentzua zabaltzen du kulturak», eta T. S. Eliot poetak, berriz, Europako kulturen hari komun bat dagoela esan zuen: «pentsamenduen, sentimenduen eta portaeren erlazonaturiko historia, arteen eta ideien trukea». (5) Pentsamendu-ildo horretatik sortu zen «Goi Kultura»ren tradizioa. Errenazimentuko Italiako inspirazio kreatiboak hornituta, mundu mediterraneotik Europako iparralderaino zabaldu zen joera hori, erudizioa, literatura, zientzia, pintura, arkitektura eta musika tarteko, geroko belaunaldi europarrentzako he-rentzia bat utzita, horrek gaur egungo ikasketa-planerako dakarren guztiarekin.

Dena den, gizarte-zientzien munduak ikuspegi zabal eta barne-hartzaileagoa ekarri du. Leroi Jones iparramerikarrak «kul-tura bizitzeko modua da, besterik gabe» esan bazuen ere, Europako azterketa geografiko baten egile Terry G. Jordan-ek, berriz, honako definizio labur hau landu zuen:

Eremu kultural bat okupatzen duen kultura da Europa. Usteei, portaerei eta, oro har, bizitzeko moduei dagozkien ezaugarri komun ugari —ideologia, teknologia, gizarte-erakundeak eta jabetza materialak barne hartuta— dituzten pertsonen komunitatetzat defini daiteke kultura, labur-labur. Kultura jakin bateko pertsonak bizi diren edozein heda-dura handi, normalean mugakidea, da eremu kulturala, kultura horren aztarna nabarmena utzi deneko lurra. (6)

«Gizarte»ren ideiatik askoz ere gertuago jartzen du definizio horrek «kultura», Garapen Kultureko Politikei buruzko proiektua daraman Europako Kontseiluaren taldearen definizioaren ildoko kontzeptua, hain zuzen: «Taldea edo gizarte baten ezaugarri diren balio materialen, intelektualen eta espiritualen batura da kultura. Hortaz, bizimoduak eta produkzio-formak, balio-sistemak, usteak eta iritziak, eta abar, barne hartzen ditu». Horrek guztiak inplikatzan duenez, kultura «dinamikoa da, eta bizi-kalitatearen funtsezko faktorea [...eta] definizioz “herriarena”, egunerokoa, “parte-hartzailea” eta komunala da. [...] Bizitza kulturalak guztia barne hartzen du» eta iraganarekin, orainarekin eta georoekin du zerikusia. (7)

Orduan, zer esan liteke zibilizazio europarrak eta haren *alter ego*-a den Europako gizarteaz? Lehenengoa Lehen Mundu Gerraz geroztik gainbeheran dagoela esan ohi da, orduan «Europak [...] aldi berean kolapsoa izan baitzuen eremu kultu-

ral, espiritual eta politikoetan», eta 1930 eta 1940ko hamarkadetan izandako punturik baxuenaren ondoren «susperraldi lasaia» izan zuen ondorio, eta orain hasi da hori gainditzen. (8) Aztergai dago oraindik ere ea Europa sendatu den, eta, horrela bada, zenbateraino. Henri Jannen ustez, erremediorik gabeko moduan ilundu eta higatu dira balio europarrak. (9) Beste zenbait espezialistak termino absolutuetan baino gehiago eskema erlatibotan ikusten dute Europaren gainbehera. Optimismorako lekua ere zabaldu da, kultura hibrido «atlantiko»aren konfiantza adierazita, Europa anglosaxoiaren produktua denez: «Gaur egungo joerek jarraitzen badute, munduko kultura bihur daiteke Europako kultura, eta eskualde-maialako aldeak desagertu egingo dira Europako bizimodua geroz eta gehiago onartzearen mesedetan», nahiz eta horrek ezin duen ezkutatu «urte askoan Europak izandako lidertza dinamikoa itsasoaz bestaldeko bere seme-alabek hartu dutela». (10) Konparazio-terminotan ari garela, Europaren agintea gutxitu egin da haren inperioak amaitu zirenetik, baina azken hamarkadan geroz eta handiagoa den elkartasuna nabarmendu da, baita Europako Gizartearen zenbait sektoretan jarritako konfiantza berria ere. Europako herritar asko eta asko aniztasunean unitatea diren herentziaz jabetzen hasi dira. Dena den, nazioarteko azken gertaerek Europaren batasunerako mehatxutzat agertzen digute atlantismoa, Estatu Batuek menperaturiko munduan.

Dena den, zenbait adituk ohartu zuten denbora batez zein arriskuri egin beharko zien aurre Europako kultura osoak, eta Europako gizartearen eta haren balioen aurreikuspen berri bat eragin zuen haien kezka. Hainbat biltzar antolatu ditu Europaren nortasun kulturalari buruz Europako Kontseiluak, Delfos-ekoa 1980an, esaterako; bertan, euren herritarren bizikaltateaz arduratzea eskatzen zitzairen estatu-nazioei, materialismo deshumanizatuaren mehatxupean baitzeuden. Lau polaritate kontzeptual baliatuta aztertu ziren jarrera kultural europarrak: askatasuna eta segurtasuna, materialismoa eta espiritualtasuna, arrazionaltasuna eta hunkiberatasuna, natura, eta antolamendua edo produkzioa. Ateratako ondorio orokorraren arabera, eredu kultural europarrek penduluarena egiten dute, mutur batetik bestera, baina goranzkoa edozein dela ere, paradoxarako eta aldaketarako tentsioa eta joera agertzen du betiere Europak.

Askatasunaren eta segurtasunaren gaiari dagokionez, Europako herritarrek ondo egituraturiko gizarteetan bizi nahi dutela dirudi, euren komunitatearen segurtasuna modu eraginkorrean defendatzeko moduan; dena den, zenbait bana-banako askatasunerako bermeak ere ikustea espero dute praktikari dagokionez, hauteskunde, adierazpen, intimitate edo pentsamendu arloetakoak, esaterako. Gizabanakoaren eta komunitatearen arteko gatazka ez dagokio soilik Europaren bilakae-rari, bestelako tentsio zorrotzak ere eragiten ditu, Rousseau-ren Borondate Orokorraren Teoriaren edo «askatasuna legearen menpe jartzea da» aforismoaren azpian dagoena bezala. Estatuaren teoria oso landuei atxikitzea da eredu kultural horren beste alderdi propio bat.

Materialismoaren eta espiritualtasunaren arteko dikotomiari dagokionez, zenbait ideia eta utopia soziokulturaletarako joera izan ohi dute europarrek, betiere hainbat printzipiotan oinarrituta, kristauak, sozialistak edo liberalak direla. Azken urteotan, ordea, merkatura bideratutako gizarte eratu da, sistema teknokratiko geroz eta zentralizatuagoen menpe. Arrazionaltasunaren eta hunkiberatasunaren gaiari dagokionez, XVIII. mendeko ilustrazioaz geroztik Europako kulturaren eta gizarte industrial aurreratuaren kantoi-harria arrazoia izan dela argudiatu zen. Dena dela, arrazoiaren logikan eraginkortasuna izan ohi da nagusi askatasunaren gainetik, eta sistemak pertsonen gainetik. Testuinguru horretan, etengabe bultzatu behar dira irudimenaren eta indar kreatiboaren joko libre (Europako iraganean hain modu bikainean agerturikoa hainbat mugimendutan, Erromantizismoan, adibidez). Laugarren paradoxari dagokionez, europarrak industria-produkzioaren garrantziaz jabetzen diren arren, modu iraunkorrean hazten da ingurumena babestearen eta naturarekiko harreman sinbiotikoa zaintzeko premiaren kontzientzia, jarrera horiek lehendik ere Europako kulturaren aurrekariak badituztela kontuan izanda.

Delfoseko mahai-inguruaren ondoren, Henri Jannek *Europaren Kultur Nortasunari* buruzko mintegi-lana aurkeztu zuen Neusiedl Sinposioan, Bigarren Hezkuntzako Ikasketa Planeko Europari buruzkoa. Delfosen jorratutako gaiari buruzko haren iruzkinak eta hark «fenomeno kulturala» deiturikoaren interpretazioa nahitaez irakurri behar dituzte hezkuntza europarrean interesaturiko irakasleek. Soziologoa zenez, gizarte baten jardueren, balioen eta giza harremanen baturatzat har-

tzen zuen kultura. Europaren kasuan, eskualdeek eta nazioek ezaugarri kultural propioak dituztela argudia daiteke, euren esperientzia historikoan oinarriturikoak. Zalantzarik gabe, lau eremu kultural historikok izan dute eragina une desberdinetan Europan: zirkulu Greko-Bizantziar-Eslaviarrak, zirkulu Erromatar-Karolinjio-Galiarrak, zirkulu Iberiar-Islamiko-Ipar Afrikarrak eta zirkulu Zeltiar-Eskandinaviar-Anglosaxoiak (11), horiei zirkulu Mendebaldeko Europa-Ipar Amerika-Transatlantikoa gehitu geniezaieke, azken mendeen garrantzi oso handia izan baitu (ikus 6. irudia). Hori gorabehera, Europako gizarte-sistemek ezaugarri asko dituzte komunean (tradizio hierarkikoak historia luzea du), eta entitate gisa azter liteke Europaren profil kulturala.

6. irudia Kultur eragineko zirkulu nagusiak



Izan ere, Europako biztanleek esperientzia ugari konpartitzen dituzte, zortzi elementutan oinarrituta: esperientzia erlijioso-korronteak; mugimendu artistikoen eta adierazpen-formen aukera zabala; individualismoaren printzipio liberalak; kapitalismoaren filosofia sozioekonomikoa; hizkuntza-komunikazioko gaitasuna; eta berrikiago, ingurumen orokorrerengatiko kezka (ikus 4. taula). Dena den, aldaketak eta desitxuratzek ere izaten dituzte elementu horiek. Arrazoa, esaterako, Europako ezaugarri kultural propioena, ezin liteke soil-soilik europartzat hartu, mundu industrializatu guztiarena baita. Enpresa-kultura, Europako biztanleentzat gizarte-aurrerabideak lortzeko *bitartekoak* eskaini beharko lituzkeela kontuan izanda, gizartearen berezko *helburu* bihurtu da. Era berean, zabalkunde ekonomikoarekiko obsesio ofizialak «bere merkaturatze-ari aurre egiten dion kulturaren zatiak, baztertuta bukatzen duela» (12) esan nahi du. Tradizio kultural europarrari gaineraturiko balio humanistei eta Errenazimentuko idealei ematen zaien garrantzi txikia ere argitzen du egoera horrek. Tentsioak eta bere buruarekiko konfiantzarik eza ez dira hor amaitzen. Sozialismoaren kontzeptua, edo haren aplikazioa Europa Zentralean eta Ekialdeko Europan, baita Mendebaldean ere, errefusatzearekin, zientziaren eta industrializazioaren krisialdiarekin eta kristau etikaren ahultzearekin, Europaren nortasun kulturala arriskuan dagoela dirudi. Geroari begira, honako hau adierazi zuen Jannek «Europak, arrazoa asmatu ondoren, arrazoiaren kontraesanak kendu behar ditu bere gainetik: hori da Europarentzako erronka kulturala». (13)

Europaren nortasun-krisialdirako —halakorik bada— konponbidea Europak berak aniztasunerako eta elkar bizitzarako duen joeran egongo da. Tolerantzia berandu iritsi zen Europara, eta Roy Wake-k adierazten duenez, «agian gehiago lortu da denbora-akiduratik eratorritako eszeptizismo eta axolagabetasunarekin konbentzimendu sutsuarekin baino». Antisemitismoa fenomeno europarra dela adierazten du, eta arrazakeria ere hala da neurri handi batean. (14) Erlijioa izan zen odol-isurketaren arrazoi nagusia XVI eta XVII. mendeetan. Dena den, eta aniztasuna betidanik izan dela kontuan hartuta, premia hutsa tarteko ikasi zuten Europako biztanleek desberdintasuna onartzen eta 1648tik aurrera nolabaiteko tolerantzia publikoa ziurtatu zuten nazioarteko bermekin. Ironia zera da, azken berrogei urteotan, justu tolerantzia guztiok onaturiko arau bilakatu denean, desberdintasun kulturalen aniztasuna era-erabat areagotu dela. Beste galdera-ikur bat erantsi zaio Europaren nortasun kulturalari, eta azpian dagoen arazoa zera da: nola garatu gizarte kulturantzarekin sin-tonizatzen duen balio-sistema bat. Beste kapitulu batean jorratuko da puntu hori; zibilizazio europarraren elementu autok-tonoak aztertuko ditugu oraingoz.

4. taula Marko kulturala. Europa

Zibilizazio bat Esperientzia kultureko zortzi elementu	Gizarte bat Eragin kultureko bost zirkulu
<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Esperientzia erlijiosoko korronteak</li> <li>2. Pentsamolde arrazionala eta zientifikoa</li> <li>3. Ideologia politiko konplexuak</li> <li>4. Mugimendu artistikoen eta adierazpideen aukera zabala</li> <li>5. Individualismoaren printzipio liberalak</li> <li>6. Kapitalismoaren filosofia sozioekonomikoa</li> <li>7. Hizkuntza-komunikazioko gaitasuna</li> <li>8. Ingurumen orokorrerako kezka</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>A. Zirkulu Greko-Bizantziar-Eslaviarra</li> <li>B. Zirkulu Erromatar-Karolinjio-Galiarra</li> <li>C. Zirkulu Iberiar-Islamiko-Ipar Afrikarra</li> <li>D. Zirkulu Zeltiar-Escandinaviar-Anglosaxoia</li> <li>E. Zirkulu Europako Mendebaldea-Ipar Amerika-Transatlantikoa</li> </ol>

## EUROPAKO KULTURAKO KORRONTE ERLIJIOSOAK

Jannek aipaturiko lehenengo elementua erlijioa izan zen. Arestian ikusi denez, arazo korapilatsua da erlijioa gizarte laiko batean. Europako biztanleen zati garrantzitsu batek mendetako kontzeptu huts gisa hartzen du Europa. Dimentsio espirituala hezkuntzaren eremutik kanpo geratu behar dela ere uste du. Izan ere, erlijioa eta erlijio-hezkuntza propio baztertu zituzten Europako Kontseiluaren hezkuntza-agendatik. Ez dugu polemika pizteko asmorik gertakari horiek azalduta. Erregresioa litzateke Estatuaren eta Elizaren arteko tirabira zaharrak berritzea, edo XIX. mendeko Eliza Katolikoak egin zituen historiaren interpretazioei buruzkoak, horiei jarraiki eztabaida ezina baitzen «Fedea Europa da eta Europa Fedea da» kontzeptua. Baina aldi berean, okerra litzateke erlijioak Europako balioen garapenera egin duen ekarpena ahaztea. Mugak eta terminologiak aldi baterakoak direla bazter utzita, Kristautasuna izan zen Europaren aitzindari historikoa, Grezia eta Erroma Kristautasunaren aitzindari izan ziren modu berean. Erroma osteko munduak bi inperio kristautan izandako bereizketaren ondoren, mila urte geroago, Erreforma protestanteak eragindako zatiketa oraindik ere handiagoak izan baziren ere, fededunen komunitate baten teoria —zatiezina eta unibertsala— ez zen inoiz itzali, ezta Europako unitatearen mendetako nozioa ere.

Erljioak giza portaeran eragiteko duen ahalmena eta gizartearen garapenean izan duen inpaktua Europako historiaren gai ezaugarriak dira. Hainbat eta hainbat adibide aipa daitezke, baina bi aipatzearekin nahikoa izango da oraingoan. Lehenengo adibidea irudi zeltetan dugu, Brontze Arotik aurrerakoak; Europa guztian aurkitu dira, eta alfabetatu gabeko gizarte bateko ideia erlijioso eta filosofiko konplexuak sinbolizatzen dituzte. (15) Bigarrenak «juduek eta tradizio judutarrak Europaren garapen historikoari eman dioten ekarpen handi eta ezaugarria, besteak beste, kulturaren arloan» biltzen du, Europako Kontseiluaren Parlamentu Biltzarrak aintzat hartu duenez. (16) Erdi Aroko Europan eta Europa modernoan, judutarrak zera ziren (Hoggart-en metafora mistoa erabilia), «euren polenarekin jarduera artistiko eta intelektualak emalduta zuten erleak [...] finkatu ziren gizarte nahiko sinple, eta maila intelektual eta artistiko haietan legamiaren lanak eginda». (17) Europako Kontseiluak ebazpen bat onartu zuen, eta bertan Judaismoa erlijio konparatu eta etika ikastaroetan barne hartzerantz bultzatzen zituen gobernuak, eta oraindik ere zera gogorarazten digu:

XIX eta XX. mendeetan, Einstein, Heine, Lassalle, Marx, Felix eta Joseph Mendelssohn, eta Max Reinhardt judutarrak zirela alemanak izateaz gain; [...] Bergson, Bernhardt eta Rachel judutarrak zirela frantsesak izateaz gain; [...] Epstein eta Ricardo (Disraeli ez aipatzeagatik) judutarrak zirela ingelesak izateaz gain; Rothschild-arrak, hainbat naziotakoak izanda ere, guztiak ere judutarren nazioko kide zirela, eta aurreko mendeetako dagokienek, ezin ditugu ahaztu, adibidez, Maimonides eta Spinoza famatuak. (18)

Erljioa XXI. mendean modaz pasatuta dagoenaren ideia ikuspegi miopea da. Erljioa ez da garrantzirik gabea Ipar Irlandan edo Ukrainan. Azken hogeitau urteotan hainbat gertakariaren lekuko izan gara, erlijioaren eginkizun garrantzitsuen erakusgarri: Eliza katolikoaren garrantzia Poloniako Solidaritate (Solidarnosk) mugimenduan, mugimendu ekumeniko bat eratzeako saiok, emakumeak apaiz ordenatzeari buruzko eztabaida, Aita Santua sistema neoliberalaren alderdi kaltegarrien kritiko gisa agertu izana, Europar Batasuneko etorkizuneko Konstituzioan Europaren izaera kristauaren erreferentzietan buruzko gaia eta integritatearen indartzea, batez ere islamikoa. Baina Europako fenomeno espiritualen irakaskuntzarekin loturiko arazoak ez dira konpondu, iraganekoak edo orainekoak direla. Irlandan, Danimarkan, Suedian eta Erresuma Batuan izan ezik, erlijio-hezkuntzak egiteko bat betetzen baitu herrialde horietako ikasketen planean, kultura europarreko erlijioaren gaia Historia-programaren menpe egongo da betiere, eta horrek etorkizun geroz eta zalantzarriagoa zabaltzen dio.

## ZIENZIAK ETA TEKNOLOGIAK EUROPAKO KULTURAN DUTEN EGINKIZUNA

Gaur egun, irakasleek orain dela belaunaldi bat baino errazago onartzen dute Europako kulturaren zientzia eta teknologia funtsezkoak direla. Errenazimentetik XX. mendera arte, trebezia tekniko europarrek kontinentearen monopolio intelektual eta asmatzailea erakutsi zuten, «Jainkoaren eta industriaren probidentzia, Europaren onerako konspirazioa balitz bezala», Samuel Purchas apaizaren esanetan. Ez da harrigarria XVIII. mendeko elizgizon horrek aintzakotzat ez hartzea beste zibilizazioek ezagutza tekniko eta matematikoetara eginiko ekarpenak, nahiz eta azpimarratu zituen bolada zientifikoaren bi alderdi eta «jauzi» teknologiko handi bat, Europaren arrastoa munduan askoz ere gehiago utzi zuena munduak Europan utzi zuena baino». (19) XVI. mendeko itsas eta nabigazio arloko hobekuntzak, eta helburu militarretarako su-armen garapena izan ziren bi alor horiek, azken hori prozesu jarraitua izan dela kontuan hartuta, gaur egungo misil nuklearretara iritsi arte. Hainbat historialarik aipatu dutenez Europako kultura, botere politikoa bezala, su-arma baten kanotik irten zen. Zientzia enpirikoen tradizioa teknologiarik lotu zitzaionean, ondorioak garrantzi handikoak izan ziren. Gizarte industrializatu aurreratu baten teknikak eta ezagutzak hartu ondoren, aro industria ostekoaren esperientziarantz, aurreikusi ezin daitekeen esperientziarantz, bideratuta daude ezinbestean Europako biztanleak.

Hori guztia dela-eta, bigarren hezkuntzako ikasleek Europako gizartearen oinarri zientifikoa ulertu behar dute. Funtsezkoa da zientzia fisiko eta naturalek lehentasuna izatea bigarren hezkuntzaren ikasketa-planean, ikasleek printzipio arrazionalen eta datu zientifikoen trebetasunak eta ezagutzak garatzeko, metodo tradizionalen arabera. Baina arrazoiaren alderdi imajinariozkoak eta intuitiboak ere aintzat hartu behar dira, zientzialari handiek erakutsi baitzituzten (Newton-ekin hasi eta Einstein barne hartuta). Aurkikuntza handien testuinguru pertsonal eta zientifikoak ikasi behar dituzte gazteek, hezitako pertsonaren kultur ezagutzaren zati baitira.

Duela mende laurden bat, «euren jakintzagaian ikuspegi erabat iraultzailea» hartzea gomendatzen zitzairen Historia-irakasleei, eta erregeen, estatisten, militarren eta indar ekonomikoen eragina alde batera uztea eta garapen zientifikoak irakastea. (20) Dena den, Eskola Kontseilua Erresuma Batuan Letren eta Zientzien arteko hesiak gutxitzen saiatu zenean, 1970eko hamarkadaren hasieran, zientziarako hurbilketa historikoa sustatuta 14 eta 16 urte bitarteko ikasleentzako medikuntzari buruzko programa bat tarteko, tradizionalistek proiektuaren talde koordinatzailea kritikatu zuten, eta ez zuten baloratu «zientziak beste edozein giza jarduerak baino gehiago egin duela gizateriaren alde». (21) XXI. mendearen hasieran, ziur asko ikasleen mesederako izango litzateke gehiago jakitea zientzien egoera aldakorrari buruz, espezialistak nahasi dituzten enigmai buruz eta horien ikerketen ondorio diren zenbait soluziobideri buruz. Zientziaren zenbait «kale itsuri» ere arreta eskaintzea interesgarria izan liteke, alkimiari edo astrologiari, esaterako. Bada zentzuzko argudio bat aurrerabide zientifikoetara hurbiltzearen alde, zientzialari eta asmatzaile onenen bizitza eta lana tarteko: «gure kultura markatu zuten hildako handiak». Horrela, ikasleek ulertuko lukete XIX. mendeko historia Faraday-ren, Dalton-en, Darwin-en, Mendel-en, Mendelejev-en, Pasteur-en, Lister-en, Röntgen-en eta Curie-ren lanaren bidez interpretatu behar dela; eta XX. mendekoa Einstein-en, Planck-en, Rutherford-en eta Bohr-en lanaren bidez. (22) Azkenik, ikasketa-planak hainbat arlotan izandako aurrerabideak tarteko sortu diren gai etiko eta ingurumen-arlokoiei buruz ikasteko aukera eskaini beharko luke, esate baterako, drogak, aldaketa genetikoa, energia-sorkuntza, eta bizi-kalitatean eragina duten bestelako industria eta merkataritza-arloko jarduerak.

Nola eskura dezakete gazteek «kultur ezagutza» zientifiko hori? Irakasle zientzialari espezializatuak zientzia-programan alderdi kulturaleri buruz irakastera animatu behar dira, izan ere, sarritan, irakasgaietan leku argia ez duten ikasketa-planaren edukiek humanitateetako edo gizarte-gaietako irakasleen erantzukizunpean amaitzen baitute. Historiaz gain, Literaturara ere ikasleen interesa bultzatzeko lagungarria izan liteke bigarren hezkuntzako azken urteetan. Esate baterako, ADNaren, bizitzaren kode genetikoaren, aurkikuntzaren historia, Francis Crick-ek eta J. D. Watson-ek buruturikoa, oso entretengarria da Watson-en *Helize Bikoitza* liburuaren bidez kontatuta. Telebistak ere eginkizun garrantzitsua izan dezake,

programa didaktiko edo dokumentalak tarteko, zientziaren funtsezko lorpenak eta XXI. mendean egiteke dituen erronkak ulertzeko moduan aurkeztuta.

## ARTE EDERRAK EUROPAKO KULTURAN

Jende askorentzat, arte ederrak, arkitektura, musika, literatura, erudizioa eta zinema dira Europako kulturaren oinarria. Jarduera horiek tarteko, emakumeek eta gizonek euren indibidualtasun kreatiboa adierazi zuten, eta Europako zenbait pertsonak bikaintasun-maila handia lortu zuten, beste zibilizazioetako pertsonen lorpenen pareko (eta zenbait kasutan, haien gainetik).

Italia izan zen Europako zibilizazioaren sehaska, eta bertatik Greziaren eta Erromaren herentzia klasikoa Europa barbarora transmititu zen, eta aitasantutzak kristau-fedea zabaldu zuen. Italiarrek zientzietan, literaturan, pinturan, arkitekturan eta pentsamenduan izan zuten nagusitasunak XVI. mendera arte iraun zuen, eta ondoren Frantziak, Alemaniak, Britainia Handiak, Herbehereek, Espainiak eta zenbait naziok konpartitu zuten. Kontzientzia europarraren eraketan eragin handiena izan zuten gizabanakoa edo nazionalitateak aukeratzea zeregin arbitrarioa da, okerra ez esateko; gure asmoa zenbait aukera adieraztea da, eta irakasleak euren alternatiba propioak hartzera bultzatzea.

Italia alde batera utzita, haren nagusitasunak ez baitzuen parekorik izan Erdi Aroan eta Aro Modernoaren hasieran —hau da, San Frantziskoren, Danteren, Aquinoren, Miguel Angelen, Kolonen, Leonardo da Vinciren, Makiaveloren edo Galileoren Italia—, antza ez zegoen erlazio zuzenik eragin politiko eta kulturalaren artean, Luis XIV.aren Frantziaren kasuaren salbuespen posiblearekin. Urrezko Aroan, Espainia inperialak lidertza gehienbat espirituala zuen, Santa Teresa eta Loiola adierazgarri, Cervantesek eta Velazquezek loraldi kulturala bazegoela ere erakusten duten arren, eta Herbehereen ordezkari, garai hartan Espainiako koroaren probintziak baino ez zirela kontuan izanda, Erasmo eta Rembrandt ditugu (eta askoz geroago, Van Gogh). Eskozia, nahiko pobreturiko estatua, Frantziarekin lehian aritu zen filosofiaren arloan Arrazoiaren Aroan. Azken mende eta erdian, Errusiak bere ekarpena egin du Pushkin, Tolstoi, Stravinsky, Lenin eta Eisenstein tarteko. Irlandak James Joyce du, besteak beste. Horretaz gain, beste zenbait pertsonaia ospetsu ere aurkitzen ditugu, bizitzan bestelako arrastoa utzi zutenak euren jarduera-eremuetan. Kategoria horretan sar ditzakegu Karlomagno, Medicitarrak, Napoleon, Suediako Kristina Erregina edo Danimarkako Kristian IV.a.

Britainia Handiak eragin handia izan du literaturaren, ekonomia politikoaren eta zientziaren alorretan, Chaucer, Shakespeare, Byron, Dickens, Bacon, Locke, Newton, Adam Smith, Malthus eta Darwin tarteko. Herri germaniarrek Gutenberg, Lutero, Bach, Haydn, Mozart, Beethoven, Wagner, Goethe, Hegel, Marx, Einstein eta Freud eman zizkioten Europari, eta frantziarrek (Suitzako alde frantsesa barne hartuta) Montaigne, Descartes, Racine, Molière, Voltaire, Rousseau, Hugo, Manet, Cézanne eta Le Corbusier eman zituzten ideien, zientzien eta letren arloan.

Kultur loraldi hori ez zen jarraitua ez adostua izan, eta tradizio eta pentsamolde nazionalen indarra kontuan hartu behar da, Frantziako Iraultzak sendoturikoa. Dena den, bazegoen homogeneousutasun eta jarraitasun maila bat, nazioko mugak gainditzea ahalbidetzen zuena, eta hori tarteko, propio europarrak diren mugimendu edo «eskolak» aipa ditzakegu, esaterako, Erromanikoa, Gotikoa, Errenazimentua, Humanismoa, Neoklasizismoa, Barrokkoa, Rococooa, Ilustrazioa, Erromanizismoa, Impresionismoa, Naturalismoa, Errealismoa, Kubismoa, Surrealismoa, Modernismoa, eta abar. Horretaz gain, Europako artista askok hainbat forma eta estilo propio bilakarazi zituzten. Musikan, motetea, madrigala, korala, sinfonia, kontzertua eta sonata: musika monofonikoak polifoniarri utzi zion lekua, eta XX. mendean musika elektronikoa garatu zen instrumentalean oinarrituta. Pinturan, Errenazimentuko artista italiarrak eta flandestarrak aitzindariak izan ziren ikuspegi linealaren eta giza formaren irudikapenaren errealismoan. Arte dramatikoak askoz ere lehenago aldatu ziren, Eskilo, Euripides eta Sofoklesen tragediekin, eta Aristofanesen komediekin. Erdi Aroko obra dramatikoak eta *Commedia dell'Arte*

ren antzerki herrikoa sofistikazio gutxiagoko ereduak izan baziren ere, arte dramatikoak gailur berriak zapaldu zituen Shakespeare, Molière, Ibsen eta Brecht-en obreakin.

Lau mendetan, inprimaturiko hitzaren nagusitasuna ziurtatu zuen inprentak Europako biztanleen «kultur ezagutzan». Nobela bereziki genero literario propio-propio europar gisa garatu zen, izan ere, «aberastasun eta sakontasun izugarriarekin aztertu ditu Europako bizitzaren egitura eratu dituzten esperientziak, printzipioak, suposizioak eta aurreiritziak». (23) Zein dira Europako literaturaren pertsonaia famatu handiak eta zein dira mintegi-obrak? Literaturako espezialistak ez dira ados jartzen, baina aditu britainiar batek honako hauek aukeratu ditu: *Mansfield Park*, Jane Austen-ena, *Larru zimurra*, Honoré de Balzac-ena, *Tina*, Herman Bang-ena, *Etxe Ospela*, Charles Dickens-ena, *Karamazov Anaiak*, Feodor Dostoievskirena, *Middlemarch*, George Eliot-ena, *Madame Bovary*, Gustav Flaubert-ena, *Artista nerabearen erretratua*, *Ulises* eta *Finnegan's Wake*, James Joyce-renak, *Prozesua* eta *Gaztelua*, Franz Kafka-renak, *Buddenbrook-tarrak* Thomas Mann-ena, *Senar-emaztegaia*, Alessandro Manzoni-rena, *Denbora galduaren bila*, Marcel Proust-ena, *Fontamara*, Ignazio Silone-rena, *Gorria eta Beltza*, Stendahl-ena, *Gerra eta Bakea* eta *Anna Karenina*, León Tolstoi-renak, eta *Gurasoak eta Seme-alabak*, Ivan Turguenev-ena.

Dena den, mugimenduek eta izenek (autore handienak eta maisu-obrak badira ere) ez dute guztia adierazten kulturari buruz. Ikus daitezkeen testigantzen katalogo zabala dugu Europako hirietan eta haren landa-ondarean. Hori izan zen gai nagusia Mugarik gabeko Arkitektura deituriko Europako Kontseiluaren programa batean. Landaren aldeko Kanpaina Europarra ere inauguratu zen, landa-habitaten altxorrak zaindu eta sustatzeko. Urbanizazio-prozesua ere esperientzia bateratzailea da, nahiz eta Europako hiriak desberdinak diren antzinasunari, plangintzari eta eginkizunari dagokienez. *Kastro* erromatar baten lekuan kokatu ziren zenbait, beste batzuk presaka garatu ziren Erdi Aroko merkataritza handitzearekin batera edo eliz komunitateen inguruan, beste batzuk bertako gobernatzaileek edo mendetako agintariek planifikatu zituzten. Hiri harresidunak ohikoak ziren Erdi Aroko Europan, arrazoi ekonomiko eta militar jakinak tarteko, baina topografiak eta klimak alde handiak eragin zituzten haien formari dagokionez. Estilo eta eraikuntza-modu desberdineko eraikinak, zonaldeko materialekin egindakoak. Behatzaileontzat kontraste eta antzekotasun ikusgarriak daude San Gimignano-ren moduko Toskanako hiri harresidunen, Edinburgoko alde zaharraren eta Aigues Mortes-eko gotor portuaren artean. Gauza bera esan liteke XX. mendeko arkitekturari buruz (nahiz eta eraikuntza modernoaren materialak teknologia industrialaren menpe dauden, ez naturaren menpe). Antzinasunak ez du funtsezko faktorea izan behar hiri-arkitekturaren ondare-balioaren ebaluazioan; horretaz jabetuta, Europako Kontseiluko espezialistak adostasun bila dabilta kontserbazioa eta zaharberritze politikarako gida-lanak beteko dituzten printzipioen inguruan. (24)

Mende horietan, arkitektura-estilo ugari sortu dira Europan. Haren arkitektura diseinu eta egiturek nazioarteko eragina izan zuten garai klasikotik hasi (Athenasko Partenoiairen estilo dorikoa eta Erromako Panteoiairen zirkulu-formako errotonda dira horren erakusgarri) eta mundu bizantziarreko kupula-formarekin errematuriko basilikak edo Europa katolikoko Erdi Aroko katedraletaraino (erromanikoak edo gotikoak, eta, zenbaitetan, San Pedroren kasuan bezala, jeinuzko artistek ederturikoak Errenazimentuaren edo Barrokoaren garaian). Hala eta guztiz ere, elizak ez ziren arteen sorgune handi bakarrak izan. Mendetako monumentu ugari ere altza zituzten: Hainbat gotorleku, hala nola Hradcany, Rheinfels edo Château Gaillard, edo Gaztelako gazteluak; Adrianok, Eduardo I.ak, Vauban-ek edo Maginot-ek eraikitako fortifikazioak; hainbat errege-jauregi edo jauregi inperial, esaterako, Versailles, El Escorial, Schönbrunn, Neguko Jauregia eta Loirako *châteaux* deiturikoak, Venetoko hiribilduak, azoka-plazak edo udaletxeak, Bruselako *Grand Place* dela horien adierazgarri. Egitura horien inguruan mistika ulergarria badago ere, ez da ahaztu behar industrializazioak bere arkitektura-monumentu propioak ekarri zituela: itsas Europako portu-biltegiak eta itsasargiak, fabrikak, hozketa-dorreak, ospitaleak, bizitegi-auzo herrikoiak, zubiak eta tren-geltokiak, esaterako, Budapesteko Keleti Palyautvar-ekoa, Stephenson eta Watt-i eskainitako monumentuekin, guztiak ere «teknika eta estetika, artea eta industria» uztartuta. (25)

«Goi Kultura» europarraren herentzia pertsona dirudun eta landuei zor zaie, aristokrazia sozial eta politiko bati, kontuan izanda haien gustuak artista eta eskulangile, arkitekto, pintore edo igeltsero mordo baten talentu eta energiek ase zituz-



tela; horietako batzuk bizirik zeudela lortu zuten ezagumendua, Miguel Angelek edo Berninik, Lebrun-ek edo Mansart-ek, esaterako, gainerakoek, berriz, modu anonimoan lan egin zuten etorkizunari begira. Hurbilagoko denboraldietan, babesak industria eta merkataritza-arloko meritokrazia bultzatzaileari esker funtzionatu du, edo Estatuaren makineria garrantzitsua tarteko. Eskulangile berriak arkitektoak, ingeniariak, altzairuaren langileak, igeltseroak eta dorre-konpontzaileak edo eraikuntzako enpresa handietako langileak dira. Giro berri horretan, Europako biztanleen zati bati Errenazimentuko lorpenak berdin zaizkiola dirudi. Erdi Aroko edo XVII. mendeko arteen eskaera estetikoek gutxiengo bat baino ez dute alienatuko soilik. Baina antzerkia geroz eta ezagunagoa izatea, eta katedraletara, oinetxeetara, arte galeria eta museoetara, eta arkeologia industrialera geroz eta bisitaldi gehiago izateak Europako herritarren zati garrantzitsu batek bere burua herentzia oso baliotsuaren zaindari ikusten duela iradokitzen digute. (26)

Irakasleentzako arazoa arte-obra handien balio estetikoa nola argitu da, betiere gazteentzat ulergarria eta erakargarria izateko moduan. Zeregin zaila da, irakasleek aurre egin behar dioten ikasle-belaunaldiko ikasle horien bizitza erabat murgilduta baitago komunikabideak tarteko sustaturiko kontrakulturaren. Bakarrik utzi dituzte arte-irakasleak (musikakoak baino gehiago) euren soluziobide pedagogiko propioak asmatzeko. Dena den, kultura bisualaren gaia funtsezkoa da gizabarnako pentsalariak hezi nahi badira, betiere haien sentimenak euren trebetasun kognitiboak beste garatzeko.

1981ean, irakasle-talde frantses hiztun batek argitu zuenez irudiek estimulua behar dute izan begientzat, koadroa, marrazkia, filma edo telebista dela, eta kultura bisuala guretzat ezagun egiteko bide bat. Irudi bat izan liteke «ilustratzaile garrantzitsua, konparazio gisa baliotsua, sinbolo gisa eta imajinazio-erakarpenerako terminotan»; «motibazio-indar gisa ere» jarduten du, «emozioekin duen hurbileko elkartzeari esker». Parisko Institut National de l'Audiovisuel erakundeko Pierre Corset-ek ideia bera errepikatu zuen, eta atentzioa eman zuen hutsune metodologiko garrantzitsu bati buruz, eta horrek gelan eragiten dituen ondoriozko hutsei buruz. Argudiatu zuenez: «Alde sakona dago ezagutze jabetzeko bi moduen artean —bata idatzitako hitzean oinarriturikoa, ikaskuntza-metodo oso ezagunak biltzen dituela, eta bestea pertzepzio sensorialean oinarriturikoa, emozioak barne hartuta, baina gutxiago garaturiko metodologiak biltzen dituen—». (27) «Irudien hizkuntzaren» kontzientzia eman behar zaie ikasleei, eta irakaskuntza-metodoak ezarri hezkuntza sensorialerako irudiak edo soinuak erabilia, edo biak uztartuta. Lehenik arazoak identifikatzen badira soilik lortu ahal izango da hori, eta ondoren gaur egun Arte Ederrek irakasteko mugak aztertu, eta azkenik irakasle esperientziadunak eta espezialistak bilduko dira irakasteko metodoen eta ikasteko estrategien azterketa kolektiboa egiteko (hizkuntzen komunikazio-ikaskuntzaren arloan eginiko aurrerabideen antzekoa), zenbait gomendio praktikoa proposatu aurretik.

Arte Ederrei buruzko Europako Kontseiluaren politiken ikuspegiak gertakari berezien antolamendua izan du aztergai, Europako ondare kulturalaren ezagutza publikoa zabaltzeko. CDCCK arte europarraren erakusketak antolatzen ditu demokrazia kulturala sustatzeko. Gaur arte, horietako hogeita hamar gertakari baino gehiago antolatu dituzte, eta aztergai nagusitzat mugimendu eta denboraldi kreatibo handiak, iraganeko zenbait mezena edo gai historikoak dituzte. Horrela, Medicitarrei buruzko erakusketak antolatu dira Florentzian, portugaldarren aurkikuntzei eta Errenazimentuari, eta arte modernoari buruz Lisboan, Anatoliako zibilizazioari buruz Istanbulen, eta Frantziako Iraultzari eta Europari buruzkoak Parisen, haren bigarren mendeurrena ospatzeko. Arte eta Historia irakasleentzat erakusketa handi horiek duten balioa artelanen katalogoak euskarri informatikoekin edo ikus-entzunezkoekin batera baliatzeko aukera ematen dietela da, eta horiek baliabide gisa erabil ditzakete Europako kulturari buruz irakasteko. 1988an ekimen konplexuagoa abiarazi zen mugimendu barrokoaren ospakizun multinazionala koordinatzeko, Bide Kulturalen proiektuaren barruan. Urtebete geroago, Europa Zentraleko eta Ekialdeko Europako herrialdeek hartan parte hartzen zuten lehenengo proiektua izan zen, Belgraden eta Ljubljanan mintegi bat antolatuta. Azken urteotan, Brontze Aroko Jainko eta Heroiei buruzko hainbat hiriren artean konpartituriko erakusketak antolatu ditu CDCCK, 1999an Kopenhagen, Bonnen, Atenasen eta Parisen, eta 1000. urteko Europa Zentralari buruzkoa, Budapesten, Berlinen, Pragan eta Bratislavan 2000 eta 2002 bitartean.

Artea bezala, musika ere nazioarteko komunikatzeko modua da. Hortaz, ironikoa da Europako kultura nazionalen aniztasunaren erakusgarri izana, batez ere XIX. mendean, nazionalismoaren gailurrean. Mundu guztia ados dago Dvorak-en

eta Smetana-ren musika zeharo eslaviarra dela, eta Fallarena, berriz, espainiarra. Verdiren musikan nolakotasun italiarra badagoela ere esaten da, eta izaera frantsesa Ravel-en edo Debussy-ren musikan, eta Elgar-enean eta Vaughan Williams-enean, berriz, esentzia ingelesa. Eta dena den, musikaren erakarpun unibertsalak bere jatorriak gaindi ditzake, Schiller-ren *Alaitasunaren himnoa*, Beethoven-en musikarekin, Europako himno «plurinazional» gisa hartu izanak erakusten duen bezala.

Gazteek musika eskuratzeko aukera zabaldu eta musika-hezkuntza indartzeko, Musikaren Urte Europarra izendatu zuten 1985, Europako Kontseiluaren eta garai hartako Europako Erkidegoaren ekimen komun gisa. Europako hiru konpositore barrokoen jaiotzaren hirugarren mendeurrena ospatu zen urte horretan bertan: J. S. Bach, G. F. Handel eta Domenico Scarlatti. Gertakari ugari antolatu ziren, batez ere nazio, eskualde edo herri mailan, baina Antolatze Batzorde Europarra ere eratu zen Europa osoan jarduerak koordinatzeko, horren guztiaren puntu gorena Musikaren Egun Europarra izan zela, ekainaren 21ean. (28) 1991n errepikatu zen prozesu hori, nahiz eta maila txikiagoan izan, Mozart-en heriotzaren bigarren mendeurrenaren eta Europako kulturari egin zion ekarpenaren ospakizuna tarteko.

## HERRI-KULTURA ETA BERE HEZKUNTZA-INPLIKAZIOAK

Definizio orokorra da «herri-kultura» terminoa, jendearen lorpenak, balioak, lanak, jarduerak eta bizimoduak biltzen dituena. Sarritan aplikatzen zaio espresio hori kultura modernoari, Europa modernoaren alderdi soziologikoa aipatzeko. Engainagarria gerta liteke hori: masa-kultura ez dago denbora jakin bati mugatuta, *Flateyjarbók* saga islandiarrek —Erdi Aroko intriga-antzerkiak— edo *Arts and Crafts* mugimenduak erakusten diguten bezala. Izan ere, masa-kulturen biziraundako testigantzak balio izugarri-izugarriko iturriak dira historialarientzat gizarte-bizitasuna baloratzeko. Dena den, bada beste pentsamendu-eskola bat, eta haren arabera, «Goi Kulturaren» antitesizat interpretatzen da «herri-kultura», eta hura baino maila behegarria, masa-kultura ez-diskriminatzailea baita, eta horren haritik, herri-kultura ez da serio hartu behar, *kitsch* besterik ez baita.

Hori gorabehera, pizkundera izan du azken urteetan kulturak, aisiarako dauden geroz eta aukera handiagoak eta nostalgiazaren kultuagatik kezka tarteko. Jada 1964an, Europako Kontseiluaren lantalde batek herri-kulturak utzitako ondare historikoaren balioa aurreratu zuen. *Europako Gailur Kulturalen Kontzientzia Kolektiboa eta haiek Aisiaren Kulturara Gaineratzea* izenburuko txosten batean jaso zenez, zibilizazio europarraren aro bakoitzak «fase moderno» bat izaten du. Horrela, garai bateko Erdi Aroko katedralak gaur egungo ikerketa medikoko zentroak bezain lorpen ikusgarriak ziren. 1980ko hamarkadaren erdialdetik, hainbat estrategiari jarraitu die Europako Kontseiluak geografia kultural europarraren kontzientzia sustatzeko, Axel Dessau daniarrak «bizitzari begiratzea» deitu duena, «monumentuei begiratzea»ren orde. Zaharbertzeko proiektuak babestuta eta eskualde-nortasuna sustatuta, eta batez ere bide kulturalen ideia tarteko, CDCCk Europaren nortasun kulturala agerrarazi nahi du, Europako jendeak gehiago estima dezan. Hori lagungarria izango da herentzia kulturala gorde eta hobetzeko, eguneroko bizitza hobetzeko bitartekoa eta garapen handiagoko iturria denez. Jendeak bere aisialdian zerbait esperimintatzea ere ahalbidetuko du. «Herrialde edo eskualde bat edo gehiago gurutzatzen duen bidea, betiere haien interes historiko, geografiko edo soziala argi eta garbi europarra den gaien inguruan antolatutikoa» (29), edozein bide dela ere, biltzen du «bide kultural europarra» terminoak. Bi adibide aipatu dira aurreko atalean: Landa Habitata eta Barrokoaren Bidea. 1990eko hamarkadan nazioz haraindiko beste bi ibilbide abiarazi zituzten: Zetaren Bideak, Frantziaren, Italiaren, Espainiaren eta Turkiaren historiarako garrantzi handia izan zutela kontuan izanda, estiloak, populazioak, teknologia, finantzak eta kultura trukatzeko produktu horrek zenbaterainoko garrantzia izan zuen erakusten digute. Dena den, kontzeptuaren prototipoa Santiago Konpostelakoarainoko erromesaldi-bide zaharraren identifikazioarekin garatu zen, ondare espiritual, kultural eta ekonomikoaren alderdi asko argitzen baititu. Euren potentzial pedagogikoa erakutsi dute bide horiek, batez ere Historia eta Geografia irakasleentzat. Ildo horretan, Erresuma Batuan garaturiko Historialari Gazteen programa bide kulturalen ideia gauzatzen hasi da bigarren hezkuntzarako, eta Frantziako St. Jean d'An-

gély-ko Eskola Kultural Europarren Zentroak, berriz, jakintzagai anitzeko programa hasi du 14-18 urte bitarteko ikasleek Santiago Bidea azter dezaten. Honako hauek dira bertan bilduriko gaiak, betiere ikasleen adinaren eta mailaren menpe:

1. *Konpostela*: erromesaldi-lekuak, herri-errukia, erromesak eta erromesaldiak.
2. *Bidaiak*: Bidaiak eta ibilbideak, zaldia, limosnak, Erdi Aroko laguntza.
3. *Arte erromanikoa*: Santiago Konpostelako katedrala, erromesaldiko elizak, eskualdeko eta Mendebaldeko arte erromanikoa.
4. *Harreman ekonomikoak*: gatza eta ardoa, itsasontziak (bilakaera), Atlantikoko merkataritza, itsas legeria, Erdi Aroko merkataria.
5. *Zibilizazio komuna*: Kristautasuna, mugak, hizkuntza «nazionalen» sorrera, izenak sortzea, sentimendu «nazionalen» hasiera.
6. *Nola ikusten da gaur egun Erdi Aroa?*: nobela historikoa, film historikoa, komikia.
7. *Irudien mundua*: eskultura, tapiza, freskoak, argiztapena.
8. *Hirien sorrera eta garapena*: hiri zaharrak, hiri berriak abadien eta gazteluen inguruan, jarduera ekonomikoa.

Arkeologia klasiko zein industrialak ere zeregin garrantzitsua izan du erakusketa eta irakaskuntza zentroyen sorreran, ikasleek bertan aurreko teknologietako erremintak eta gailuak ikusi eta ukitu baititzaizkete, eta horiek tarteko, aurreko belaunaldien bizimoduak esperimintatu. Bertako arkitektura ere herri-kulturaren beste alderdietako bat da, bigarren hezkuntzarako potentzial handia duela. Ingurumenerako interes berriak sentsibilizazio handiagoa eragin du jendea non eta nola bizi zen jakiteko, eta etxeko arkitekturaren estilo tradizionalak ezagutzeko, bertako eraikuntza-materialetatik abiatuta izan baitzuen bilakaera. Zer ikasi liteke, esaterako, bizimoduei buruz Mediterraneo inguruko etxeetako aldapa leuneko sabaiak ikusita, edo mendialdeetako aldapa handiko etxebizitzetakoak, iparraldeko kostaldeko hirietako teilatu mailakatuak, eta Europa iparraldeko barrualdeko zurezko fatxadak? XX. mendeko aurrerabideei dagokienez, aurrerabide «herrikoia» eta eragin garrantzitsuak, Le Corbusier-ek eta Bauhaus eskolak ekarritakoak, gaineratu beharko litzuzke Diseinu eta Teknologia programak.

Iraganeko eta gaur egungo herri-tradizioek ere giza interes handia dute bigarren hezkuntzako ikasle gazteenentzat. Herri-abestiak, folklorea eta fabulak —herrialde eskandinaviarrek eta Ekialdeko Europakoek aberastasun berezia dute arlo horretan— dantza tradizionalak, jantzi tipikoak, tokiko ohiturak, festak eta kirolak erakargarriak izan litezke irudimenerako, trebeziak garatzen dituzte eta dimentsio kulturalerako sarrera-lanak egiten dituzte. Nerabeei dagokienez, Erdi Aroko intrigako obra dramatikoak antzerki-alternatiba dira Santiagorako edo Glastonbury-rako erromes-bideekiko. Bigarren hezkuntzako ikasle gazteenen premiak eta lehen hezkuntzako ikasleek ez dira oso desberdinak, eta komeni da gogoraztea Europako kulturak zibilizazioa, literatura, zientzia eta artea biltzen dituen arren, «lehen hezkuntzako ikasleentzat eguneroko bizimoduan adierazten dela praktikan: familia, etxea, eskola-patioa, lagunak, auzokoak, parrokia, herria edo auzoa». Kulturak, lehen hezkuntzako aditu baten iritziz, ez du inolako zerikusirik bizimodu aristokratikoekin, «ez da errito momifikatua [baizik eta] indar bizia eta bilakaeran dagoena [...] gure bizimodua, gure hustubide espirituala: bestela esateko, gure ideia europarra». (30) Horrela bada, funtsezkoa da material kultural europarren aniztasuna baliatzea azpikultura alternatiboei edo kontrakultura modernoei aurre egiteko, zenbait gazte erakarri egiten baitituzte, eta euren kultura heredatuetatik urruntzen dituzte.

Merkatura bideraturiko kontsumo-gizarte bihurtu du Europa industrializazioak, kultur jardueretan parte hartzeko aisiarako denborarekin. «Europako tradizioaren arrastoak [...] "kontsumo-gizartearen" bizimoduen berniz lodiarekin estali dituzte», Henri Jannek adierazi zuenez. «Europaren oroimen kolektiboan eta kontzientzian biltzen diren berezitasunak, horiek gabe haren nortasunaz jabetzea ezinezkoa dela kontuan izanda, berriz azaleratu behar dira, berniz hori tarteko (kulturaren espresio nazionalak zein Europaren nortasun kulturala estaltzen baititu)». (31) Hurbileko iraganaren irakasgaiek aditzera ematen dutenez, aurrerabidea ez dago kultura nazionalen baitan. Batasun-itxura ematen dio Europari, baina egiaztatzeke dago sorturiko uniformetasuna probetxuzkoa ote den. Uniformetasun horretaz gain, (ingelesaren eta galtza bakeroen

erabilera adibide dituela) material ugaritasuna, berezko iraungitzea, une batekoa izatea eta, zenbait behatzailearen arabera, azalera nabarmena ditu ezaugarritzat kontsumoaren kulturak. Nazioz eta Atlantikoz haraindiko kultura da. Industriadazioa bera bezala, kultura hori —garai batean Europako herri-kultura— Ipar Amerikara transmititu zen, bertan eraldatu egin zen, eta boomeranga balitz bezala itzuli zen XX. mendean.

Europak prozesu hori dela-eta izan duen erreakzioa ahula eta eraginik gabekoa izan da, Richard Hoggart-en eta Douglas Johnson-en ustez. Egiaz, Europako bertako aisiaren kulturaren adierazpen gutxien onbidezkoetara biltzea izan da erantzun bakarra. «Gaur egungo funtsezko hitza [...] arinkeria da. Iritzi, uste eta dibertimenduen hartzaile hutsak dira biztanle-masak [...] Bada Europako batasun berri bat, Eurovision dela horren adierazgarri [...], hainbat eta hainbat kirol-lehiaketa eta telenobela, eta orain satelite bidezko telebista ere bai». (32)

Herri-kultura komunikabideetan, batez ere telebistan, ustiatzea hezkuntza-arloan hedadura sakona duen gaia da. Komunikabideen seme-alabak dira Europako gazteak; telebistaren aurrean astean 12-18 orduko batez bestekoa ematen dutela kalkulatu da. Ikus-entzunezko baliabideek geroz eta eragin handiagoa dute haien iritzi, gustu eta aukeretan, eta erronka ere badira hezkuntza-arloko irakasleek eta administrazioak hezkuntza sentsorialari arreta handiagoa eman diezaieten. Espezialistak beldur dira, dena den, gazteak «mosaiko-kultura bat» edo «*un savoir en miettes*» deiturikoa ez ari ote diren jasotzen. Kontsumitzaile direnez, «kulturaren industriaren» produktuen eraginpean ere badaude, produktu informatiko edo ikus-entzunezkoak produzitzen dituzten enpresen eraginpean; Europako nazio txikienei, berriz, euren nerabeek telebistaren bidez —eta geroz eta gehiago gainera— Europako herrialde handiago edo aberatsagoen, Frantzia edo Alemania, esaterako, kultura nazionalen eta hizkuntzen eragina jasotzen dutela iruditzen zaie. Hari bidezko edo satelite bidezko telebistak ekartzen duen oraindik ere handiagoa den arriskua «hanburgesen kulturaren» erabateko nagusitasuna da, eta horren erakusgarri dira McDonalds Piazza di Spagna-ra, Erromako plaza ospetsuetakora, eta Moskuko Pushkin Plazara iritsi izana, Parisko aldirietan EuroDisney egin izana ez aipatzeagatik. Hori «herri-kultura» bada, eta gainera, Europako gazteak kultura-mota *horrekin* soilik identifikatzen badira, dimentsio kultural *europarraren* kontzeptua bera arrisku larrian egongo da berandu gabe.

Europako Kontseiluaren jarduera egin berriek arrisku hori serio hartzen ari dela erakusten digute. Bide Kulturalen programaz gain, politika kultural eta eskualde-arlokoen ikerketa antolatatu du CDCCk. Kulturei eta Eskualdeei buruzko Florentziako eskualde-lankidetzak lortu nahi du kultur gaiei dagokienez, eta Lisboan eginiko beste batek kulturaren gaia jorratu du Ipar-Hego ekarriketaren testuinguruan. Hala eta guztiz ere, erraz ahazten da teknologia berriak erabiltzeak dakarren iraultza kulturala, modu artistikoak herrikoia egiteko zereginean. Ordenagailu-jokoek duten erakarpenak goian deskribaturiko prozesu negatiboak bizkor ditzake, baina Europako kultura sakonagoa ezagutarazteko ere baliagarria izan liteke. Azkenik, ez lirateke alde batera utzi beharko liburuen formatu eskuragarriek eskaintzen dituzten aukerak, Europako literaturako klasikoak euren jatorrizko hizkuntzan edo itzulpenean baliatzea ahalbidetzen baitute. Aukera hori garatu ahal izateko, argitaletxeak ondare kultural garrantzitsu horren itzulpena eta zabalkundea areagotzera animatzeko bideak aurkitu beharko dira.

## EUROPAREN NORTASUN KULTURALAREN ZENBAIT INPLIKAZIO IKASKETA-PLANEAN

Argi dago dimentsio kulturalak ikasketa-planaren hautazko arloa izateari utzi diola, Europako eskolek nahitaez aztertu beharrekoa eta inondik inora baztertu ezin dutena. Unean uneko apetatzat ere ezin da hartu, 1954ko Konbentzio Kultural Europarrak jada adierazi baitzuen hezkuntzan zibilizazio europarraren azterketa barne hartzeko beharra. Hezkuntza es-tetikorako, lehen mailan zein bigarren mailan, politika koherenteak garatzeko metodoak bilatu nahia behin eta berriz errepikatu da Europako Kontseiluaren eta Europar Batasunaren komunikatuetan 1980ko hamarkadaren erdialdeaz geroztik. (33)

Zenbait estrategia hartzera animatu dituzte irakasleak; gelako aukera bakoitza aprobetxatu behar da balio europarrak ikasleei argitzeko, individualismoaren printzipioak eta praktikak, demokraziarenak, aniztasunarenak, eta ingurumenerako kezkaarenak, esaterako: esperientzia kultural bateratzaileak azpimarratu behar dira eta ez adierazpen banatzaileak; ikasketak-planak aldatu egin behar dira gai europarrak barne hartzeko, hala nola Europako kultur ondarea gordetzearena.

Gomendio horiek ezinbesteko inplikazioak dituzte ikasketak-planaren egiturari. «Kultura termino zabalagoetan definitzen bada, jakintzagai gehienak —Natur Zientziak, Gorputz Hezkuntza, Kirolak eta Dantza barne hartuta, nahiz eta Gizarte Zientziak eta Humanitateak, Hizkuntza Modernoak eta Arte Ederrek eginkizun garrantzitsuagoa izan— lagungarriak izan litezke garapen kultural europarra ulertzeko. Zerrenda heterogeneo hori errealitate bihurtzeko, irakasleek jakintzagai tradizionaleraino eusteko aukera nahiago izan dezakete, Europako Kontseiluko espezialistek proposaturiko esperientzia kulturalaren elementu unibertsalak kontuan hartuta (ikus 5. taula). Alternatiba gisa, Ikasketak Kulturalen diziplina anitzeko programa bat garatu ahal izango dute eskolek, eta hartarako ekarpenak irakasle espezializatuek zein orokorrek egin ahal izango dituzte. Aukera baliak liteke Europa «eragin-zirkuluen» bidez aztertzeko (ikus 6. irudia), edo Europako Bide Kulturalen ideian agertzen diren zeharkako gaien bidez (ikus 5. taula). Hirugarren estrategia bat ere kontuan har liteke, hau da, jada hainbat sistema nazionaletan badauden Gizarte Ikasketetako diziplina anitzeko ikastaroak erabiltzea, horietan ezarritako praktika baita Europako gizarte eta politikaren alderdi modernoak jorratzea. Programa horiek zabaltzeko aukera beharko litzateke, kasuak kasu, zientzia, ingurumen eta ekonomia arloko materiala gaineratzeko Humanitateen eta Natur Zientzien eduki kulturalera. Geratzen diren kultur elementu garrantzitsuak betetzeko, ikastaro paraleloak egin ahal izango dira Ikus-entzunezko Arteak jorrotuta (Historia, Komunikabideetako Hezkuntza eta Ikasketak Klasikoekin alde batetik, eta Hizkuntza Modernoak eta komunikazio-eskumenak bestetik).

Ikasketak-plana berriz antolatzeko eta garatzeko premia dakarte iradokizun horiek, irakasleei informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak gelan integratzeko eskatzen ari zaien unean, ebaluazio-maila konplexuagoeraino erantzun behar izateaz gain. Dena den, Europako kultura irakasteari loturiko arazoak gutxietsi behar ez badira ere, ez dira gaindiezinak. Hogeita hamar urte baino gehiagoraino Europako Akademiak Berlinen eginiko lanak haurra aztergai duten estrategien balioa erakusten du, baina printzipio hori urrunegi eraman zuten Ikasketak Europarren zenbait ikastarotan Erresuma Batuan; goi-kulturari uko egin zioten bertan herri-kulturaren mesedetan, «nerabeen gusturako erakargarriztat» interpretatuta. Zenbait ikastaro oinarritzko gai soziologikoen menpe geratu ziren, eta ezer gutxi gaineratzen zuten horiek Europaren kultuaren berezko ezagutzei: pop abeslariak, horoskopokoak, kanpin-oporrak, janariak eta edariak, iragarkiak, kirolak, arropa eta marrazki bizidunak. (34) Horrelako edukiek eztabaidak eragin ditzakete hizkuntza modernoan eskoletan, baina arazo garrantzitsu baten adierazgarri dira: zenbateraino hautatu behar da eduki kulturala, «goi-mailakoa» edo «herri-mailakoa» dela, bere interesaren eta ikasleen bizimoduarekiko duen kideotasunaren arabera? Zenbateraino hautatu behar da Europarekiko eta, batez ere, Europaren bereizgarriarekiko egiten duen erreferentziagatik? Ikasleen esperientzien oinarrien gain eraikitzeko premia baieztatzen du praktika egokiak, baina haien pertzepzio kulturalak zabaltzea behar du izan lehentasuna.

Azkenik, eztabaida horrek Europako bertako kulturei eragin bateratzailea ekarri dieten kultur ezaugarriak nabarmentzen baditu ere, aniztasun demografikoan hazi da herri-kultura, eta aldaketa nabarmenak daude Europako estatu-nazioetan. Europa hainbeste «eragin-zirkuluren» eraginpean egon izanak zibilizazio kulturantzira dela erakusten du. Baina XX. mendeko eta XIX. mendearen hasierako pertsonen migrazioak iraganekoak ez bezalako eskalakoak dira. Zenbait gutxiengo etniko zonalde pobreenetatik aberatsenetara pasa dira Europan: langile portugaldar asko eta euren familiak Frantziara lekualdatu ziren, jugoslaviar asko Alemaniara joan ziren. Baina immigrante gehienak urrutiagotik datoz orain, eta balio, erlijio eta bizimodu ezberdinak dakartzate, eta ez-europarrak gainera, eta kulturantzitasuna erronka da dagoeneko ezarritako dauden hezkuntza eta gizarte patrietarako. Dena den, Europako Irakasleen Elkartearen Europako Hezkuntza Gutunaren hitzak azpimarratu behar dira: «Gure jendearen aniztasuna, eta haien ezaugarri kultural eta espiritualak errespetatu behar ditu hezkuntzak, geure ondare europarra, oro har, horiek osatzen dutela kontuan izanda».

5. taula Europaren dimentsio kulturala eta ikasketa-plana

		Ikasketa-plana	
Zibilizazio bat*	Gizarte bat*	Lehen hezkuntza	Bigarren hezkuntza
1	A B D	Erlijo Hezkuntza Historia	Hezkuntza Kulturalnitza
2	A B C D	Zientziak Historia	Hezkuntza Politikoa Hezkuntza Teknikoa Literatura
3	A B C E	Hezkuntza Politikoa Historia	Komunikabideetako Hezkuntza
4	A B C D E	Artea Musika Historia Literatura	Eskulanak eta Teknologia Komunikabideetako Hezkuntza
5	A B C E	Giza Eskubideetako Hezkuntza Hezkuntza Politikoa	Historia Hezkuntza Kulturalnitza
6	C D E	Ekonomikoak Gizarte ikasketak Giza Geografia	Historia
7	D E A B	Hizkuntza Modernoak IKTBak	Ikasketa Klasikoak Komunikabideetako Hezkuntza
8	C E	Ingurumen Hezkuntza Geografia	Historia Garapenerako Hezkuntza Gizarte ikasketak

\* ikus 4. taula


## HEZKUNTZA ESTETIKO/KULTURALARI BURUZKO POLITIKA EUROPARRAREN ALDEKO ARRAZOIEN LABURPENA

1. Ingurune kultural konplexuagoan bizi dira gaur egun Europako gazteak. Kultura bisual estimulatzaile baten eraginpean daude etengabe —filmak, telebista, bideoa, programa informatikoak, eta abar, tarteko—, eta ez dituzte beti ulertzen. Pertzepzio eta bereizkuntza bisualeko trebetasunak garatu behar dituzte.
2. Soinu eta zarata munduan bizi dira gaur egun Europako gazteak. Entzumen-trebetasunak garatzen eta entzumen-esperientzien artean bereizten ikasi behar dute. Sentsibilitatea ere garatu behar dute mundu naturaleko soinuak eta melodiak direla-eta.
3. Europako gazteen artean Europako ondare kultural eta ingurumen-arlokoari buruzko kontzientzia sakonagoa garatu nahi du hezkuntza europarrak. Eskolen erantzukizuna da hori, beste agintariekin batera lan eginda hainbat elkartek eskainitako ikus-entzunezko esperientziak aprobetxatzeko: arte-galeriak, museoak, erakusketa bereziak, bideak eta erreserba naturalak, parkeak (zoologikoak barne hartuta), antzerkiak, oinetxeak, ibilbide kulturalak, interes historikoko eta edertasun bereziko lekuak.
4. Hezkuntza estetikoak aukera paregabeak eskaintzen ditu burutzapen pertsonalerako eta bizitza-interesak betetzeko, betiere, zalantzarik gabe, pertsonalitatearen garapenaren mesedetan.

- (1) Johnson, Douglas (1972), «Odd Man In» *New Society-n*, abenduaren 28koa, 727. or.
- (2) Pring, Richard (1973), «Integrated studies in the secondary curriculum», 9. or.
- (3) Janne, H., (1981), *Europe's Cultural Identity*, Estrasburgo: CDCC, 2. or.
- (4) Rees-Mogg, William (1989), «Disturbingly Quiet on the Western Front» *The Independent*, urriaren 2koa. Europako kulturako Arte Ederrei buruzko atalean hartzen dira berriz ideia horietako zenbait.
- (5) Eliot, T. S. (1948), «The Unity of European Culture» *Notes towards the Definition of Culture* lanaren eranskina, Londres: Faber and Faber, 119. or.
- (6) Jordan, Terry (1973), *The European Culture Area: A Systematic Geography*, New York: Harper and Row, 2-7 orr.
- (7) Blackledge-k aipatua, R. C. R. (1982), *Reflections and Observations on the CDCC Project No. 1 Preparation for Life*, Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- (8) Rees-Mogg, «Disturbingly Quiet».
- (9) Janne, *Europe's Cultural Identity*, 5-7 orr.
- (10) Jordan, *The European Culture Area*, 15 364-5 orr.
- (11) Wake, R. A. (1980), «Europe in the Curriculum», argitaragabea, 12. or.
- (12) Janne, H., (1981), «Europe's Cultural Identity, (paper for the Symposium on Europe in the Secondary School Curricula», Estrasburgo: Europako Kontseilua, 6. or.
- (13) *Ibid*, 10. or.
- (14) Wake, R. A. (1980), «The Idea of Europe», argitaragabea, 9. or.
- (15) Green, Miranda (1990), *Symbol and Image in Celtic Art*, Londres: Routledge.
- (16) 885 ebazpena, judutarrek Europako kulturari eginiko ekarpenari buruzkoa, 1987ko urriaren 5koa.
- (17) Hoggart, Richard, (1987), *An idea of Europe*, Londres: Channel 4, 11. or.

- (18) Dance, E. H. (1967), *Bias in History Teaching and Textbooks*, Estrasburgo: CDCC, 91-2 orr.
- (19) Wake, «The Idea of Europe» 7. or.
- (20) Dance, *Bias in History Teaching*, 101. or.
- (21) *Ibid.*
- (22) *Ibid.*
- (23) Hoggart, *An idea of Europe*, 15. or.
- (24) San Marie Fuare (coord) (1989), «Introduction to 20<sup>th</sup> Century Architecture», *A Future for our Past*, 36, 2. or.
- (25) Balester, José María (1989), «Editorial on Bridges», *A Future for our Past*, 35, 3. or.
- (26) *Ikus Museums and the European Heritage* deiturikoaren txostena, Salzburgon eginikoa, Austrian, 1990eko irailean.
- (27) Corset, Pierre (1981), *Report for the Symposium on The Secondary School and the Mass Media*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 29. or.
- (28) (1986), *Final Report of the Organising Committee on the European Music Year*, Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- (29) Directorate of Education, Culture and Sport (1989), *Secretary General's Memorandum on European Cultural Routes*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 7. or.
- (30) Candidi, M. Corrado (1982), «Methods and techniques for arousing in 6-12 year old children an awareness of a European dimension» *Report of the European Teachers' Seminar on Europe in Primary School* txostenean, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 14. or.
- (31) Janne, *Europe's Cultural Identity*, 6. or.
- (32) Hoggart, Richard eta Douglas Johnson (1987), *An Idea of Europe*, Londres: Chatto and Windus, 81. or.
- (33) Europako Kontseilua: R (83), 4 Gomendioa, Ministro Batzordearena.
- (34) Goodison, I. F. eta V. McGivney (1985) *European Dimensions and the Secondary School Curriculum*, Lewes: The Falmer Press, 29, 27-57 orr.





# 6

## HIZKUNTZEN IKASKUNTZA ETA KOMUNIKAZIOA



- EUROPAR ANIZTASUNAREN LEGATUA
- HIZKUNTZAK ETA GUTXIENGOEN NORTASUNA GORDETZEA
- KOMUNIKAZIO ETA ULERKUNTZARAKO HIZKUNTZAK
- 1980-1999 DENBORALDIKO AURRERABIDEAK
- XXI. MENDEKO HIZKUNTZA-POLITIKAK
- HEZKUNTZA, ETA INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA BERRIAK (IKTBak)

## EUOPAR ANIZTASUNAREN LEGATUA

Talde etnikoz eta linguistikoz osaturiko buru-hausgarri gisakoa izan da Europako mapa azken milurteko honetan. Dena den, historiaren joanean hizkuntza batek beste guztiekiko izan zuen lehentasunak gorteen eta konklabeen arteko komunikazio diplomatikoa ahalbidetu zuen. Latina izan zen Erromatar Inperioaren, Eliza Kristauaren eta Erdi Aroko Europa-aren hizkuntza; goi-kulturaren eta komunikazioaren zaindari-lanak ere bete zituen, eta erlijioaren, administrazioaren eta erudizioaren tresna izan zen. Estatu-nazioen etorrerak eta hizkuntza nazionalen sorrerak eragin zuten latinaren gainbehera azken hiru esfera horietan. Errenazimentuaren eta XVIII. mendearen arteko denbora-tarte zabalean frantsesak hartu zion aurrea latinari hizkuntza franko gisa Europa kontinentalean, eta nazioarteko diplomaziaren hizkuntza bihurtu zen. Alemanak izan zuen nolabaiteko ospea XIX. mendean zientziaren hizkuntza gisa, eta XX. mendearen azken berrogeita hamar urteetan erusiera izan zen eragineko hizkuntza Ekialdeko Europan. Hala ere, XX. mendearen erdialdetik aurrera ingelesa nagusitu da zientziaren eta teknologiaren alorretan, baita merkataritzaren, industriaren, dibertimenduaren, bidaien, hezkuntzaren eta informazioaren eremuan ere, Mendebaldeari dagokionez. Ingelesak hezkuntza-sistemetan duen geroz eta eragin handiagoa ikusita, bigarren hizkuntza unibertsala bihur daitekeela pentsa liteke, nahiz eta nazioarteko agentziak eta Frantzia joera horren aurka dauden; izan ere, sistema kulturantz eta eleanitza bultzatzen dute. Aldi berean, eskualde-hizkuntza gehienak, horietako askok estatu-nazioen gorakadari biziraun ziotela kontuan izanda, gainbehera-prozesuan jarraitzen dute komunikazio-bitarteko gisa, nahiz eta geroz eta gehiago lantzen diren nortasun-erregulagarri gisa.

Etnizitatearen beste faktore osagarri bat baino ez da hizkuntza, garrantzitsuena bada ere: beste faktore horien artean, hor daude pentsamoldea, erlijioa, lurraldea, ohiturak eta historiaren pertzepzioak. Talde etniko horiek euren autodeterminazioa eta Estatu propioa lortzeko etnizitatearen alderdi horiek nola baliatu dituzten erakusten digu Europako historia modernoaren zati batek. Nazionalismoa izan da haien estimulua eta hizkuntzak erregulagarri-lanak bete ditu espiritu nazionalistarako. Erromatar Inperio Santu berantiarri *«das heilige römische Reich deutscher Nation»* deitu zitzaion, eta aleman hiztunen batasun etnikoaren sentimendua zegoen Hitlerren boterearen oinarrian, 1990ean Alemaniaren bateratzea bizkortasun izugarriarekin gertatu izana ere ahalbidetzeaz gain. Baina hizkuntza-kidetasunak ez du automatikoki jokatzeko katalizatzaile etniko edo politiko gisa (nahiz eta eguneroko komunikazioa errazten duen). Alemana, esate baterako, ez da Alemanian bakarrik hitz egiten, baita ere Austrian, Luxenburgon, Liechtensteinen, Suitzan, eta hainbat gutxiengo etnikok ere hitz egiten dute ekialdeko Frantzia, Jutlandiako hegoaldean, Belgikako Eupen-St. Vith-en, Hego Tirolen, Transilvanian, eta SESBko zenbait zatitan. Kontuak kontu, badira sei hizkuntza europar garrantzitsu edo «goi-estatus»ekoak: ingelesa, frantsesa, alemana, italiara, erusiera eta espainiera. Bi lehenengoak Europako Kontseiluaren hizkuntza ofizialak dira, baina Europar Batasunak hamaika ditu eguneroko erabilerarako, eta 2004an oraindik gehiago izango dituela dago aurreikusita. Egia esan, oraindik ere bide-tartea geratzen da Europako herritarren zati handi baten batasuna oztopatzen duen hizkuntza-hesien nahasketa desegiteko, goi-teknologiako komunikazioan izan diren aurrerabideak gorabehera. Hortaz, gai arduratsua da hizkuntza modernoaren ikaskuntza, eta lehentasuneko arloa hezkuntza-politika europarretarako.

Europaren heterogeneotasun-maila harrigarria da askorentzat; duela gutxi taxonomia batek erakutsi duenez, mendebaldeko Europan erabat subirano izaki eta hizkuntza literario propioa duten hamasei estatu-nazio daude, hizkuntza literario propioa ez duten zortzi nazio politiko, Estaturik gabeko baina hizkuntza literario propioa duten hamabi «nazio etniko», eta hizkuntza literarioa edo Estaturik gabeko hamabi talde etniko berezi. Antzeko patroia erakusten du ekialdeko Europak, nahiz eta kontuan hartu behar diren Jugoslavia ohiaren suntsitzeak eragin dituen zailtasun berriak.

Europako hizkuntza literarioez ari garela, 195 milioi inguru lagunek hizkuntza erromanikoak hitz egiten dituzte, 185 milioi hizkuntza germaniarrak, eta 215 milioi hizkuntza eslaviarrak. Beste hogeit hamar milioi inguru lagunek bestelako hizkuntza indoeuroparrak hitz egiten dituzte; horietatik lau milioi hizkuntza baltikoak, bi milioi hizkuntza zeltak hitz egiten dituzte —bretoiera, galesa, kornuallesera edo gaelikoa, adibidez—, eta hamalau milioi grekoa edo albaniera hitz egiten dute. Horretaz gain, hogeita bat milioi europarrek hizkuntza finougriarrak, eta hamahiru milioi hizkuntza turkoak eta tartaroak hitz egiten dituzte, eta milioitik gorak, berriz, euskara edo maltesa. Hizkuntza nazional ugarian gordetzen da Europaren herentzia literarioa, denboran hainbat eta hainbat forma literario sortu dituztela kontuan izanda. Norvegiak eta Greziak bina hizkuntza literario desberdin dituzte. Zenbait estatutan, Suitzan, Belgikan edo Errusian, esaterako, eleanitz izateko beharra onartzen dute herritarrek, baina tradizio elebakarra duten nazioen eta haien auzokoen artean, berriz, amildegi linguistikoa egon liteke. Duela gutxira arte, britainiarren ehuneko lauk soilik zekien frantsesez hitz egiten, eta frantziarren ehuneko hamarrek soilik zekien ingelesez hitz egiten. (1)

Zatiketa tradizionalak zaildu egin dira 1945az geroztik, arestian adierazi diren gutxiengo kulturalak agertzerakoan. Aldi baterako langileak eta Europatik kanpo jaiotako etorkinak hogeita hamar milioi inguruko taldea dira kontinentean. Luxenburgoko hirian ikasleen ia %55ek aita edo ama atzerritarrak ditu, eta Londres metropolitarrako eskoletan 180 hizkuntzatik gora hitz egiten dira, horietako gehienak ez-europarrak. Premien aniztasunari erantzuteko, Erresuma Batuko zenbait aditu estrategiak garatzen ari dira bigarren hezkuntzako ikasketa-planean hainbat hizkuntza sartzeko, txinera, japoniera, arabiarra, turkiera, hindiera, punjabiera eta gujaratiera barne hartuta. «Etxeko hizkuntzak irakasteko» diru-homidura bada Suedian, hirurogei hizkuntzatan baino gehiagotan. Herralde emigrante beste herralde immigratzaile biltzen ditu Europak: portugaldar ugari Frantziara joan ziren lan egitera, jende askok Jugoslavia ohia utzi zuen Austrian lana bilatzeko, eta *Gastarbeiter* deiturikoen gehiengoa turkiarrek osatzen dute Alemanian. Europako eskola ugari egiaz nazioarteko erakunde bihurtu dira mugimendu horien zuzeneko ondorio gisa.

## HIZKUNTZAK ETA GUTXIENGOEN NORTASUNA GORDETZEA

Talde horientzat, hizkuntza literario propioak dituzten gainerako gutxiengo etnikoentzat bezala, nortasun etnikoaren sinbolo garrantzitsua da hizkuntza, taldearena zein gizabanakoarena, batez ere zentroa geroz eta gehiago arrazionalizatzen ari den garai honetan. (2) Europako Kontseiluak bizkor erantzun zion hizkuntza garatu beharreko baliabide komun balioetsua dela dioen argudioari. Periferia geografikoan bizi diren komunitate etnikoentzat —esaterako, euskalduna, galesa, bretoaia, sardiniarra, laponiarra edo Faroe Iretakoa— herri-hizkuntzak bizi-errealitatea izaten jarraitzen du, Estatu-nazioaren indar zentripettoa gorabehera. Herri horientzat, euren bakartzeaz jabetuta, hizkuntza euren autoestimu eta independentziaren funtsa da. Bresteko *lycée* bateko neska ikasle batek horrela argitu zuen: «Finistère, le nom de notre département, signifie littéralement la fin de la terre, le boit du monde quoi!» Hala ere, gutxiengo kulturalak jarrera nazionalen buruzko bat-bateko eztabaidan, beste neska ikasle batek, ikaskide gehienek izenean, nabarmendu zuenez, «Il faut garder nos différences». (3) Duela berrogei urte, politika nazionalen eta hizkuntzak irakasteko teknikak gizarte-aldaketari erantzun beharko zietela onartu zuen hainbat erakundek, Europako Kontseilua tarteko, XXI. mendean Europako hizkuntza minoritarioen biziraupena ziurtatzeko, baita loraldia ere beharbada. (4)

1971. urtean hasi zituzten ahalegin horiek; CDCCko espezialista-talde batek ikerketa bati ekin zion hizkuntzen ikaskuntzarako marko teorikoari buruz, eta denboran aurrera, hainbat «atalase-maila» definitzera eraman zuen bide horrek. Haien ikerketaren azpiko printzipioetako bat hizkuntzen ikaskuntza herritarrei «autonomo» izatera lagundu behar diela egiaztatzea izan zen, hau da, pertsona komunikatzaile libre, autosufizienteak eta gizarte-mailan arduratsuak izatera, euren kultur ondareaz jabetuta egoteaz gain. Beste hitzetan, hizkuntzak gizabanakoen arteko komunitate-loturak eratzeko duen zeregin kulturala aintzat hartzea giza eskubideei buruzko nazioarteko doktrinekin bat datorrela. Hamabi hizkuntza europar ikasteko bana-banako proiektuetan aplikatu zen «atalase-mailen» eredua, erabilera hedatua ez dutenak —nederlan-

dera, norvegiera eta portugesa, esaterako— barne hartuta, «Estatu gabeko» bi hizkuntzez gain, katalana eta euskara, alegia. *Kataluniako Generalitatek* eginiko *Nivell Lindar* deituriko programaren helburua katalanaren erabilera bizitza publikoan berrezartzea da, eta bigarren hizkuntza gisa ikasteko aukera ziurtatzea Katalunian bizi diren katalan ez-hiztunei. *Atalase Maila* proiektuak euskaldun autoktonoen artean eguneroko bizitzan euskararen erabilera sustatu nahi du. Europako Kontseiluko espezialistak aholkulari izan ziren lan horretan. Eskualde eta Tokiko Agintarien Europako Konferentzia Iraunkorrek 1992an Eremu Urriko Europako Gutuna sinatu izana, indarrean 1998an sartu zela kontuan izanda, beste deklarazio garrantzitsu bat izan zen Europako hizkuntza-aniztasunaren defentsarako. (5)

Langile etorkinen seme-alaben herentzia linguistikoa ezin da hizkuntza minoritarioei buruzko eztabaidatik kanpo utzi. «Ondare» hizkuntzen gaia gizarte kulturantz baterako hezkuntzaren gai zabalagoaren zati ere bada, eta hori beste kapitulu batean aztertuko dugu. Europako gutxiengo etniko berrien seme-alabek aldi berean aurre egin behar izan diete psikologia eta hezkuntza arloko arazoei, eta eskola-porrota izan da sarritan horren guztiaren emaitza; hitz egiteko, azaltzeko eta ezagutarazteko gaitasuna zailtasun praktiko oso komuna izan da. Ikasleen zati horren hezkuntza eta komunikazio arloko premiak lehentasun bihurtu ziren gobernu arteko ekintzarako. 1970eko hamarkadaren erdialdetik, Europako mendebaldeko gobernuak etorkinei eta euren seme-alabei buruzko hezkuntza-politikak ebaluatzen hasi zirenetik, aintzat hartzen dira hezkuntza-eskubideen berdintasun-printzipioak eta hizkuntza-komunikazioaren garrantzia. Horretaz gain, geroz eta gehiago onartu zen etorkinen seme-alabek euren jatorrizko herrialdeko ama-hizkuntza eta kultura ikasteko aukera izan behar zutela biltzen zuen ideia. Bullock Txostenean (1975) ezarri zen printzipioak «zein haurrek etxeko hizkuntza eta kultura baztertu behar ez duela» defendatzen duela kontuan izanda, politika nazionalen deklarazioek berretsi egin zuten (nahiz eta praktikan beti ez zen modu berean gertatu). Dena den, estrategia nazionalak aldatu egin dira tokiko zirkuntantziei eta etorkinen premiak ulertzeko moduari erantzuteko.

Suediak edo Herbehereek, besteak beste, integrazioa bideraturiko soluzio elebidunak hartu zituzten. Suediaren kasuan, 1977ko legea tarteko, hezkuntza elebiduna bermatu zen, eta helduen sektoreko hizkuntzen ikaskuntzaren alorrean eginiko ikerketek, *Threshold Level Swedish for Migrants* lanean argitaratukoak, oso emaitza baliagarriak eman zituzten ikastetxeetarako. (6) Zenbait estatu eleanitzek, hala nola Suitzak eta Belgikak, eredu konplexuagoak probatu zituzten, hizkuntzaren lurralde ezarpenarekin loturikoak. (7) Frantziak, Alemaniak, Suediak eta Erresuma Batuak proiektu-pilotuetan parte hartu dute eta CDCCk hizkuntzez jabetzeko programak babesten jarraitu du. 1980ko hamarkadaren erdialdeaz geroztik lantegiak antolatu dira irakasleen prestataileentzat, eta haietako batzuek etorkinen hezkuntzaren gaia jorratu dute. Arrazoizko egonkortasuna eragin dute harturiko soluzioek, baina 1990eko hamarkadan jada argi geratu zen etorkinen zati baten premiak aldatu egin zirela; orain ez zen beharrezkoa soilik «bizirauteko» hizkuntza, izan ere, etorkinen zati batek —eta bigarren belaunaldikoek— beste zenbait hizkuntza ikasteko beharra baitzuen, beren lanbide-heziketaren zati gisa. Era berean, hizkuntzen irakaskuntzaren alor guztia zabaldu egin zen Europa zentrala eta ekialdeko Europa ireki izanagatik, eta 1992az geroztik mugitzeko erraztasun handiagoa zegoelako. Egoera horretan, irakasle askoren ustez Europako Kontseiluak egin zezakeen ekarpenik baliagarriena Europako erakundearen arteko informazioa zabaltzeko aukera bizkortzea zen, eta bigarren hizkuntzak irakasteko esperientziak eta soluzioak trukatzeko eztabaida-lekuaren lanak betetzea, batez ere eskola kulturantzetan. (8)

## KOMUNIKAZIO ETA ULERKUNTZARAKO HIZKUNTZAK

«Ondare» hizkuntzak nortasun kolektiboa eta XXI. mendeko kultura gordetzeko oso garrantzitsuak badira ere, komunikazio-bitarteko izatea da hizkuntza baten funtsezko garrantzia. Errespetu eta tolerantziara bideraturiko elkar ulerkuntza sustatzeko moduak bilatu ditu Europako Kontseiluak, lankidetzari handiago eta lan-harreman egokietara bideraturikoa, betiere norberaren mugikortasunaren, informazioa baliatzeko aukeraren eta Europako herritarrek elkar aberasteko aukeraren mesedetan: hau da, komunikazioaren alderdi askotarikoen sustapena. Ikasleen komunikazio-gaitasuna garatzea da hiz-

kuntza modernoeren irakaskuntzaren helburu nagusia, batez ere norberaren espresioa, eta mota guztietako idatzizko eta ahozko testuak ulertzea. Gaur egungo mugikortasun eta batasun europarreko egoeran, argi dago gaitasun horiek garatzearen balioa.

Enfasi-aldaketak arreta-gunea ere aldatu egin du hizkuntzaren egituratik hizkuntza hura ikasten duen pertsonaraino. Metodo tradizionalak hizkuntza klasikoen irakaskuntzan oinarritzen ziren, latinarena eta greko zaharraren irakaskuntzan batez ere, eta hiztegiaren memorizazioa eta testuen itzulpenean arau gramatikalak aplikatzea azpimarratzen zituzten. Ikuspegi hori ez zen eraginkorra ikaslearentzat, ez baitzituen haren ahozko eta entzumenezko gaitasunak garatzen, eta ez zuten nahikoa prestatzen elkarriketa baterako, edo bidaien, negozioen edo eguneroko bizitzaren eskakizun praktikoetarako. 1970eko hamarkadan ikaskuntza-eredu berri bat sortu izana, «atalase-mailetan» oinarriturikoa, lorpen garrantzitsua izan zen, komunikatzeko gaitasuna garatzea ahalbidetzen baitzien hizkuntza bat ikasten ari zirenei, premiei erantzuteko berriazko helburuak eta ikaslearen gaitasunak identifikatzen baitzituzten. Ingelesa irakasteko garaturiko deskripzio-eredua «*Un Niveau-Seuil*» bertso frantsesean egokitu zuten, eta ondoren hamabost hizkuntzaren irakaskuntzan aplikatu zuten (9). Prozesu horren guztiaren emaitzetako bat ikaskuntza prozesu aktibo gisa aintzat hartu izana da, irakasteko metodologian izandako dagokion aldaketarekin. «Irakaslearen erabateko kontrolaren ideia atzean utzi zuen mugimendua» gertatu zen, «eta talde eta bikoteko lanerantz egin zuen aurrera, bertan ikasleak elkarren artean komunikatzeko moduan. Bilakaera bat ere nabaritzen dugu, haien erantzunak irakasleak ezagutzen dituen galdera itxietatik hasi, eta usteak lan-tzea eta sentimenduak adieraztea eskatzen duten galderetaraino». (10) Metodologia berri horiek garatuta, bigarren hizkuntza bat irakasteko aukera sendotu zen lehen tasun europar garrantzitsuenetakotzat. 1982an, Europako Kontseiluko Ministro Batzordeak honako hauek ikasteko bitartekoak ahalbidetzea eskatu zien estatu kideetako gobernuari:

Gutxienez europar hizkuntza bat, hizkuntza nazionalaz aparte [...] hamar urte dituzten ikasleentzat edo bigarren hezkuntzan sartzen diren unetik [...] derrigorrezko hezkuntzaren denboraldia amaitzean [...] hizkuntza hori hitz egiten duten beste pertsonekin behar bezala komunikatzeko erabiltzeko moduan. (11)

CDCCk antolatu zituen nazioarteko lantegietan adostasun orokorra sortu zen honako honen inguruan: hizkuntza moderno bat irakasteko helburu nagusia nazioarteko elkar ulertzeko aukera sustatzea da. (12) Hainbat akordio ere lortu ziren hizkuntza-azterketen formatuari, programen erreformari, eta ikasketa-planetarako eta testu-liburuetarako norabideei buruz. Eskolako Elkar Ekintza Sarea ezarri zen, irakasteko material eta estrategia berriak zabaldu zituela. Azkenik, hizkuntza-irakasleak ere lantegi-programa osoaren erabiltzaileak izan zirenez, zati bat irakasleak prestatzeko ardura zutenei eskaini zitzaizkien, alor horretako lankidetzara europarra sendotzeko helburu zehatzarekin. (13)

## 1980-1999 DENBORALDIKO AURRERABIDEAK

1980ko hamarkadan nabarmen egin zen aurrera hizkuntza modernoeren irakaskuntzaren alorrean. Komunikazio-metodologia hartzeaz gain, hizkuntza-ikastaroak lanerako edo oportunitateko egokitzearen bidean egin zen aurrera, trebetasun besterengarrien identifikazioa abiapuntutzat hartuta. Lau joera argi identifikatu zitezkeen hamarkadaren amaierarako. Lehenik, atzerriko hizkuntzak gelan zeuden, eta bazeuden jabetze-maila askoz ere altuagoak, komunikazio-tekniken arrakasta, eta bisitaldietan, trukeetan, lan-programetan eta oportunitatean ahozko eta entzumenezko trebetasunak praktikatzeko geroz eta aukera handiagoak zirela-eta. Arrakasta nabarmenen argibideak zeuden Ipar Renania-Westfaliako zenbait *Gymnasien* deiturikoetan eta frantsesaren irakaskuntzan Andaluzian.

Bigarrenik, aurrekoaren ondorio, hizkuntza modernoek ekarpen oso argia egiten zuten jada dimentsio europarraren eta Europarekiko sentsibilitatearen garapenaren mesedetan, baita «kontzientzia europar» baten planteamenduaren mesedetan ere. Joera hori CDCCren eta Europar Batasunaren politiken oinarritzko irudipen baten adierazgarri da: Europako bes-

te herrien ezagutza sustatzea, oinarrizkoa izanik hizkuntzen irakaskuntzan eta funtsezko elementua Europaren eraikuntzan. 1980ko hamarkadaren erdialdera, orduko Europako Erkidegoko estatu kideak prest zeuden bigarren hezkuntzako ikasleek ama-hizkuntzaz gain beste bi hizkuntzaren ezagutza nahikoa izan behar zutela biltzen zuen argudioa babesteko, hizkuntzek nazioarteko lankidetzarako eta integrazioarako duten lehentasunezko garrantzian oinarrituta. Lehen hezkuntzaren sektorera zabaldu zen ondoren politika hori, 1983an CDCCren lantaldeak sektore horretan «Europa deskubritze-ko modu gisa» lan egitea gomendatu baitzuen. (14)

1990ean Bigarren Hezkuntzako Eskolari, eta Europako eta Nazioarteko Hezkuntzari buruzko konferentzia egiteko nahikoa datu pilatu ziren jada, CDCCk eta Europako Batzordeak antolatuta. Europako bigarren hezkuntzako ikasleen hizkuntza-premiak aztertu ziren, ikasketa-plan eleanitza antolatzearekin batera, bestelako jakintzagaiak irakasteko bitarteko gisa atzerriko hizkuntzak erabiltzearekin eta praktika egokien adibideekin batera. Eskolako bitarteko eta estrategiei dagokierenez aniztasun azpimarragarria zegoela nabarmendu zen. Hainbat herrialde txikitik, hala nola Luxenburgon eta Maltan, eta zenbait mugako eskualdetan, esaterako, Alsazian eta Nordschleswig-en, bertako bi hizkuntza nagusiak sartzen ziren lehen hezkuntzan, eta beste bigarren atzerriko hizkuntza bat bigarren hezkuntzaren hasieran. Europar Batasuneko funtzionarioen seme-alabak hezteko ezarritako Eskola Europarrek ere atzerriko hizkuntza bat sartzen zuten lehen hezkuntzako lehen urtetik aurrera. Alemanian, besteak beste, bertan bigarren hizkuntza irakasten bigarren hezkuntzara arte hasten ez zirela kontuan hartuta, modu trinkoan sartzen zuten normalean (asteaz sei edo zazpi denboraldi). Suitzan, ikasleen ia ehuneko hamabostek ikasten zituen lau hizkuntza moderno.

Hainbat irakasbide atera litezke aztertutako esperientzietatik: hizkuntzen ikaskuntza hobetu egiten da hasiera goiztiarrarekin, irakasleen eta ikasleen arteko eguneroko harremanarekin eta eskola-sektoreen arteko jarraitasunarekin, ikasleen motibazioari eusteko modu eraginkorra baita. Ikasle argiek errendimendu-maila handiak lor ditzakete bigarren hezkuntzako eskoletako atal elebidunetan eta atzerriko hizkuntza bat edo gehiago erabiltzea gutxienez hamabi urtetik gorako ikasleentzat, Historia, Geografia, Biologia, eta Gizarte Zientzia eta Zientzia Politikoak jakintzagaietan, besteak beste. (15)

1989an, orduko Europako Erkidegoak, herritar europar *guztien* hizkuntza-eskakizunean zuen erantzukizunaz jabetuta, politika kuantitatiboan ildoak planteatu zuen, LINGUA programaren bidez atzerriko hizkuntzen ikaskuntza sustatzeko, bi proposamen tarteko, bata bigarren hezkuntza osteko hezkuntzarako, eta bestea nahitaezko faserako, honako hauek emanda:

Printzipioen marko komuna, eskoletan Europar Batasuneko hizkuntzak sustatzeko. Ikasle guztiek gutxienez Europar Batasuneko hizkuntza bat ikasteko estimulua biltzen du, euren ama-hizkuntzaz gain, eta atzerriko bigarren hizkuntza bat ikasteko aukera izatea ere bai; ikasketa-planean garrantzi handiagoa ematea Europar Batasuneko hizkuntzen komunikazio-gaitasunari [...] eta, kasuak kasu, Europar Batasuneko gaitasun-probak barne hartzea goi-mailako hezkuntzara sartzeko baldintza gisa. Printzipio horiek gauzatzeko[...] laguntza finantzarioa izango da eskoletan hizkuntzen irakaskuntza indartzeko aukera sustatzeko. (16)

LINGUA programa, lehen fasea 1990-1994 bitartean egin zela kontuan izanda, berotasunez jaso zuten Europako Erkidegoko gobernu gehienek eta Europako organo profesionalek, Bigarren Hezkuntzako Eskolako Zuzendarien Europako Elkarteak esaterako; bertako presidentek azaldu zuen neurriaren garrantzia:

Helduek ezin dugu galdu gure gazteak Europarantz gidatzeko aukera hori. Hizkuntza da gakoa. Hori dela-eta, LINGUA programan zeregin garrantzitsu bat jokatzeko prest dago gure elkarteak [...] Ezein herrialdek, ezein eskolak, ezin dio muzin egin LINGUaren deialdiari. (17)


## 6. taula Komunikazio-trebetasunak

Komunikazio egokirako beharrezkoak diren garapen-trebetasunak	Bitartekoak	Komunikazio-prozesuan praktikaturiko prozesamendu-trebetasunak
<b>Entzumen-arllokoak</b> Entzutea Aditzea Bereiztea Soinuak/hizkuntzak/ ñabardurak interpretatzea	Giza ahotsa Irrati-saioa	Entzute enpatikoa Interpretazioa
<b>Bisualak</b> Ikustea/begiratzea Ikusitakoa interpretatzea Irakurtzea Aztartzea Hautematea	Telebista Filmak Bitarteko artistikoak	Entretentzea Iragartzea Laburbiltzea Aurkezpen artistikoa
<b>Ahozkoak</b> Galdetzea Erantzutea Hitz egitea Itzultzea Informazioa ematea	Telekomunikazioak Antzerkia	Diskurtso formala/hitzezko aurkezpena Limurtzea/sustatzea Interpretazio artistikoa Elkarrizketa informala Beste motako ahozko erantzuna Eragitea
<b>Idatzizkoak</b> Ortografia Puntuazioa/sintaxia Idaztea Marraztea Parafraseatzea Osatzea	Liburuak Gutunak Dokumentuak	Ikertzea/informazioa biltzea/alderatzea Gidoiak egitea
<b>Kognitiboak</b> Ulertzea Kontzeptualizatzea Bereganatzea Memorizatzea Erantzunak ematea Bitarteko guztiak interpretatzea Artikulatzea	Sistema elektronikoak Faxe Posta elektronikoa Informatika Softwarea eta hardwarea	Informazioa egitea Informazioa ematea Informazioa biltegitratzea Informazioa baliatzea
<b>Fisikoak</b> Ukitzea Kontrolatzea Manipulatzea Simulatzea Jardutea	Fisiko pertsonala	Koordinatzea Egokitzea Erakustea
<b>Sozialak</b> Aurpegi-espresioa Sentsibilitatea ñabarduretan, sentimenduetan Itzura, autokonfiantza Autosufizientzia Heldutasuna	Gorputz-hizkuntza Keinuketa Mimoa	Jarduteko interesa eta nahia agertzea Hitezko erantzunak Autonomia sustatzea



Hirugarrenik, hizkuntza modernoek irakaskuntzak ikaskuntzaren horizontea zabaldu duela ere aintzat hartu zen. Komunikazioa prozesu konplexua zela hartu zen kontuan, trebetasun-sorta zabala garatzea inplikatzeko duela, eta trebetasun horiek, aldi berean, giza jardueraren hainbat alderdi eta ikasketa-planaren zenbait arlo islatzen dituzte (ikus 6. taula eta 7. irudia). XXI. mendeko Europa batuago eta kulturantzian, ulerkuntza, norberaren mugikortasuna, informazioa baliatzeko aukera eta beste europarrekin lanean eta aisian lankidetzan aritzeko gaitasuna ahalbidetu behar ditu hizkuntzen komunikazio-ahalmenak, Europako herritarrek euren eskubide eta betebeharrak baliatzeko, Europak haietan parte hartzen duen gizarte eta kultur esperientziak ulertu eta haietan parte hartzeko, eta azkenik, Europako ingurumena baloratzeko. Europako Kontseiluak azpimarratu zuenez «komunikazioa ez dago mugatuta eguneroko bizitzaren errutina-kontuetara. Giza-kiak euren artean komunikatu ahal izateko, sozialki konpartituriko eta beste pertsonaren portaeraren azpian dauden jarre- ren, balioen eta usteen ulerkuntza eta ezagutza izan behar du pertsona bakoitzak, kontuan izanda horiek hizkuntzan eta hizkuntza hori erabiltzeko moduan kodifikatuta daudela». (18) Zorionez, Europako gazte gehienek komunikazioaren inter-pretazio konplexua onar dezakete, multimediaren kontsumitzaile direnez, jabetzen dira jarrerak, informazioa eta presta-

7. irudia Hamalau gako komunikaziorako



suna hainbat modutan transmititzen direla, gorputz-hizkuntzarekin hasi eta sistema elektronikoak ere barne hartuta. Louis Porcherrek honako hau esan zuen CDCCren txosten bati buruz:

Komunikazioa esaten dugunean, ez dugu hitzak soilik esan nahi: keinuak, mimoa, mugimenduak, eta abar, komunikazioaren eremuaren zati dira, eta ez dago aitzakiarik horiek hezkuntzan ez barne hartzeko. Oinarrizko helburua hizkuntzalariek «komunikazio-gaitasuna» deiturikoa eratzeko da. [...] Hizkuntza barne hartzen duen gizarte-praktika da komunikazioa, eta gizarte-praktika bera ere bai. (19)

Azkenik, hizkuntzak irakasteko metodoak jada aldatzen ari den berrikuntza aipatu behar dugu: informazio eta komunikazioaren teknologia berriak (IKTBak). Komunikazioaren tresna nagusia hizkuntza bada ere, irakasleek bestelako bitartekoak —filmak, telebista, egunkariak eta argazkiak— erabiltzen dituzte etengabeko laguntza bisual suspergarri gisa. Dena den, «komunikazioa» hitzaren esanahia aldatu egin du komunikazio elektronikoetako iraultzak, eta hizkuntzalariek garen horien abangoardian izan dira hizkuntza-laboreak eta CALL (ordenagailuz lagunduriko hizkuntzen ikaskuntza) iritsi zirenetik. Multimedia-sistemen, satellite bidezko telebistaren eta bideoaren (eta orain DVDA, hizkuntzen eta azpitu-tuluen aukerekin) abantailak aspalditik bildu dituzte hizkuntzetako espezialistek euren soluzioetan. Etorkinei irakasteko ekimenez BBCk, Suediako Irrati eta Telebista Hezigarriak eta Adolf Grimme Institutuak (Alemaniako *Volkshochschulverband* erakundeko multimedia Institutuak) produzituriko ikasmaterialek ugariren laguntza jaso dute.

Dena den, egiaz nazioartekoak izatea da komunikazioaren teknologia berrien abantaila: edozein publikorentzat erabil daitezke, edozein hizkuntza hitz eginda. BBCren Hezkuntza Iraunkorreko Zerbitzuak programa jarraituak ditu italieraz, frantsesez, alemanez eta espainieraz 1960ko hamarkadaz geroztik, baita aldian aldiko programak ere erusieraz, grekoz eta portugesez. Ikus-entzunezko eta informatikako bitartekoak gazteentzat duten erakarpena kontuan izanda, ustiatzeko aukera ugari dago oraindik ere. Telebistak lan handia egin du herrialde desberdinetako biztanleen arteko ezjakintasun-oztopoak hausteko. Era berean, «atzerriko» hizkuntza bizimodu «atzeritarren» zati berezkoa dela erakusten du, alienazio sentsazioa gutxitzen du eta parte hartzeko aukera egiazko bihurtzen du. Adu britainiarren talde batek ideia hori berretsi zuen, egindako gomendioaren arabera «telebista atzerriko hizkuntza batean ulertzea hizkuntza-irakaskuntzaren helburu legitimotzat ikusi behar baita». (20)

1990ean hasitako Europar Batasunaren LINGUA programak europarren arteko ulerkuntzarako hizkuntza modernoek zuten garrantzia azpimarratzen zuen, eta baita hizkuntzen ikaskuntzaren testuinguru soziokulturala ere. Dimentsio europarrerako euren estrategiei jarraiki, estatu kideetako Hezkuntza Ministerioek garrantzi handia ematen diete ikasketa-planei «hizkuntza-trebetasunak emateko zein gai kultural, zientifiko eta teknikoei buruzko esperientziez eta ezagutzez jabetzeko». (21)

Azken hamarkadako beste lehentasun bat «hizkuntza-sentsibilitate» maila hobetzea izan da. Horrek hainbat lagungarri behar izan du: materialen hedatze hobea, hezkuntza eta lanaren arteko loturak sortzea, eta hizkuntzen jaialdi eta lehiketaren zabalkuntza imajinatiboa. Eskolaren Urte Europarra historia handia duen gertakaria da, (22) eta azken urteotan Hizkuntza Jaialdiak abiarazi dira Belgikan, Alemanian, Portugalen eta Erresuma Batuan, besteak beste, eta hizkuntza-trebetasunak erakusteko aukera ematen dute bideoak, antzerkia edo literatura tarteko.

Zalantzarik gabe, komunikazio-ikuspegiaren ulerkuntza osatuagoan babestu da hizkuntza-sentsibilitatea, eta atzerriko hizkuntzaren benetako *erabiler*a nabarmendu du. Hizkuntza baten erabilerak era askotako trebetasun-zereginak inplikatzen ditu; ez dira nahikoak transakzio mugatuak, eta ikasleak inprobisatzen ikasi behar du espero ez denari aurre egiteko. Ildo horretan, geroz eta gehiago erabili dira atzerriko hizkuntzako komunikabideak, elkarrekintzako sareez gain.

## XXI. MENDEKO HIZKUNTZA-POLITIKAK

Hamarkada bateko funtzionamenduaren ondoren, Europar Batasunak atzerriko hizkuntzen irakaskuntza sustatzen jarraitzen du bere LINGUA programa tarteko. Gaur egun SOKRATES programan osorik bilduta dago, hezkuntza-prozesua eskolatik helduen hezkuntzaraino barne hartzen duela kontuan izanda, eta bada irakaskuntzaren sustapeneko eta hizkuntzen ikaskuntzen berriarazko osagarri bat bilduriko fase bakoitzean. Fase horiek babesten ditu LINGUA programak Europar Batasuneko hezkuntza-aniztasuna sustatu eta babesteko neurriak tarteko, hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntzaren kalitatea hobetzearen eta gizabanako bakoitzaren premietarako egokiak diren etengabeko hizkuntza-prestakuntzako aukerak eskuratzea sustatzearen mesedetan.

Helburu orokorra lortzeko, bi bloketan zatitu da LINGUA, berriarazko helburu banarekin. LINGUA 1-n helburua Europar Batasuneko aberastasun eleanitzarekiko herritarrek duten sentsibilizazioa areagotzea da, jendea euren bizitza osoan hizkuntzak ikastera animatzea, eta Europa osoan atzerriko hizkuntzak ikasteko baliabideak baliatzeko aukerak hobetzea, hizkuntzak irakasteko teknika berritzaileak eta praktika egokiak garatu eta zabaltzeaz gain. LINGUA 2-k, bestalde, hizkuntzen ikasleek hizkuntzak ikasteko bitarteko-multzo nahikoa zabala dutela ziurtatzea du helburutzat.

Arestian aipatu denez, LINGUA 1-n helburua talde hartzaileen artean (batez ere erabakiak hartzeko ardura dutenen eta hezkuntzaren eremuko profesional aipagarrienen artean) Europako hizkuntzak irakasteko teknika berritzaile eta praktika egokiei buruzko informazioa zabaltzea da. Nazioarteko erakundeak ere arlo batean edo hainbatetan proiektuak aurkeztera gonbidatu dituzte, eta jarduera-mota eta talde hartzailea alda litezke jarduera-eremuaren arabera. Era berean, hiru arlo tematikotan zatitzen da LINGUA 1. Lehenaren helburua hizkuntzen ikaskuntzaren abantaila buruzko sentsibilizazioa areagotzea da, jendea hizkuntzak ikasteko motibatu (hizkuntzak ikasten ikasteko gaitasuna barne hartuta), eta erabilgarri dauden bitarteko eta metodoei buruzko informazioa ematea (ulerkuntza eleanitza eta gaitasun partziala, esaterako). Arlo horretako lehentasunezko gaien artean ulerkuntza eleanitza, hizkuntza-gaitasun partziala, ahozko eta idatzizko ulerkuntza, bizirauteko hizkuntza-gaitasuna eta atzerriko hizkuntza bat jakiteko aukera sustatzen duten neurriak garatzea biltzen ditu, zenbait egoera eta testuingururi aurre egiteko nahikoa maila lortuta, eta betiere neurri horiek lanbide jakin bati lotuta ez badaude. Gaur egun garrantzi handia duen gaia ere kontuan hartzen da: Europar Batasunaren berehalako zabaltzeak planteatzen dituen hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntzarekin loturiko arazoek azterketa. Ildo horretako ekintzak —informazio-kanpainak, lehiaketak, sariak, aipamenak, edo azterketak eta analisiak barne har ditzaketela kontuan hartuta— jendearentzat, oro har, eta berriarazko taldeentzat dira, esate baterako, ikasleek aitak eta amak, edo hizkuntzak ikasten dituztenen kopurua baxua den herrialde edo eskualdeetako herritarrek, baita hezkuntzako profesionalentzat ere.

Bigarren arloaren helburua hizkuntza-ikaskuntza baliatzeko aukera ahalbidetzea da. Azken bi urte hauetako ekintzak, jendeari, oro har, eta berriarazko premiak dituzten sektoreei zuzendutakoak, hizkuntza-baliabideetako zentroen arteko lotura, informazio-trukeak eta baliabide-zentroak eskaintzen dituzten aukerekin loturiko proiektu pilotuak, gaitasunen bateratze-lana, batez ere autoikasketan eta urrutiko prestakuntzan (ikastaro-pilotuen antolamendua eta ekimen berriak praktikan jarritzea barne hartuta, hizkuntza-klubak, esate baterako), eta betiere baliabide erabilgarriak jendeari ezagutarazteko moduan, bildu izan dituzte. Baliabide-zentroetako langileen prestakuntza, eta jendeari edo zentro horietako talde hartzaileei zabaltzeko aukera ere sustatu da, eta baita ere hizkuntzak ikasteko erabilgarri dauden tokiko erakundeek baliabideak baliatzeko aukera hobetzea, liburutegi publikoak, ikastetxeak eta elkarteak tarteko.

Hirugarren arloak ikuspegi berritzaileei buruzko informazioa trukatu eta zabaltzea, eta politikak lantzeko eta erabakiak hartzeko arduradunen arteko hizkuntzen irakaskuntzaren funtsezko gaiak ditu aztergai. Goi-mailako funtzionarioekin eta ikuskatzaileekin eginiko lanean dago oinarrituta arlo hori, eta hitzaldien, mintegien eta konferentzien prestaketa, antolamendu eta jarraipen ekintzak, argitalpen espezializatuak egitea, eta elkarteak eta sareak sortu eta sustatzea biltzen ditu. Adin

goiztiarreko hizkuntzen irakaskuntzaren arloei, ulerkuntza eleanitzari eta hizkuntza-gaitasun partzialari (lehenengo arloarekin bat datorrela) ematen die arreta berezia arlo horrek.

LINGUA 2-ren helburua, aurreko LINGUA D-ren markoan hasitako lana jarraitzen duela kontuan izanda, hizkuntzak irakasteko eta hizkuntza-ezagutzak ebaluatzeko tresnak garatzea da. Horrela, berrikuntza sustatu nahi du hizkuntzak ikasi eta irakasteko tresnen garapenean praktika onenen bateratze-lanaren mesedetan, argi eta garbi definituriko taldeei hizkuntzak irakasteko material-sorta zabalagoa eskaintzeko, eta hizkuntza-erreminten produkzioa sustatzeko gutxien zabaldu eta gutxien irakatsitako hizkuntzetarako. Merkatuan behar bezala ordezkaturata ez dauden ikuspegi pedagogikoak ere babestu nahi ditu, edo eskala handian merkaturatzeko sailak direnak, eta produktuen banaketa eta haiek baliatzeko aukera hobetzea.

Europako Kontseilua ere lanean ari da alor horretan XIX. mendeko erronkak direla-eta. 1995az geroztik. Hizkuntza Modernoen Europako Zentroa sustatu du, egoitza Graz-en, Austrian, duela. Lantegiak eta konferentziak antolatzen ditu, ez hizkuntza partikularrei buruz, baizik eta hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntzaren hainbat alderdiri buruz. Beste zenbait erakunderekin lan egin du alor horretan, Europako Batzordea, Kontseilu Britainiarra, Institutu Frantziarra eta Goethe Institutu barne. Gaur egun, epe ertainerako programa ari da garatzen Zentroa, lau jardun-eremurekin. Lehenik, hizkuntzen ikaskuntzaren antolamendua eta egitura hartu du aztergaitzat, horrek bi atzerriko hizkuntzaren ikaskuntzarekin loturiko arazoei buruzko ikerketak eta trukeak, hizkuntzen ikaskuntza estatu txikietan antolatzeko aukera, eta beste hizkuntza bat ikasi ahal izateko beste hiriekin senidetze-harremanak erabiltzeko aukerak barne hartzen ditu. Bigarrenik, hizkuntza-sentsibilitateari, kultura arteko gaitasunari eta kultura arteko gaietarako buruzko arloa garatu da. Sentsibilitate linguistikoa ikasketan planean nola sartu, hizkuntzen ikaskuntza nola antolatu, batez ere langile etorkinentzako laneko lekuari dagokionez, eta irakasleen artean kultura arteko komunikazio-gaitasuna nola babestu izango ditu aztergai arlo horrek. Hirugarrenik, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek loturiko lan-arloak proposatzen ditu Zentroak (lanaren hurrengo atalean hartuko da kontuan puntu hori). Azkenik, hizkuntza-hezkuntzarako nazioarteko lankidetzan kalitatea ziurtatzen duten bitartekoak zehazteko ikertzea planteatu da, hezitzaileen prestakuntzaren kasuen azterketak barne hartuta, prestakuntza gogoetsuari, irakasleen estatusari eta *kit* pedagogiko baten sorrerari buruzko idatz-zatiekin.

## HEZKUNTZA, ETA INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA BERRIAK (IKTBak)

Mendebaldeko Europako teknologia aurreratuen iraultzak aurrerabide handia izan zuen 1980 eta 1990eko hamarkadetan. Nahiz eta zuzeneko eraginak, lehenik, ekonomikoak ziren, inplikazio soziokultural oso garrantzitsuak ere izan ditu. Ildo horretan, arestian aipatu dugu ikus-entzunezko bitartekoek, batez ere telebistak, Europaren nortasun kulturalen izan duten eragina, eta datorren kapituluaren sakondu egingo dira ikasketa-planeko komunikabideen gaian. Dena den, beharrezkoa da bereizketa egitea, Komunikazioaren Zientzien, horiek balio soziokulturalen arloa jorratzen dutela kontuan izanda, eta bitartekoak hezkuntza-baliabide eta komunikazio tresna gisa erabiltzearen artean. Hau da, «komunikabideak erabiltzea herritarrek hezteko, eta herritarrek hezteko komunikabideak erabiltzeko, bi gauza oso desberdin dira». (23) Hemen bigarrena jorratzen da, komunikazio-mekanismoak garatuta eta erabilia, baina beste zenbait bereizketa egin behar dira eremu horretan. Ez dira nahastu behar bitarteko konbentzionalak, norabide bakarreko komunikazioa ekarri zuten 1980ko hamarkada arteko informazio-iturri nagusiak —prentsa, irratia, zinema eta telebista—, eta bitartekoen sistema interaktibo berriak, ikus-entzunezko elementuak eta elementu informatiboak uztartzen dituztenak.

Kalkuluen arabera, informazio-kantitatea bospasei urtero bikoizten da, eta Alemaniako bi enplegutik bat informazioaren sektorean dago. (24) Hortaz, Europako gizartea bitan banatuta geratzeko arriskua hartu behar da kontuan: alde batetik informazioaren prozesamendua eta komunikazioa ulertu eta parte hartzen dutenen taldea, eta bestetik adina, maila, ge-

neroa, etnizitatea edo minusbalioetasuna tarteko, orain «analfabetismo informatikoa» deiturikoaren desabantaila dutenen taldea». (25) Herritasun europarreko sentimendu baterako hezkuntzak neurriak barne hartu behar ditu pobrezia mediati-koko gizarte-injustizia gutxitzeko, eta garrantzitsua da azpimarratzea arazo horri aurre egiteko zenbait hezkuntza-ekimen daudela, nazionalak zein nazioartekoak.

Azken hamabost urteotan Europako gobernu guztiek berraztertu dituzte euren politikak, eta gehienek hezkuntza teknolo-gikoa sustatzeko erabakia hartu dute, nahiz eta emaitzak askotarikoak izan diren. Europako hainbat herrialdek planak onartu dituzte teknologia berriak sustatzeko, eta zenbaitek urrutiko irakaskuntza-sistemak sartu dituzte. Aurrerabide hori-ek ez dituzte estatu handiak soilik barne hartzen, Islandiak, Luxenburgok, Maltak, Suitzak eta San Marinok ere IKTBe-ko duten konpromisoa agertu baitute. 1989an, adibidez, Maltak Ezagutza Sistemen jakintzagai berria sartu zuen hama-zazpi urteko ikasleentzat, unibertsitatera sartzeko eskakizunetako bat izaki.

Nazioarteko erakunde nagusiek dagoeneko aztertu dituzte IKTBe eragiten dituzten hezkuntza-gaiak. UNESCO abango-ardian jarri zen bitartekoetako hezkuntza-aurrerabidearen monitorizazioarekin 1970eko hamarkadaren erdialdeaz geroz-tik, (26) eta Europar Batasunak, berriz, MINERVA ekintza garatu du, SOKRATES programan bildurikoa LINGUA progra-marekin batera, hezkuntzako IKTBen alorrean lankidetzara europarraren sustapena duela helburu.

«Bideratzaile handia» deitu diote informatikari; batez ere, komunikazio-prozesua bideratzen duelako. (27) Ikasteko tresna garrantzitsua denez, informazioa baliatzeko aukera eta hura prozesatzea ahalbidetzen du bizkor, objektiboki eta akatsik gabe; pertsonen euren hautemate, pentsamendu eta artikulazio gaitasunak zabaltzea ahalbidetzen die, hainbat jarduera tarteko, idazketa, problema matematikoen soluzioa, irudi bisualaren formulazioa, musika eta hizkuntza arloko sorkuntza eta emaitzen komunikazioa barne hartuta. Informatika eta telekomunikazioak uztartuta, informazioa ia instantean transmi-ti liteke planetaren alde batetik bestera. Ezagutza modu selektiboan baliatzeko aukera ere ahalbide dezake, eta hortaz, ikaskuntza-prozesu autonomoa eta bana-banakakoa. Horrek duen hezkuntza-erabilera nabarmena da.

Irakasleek hainbat hezkuntza-helburu lortzea ahalbidetzen dute IKTBe: (28)

- Jada ezarritako helburuak modu eraginkorragoan lortzea metodo berrien erabilerekin, esate baterako aur-kezpen informatizatua eta ordenagailuz lagunduriko ikaskuntza (CAL, ingelesez dituen siglen arabera).
- Ikaskuntzan helburu berriak sartzeko aukera ahalbidetzea egungo ikasketa-planaren markoan; esate bate-rako, telebista edo datu-base informatizatuak tarteko.
- Gizarteari eta haren teknologiarri buruz ikastea, etorkizunerako orientazio posibleak kontuan hartuta.
- IKTBe erabiltzen ikastea komunikazio eta informazioko trebetasunak garatzeko programa orokorraren zati gisa.
- Lanbide-prestakuntzarako egokiak diren ezagutza eta trebetasunez jabetzea lan espezializatu baterako.
- IKTBe erabiltzeko ikuspegi kritikoa garatzea, ikuspegi-aniztasunetik.
- IKTBe komunikazio eta adierazpen pertsonaleko helburu kreatiboetarako erabiltzea.

Komunikabideek zeregin garrantzitsua izan dezakete ama-hizkuntzaren garapenean, ikasleei bitarteko horiek esanahiak eta hitzez hitzeko interpretazioak nola eratzen dituzten, eta hainbat genero eta kontzeptu nola argitzen dituzten ahalbi-detuta. Literatura irakasgaietan IKTBe erabiltzeak antzeppen dramatikoak alderatzea eta azterketa kritikorako gaitasuna zabaltzea ahalbidetzen du. Historia irakasleak, era berean, eskuragarri dituzten iturriak areagotzeko software egokia edu-kitzearen baliagarritasunaz konturatu dira, Interneteko gune arkeologikoekin hasi eta CD-ROMeko erretratuak eta esku-izkribuak ere barne hartuta.

Dena den, Zientzia eta Matematika alde batera utzita, IKTBen abantailak gehien aprobetxatu dituzten jakintzagaiak Geo-grafia eta Hizkuntza Modernoak dira. Europako Herrialdeetako Informazio eta Dokumentazio Europarrari buruzko Utrecht-eko

lehenengo Sinposioak, CDCCK antolatutakoak, aurrerabide berrietarako oinarriak ezarri zituen komunikabide elektroniko-entzumen-trebetasunak garatu, euren ikasleen irudimena piztu, eta ahozko eta idatzizko hizkuntza sustatzeko. Programazio-hizkuntza informatikoak Hizkuntza eta Komunikazioa ardatzaren alderdi bat dira, eta hizkuntzen eta ordenagailuaren irakasleen eta ikasleen arteko kidetasuna ezartzea ahalbidetzen dute. Hizkuntza Modernoen Europako Zentroak hiru arlotan sustatzen du IKTBei buruzko informazioaren azterketa eta trukea: hizkuntzen ikaskuntza lanbide batera bideratuta, hizkuntzen urrutiko ikaskuntza eta ikasle gazteenen hizkuntzen ikaskuntza. Hiru arloak Interneten oinarrituriko komunikazio-erremintak menpe daude.

Ikasketa-plan orokorrean, komunikazio elektronikoen simulazioak egitea eta kanpo-iturrietatik abiatuta informazio eguneratuta lortzea ahalbidetzen diete ikasleei, eredu meteorologikoen gain (Geografiarako), berrien gain (Gizalege Hezkuntzarako) edo joera ekonomikoen gain (Zientzia Ekonomikoetarako). Datu baseen eta datuak prozesatzeko programen erabilerak tarteko, iraganean baino datu-azterketa sofistikatuagoak egin ditzakete ikasleek. IKTBen beste hezkuntza-helburu bat betetzen dute ariketa horiek: ikasketako trebetasun orokorren, eta trebetasun grafikoaren, informazioaren, eta komunikazioaren garapena sendotzea. Azkenik, IKTBen potentzial kreatiboak ahazteko joera gorabehera, ikasleei bideo bat, egunkari bat edo programa informatiko bat sortzeko aukera ahalbidetuta, adierazpen pertsonaleko iturri natural gisa balia litezke horiek. Argudiatu denez, «komunikazio bat gauzatzeko obligazioak komunikazio horren edukiaren ulerkuntza sakonagoa garatzea ahalbidetzen du». (30)

Teknologia berriak minusbalotasuna duten gazteen premia bereziki erantzuteko ere dira baliagarriak. Robotikaren alorrean izandako aurrerabideek mugitzeko urritasunak dituztenentzako aparailu protesiko konplexuen garapena ekarri dute, eta argi dago IKTBe laguntza eskaini diezaieketela urritasun sentsorialak dituztenei. Erresuma Batuan, lesio edo paralisia zerebralak eragindako komunikazio-arazo larriak dituzten haurrei laguntzeko informazioaren teknologiak erabiltzen dituen zentro bat babestu du gobernuak. Norvegiak IKTBen ikastaro bat du minusbalotasunak dituzten haurren irakasleentzako prestaketaren zati. Frantziak, besteak beste, hainbat laguntza pedagogiko garatu ditu egoera horretan dauden haurrentzat. Teknologia informatikoa irakasleentzat ere lagungarria izan da gelako gizabanako bakoitzak dituen lanerako gaitasun eta erritmoak kontuan hartzeko. Ikasketa malgu eta pertsonalizaturako aukera horiek lagungarri izan litezke dohain handiak dituzten ikasleentzat zein ikasteko arazo handiagoak dituztenentzat. «Arrakastarako ordenadoreak» proiektuak tarteko, ikaskuntza-prozesuetan geldoagoak diren bigarren hezkuntzako ikasleak ikasketa-plan orokorreko jakintza-gaiak ulertzeko gai direnaz jabetu ziren frantsesak.

Politika desberdinei buruzko konparazio-dokumentu batean, hiru bide iradoki zituen Europako Kontseiluak IKTbak bigarren hezkuntzaren ikasketa-planera gaineratzeko. Lehena, eta irakasleek hobeto hartu dutena, IKTbak egungo ikasketa-plan osoan tresna gisa erabiltzeko aukera da. Ikasle guztientzako jakintzagai berri bat sartzea litzateke alternatiba bat, Komunikabideetako Hezkuntza edo Alfabetizazio Informatikoa izenburupean; hirugarren aukera bigarren hezkuntzako azken urteetako ikasleentzat hautazko irakasgai bat sartzea litzateke. (31) Alemanian zein Erresuma Batuan hainbat irizpide ezarri dira honako oinarritzko ezagutza hauek eta trebetasunak eskuratzeko estrategiak definitzeko:

- Informazioaren teknologien bana-banako esperientzien azterketa.
- Informazioaren teknologien oinarritzko kontzeptuei buruzko argibideak.
- Ordenagailuak eta periferikoak erabiltzeko argibide praktikoa.
- Informazioaren teknologien aplikazio eta metodo posiblei buruzko argibideak.
- Problema ebazteko diagrama algoritmikoen erabilera-aukeraren hastapenak.
- Datuen prozesamendu elektronikoen garapena ezagutzea. (32)

Argi eta gabi duen erabilgarritasuna gorabehera, zenbait adituk zuhurtasuna eskatzen dute IKTbak hezkuntza-arloko gaitz guztientzako panazea gisa hartzeko orduan. (33) Irakasleen zati batek mehatxatuta ikus dezake bere burua infor-

mazioaren teknologien *hardwarea* dela-eta, baina jende gutxi ez letorke bat ELGEren gomendioekin, horien arabera «ikasle guztiak gaitu behar baititugu teknologia berrien erabileran alaitu arinen». (34) Irakasleen prestakuntzarako inplikazioak oso garrantzitsuak dira. Hizkuntzen irakaskuntzako aditu britainiarrek gomendatu dutenez, hizkuntza-ikasleek eta jardunean dauden irakasleek CALL, datuen berreskuratzea, testuen prozesamendua, eta satelite bidezko telebistaren eta bideo/DVDaren erabilera ezagutu behar dituzte gutxienez, komunikazio-metodologiaren elementu direnez. (35) Antzeko gomendioak egin zituen Utrechteko Sinposioak Geografia irakasleentzat. (36) Zenbait herrialdeek nahikoa egin dute aurrera bide horretan; aspalditxo amaitu zuen Danimarkak bost urteko gaikuntza-programa bigarren hezkuntzako azken urteetako irakasleentzat.

Irakasleek bitarteko pedagogikoei eta praktika oneko adibideei buruzko informazioa behar dute izan. Praktikako komunikazio interesgarrienen adibideen artean bitarteko elektronikoak baliatuta eginiko eskolen arteko loturak daude, posta elektronikoa, satelitea eta bideokonferentziak barne hartuta. Nazioan zein Europako eremuan daude eskola-loturen sareen adibideak. Badira zenbait plan, adibidez, Tokiko eta Europako Konparazio Ikasketena, ingurumen-ikasketen proiektu bateratuari dagokionez Erresuma Batuan eta Danimarkan hamar eskola tartean hartzen dituztela kontuan hartuta. Ildo berean, irakaskuntza-arloko profesional ugari hamabost urte daramatzate lanean Europako eskola-sarearen mekanismoak sendotzeko (37). Europako Batzordearen COMENIUS programak, hori ere SOKRATES programaren zati dela, eta lehen eta bigarren hezkuntzako sektoreari zuzenduta dagoela kontuan izanda, Europako eskolen arteko loturak sustatzen ditu. Zailtasuna gorabehera, eredu bat aurkitzeko erronka planteatu da. Eredu horretan «posta elektronikoaren eta bestelako sistema informatikoen laguntza tarteko, eskolen nazioarteko sarea garatzen ikusiko genuke, hiru eta sei zentro bitarteko elkarteetan oinarrituriko sarea. Sare horretan ikasketa bateratuen lanketan eta ikasleak gizarte kulturantz eta eleanitz batean bizitzeko gai izan daitezen prestatzeko lankidetzan ari direla». (38)

Helburu horiek babesteko, duela gutxi aurkeztu du programa berri bat Europako Batzordeak, *e-Learning* (ikaskuntza elektronikoa), hezkuntza eta prestakuntza sistemak ezagutzen ekonomiaren eta gizarte digitalaren premietara egokitzeko ideiarekin. Nondik norako oso desberdineko proiektuak babesten ditu, minusbalioak dituztenentzat ikaskuntza-komunitate birtuala ezartzeko ekintzekin hasi eta ikasketa-planetaryko eduki berriak lantzeko planak ere barne hartuta; analfabeto informatikoen arazoa gainditzea ahalbidetzen duten esperientzien sistematizazioarekin hasi, eta eskolak eta museoak lotzen dituzten ikaskuntza birtualeko sareak sortzeko aukera ere barne hartuta. Programa horiek eta beste zenbait tarteko, ikasketa-plana aberasteko, eta nazioarteko ulerkuntza eta kontzientzia garatzeko helburua betetzen da. Egoera horretan, eskoletako funtsezko jarduera bihurtzen da komunikazioa zentzu guztietan, eta honako aforismo honen edukia sendotzen da: «Komunikazioa baino zerbait gehiago eta zerbait gutxiago da aldi berean Hezkuntza». (39)

- (1) Krecji, Jaroslav eta Vitezslav Velimsky (1981), *Ethnic and Political Nations in Europe*, Londres: Croom Helm
- (2) Bliss, I. (1989), «Language and language teaching in plural societies: an agenda for discussion», *European Journal of Teacher Education*, 12 (2), 60. or.
- (3) Livet Eve (1988), «L'Europe en trainant les pieds», *Le Monde de l'Éducation*, 152, 72-7 orr.
- (4) Adibidez, hizkuntza galesa galzorian zegoen, eta 1950eko hamarkadan anakronismotzat hartzen zen. Egoera hori erabat aldatu da 1970eko hamarkadaz geroztik, galesak arrakasta eta ospea lortu baitu irakaskuntza-bitarteko gisa, eta Ikasketa Plan nazional berrian barne hartu zen nahitaezko irakasgaitzat Galesen hamasei urtera arte. Ikus Bliss, «Language and language teaching», 62. or.
- (5) Girard, Denis eta John Trim (1987), *Final Report of the Project Group on Project 12*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 9-15, 49-50 orr.
- (6) Porcher, Louis (1981), *The Education of Children of Migrant Workers in Europe: Interculturalism and Teacher Training*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 148. or.
- (7) Banks, J. eta J. Lynch (1986), *Multicultural Education in Western Societies*, Londres: Holt, Rinehart and Winston, 142. or.
- (8) Dokumentazio eta Hezkuntzarako Informazio Sistema Europarraren garrantzia nabaritu zen; Rey, Micheline (1983), *General Report on Migrant Culture in a Changing Society*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 4. or.
- (9) Denis eta Trim, *Final Report on Project 12*, 22. or.
- (10) Starkey, Hugh (1984), *Report of the CDCC Symposium on Human Rights Education in Schools in Western Europe*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 22. or.
- (11) R (82) 18 zk. Gomendioa, Europako Kontseiluko Ministro Batzordeak Estatu kideei eginikoa, Hizkuntza Modernoei buruzkoa
- (12) Salter, Michael (ed.) (1989), *Languages for Communication: The Next Step*, Londres: DES eta CILT, 2, or.
- (13) Denis eta Trim, *Final Report on Project 12*
- (14) (1983), *Report of the European Teachers' Seminar on Europe in Primary Schools*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 10-12 orr.
- (15) DES (1985), *The European Schools and the European Baccalaureate*, Londres: DES
- (16) (1988), *Europako Erkidegoaren Buletina*, Estrasburgo: Europako Kontseilua
- (17) Van Rooijen, Anton (1989), *The Observer* argitalpenean aipaturikoa, maiatzaren 21ekoa
- (18) Denis eta Trim, *Final Report on Project 12*, 75. or.
- (19) Porcher, *The Education of Children of Migrant Workers*, 82. or.
- (20) Salter, *Languages for Communication*, 9. or.
- (21) (1988), 1988ko maiatzaren 24ko ebazpena, Hezkuntza Kontseilu eta Ministroena, Europako Erkidegoen Buletin Ofiziala C177, 31
- (22) Gehiago hitz egiten da gertakari horri buruz 8. kapituluan
- (23) Corset, Pierre (1981), *Report for the Symposium on the Secondary School and the Mass Media*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 19. or.
- (24) Landscheere, Gilbert-ena (1989), *Report on the Information Society and Education*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 13-14 orr.
- (25) Cerych, L. eta J. P. Jallade (1986), *The Coming Technological Revolution in Education*, Paris: European Institute of Education and Social Policy
- (26) Adibidez: (1977), *The Study of the Media in Education*, Paris: UNESCO
- (27) Carpenter, J. P. (1989), *Report of the Colloquy on Computerised School Links*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 2. or.
- (28) Eraut, M.-ren *Report on The Information Society: A Challenge for Educational Policies?* (1989) lanaren 1. kapituluan lantzen dira horiek, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 171. or.
- (29) Graves, Norman (1991), *Report on the Symposium on Geographical Information and Documentation on European Countries*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 24, 34-5 orr.



- (30) Eraut, *Challenge for Policy*, 34. or.
- (31) *Ibid.*, 37-9 orr.
- (32) (1989), *Report of F.R. Germany to Conference on The Information Society: A Challenge for Educational Policies?*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 60. or.
- (33) Eraut, *Challenge for Policy*, 44. or.
- (34) (1986), *New Information Technologies: A Challenge for Education*, Paris: ELGE/CERI, 59. or.
- (35) Salter, *Languages for Communication*, 11, 17 orr.
- (36) Graves, *Report on the Utrecht Symposium*, 33-4 orr.
- (37) Carpenter, *Report of the Colloquy*, *passim*
- (38) *Ibid.*, 16-17 orr.
- (39) MacBride txostena, 1. zatia, 2-5 Kapituluak, Corset-en *Report for the Symposium on the Secondary School* argitalpenean aipaturikoa, 33. or.






# Hirugarren zatia:

EUROPAR HEZKUNTZAREN PARAMETROEN ZABALKUNTZA



- 
- 7. BIZITZARAKO PRESTAKUNTZA EUOPAR GIZARTEAN**
  - 8. IKASGELAZ GAINDIKO HEZKUNTZA**
  - 9. EUROPA ETA MUNDUA**



7

**BIZTZARAKO PRESTAKUNTZA EUOPAR GIZARTEAN**



- NORABIDE-ALDAKETA
- EZKUTUKO IKASKETA-PLANA:  
GIZARTE-MAILAKO ERAGINAK GAZTAROAN
- HEZKUNTZA PERTSONALA ETA GIZARTE-MAILAKOA
- GIZARTE DEMOKRATIKO BATERAKO AURRETIK BETE  
BEHARREKO BALDINTZAK: KULTURA ARTEKO HEZKUNTZA
- GIZA ESKUBIDEEI, DEMOKRAZIARI  
ETA KOMUNIKABIDEEI BURUZKO HEZKUNTZA
- HEZKUNTZA POLITIKOA ETA HERRITARRAK

## NORABIDE-ALDAKETA

Azterlan honetan europar hezkuntzaren hiru alderdiren arteko bereizketa egin da: gazteei eta haurrei Europari *buruzko* informazioa ematea; Europaren *bidez* heztea; eta Europa beren familia-etxearen zabalkuntza den mundu batean *bizitzeko* prestatzea. Aurreneko bi alderdiek lotura nabarmena dute ikasketa-plan formalarekin, eta bereziki ohiko diziplinak ikastearen bidez bereganaturiko ezaguera eta trebetasunekin: Geografia, Historia, Hizkuntzak edo Zientziak. Hala ere, Komunikazioa konplexutasun handiko trebetasun-multzotzat hartzen duen ikuskera berria —puntu horretan bukatu zen azken kapitulua— Europari *buruzko eta bidezko* ikaskuntzaren, eta European *bizitzeko* hezkuntza-arloaren arteko zubi gisa erabil daiteke. Hemen, ikaskuntzaren arlo afektiboa azpimarratzen da, jarrerak, balioak eta gaitasunak, ezaguerak berak bainoago. Hala ere, garbi dago europar testuingurua esperientziez beteriko atze-oihal bat dela egiten diren ikaskuntza-prozesu guztietarako.

Bizitzarako prestakuntzari eta herritarrei buruzko gaia azterlan honen hirugarren zatirako utzi izanak ez du esan nahi garrantzi txikiagoa duenik. Aldiz, hori da europar hezkuntzaren funtsa. Beste europarrekin elkarrekin adiskidetsu bizitzearekin, eta planetako gainerakoekiko ardura komunak ditugula onartzearekin zerikusia du; kontua da, sortzen diren gizarte eta ekonomia mailako aukerak ahalik eta gehien aprobetxatzen ikastea; nola erantzun errealitate politiko eta teknologia-erronka berriei; eta azkenik, kultur eta ingurune ondare paregabearen esperientziaren onura elkarrekin ateratzea. Horiek izan ziren Europako Kontseiluak bigarren hezkuntzari buruzko «Bizitzarako prestakuntza» (1) deituriko proiekturako finkatu zituen arloak. Atal honetan, Europa ideia historiko eta kultur eremutzat hartzea alde batera utzita, Europa entitate soziopolitikotzat hartuko da, eta gazteak XXI. mendeko europar gizartean bizitzeko prestatzeak hezkuntzan dituen ondorioak aztertuko dira.

## EZKUTUKO IKASKETA-PLANA: GIZARTE-MAILAKO ERAGINAK GAZTAROAN

Nerabazarotik adin-nagusitasunera arteko iragaitean, gazteek kanpoko eragin-andana jasotzen dute. Presio horiek erabakigarriagoak izan litezke haien jarrerak eta portaerak moldatzeko, ikasgelan ikasten dutena baino. Haien etika edo bizi-kalitatea edozein izanik ere, senideek ematen dizkiete lehenengo ereduak, baina ikasleek euren parekoen ingurunera egokitu behar dute eskolan zein auzoan. Faktore horiek bainoago, gazteen bizitzan eragin handia izan lezakete giroak eta komunitateak; eliza bateko edo beste edozein gizarte-erakundetako kide izatea bereziki garrantzitsua izan liteke. Batzuetan indar kontrajarriak izaten dira. Nerabe askorentzat, haien etxetik kanpoko munduak —merkataritza-guneak, opor-lekuak edo hiriaren erakargarritasuna— «mundu errealearen» rola hartzen du, telebistaren edo bideoaren bidez etengabe hedatzen dute-eta. Testuinguru horretan litekeena da eskola mundu artifizial gisa ikustea, are gehiago derrigorrezko hezkuntzaz arduratzen delako eta ongizatean zein heziketan parte hartzen duelako. Izan ere, kanpoko mundua «ezkutuko ikasketa-plan bat» da. Eragin horietara guztietarako egokitze-prozesuan, gaztea bizitzarako prestatzen da eta, aldi berean, beste batzuek pertsona helduak, gurasoak eta herritarrak izateko «prestatzen» dituzte (nahita edo halabeharrez). (2)

Aldaketa ugari izan bada ere —batez ere eskualde industrializatuetan—, familia-bizitzak europar gizartearen oinarria izaten jarraitzen du. Familia «nuklearrak» familia tradizionala ordezkatu du (hainbat eskualdetan izan ezik, Italiako hegoaldean, esaterako); (3) horregatik, lan egiten duten gurasoek gero eta denbora laburrago ematen dute etxean, eta herrialde gehienetan, seme-alabek gero eta lehenago alde egiten dute familiaren etxetik. Gero eta bikote gehiago banatzen dira

eta guraso bakarreko familien kopurua azkar hazten da (hala ere, interesagarria da «familia» terminoa horietarako ere erabiltzen jarraitzea); dibortzioaren hazkundeak «familia zabal berri» ugari sortarazi du, ahaide berriak, alegia. 1960ko hamarkadatik salatu izan da familiaren «arrisku» edo «krisi» egoera, baina familiak belaunaldiz belaunaldiko jarrerai eusten die eta jokabide-kodea transmititzen jarraitzen du, batez ere erlijio-afiliazio tradizionalak edo printzipio moralak. Familia oraindik ere instituzio babeslea da gazte gehienentzat, eta haien sostengu nagusia da; izan ere, ikasketa-plan informala ematen die. Klaus Schleicher Irakaslearen iritziz, «gero eta gehiago dira ekialdeko zein mendebaldeko Europan [...] uste dutenak familia ordezkazina dela, hezkuntza, gizarte eta ekonomia arloetan duen eginkizuna dela-eta». (4)

Hala ere, nerabeengan eragina izateko familiak duen ahalmena mugatu egiten du batzuetan nerabeek euren parekoen taldeekin duten emozio-loturak. *Preparation for Personal Life and for Life in Society (Bizitza pertsonalerako eta gizartearen bizitzeko prestakuntza)* izenburua duen azterlan batean, hezkuntzan aditu norvegiar Edvard Befring-ek gazteentzat haien parekoek duten garrantzia aztertu zuen; izan ere, «nerabea bere parekoen gizartearen abandonatzen dugu, eskolako ikasgelak eta pasilloak, gazteen tabernak [...] eta elkargune ugari ohiko lekutzat dituen gizarte batean». (5) Leku horiek herrialde guztietan desberdinak badira ere, gazteak diskotekan, aisialdi-elkartean, kiroldegian, parkeetan edo kaleko kantoi-an elkar daitezke. Horrek ez du esan nahi gazteek aisialdiaz gozatzeko balio onuragarriak ez dituztenik: horietako asko sen idealistez eta babesleez blai daude. Hala ere, nerabezaroak badu alde iluna ere: gazteen kultur oldarkorrek eta nerabeen «beharren» merkatura bideraturiko industria. Era berean, batzuetan izaten da gizarte-mailako presio maltzurra, eta hori muturreraino eramanez gero, benetako diktaduraren antzeko kontrola duten lagun-taldeak sortzeraino irits daiteke. Joera horiei aurre egiteko, eskolek aholkuaz gain, hezkuntza pertsonala eta soziala eskain dezakete.

Eskolan parekoen taldeak harremanetarako eta eraginerako baliabide garrantzitsua izaten jarraitzen du. Ikasleek aurrez aurre dute hainbat sistema eta arautan oinarrituta dagoen, eta zer eta nola ikasi erabakitzen duen erakunde bat. Ikasketan-plana interpretatzen den moduak eragina du eguneroko esperientzian, programei, metodologiari edo lehentasunei ez ezik, ikasleen parte-hartzeari edo eskolaren eta herri-mailako komunitatearen arteko erlazioari ere dagokienez. Izan ere, hainbat soziologok uste dute eskolako elementu guztien arteko erlazioa —kontseilua eta irakasleak, ikasleak eta garbiketangileak bane— faktore nagusia dela «ezkutuko ikasketa-planean». Erlazio horrek eskolaren nolakotasuna eta norbere portaeran zein lanbide-arduren jardunean nagusi diren usteak eta jarrerak erakusten ditu; nolakotasun horrek, era berean, eragin garrantzitsua izan lezake gazteengan. Gainera, eskolak ia inoiz ez direnez komunitate itxiak —aldiz, dau den herriko beste batzuei zerbitzua eman eta haien zerbitzua jasotzen dute—, ohiko bihurtu da nerabeek nolabaiteko laguntza ematea ikasten duten bitartean (borondatezko lan baten, lan-esperientzien, kultur edo kirol jardueren, eta helduekin komunitatean izandako esperientzien bidez —adibidez, hirugarren adinekoekin—).

1960ko hamarkadatik hona, eragin horiek guztiek —familia, parekoak, eskola, komunitatea— mass-medien eragina jasan behar izan dute. Aditu baten iritziz, «herri-komunikabideak [...] eskola “paraleloa” dira —eskolaren ondorengo irakaskuntza-lekua edo eskolaren paraleloa—». (6) Esaldi hori hitzez hitz hartuta, irakasleek gazteengan eragina izateko duten aginpidea mugatua dela iradokitzen du; familia, lagunak, edo beren auzoko edo gizarte-taldeko beste batzuek bezalaxe. Izan ere, Europa hain da handia eta anitza, komunikabideek tradizio autoktono asko erakuts ditzakete, eta horrekaldi berean nerabeen gustuetan eta jarreretan era askotako eraginak ditu. Hala ere, telebista, irrati eta bideoa prestakuntzan nahikoa eragina duten komunikabideak izanik, galdera egoki batzuk sorrarazten dituzte: Zenbateraino daude «Europara bideratuta»? Litekeena ote da komunikabideek europar nortasuneko sentimenduak sustatzea, edo horiek alde batera utzita kultura nazionalista edo transatlantikoaren alde egitea? Europar kontzientzia pizten lagunduko dute edo indar negatibo gisa jardungo al dute Europa bateratuan? Agian, eskolak, familiak, parekoek eta komunitateak nerabeen jarreretan duten eraginari garrantzi handiagoa eman behar genioke; izan ere, badirudi komunikabideek «eskolan edo beste leku batzuetan sorrarazi diren itxaropenei, interesei edo jakin-minei erantzuten dietela [...] pertsonak beste leku batzuetan estimatzen eta ulertzen ikasi dutena ikusten dutela telebistan eta irakurtzen dutela egunkarietan [...] Jendeak merezi dituen programak edo prentsa jasotzen dituela dioen esaeraren atzean dagoen errealitatea da hori». (7)



Gazteak europar gizarterako prestatzeko eskolak duen eragina eta gaur egun dituen baliabideak aztertzen du batez ere azterlan honek. Europako Kontseiluaren gomendioek, bigarren hezkuntzari buruz eginiko lanean oinarrituriko gomendioek, hain zuzen, aspaldi izan dute oihartzuna beste erakunde batzuetan, honako hauetan, besteak beste: Europar Batasunaren «jendearen Europaren» (8) aldeko ebazpenetatik hasi eta gaur egun Europar Konbentzioari eta etorkizuneko Europako Konstituzioari buruz egiten diren eztabaida publikoetaraino. Europako bi erakunde nagusiek gizarte eta hezkuntza mailako gaiak buruz dituzten politikak uztartzea onuragarria izan da, eta gizarte-tradizioak euren horretan eduki dituzten eskualdeetan beste aldaketa batzuk lortzeko itxaropena pizten du.


## HEZKUNTZA PERTSONALA ETA GIZARTE-MAILAKOA

Bigarren hezkuntzak haurtzarotik adin-nagusitasunaren hasiera arte irauten duenez, ikasleen garapen fisiko, sexual, emozional eta mentalaren menpe dauden heldutasun-aldaketetara egokitu behar du. Derrigorrezko hezkuntza edo horren berrondatezko luzapena bukatutakoan, etorkizunari buruzko erabakiak hartu eta aukerak egin behar dira. Herritartasun osoa hurbiltzen direnean —eta batzuetan soldaduskara edo zerbitzu zibilerako— gazteak ezkontzear egon daitezke, edo beren bikotekidearekin bizitzera joateko, edo guraso izateko, edo etxe baten jabe izateko. Eskolan emandako hezkuntza pertsonal eta gizarte-mailakorik gabe, erabaki horiek hartzea askoz ere zailagoa izango zaie.

Gizarte-mailako hezkuntzak gizabanakoa du abiapuntu. Ia nerabezaro osoan izaten diren zalantzak argitu arte, gazteek ezin dituzte gizartearen eskakizunak bete, ez eta izaki sozial arduratsu eta integratu gisa jokatu ere. Egungo egoeran, hezkuntza-metodo kaskarren eta merkatu-indarren lehen mailako biktima izan litezke gazteak. Bizitzaren ezegonkortasunak, alienazioak eta ekonomia-mailan izaten diren ziurgabetasunak behar bereziak dituzten ikasle asko eta askoren zailtasunak areagotu egiten dituzte. (9) Herralde guztietan egoera hori desberdina bada ere, kalkulatu da Europako gazte askok —%20tik %40ra— ez dutela lor zezaketen maila lortzen, eta hori, beraz, kezkatzeko arrazoi bat da. Hala ere, Edward Befringek gazteen garapen pertsonalari buruz eginiko azterlanerako ikerketek gazte askok funtsezko balio jakin batzuk nahi dituztela erakusten dute. Befringen arabera, eskolak balio horiek lortzen lagundu behar die nerabeei, eta horrez gain, honako hauek ere ahalbidetu behar ditu: euren sozializazioari buruzko hausnarketa egitea, sexuan eta bikote-bizitzan euren egitekoak kontziente izatea, eta aldatzen ari diren familia-egiturak onartzea. (10) Bigarren hezkuntzak aurrera, ikasleek euren arazoak konpontzeko ahalmena lortu behar dute, beren burua ezagutzearen eta autodiziplinaren bidez. Gizarte-mailako hezkuntzaren bidez euren nortasuna definitzeko eta autonomia-maila jakin bat lortzeko aukera izan behar dute. Pertsonen arteko harreman positiboak sortu behar ditu eta, aldi berean, norbere aberastasun eta gogobetetze maila jakin bat lortu behar du gazteak.

Hezkuntza pertsonalak pertsona orekatu baten garapena dakar berekin; norik bere gaitasunak eta nolakotasunak aprobeztatzeko modua ikastearekin eta bizitzaz gozatzearekin lotuta dago; helburu horiek ikasketa-plan guztian daude barne hartuta (Ikus 8. irudia). Beste hainbat alderdi, gizabanakoak gizarte antolatuan duen parte-hartzea, esaterako, herritartasunari edo hezkuntza politikoari buruzko atalean garatuta daude, aurrerago. Zailtasun partikularrak edo bereziki pertsonalnak ezin dira ikasgelan edo taldean landu; hala ere, esperientzia komunak hainbat arlo eskolan landu beharrekoak dira. Hezkuntza-sistema askok erlijio-hezkuntza barne hartuta ez badute ere (gai hori ez dugu hemen eztabaidatuko), hainbat arazo moral edo etikoren aurrean, gazteek beren parekoekin eztabaidatzeko beharra sentitzen dute, eliza kristaukoak, beste fede batekoak edo federik gabeak izan ala ez: heriotzaren ondoko bizitza, bizitzaren zentzua, patua eta Jainkoaren esku-hartzea, gerraren zein bakearen etika, desarmaea, bakezaletasuna, jaiotza-kontrola, eutanasia, mediku-gaiak —klonazioa edo *in vitro* ernalkuntza, esaterako—, norbere arazoei aurre egiteko modua —depresioa, atsekabea, bihozmina eta arbuioa— dira horietako batzuk. Gizabanakoaren garapenean eta heltze normalean eragina duten beste alderdi askok, ordea, harreman pertsonalekin eta etikarekin estaltzen dira. Horietako batzuk segurtasunari buruzkoak dira (autodefentsa, trafikoa, lehen laguntzak), beste batzuk negozio zein industriarekiko sentsibilizazioari buruzkoak, eta osasunare-

8. irudia Bizitzarako prestakuntza Europan



kin zerikusia duten alderdiak ere badira (drogak, adikzioak, HIESa, abortua, pubertaroko arazoak). Gero eta zabaldugodago sasoi onean egotearen, kirolen eta osasunaren garrantzia: «beharrezkoak dira ongizate-estaturako [eta lagungarriak dira] nork bere burua ezagutzeko eta [...] oro har, hezkuntza-prozesurako». Ildo horretatik, Europako Kontseiluak «euro-sasoi betean» test-sorta bat egiteko gomendatu du Europako 6 eta 18 urte bitarteko ikasleen egoera fisikoa ebaluatzeko. (11)

Garapena emozio-mailan aberastearen baitan ere badago, eta arlo horretan ere eskoletan gero eta onartuago dago haiek ere badutela erantzukizuna gazteak kultur bizitzarako prestatzeari dagokionez. Europar ondareari buruzko gaia 5. kapituluari jorratu bazen ere, merezi du funtsezko puntu bat berriro azaltzea: arte dramatikoak eta sortzaileak ez dira luxua,

ez dira elite batentzat bakarrik. Aitzitik, eskola-programetan txertatu behar dira, gazteek etorkizunean kultur jardueretan parte hartzeko aukera prestatzeko. Hori dela-eta, beharrezkoa da Europar hezkuntza estetikorako politika integral bat izatea, gure zibilizazioaren kultura eta ingurunea gordetzeko ez ezik, norbere errealizaziorako aukera osoa zabaltzeko eta ikasleen zentzumen eta gaitasun estetikoaren garapenean ere laguntzeko.

Ondorioz, garapen pertsonala ikasketa-plan ofizialaren zein ezkutukoarenaren baitan dago. Mundu ideal batean, hezkuntza pertsonala eta gizarte-mailakoa ikasle bakoitzaren adinera eta beharretara egokitu litzateke, artatsuki egokitu ere, baina errealitatean lor genezakeen gauza bakarra ikaskuntza talde txikietan egitea eta irakaskuntza ikasleen garapen-mailarekin bat etortzea da. Duela bi hamarkada baino gehiago, Europako Kontseiluak Solna-n Nerabeentzako Gizarte-mailako Hezkuntzari buruz eginiko Sinposioan, Gizarte-mailako Hezkuntzaren helburuei, metodoei zein edukiei, eta horiek aplikatu beharreko moduari buruzko gomendio erabilgarriak argitaratu zituen. (12) Gomendio horietako askok indarrean jarraitzen dute gaur egun. Han erabaki zuten metodo didaktikoak kaltegarriak direla, eta horien ordez, beharrezkoak direla sozializazio-prozesuan aurrera egitea ahalbidetzen duten ikasleen parte-hartzea, kontsultak eta lan-metodoak, hala nola taldeetako lanak, simulazioak, soziodrama, rol-jokoak, proiektuak eta eztabaidak. Gizarte-mailako trebetasunak eta portaerak ez dira halabeharrez garatzen; etengabe indartu behar dira. Trebetasun horien artean honako hauek daude: argitasunez adierazteko gaitasuna, modu analitikoan pentsatzea, logika erabiliz argumentatzea, judizio arrazionalak egitea, baliabideak zorrotztasunez erabiltzea, arauak modu arrazoituaren aldatzeko aukera onartzea edo aldatzen saiatzea, hainbat gairi buruzko iritzia defendatzea, betiere besteen iritzia errespetatuz, besteekin modu zabalean eta konstruktiboan elkarlanean aritzea eta desadostasuna adieraztea, parte-hartzea eta eskuordetzea, zuhurtzia erakustea segurtasun-arauak betez, eta bizimodu osasungarria izatea.

Gizarte-mailako Hezkuntzan diharduten irakasle gehienek uste dute bananako diziplinetan eginiko irakaskuntza ikaskuntza esperientzial eta zeharkako osatu behar dela; horrez gain, funtsezkoa dela «bazerteruriko» gazteak —hala nola minusbaliotasunak dituztenak edo iritsi berriak— gizarteratzea, haur bakoitzaren balioa sustatzea, haren arrakasta-maila edozein izanik ere, eta eskola, etxea eta herri-mailako komunitatearen arteko loturen gainean eraikitzea. Europako Kontseiluaren politikak azpimarratzen dute gazteek berek bizi behar dituztela arazo konponketa, erabakiak hartzea, lehen-tasunak planifikatzea eta ezartzea, kudeaketa eta sorkuntza. Esperientzia horiek beti ikasgelan lortzen ez direnez, eskolak kanpoko kontaktu eta lotura sorta zabala ezartzera bultzatzen dituzte, ikasleek gizarte-mailako ikaskuntzarako dituzten aukerak areagotzeko.

Gazteak lan-bizitzarako prestatzeko ere funtsezkoak dira kanpoko kontaktuak. Europako Kontseiluko adituek «Bizitzarako Prestakuntza» proiektuan aztertu dituzten gazte-esperientziako bost arloetako bat lan-mundurako prestakuntza izan zen. Yves Deforge-k koordinatu zuen ikerketa, eta gazteak derrigorrezko eskolaratzearen aurretik eta ondoren prestatzeko europar sistemen atal adierazgarrian, ondorengo garapen asko aurreratu zituen. (13) Nazio guztietan dituzten xedapenak oso desberdinak badira ere, eta gazteen artean langabezia-maila oso altua izan arren, azken urteetan industriak eta negozioek lan-bizitzarako prestakuntzaren zati gisa duten garrantziarekiko jarrera positiboagoak izan dira. Europako Kontseiluko Ministroen Batzordearen gomendio batek ezarri zuen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gazteek «lan-bizitzari buruzko ikuspegi osoa» jaso behar dutela —lanaren nondik norakoari eta lan-moduei buruzko ikasketa teorikoak barne—, bai eta lan-esperientziarako aukerak ere, baina prestakuntza espezializatua —teknikoa edo bokaziozkoa— egiteko ez dela murriztu behar ezagutzen zabalatasuna. (14) Gomendio horri jarraiki, irakasleen eta industriaren ordezkarien arteko loturak sendotu egin ziren, beka eta lan-programa gehiago eman zizkieten ikasleei, eta trukea egiteko aukera gehiago irakasleei. Horrez gain, eskolen eta industriaren arteko lotura-batzordeak sortu ziren. Eskolek ere ahalegin handia egin dute industriak behar dituen trebetasun praktikoa zein teknikoetan, eta komunikazioaren zein informazioaren teknologiarik hizkuntza-gaitasunari loturiko trebetasun kognitiboetan prestatzeko emateko. Horren emaitzetako bat da hezkuntza tekniko eta profesionalak estatus-maila altuagoa duela, diziplina akademiko tradizionalarekin alderatuta. Hala ere, maila altuko gaitasun teknologikoak dituzten ikasleak sortzeko dagoen presio ekonomikoa ikusita, derrigorrezko hezkuntzak ezagutza, jarrera eta trebetasun tradizionalak landu behar ditu bereziki, bizitza-trebetasunaren baitako balio humanisten kaltetan

eredu utilitarioegia eta funtzionalgia bihurtzea saihesteko. (15) Horrela, hezkuntza pertsonal eta gizarte-mailakoari heldu zaie berriro gazteak langile malgu eta arduratsuak bihurtzeko.

Hala ere, Europan ez dago hezkuntza pertsonal eta gizarte-mailakoaren eredu komun bat. Badirudi tokian tokiko tradizioek eta presio-taldeek zein Elizaren eta Estatuaren botereek praktikan eragin handia izan dezaketela. Herrialde katolikoen eta komunitate musulmanetan, askok sentitzen dute erlijio-hezkuntza berariazkoa dela eta ezin dela negoziatu, eragin handia baitu norbere aukeraketan eta jokabidean (ezaugarriok funtsezkoak dira garapen pertsonalean). Aldi berean, 16-18 urte bitarteko gazteekin lan interesgarria egin da: aspaldi etsai amorratuak ziren komunitateetako adin horietako gazte-taldeak elkartu egin dira. Horrek garapen pertsonalean eta gizarte-mailakoan argi egiten lagundu du. (16) Dena den, oro har, ikasketa-plan konbentzionalari eta Humanitate-irakasleei euren programetan gizarte-mailako elementuak txertatzeko aukera ematen zaie. Sexua, abortua, ezkontza, amatasuna zein aitatasuna, higieña, osasuna, familia-ekonomiaren kudeaketa, herritarrak eta giza eskubideak, komunikabideak eta legeak ulertzea, eta antzeko gaiak irakasgai-andanatan jorratzen dira: Erlijio Hezkuntza, Etxeko Ekonomia, Biologia, Gizarte-mailako Ikasketak, Ekonomia Ikasketak, Filosofia, Gizalege Hezkuntza, Historia eta Gorputz Hezkuntza. Dena den, irakasgai berriak ere garatu dira —Osasunerako Hezkuntza, Sexu Hezkuntza, Kontsumorako Hezkuntza, Komunikabideen Azterketa, eta Hezkuntza Pertsonal eta Gizarte-mailakoa—. Horiez gain, zenbait herrialdetan lan eta ikasketa aholkularitza ere ezarri da. Zenbait herrialdetan, gizarte-gai guztiak diziplina arteko ikastaroen bidez jorratzen dira. Portugalen egin zen ikasketa-planen aldaketaren ondorioz, gizarte-gaiak osotasunean jorratzen dira (giza eskubideak, besteak beste). Hori zenbait herrialdetan egiten da. Eskoziako hezkuntza-sistemak (Ingalaterrakoarekin alderatuta, nahiko desberdina da) Gizarte-mailako Ikasketa Garaikideei buruzko diziplina arteko ikastaro bat garatu du; Flandesen *Sociale Vorming* propioa dute, Walonian *Cours d'histoire et de formation sociale* dute, Frantzia eta Luxenburgon *Instruction civique* dute, Norvegian, *Samfunnskunnskap*; Alemanian, *Sozialkunde* edo *Sozialwissenschaften* eta *Politische Bildung und Gemeinschaftskunde* (ikus 9. irudia).

Ikastaro horiek emateko moduari dagokionez, sexuen arteko bereizketarik egin behar ez den arren, horietako batzuen edukiak ondorioak ditu «eginkizun femeninoarako» eta nesken garapen pertsonalerako. Tradizioa, Europan «lan produktiboa gizarte-ehunari eusten dion lan humanitarioa baino gehiago baloratzen da». Eskoletako sexu-estereotipoei buruzko CDCren mintegi batean zera onartu zen: «sexuen arteko berdintasuna gauzatu nahi bada, gizonek beste pertsonak zaintzeko lana konpartitu behar dute. Gizonen lanbide-karrieren azpian dauden banakako lorpenaren balioei aurre egin behar zaie —benetako sexu-berdintasunerako gure bizimoduan aldaketa garrantzitsuak egin behar ditugu—». (17)

Genero-berdintasunari buruzko jarreretan aldaketa izugarriak izan dira Europan azken bi hamarkadetan. Aldi berean, gobernuak eta industria zein merkataritza enpresa batzuek neurri praktikokoak hartu zituzten emakumeak, ekonomiari dagokionez, biztanleria aktiboaren barruan izateko, gaikuntza-programen, amatasun edo aitatasun baimenen bidez, hartzaindegi gehiago eginez, eta batez ere, aukera-berdintasuneko benetako politika baten bidez, ezer praktikorik egin ez eta ideal hutsa txalotzearen orde. Prestakuntza akademiko eta lanbide-prestakuntza sendoa zuten seme-alabarik gabeko emakumeek lortu zuten berdintasuna. Edozein arrazoi dela-eta hezkuntza mugatua zuten emakumeen edo haurrak izatea erabaki zutenen berdintasunerako oraindik ere bide luzea egin behar da. Sexuen arteko aukera-desberdintasuna sehaskan bertan hasten da, baina derrigorrezko hezkuntzaren bukaera aldera sendotzen da. «Bizitzarako prestakuntza» proiektuaren ondorioetan azpimarratu zen nesken hezkuntza orokorra gehiago hedatu behar dela mutilekiko aukera-berdintasuna lortzeko. Europar Batasuneko Hezkuntza Ministroen Kontseiluak antzeko kezka azaldu du eta hezkuntzan aukera-berdintasuna lortzeari buruzko ekintza-programa baterako erabaki bat hartu du. Aurrerapena estatu kide bakoitzaren eta sexu femeninoaren aurkako diskriminazioak etengabe kentzearen baitan dago. Gaur egun etorkinen kultura eta tradizio batzuek Europako hainbat zonaldeetan zaildu egiten dute neskek euren gaitasunak gauzatzea edo euren nortasunak etxetik kanpo harreman positiboak sortzearen bidez garatzea. Demokraziarako beharrezkoa da neskek hori lortzea. Era berean, beharrezkoa da gutxiengo etnikoen, errefuxiatuen, minusbaliotasunak dituztenen eta Europako zonalde pobreenetako gazteen beharrei arreta handiagoa ematea. Ondoren behar horiek betetzeko kultura arteko hezkuntzaren esparruan egindakoa ebaluatuko dugu.

## 9. irudia Hezkuntza pertsonala eta soziala: bigarren hezkuntzako 1-5 urte bitarterako iradokitako gaien laburpena

1. urtea	3. urtea	5. urtea
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskolara iritsi berria</li> <li>• Aurreranzko begirada</li> <li>• Lagun berriak egitea</li> <li>• Zure familia</li> <li>• Portaera eta ardurak</li> <li>• Arazoei heltzen ikastea: borrokak, larderia, zure konturako bixteak, portaera antisozialak</li> <li>• Autokontrola</li> <li>• Pertsonen arteko desberdintasunak</li> <li>• Norbere irudia eta garbitasuna</li> <li>• Ibxura-aldaketak</li> <li>• Sentimenduak eta umoreak</li> <li>• Zaltetanunak, aisialdia eta maskotak</li> <li>• Ordenagailuak eta jokoak</li> <li>• Ohtura onak sortzea</li> <li>• Proiektuak eta liburutegiak erabiltzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabezaroko interesak eta kezak</li> <li>• Harreman pertsonalak</li> <li>• Autosufizientzia, autokontrola</li> <li>• Erabakiak hartzea</li> <li>• Ikasketa-trebetasunen prestakuntza</li> <li>• Adikzioak: alkohola</li> <li>• Lehen laguntzak</li> <li>• Aukera-berdintasuna</li> <li>• Komunikabideetako irudiak</li> <li>• Arazakeria</li> <li>• Erlijio-sinesmenak: musulmanak, hinduistak, budistak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Industriaren ezagutzia</li> <li>• Lanetarako prestatzea eta lana eskatzea edo karrera bat planifikatzea</li> <li>• Beste sexukoekiko harreman pertsonalak</li> <li>• Sexu bidez transmititutako gaixotasunak</li> <li>• Segurtasuna et autodefentsa</li> <li>• Zure bizitza eta nola egin aurre honako arazo hauei: bihozmina, atsekabea, arbuioa edo depresioa</li> <li>• Zure bizitza eta zure fedea: ba al da jainkorik eta heriotza ondorengo bizitzarak?</li> <li>• Sinesmen sekularrak: komunismoa, sozialismoa, kapitalismoa</li> <li>• Bakearen etika, bakezaletasuna eta desamea</li> <li>• Gubernu-egiturak: lokala eta nazio-mailakoa</li> <li>• Alderdi-politika eta botorako duzun eskubidea baliatzea</li> <li>• Legea eta auzitegiak</li> <li>• Europako jokalekua: batasuna eta dibertsitatea; aldatetaren boterea, 1945-2003</li> <li>• Europar Batasuna: zer den zuretzat</li> <li>• Europar batasuna XXI. Mendean</li> </ul>
2. urtea	4. urtea	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kanpoko lagunak eta familia-harremanak</li> <li>• Jendea eta estereotipoak</li> <li>• Zure gorputza zaintzea</li> <li>• Tentazioak eta adikzioak: tabakoa, makina txanponjaleak</li> <li>• Segurtasuna eta lehen laguntzak</li> <li>• Aukera-berdintasuna</li> <li>• Jokabide-kodeak</li> <li>• Publizitatea eta irudiak</li> <li>• Trebetasunen prestakuntza: ikastea, etxerako lanak, azterketak</li> <li>• Ordenagailuak eta teknologia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bi asteko lan-esperientzia</li> <li>• Familia, etxeko harremanak</li> <li>• Familia-ardura</li> <li>• Beste sexuko lagunak</li> <li>• Intziak eta jarrerak</li> <li>• Adikzioak: drogak</li> <li>• Osasuna eta egoera fisikoa</li> <li>• Industriari eta negozioei buruzko ezagutzak</li> <li>• Oinarrizko finantza-kudeaketa</li> <li>• Eliza kristauak eta beste erlijio batzuk: judaismoa</li> <li>• Delituak eta zigorrak, legea eta polizia</li> </ul>	

## GIZARTE DEMOKRATIKO BATERAKO AURRETIK BETE BEHARREKO BALDINTZAK: KULTURA ARTEKO HEZKUNTZA

Ezaugarri nagusia dibertsitatea duen kontinente batean, gazteek zabalik dituzten aukerak baldintza ditzake elementu geografiko batek. Baltikoaren eta Mediterraneoaren artean, edo barneko Europaren eta itsas Europaren artean dauden desberdintasunetaz gain, Espainian, Italian, Grezian, Belgikan eta Erresuma Batuan eskualde-aniztasuna nabarmena da. Desberdintasun horiek etnikoak, ekonomikoak edo erlijio-mailakoak (Ipar Irlandaren kasuan, esate baterako) izan daitezke, edo politika, kultur eta hizkuntz banaketa (adibidez, katalanaren eta gaztelaniaren artekoa) gisa gauza daitezke. Bizitzarako prestakuntza, beraz, aniztasunerako prestakuntza da. Gainera, gizarte demokratiko batean honako hau funtsezko printzipioa da: desberdintasunak ez du diskriminaziorik sortu behar; hezkuntzak denontzat irekita egon behar du, eta haur guztiak modu autonomoan eta berdintasunez tratatu behar dira, beren kolorea, arraza edo sinesmena edozein izanik ere. Etorkinen, errefuxiatuen eta gutxiengoen seme-alabak ez dira arau horren salbuespena.

Aurreko kapituluan etorkinen seme-alaben hizkuntza eta komunikazio beharrak landu dira, eta zalantzarik gabe, gobernu-ek kultur aniztasunarekiko nolako konpromisoa duten ikusteko balio dute gobernuen hizkuntz politikek. Atal horretan garrantzitsuagoak dira kultur anitzeko gizarte baten inplikazio soziokultural zabalagoak. Etorkinen eta beste gutxiengo batzuen kultur eta hezkuntza garapenerako CDCCk duen programak (azken urteetan nabarmen azpimarratu du mende-baldeko eta erdiko Europako ijitoen gaia) garbi erakutsi du talde horiek ez direla Europara iritsi den arazotzat hartu behar. Aldiz, europar ekonomiaren industria eta zerbitzuetako sektoreetarako onuragarriak izango diren gizarte-mailako aktiboak eta kultur aberastasunaren iturri dira. Onartu beharra dago, «Europak merkatu globalarekin lehian aritu ahal izateko, bertako herritarrek *kultura arteko trebetasun [...] konplexuak [...] beharko dituztela*». (18) Hala ere, beste kontinenteetatik etorritakoen migrazioak horiek hartu dituzten gizarteen eta etorkinen artean alde batera utzi ezin daitezkeen kultur di-kotomiak sortu ditu. Gaur egun, bigarren edo hirugarren belaunaldiko etorkinen kultura, batez ere nerabeena, ez da iritsi berrien kultura, ez eta hartu dituen herrialdearen kultura ere. Aztertzen ari garen «etorkinen kultura» aldatu egiten da jatorri etnikoaren, hartu dituzten herrialdearen tradizioen eta gaur egun dituzten bizi-baldintzen arabera (hiri-ghetto moduko guneetan, edo hainbat eskualdetan sakabanatuta). Egoera lagungarria izan daiteke bigarren eta hirugarren belaunaldiko nerabeentzat, horiek kultura nagusia errazago bereganatzeko; edo baliteke horiek beren indarra azpikultura bate-rantz bideratzea, jatorri karibetarreko gazte asko 1980ko eta 1990eko hamarkadetan Erresuma Batuan rastafarismora aldatu ziren bezalaxe. Dena den, zenbait begirale ohartu dira kultura anitzeko gizarteetan, kultura nagusiek gutxienean kulturen funtsezko ezaugarriak deuseztatzen dituztela. Aditu independente baten arabera, indarren korrelazioa hain da garrantzitsua, gutxiengoen ezaugarriek eremu gutxi batzuetan bakarrik bizirauten dutela aldatu gabe (aisialdiaren erabilera, kontsumo-ohiturak eta arropa). (19)

Gutxiengoak mehatxatuta sentitzen diren egoeretan, euren balioak funtsezkotzat jotzen dituzte euren kultur nortasunera-ko, hau da, familia-bizitza, ahaidetasun-ereduak, genero-eginkizunak, tradizioak eta aukerak. Komunikatzeko izandako gi-zarte eta ekonomia mailako presioek asimilazio kontzeptua sorrarazi dute; adibidez, Erresuma Batuan ingelesak presio handia egiten du denak «gutako bat» bihurtzeko. Dena den, irtenbide gisa asimilazioa proposatzeak gero eta aldeko gu-txiago ditu, eta Europako Kontseilua horren aurka agertu da. (20) Izan ere, kontrapresio handiak daude asimilazioaren aurka eta bereizketaren alde (azken batean *apartheid* modu bat da). Hori garbi ikusten da ghetto moduko auzuneetan, eskola bereziak izateko eskaeretan. Hezkuntza berezia nahi izatea, dagoeneko erlijio-talde zuriek badutena, «geurera bil-tzeko eskubidearen» hedapen logikoa da, erlijio-hezkuntza gehien bat kristaua den herrialde horretan. Bereizketak, ordea, zera dakar ordainetan: ezin da ukatu European kultura arteko gatazkak izan direnik, arropari dagokionez, esate ba-terako, edo arrazakeria, antisemitismoa eta «biraoa» adierazpen-askatasunaren, eta bizitza-eskubidearen (Salman Rush-die-ren kasuan) aurrean jarri izana direla-eta sentimenduak piztu egin direnik. Beraz, asimilazioa eta bereizketa irtenbide antitetikoak izanik, hirugarren irtenbide bat proposa daiteke: talde etnikoak eta kulturak nahastea —*métissage*— kultur arauen bereizketarik eza edo «hibridazioa» lortzeko. Hala ere, hori pixkanakako prozesutzat hartu behar da. (21) Nazio-arteko erakundeen adostasunak indartuta, kultur aniztasunerako irtenbide arrazional eta humanitarioa lortzeko Europak *askotariko integrazio*rako bideari eutsi behar dio, elkar ulertzeko hezkuntzaren bidez. Politika horrek «kultur mosaiko» bat babestea eta talde bakoitzaren kultur nortasunari eustea du helburu, berdintasuneko elkartzearen bidez. (22) Kultur aniz-tasunak eta gizareratzeak tolerantzia, inpartzialtasuna eta elkarrekiko errespetua eskatzen du. Kultura arteko hezkuntza-ren kontzeptu demokratikoak berezkoak ditu balio horiek. Hau da, hain zuzen ere, Europako Kontseiluak aurreko hamar-kadaren hasieratik duen politika. (23)

Zeintzuk dira kultura arteko ikuspegi bat kulturantzeko eskola batean gauzatzeko irizpideak? Europako Kontseiluko eta Europar Batasuneko espezialistek hainbat lehenetsun ezarri dute. Lehenik eta behin, hizkuntza modernoek buruzko poli-tika konstruktiboa egin behar da. (24) Bigarrenik, ikasketa-planak dibertsitatearen kontzeptua modu positiboan islatu be-har du. Britainiar hezitzaile baten esanetan, «horrek esan nahi du lan egin behar dugula ikasle guztiak hobeto jabetzeko Europa modernoan dugun dibertsitate etnikoaz, pertsona bakoitzaren berezko balioa gehiago balioesteko, eta informazio gehiago izateko europar gizartearen beraren jatorri anitzari buruz». (25) Beharrezkoa izan liteke (adibidez, Historian, Ge-ografian, Musikan edo Gorputz Hezkuntzan) bereziki lantzea kulturantzeko ikasgela batean dauden kultur nortasun guz-

tiak aztertze bidea ematen duten gaiak edo eskemak. Hala izanez gero, errazagoa izaten da desberdintasunak onartzea eta konturatzea dibertsitatea elkarrenganako onura-iturri izan daitekeela. Irakasle musulmanen autoestimua kontuan izanik, irakasle batzuek Europako Kontseiluaren mintegietan presioa egin dute zibilizazio islamiarrak izan dituen lorpenak Historiako, Geografiako, bai eta Arte, Zientziak eta Matematikako ikasketa-plan orokorrean txertatzeko. (26) Dena den, inoiz ez da erraza izaten jarrerak aldatzea edo estereotipoak erauztea. Horretarako esperimendu irudimentsuak egin behar dira, bidea erakusteko Amsterdamen eginiko *Tropenmuseum Junior* izeneko esperientzia, esate baterako. Herbehereetako gizartea kulturantz denez, eta *Tropenmuseumeko* programa sortu zutenek garbi zuten mendebaldeko Europako neska-mutiek kultura desberdina duten beste batzuen bizikide direla, euren programak 10 eta 12 urte bitarteko ikasleak Herbehereetan bizi diren talde guztien historiarekin eta egun dituzten arazoekin ohitzea proposatu zuen. Honako izenburu hau eman zioten programari: «Herbehereetan jende ugari bizi da: turkiarren, surinamdarren, ijitoen eta holandarraren historia». (27) Arrazoiketa horrexek animatu zituen Oihan Beltzeko *hauptschule* bateko irakasleak turkiar biztanleriak Alemanian dituen arazoei zuzenean aurre egitera, diziplina anitzeko «Turkiak bere burua aurkezten du» izeneko proiektuaren bidez. (28) Beste maila batean, egoera horrek Günter Wallraff alemaniar kazetaria ere eraman zuen bi urtez turkoa zelako itxura egitera; ondoren, bere esperientziaren berri eman zuen liburu eta film banatan. (29)

CDCCren politikaren hirugarren printzipioak balioen eta jarreraren garrantzia azpimarratzen du ikaskuntzaren helburuak finantzatzeko. Ikasleak animatu egin behar dira herri guztiek ohitura, fede eta kultur tradizio propioak dituztela onartzera, besteek errespetatu beharrekoak, hain zuzen ere. Alemaniar aditu batek, bere herrialdeari buruz ari zela, zera esan zuen:

(Alemaniako) Haurrak gure tradizioetan eta beste herrialde batzuetako tradizioetan kultur eta erlijio balioek duten garrantziaz ohartaraztea izan behar du lehen helburua. Hemen ikaskuntza eta bizitza elkarrekin egin behar dira. Garrantzitsua da beste jende-mota bat, beste kultur testuinguru bateko jendea ezagutzeko aukerak bilatzea, batez ere gazteak, euren ohiturei buruz diotena entzutea eta haiei euren kultura eta erlijioari buruz hitz egitea. [Irakasleek] Erdi Aroko islamiar kulturak utzi duen ondareaz eta Ekialde Ertaineko kolonien ondorengo egoeraz jabetu behar dute, bai eta lana bilatzeko gaur egungo migrazioen zergatiaz ere. Irakasle atzeritarrek Erdialdeko Europaren historiari buruzko ezagutza hobea izan behar dituzte; eta irakasle musulmanek, Kristautasunaren historia eta doktrinari buruzkoak, ilustrazioari eta Industria Iraultzaren jatorriari buruzkoak. (30)

Idea horiek Berlinen alemaniar eta turkiar komunitateak elkartzeko egin zen *Kreuzberg Project* izeneko proiektuaren atzean zeuden. (31) Betiere berariazko kultur eta historia gaiak egokituta, ideia hori bera aplika liteke geletan etorkin portugaldarrak, marokorak edo aljeriarrak dituzten irakasle frantsesen kasuan edo geletan ikasle asiarrak edo afrokaribearrak dituzten irakasle britainiarren kasuan.

Gainera, gizarteratzearekin loturiko arazoei heltzeko behar adinako malgutasuna izan behar dute eskolek, hala nola dieta bereziak, erlijio-jaiak, edota hainbat gai direla-eta sortzen diren gatazkak: arropa, rolak, hezkidetzak, eta sexu-hezkuntza. Etika islamiarrak gurasoekiko errespetua eta horiek emandako aginduak bete behar izatea, pertsonen arteko harreman adeitsuak, pentsamenduaren eta ekintzen araztasuna eta garbitasuna azpimarratzen ditu, bai eta honako bertute hauek ere: eskuzabaltasuna, zintotasuna, errukia, karitatea, apaltasuna eta kastitatea. Hori tirabira-iturri izan daiteke gaur egungo Europako liberalismo sekularrean. Emakume musulmanentzat bereziki, eskubide eta aukera berdintasuna, eta diskriminazio-ohituren amaiera aldarrikatzea bitxia izan liteke; hala ere, emakume horiei beren oinarritzko giza eskubideak urratuz gero, Europako kulturari integrazteko prozesutik kanpo utziko genituzke bidegabe.

Azkenik, Europako Kontseiluak etorkinen seme-alabei buruz eginiko azterlan batean, Louis Porcher-ek irakasleen prestakuntzak kultura arteko helburuak lortzeko duen garrantzia azpimarratu zuen; (32) eta bereziki azpimarratu zuen hasierako eta etengabeko prestakuntzetan etorkinen kultura ikastea hartu behar dela barne; izan ere, irakasleak ezagutzaren bidez baino ezin dira beste balio batzuekiko tolerantziaren eredu sinesgarri izan. Europako gobernuek euren politikak —modu ulergarri— egokitu dituzte harreman etnikoen testuinguru politikoaren arabera. Porcher ohartu zen gobernu

frantsesak aurrea hartu zuela duela mende laurden bat irakasleen prestakuntzan Etorकिन Seme-alaben Irakaskuntzarako Gaitzeko eta Informatzeko Zentro bereziak (CEFISEM, frantsesez) sortu zituenean. Irakasleak Europar Prestatzeko Elkartearen (ATEE, ingelesez) lantaldearen ikasketa-bidaiek berretsi zuten irakasleak gaitzea funtsezkoa dela irakasleengan jarrera positiboak, eta gutxiengo etnikoetako ikasleengan aukera positiboak eraikitzeko. (33) Beraz, irakasleek gutxiengo etnikoei buruz gutxiegi badakite edo haien jarrerak egokiak ez badira, beharrezkoa izango da irakasleak gehiago eta hobeto prestatzea. ATEEk, Europar Batasunak lagunduta, «beharrak aztertzeko tresna bat» garatzeko ikerketa-proiektu bati ekin zion. Horretarako, irakasleek profesional gisa kultura arteko hezkuntzaren kontzeptuari buruz eta hori gauzatzeari buruz dituzten iritziak hartu zituen kontuan. (34) Lau herrialdetako adituek —Frantzia, Alemania, Herbehereak eta Erre-  
suma Batua— hartu zuten parte azterlan horretan.

Kultura artekotasanak iritsi berri diren etorkinen edo bigarren belaunaldiko etorkinen komunitateekiko ardura hutsa baino askoz ere gehiago hartzen du barne. Izan ere, iraganean bazterkerian luze izandako gutxiengo historikoen —ijitoak eta laponiarak, esaterako— hezkuntzarako beharrezkoa izan da xedapen berriak ezartzea. (35) 1999tik gaur egun arte Europako Ekialdetik Mendebalderantz izandako migrazio-lekualdatzeak, batez ere Alemanian, gizarte-mailako dimentsio berri bat sortu du. Ondorioz, ezin dira atzeratu kultura arteko ezagutzarako hezkuntza-politikak. Finlandian eta Suedian beste kulturekiko ezagutzak eta sentsibilizazioak sendotzeko programa bereziak dituzte; programa horiek hezkuntza material eta baliabide egokiak izatearen garrantzia erakusten dute. Irakasleek eginiko hainbat mintegitan, azpimarratu dute haur errefuxiatuentzat ACNURek eginiko ikas materiala kalitate handikoa dela, «irudi sentikor eta positiboak» ematen duen materiala dela. (36) Eskandinaviako, Greziako, Alemaniako eta hainbat herrialdetako adituek enpatia sustatzeko, partzialtasunak identifikatzeko, eta taldeen artean edo banakako ikasleek dituzten aurreiritziak ebaluatzeko baliabideak aurkeztu dituzte. Maila zabalago batean, «nazionalitate bakarraren» printzipiotik «nazionalitate multipleko» beste baterako aldaketa Europar gizarte-mailako harmonizazio handiagora lortzeko urratsa dela esan daiteke. (37)

Kultura arteko hezkuntzak, hezkuntza pertsonalak bezalaxe, sozializazio-esperientzia izan behar du. CDCRen hezkuntza pertsonalari buruzko politiken axioma beraren baitan dago, hau da, Europako gizartearen etorkizuna bertan parte hartzen duten guztiak giza balioak, demokrazia eta giza eskubideak onartu, zaindu eta sustatzeko duten ahalmenaren eta borondatearen baitan dago.

## GIZA ESKUBIDEEI, DEMOKRAZIARI ETA KOMUNIKABIDEEI BURUZKO HEZKUNTZA

Europako gizartean futbolaren inguruko bandalismoak, terrorismoak, eta drogekin zein sexuaren industriarekin zerikusia duten krimenak gero eta gehiago izateak, hau da, Europako gizartean dagoen indarkeriak, gizabanakoen giza eskubideak zein hauskorrak diren azpimarratzen du. Eskubideen urraketak izan duen hazkundeak giza eskubideei buruzko hezkuntzak duen garrantzia eta nazioarteko ekintzaren beharra erakutsi du. Bere kezka agertzeko, Europako Kontseiluak Europako Gaietarako Kontseilu Kuakeroari eskatu zion portaera ez-biolentoen eta eskoletako lankidetzaren hezkuntzari buruzko azterlan bat egiteko. Era berean, Estrasburgoko Giza Eskubideen Nazioarteko Institutuak irakasleen prestakuntzarako duen programari babesa eman zion. (38)

Giza eskubideen kontzeptua Europako historian, Ipar Amerikako Independentzia Deklarazioan (1776) eta Frantziako Iraultzaren hasieran egin zen Giza Eskubideen eta Herritarren Eskubideen Deklarazioan (1789) errota dago. Europako ikasleek ondo jabetu behar dute testuinguru historiko horretaz. Askatasunak, ordea, denbora eta espazio testuinguru zabala du, eta aurreko mendearen lehen erdian izan ziren asaldaketa jendetsuak ez dira inoiz ahaztu behar. Eskola-garaia bukatutakoan, ikasleek ondo ezagutu behar dituzte balia ditzaketan giza eskubideak eta askatasunak definitzen dituzten legezko tresnak. (39)



Askatasun zibil eta politiko garaikidearen bi zutabeak Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala —Nazio Batuek 1948an onarturikoa—, eta Giza Eskubideak eta Funtsezko Askatasunak Babesteko Europar Konbentzioa —1950ean onarturikoa— dira. Hirugarren zutabe bat, oraindik ere erabat garatu gabe dagoena, Funtsezko Eskubideen Gutuna izango da. Nizako Europako Kontseiluak 2000. urtean onartu bazuen ere, legez gauzatzeko Europaren Etorkezunari buruzko Konbentzioaren emaitzak behar dira. Herritarren gizarte eta ekonomia mailako eskubideak 1961eko Europako Gutun Sozialean, eta 1992an indarrean jarri zen Europar Batasuneko Langileen Eskubideei buruzko Gutun Sozialesan bilduta daude, bai eta agian —batek daki!— 1989ko uztailean Gorbatxev presidentek Europako Kontseiluaren Parlamentu Batzarrean emandako hitzaldian aipatutako «Europako lege-esparruko» erakundeetan ere. Lehenengo biek pertsona bakoitzak legearen aurrean duen kalitatea eta duintasuna deklaritzen dute, bai eta giza eskubideak defendatzeko eta bizitzari, askatasunari, segurtasunari, justiziarri eta intimitateari dagokienez pertsonen euren eskubide unibertsalei buruzko informazioa emateko demokrazia politiko eraginkorraren beharra ere. Halaber, askatasun nagusiak ezartzen dituzte —gizarte zuzen batek berezkoak ditu—, torturaren, esklabotzaren, atzeraeraginezko zigor-zuzenbidearen, kanporatzea edo eskubideen inguruko diskriminazioaren aurrean. Europako Konbentzioak kide diren estatu guztietako herritarren eskubideak babesten ditu. Estatu horiek guztiek berretsi dute konbentzioa. Bi erakunderen bidez jardun du: Europako Batzordea eta Giza Eskubideen Europako Auzitegia. Europako Kontseiluko kide diren estatuen kopurua handitu egin denez, Kontseiluaren eskumenek gero eta europar gazte gehiago hartzen dituzte eraginpean. Gazte horiek guztiak izan behar dute Konbentzioaren lan egiteko moduaren berri, euren eskubide naturala baita.

UNESCOk, Amnesty International-ek, eta Europako Kontseiluak irakasleei informazioa eta aholkua emateko eginiko lan-kidetzahaleginari esker, aurrerapauso handiak egin dira azken urteetan giza eskubideei buruzko hezkuntzaren arloan. UNESCOren argitalpenak —*Giza Eskubideak: Galderak eta Erantzunak, eta Nazioartean Elkar Ulertzeko, Bakerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza*, besteak beste— oso garrantzitsutzat jo dira; Eskola Elkartuen Proiektuak (ASPRO, ingelesez), berriz, giza eskubideak ditu aztergai nagusietako bat. (40) Europako Kontseiluak giza eskubideei buruzko hezkuntzaren gainean duen programaren lehen faseak beste ekimen batzuekin bat egin zuen, hala nola Gizarte-mailako Ikerketetarako Ipar Amerikako Kontseiluarekin, Geneva Proiektuarekin, edo, Erresuma Batuko Nazioartean Elkar Ulertzeko Jordanhill Proiektuarekin. (41) Ekintza horiek oso lagungarriak izan ziren giza eskubideei buruzko hezkuntzaren metodologia argitzeko eta zehaztasun intelektualik ezaren kritika gainditzeko.

Europako Kontseiluko Ministroen Batzordearen Gomendioek adierazten dute kurtsoen planifikazioak helburu kognitiboak eta afektiboak izan behar dituela. (42) Gazteek gertakizun erabakigarriak, funtsezko testuei, erakundeei eta legeko kasuei buruzko ezagutza batzuk izan behar dituzte eta giza eskubideei elkarturiko kontzeptuak ulertu behar dituzte: dauden kategoriak, hala nola naturalak, giza eskubideak, herritarrenak, politikoak, ekonomikoak, ongizatekoak, gutxiengoenak, etab. Horiekin zerikusia duten prozedurazko balioak ere ulertu behar dituzte: justizia, tolerantzia, berdintasuna, diskriminazioa, autodeterminazioa, genozidioa, zapalkuntza, etab. Ahal den lekuetan, gizabanakoen kasuak aztertzearen bidez (ekintzaileak, Andrei Sajarov, esaterako, edo azken hariraino sufritu zutenen kasuak, Ana Frank edo Dietrich Bonhoeffer, adibidez), eta beste gai batzuen bidez, hala nola Lehen Mundu Gerran kontzientzia-presoei emandako trataera, testu eta kontzeptu abstraktuei bizia eman eta ikasleei tratu zuzenaren eta behar den prozesuaren garrantzia erakusteko aukera dago. Eskubideak, eta eskubideak urratzeak giza eskubideei buruzko hezkuntzaren zati bat dira oraindik ere, baina ikasketzaren arlo afektiboa garatzea enpatiarekin, simulazioaren eta rol-jokoen menpe dago. Gazte askorentzat azken bi hamarkadetan funtsezko garrantzia izan dute giza eskubideei buruzko gaiak, askotan ikusi baitute honako faktore hauek pertsona askoren askatasunak arriskuan jartzen dituztela: burokraten eta teknokraten erabakiek, estatu-segurtasunez matorroturiko estatu-kontrolak, teknologiak eta komunikabideek herri-erreakzioetan duten eraginak, eta Pinochet eta Milosevic auzipetzeak. 1989an Berlingo Harresia bota izana eta antzeko gertakizunak askatasunari ematen dioten bultzadak erakusten du «giza eskubideak, beste edozein gai bainoago, ezin direla ulertu gogo-berotasunik eta grinarik gabe». (43)

Giza eskubideen urraketak jendearengan eragiten duen sentsibilizazioa hein handi batean komunikabideen eraginari esker lortzen da. Joan den mendeko azken laurdenean izan den beste bilakaera garrantzitsu bat erakusten du horrek, eta

giza eskubideei buruzko hezkuntzak bezalaxe, demokraziaren funtsean du eragina. 1981ean ingeles hiztunez osaturiko irakasle-talde batek komunikabideei buruzko hezkuntza jorratzea proposatu zuen:

Komunikabide publikoen askatasuna da gizarte librearen ezaugarrietako bat. Prentsa libre eta adierazpen-askatasunez diharduten komunikabideak gizarte horretako gizabanakoen herritar-eskubideen adierazle eta gordetzailer dira [...]. Gazteen mass-mediaren kontsumoa gehitzen badugu, ikasketa-planetan Komunikabideei buruzko ikaskuntza txertatzeko arrazoiak eztaba daezinak dira. (44)

Komunikabideei buruzko ikastaro askoren hasierako helburua paternalista zen: telebistaren aurkako antidoto gisa balio izateaz gain, kultur ondarea sustatzea edo sentsibilizazio audiobisuala bultzatzea zuten helburu. Baina Bigarren Mundu Gerra aurretik eta ondoren komunikabideak erabili zituzten modua ikusita, erraz asma zitekeen komunikazio aurreratuek demokrazietan ere informazioa iragazteko eta iritzi publikoa moldatzeko izango zuten ahalmena, informatzeko edo entretenitzeko aitzakiaz. Len Masterman aditua ohartu zen «komunikabideak ez direla mezulari neutralak», eta komunikabideak erabiltzen dituzten publizistak ere ez; beraz, iragarkiak ikustean duten iritzi kritiko berberaz heldu behar diete komunikabideei ikasleek. (45)

1980ko hamarkadaren erdialderako, Europako hainbat herrialdetako ikasketa-planetan —Alemania, Suedia, Suitza, Norvegia, eta Erresuma Batua— txertatua zuten komunikabideen azterketa, baina heltzeko modua ez zen homoginoa. Leku batzuetan, Komunikabideei buruzko Hezkuntza irakasgai berezia zen, beste batzuetan, Gizarte-mailako Ikasketen edo Gizarte eta Bizitarako Trebetasunen zati gisa irakasten zen; leku askotan komunikabideei buruzko ikaskuntza ama-hizkuntzaren linguistika-eskoletan jorratu zen. Frantzia ikuspegi berria erabili zuten. Gurasoak, beste heldu batzuk eta irakasleak lankidetzan aritzen ziren «Gazteak ikusle aktiboak izateko hezkuntza» programan, Bigarren Hezkuntzako ikasle gazteenen kritika-gaitasunak garatzeko, telebista beste kultur eragin batzuekin erlazionatuz. (46) Europako beste herrialde batzuetan, duela hamabost urte ez zegoen ikasketa horietarako xedapen formalik, baina orduz geroztik zenbait estatuk komunikabideei buruzko politikak ezarri dituzte. (47) Ikaskuntza-estilo berriak garatu dira, elkarrizketa eta lan praktikoa bultzatzen dituzten estiloak, hain zuzen. Ikasleek eurek sorturiko produkzioen bidez komunikatzeko aukera izan dute: egunkariak, filmak, fotomuntatzeak, kartelak, elkarrizketak, edizioa eta esperimentazioa. Komunikabideek hezkuntza-prozesu osoa eta jarraitua ahalbidetzen dute, eta, beraz, baita horretan pertsona-kategoria askok parte hartu ahal izatea ere: kazetariak zein ikerlariak, gurasoak, irakasleak eta ikasleak. (48) Prozesu horien emaitza gisa, zenbait irizpide ezarri dira. Lehenengoa komunikabideen «gardentasunik eza» da: errealitatea erakutsi ez ezik, errealitatean eragin nahi dute. Bigarrenik, hainbat alderdiren inguruan, jabegoa, kontrola eta eragina, esaterako, jendeak «presio eta interes gatazka-sare konplexuari» aurre egin behar dio. Bertan ideologia eta erretorika faktore boteretsuak dira eta komunikabideen audientzien eginkizuna gero eta garrantzitsuagoa da. (49) Azkenik, gauzak are gehiago nahasteko, gaur egungo gizartean informazio-uholde izugarria dugu eskuragarri, informazioa bizkor dabil batetik bestera, batez ere, Interneteko iraultzari esker. Komunikabideek ahalmen handia dute jendeak gaurkotatzen albisteak eta gai korapilatsuak modu kritikoa eta informatuan ulertzea sustatzeko. Hau da, komunikabideak funtsezkoak dira demokraziaren funtzionamenduan.

Hala ere, komunikabideak ez ditugu demokraziaren bermatzaile automatikotzat hartu behar. Zentzu handiz esan izan da informazioa «erabiltzen ikasiz gero bakarrik dela baliagarria [...] eta interpretatu edo ulertutakoan, aprobeitzatzeko baliabideak dituztenei bakarrik ematen die boterea». (50) Gizarte demokratikoentzat etengabeko mehatxua dira, Komunikazioari buruzko atalean aipatu zen bezala. (51) Europak ezin du onartu hesi bat eraikitzerik «euren kasa ezagutzen eta ulertzen duten mundu bati buruz hitz egiten duten pertsonen eta euren ideiak hirugarrenek moldatuak eta interpretatuak dituzten pertsonen artean, laburbilduz, komunikabideei dagokienez aberatsen eta pobreen artean». (52) Demokraziak duen etsai gogorrenetako bat demokraziak berak bere bikaintasunean itsuki sinestean datza, bereziki informatikaren aro honetan. Erdi Mailako Hezkuntzan ikasleek ebaluaziorako dituzten trebetasunei, eta partzialtasuna zein desinformazioa atzemateko duten gaitasuna, azken batean, euren gaitasun kritikoa zorrotzeko denbora eta arreta eskaintzeko ardua dute irakasleek.

Hortaz, hiru lehenetasun daude etorkizunerako. Lehendabizi, jendea manipulatzeko erabiltzen diren merkatu-teknikez ohartu behar dute ikasleek. Bigarrenik, Balio demokratikoen mesederako leialtasunez aritu diren informazio publikoko sistemen defentsa premiazkotzat jo behar da. (53) Hirugarrenik, komunikabideei eta giza eskubideei buruzko hezkuntza demokraziarako prestakuntzaren zatitza hartu behar da. Trebetasun aktiboak eta esperientzien ikaskuntza gehiago azpimarratu behar dira. Bigarren Hezkuntzari eta Komunikabideei buruzko Sinposioan zera ondorioztatu zuten:

Komunikabideei buruzko ikasketek agerian uzten dituzte gizarteari, aginteari, balioei eta egari buruzko isileko usteak [...], jarduera horrek ikasleei judizio pertsonal positibo eta autonomoak egiteko baliabideak eman behar dizkie. Gizarte bat sendotu egiten da bere herritarrei eginkizun informatua eta parte-hartzailea izateko behar dituzten ezagutzak, trebetasunak eta baliabideak ematen badizkie. Komunikabideen azterketa egoki batek helburu hori lortzen laguntzen du. (54)

Dena den, halako baieztapenek eragin logikoak dituzte eskolaren izaeran eta antolamenduan, administratzaileentzat eta politikarientzat onartezinak izan litezkeenak. Irakasle batzuen ustez, eskola hierarkizatuen egungo sistemak ikasleen eskubide batzuk ukatzen ditu, eta hori oztopo garrantzitsua da demokrazian hezteko. (55) Ikasleek euren iritziak adierazteko askatasunik ez badute —edo batere jaramonik egiten ez bazaie— giza eskubideei buruzko ikaskuntzak ez du baliorik. Izan ere, eskoletan demokrazia lortzeko eginiko bidean aurrerapausoak eta atzerapausoak egin dira azken bi hamarkadetan. 1980ko hamarkadaren lehen erdiaren atzerakada kontserbadoreak eskola-egiturak liberalizatzea ekarri zuen. Guraso eta irakasle batzuk beldur ziren demokratizazioak ez ote zituen diziplina eta helduen eskubide eta aginte legitimoa urrituko. Hala ere, Europako Kontseiluak balio demokratikoko sistemaren garrantzian sinesten jarraitu zuen: «demokrazia hobeto ikasten da testuinguru demokratiko batean [...], ekitate eta justizia testuinguru batean». (56) Gainera, UNESCOk eta *Europar Klubek* emandako jarraibidea prozesu demokratikoaren aldekoa zen:

Klubek jarduerak demokraziari buruzko ikaskuntza handia ematen dute, betiere ikasleek antolatzeko askatasuna badute eta beren ekimenen erantzukizuna beren gain hartzen badute [...] Klubaren baitan ikasleek adierazteko, arrazonamendu-ahalmena sendotzeko eta komunikatzeko aukera ere izango dute. Besteek esandakoa entzuten, haien iritziak onartzen, desberdintasunak aintzat hartzen eta beren burua aberasten ikasi behar dute. (57)

Duela hamar urte demokrazia-marea batek Europa estali zuenetik, eta kontinente osoaren integrazioa gertu dagoenez, gero eta premiazkoagoa da europar herritartasuna lortzeko hezkuntza bat izatea.

## HEZKUNTZA POLITIKOA ETA HERRITARRAK

Kapitulu honetako arlo guztiek izendatzaile komun bera dute: berekin dakarte Europan bizitzeak herritar aktiboak behar dituela, askotariko gizarte batean. Beren eskubidez gain, gazteek herritar-mailako erantzukizunak dituzte. Bi alderdi horien garrantzia ezagutu behar dute; nola sortu ziren, nola baliatu modu efektiboan, nola hartu parte enpresa-batzordeen, lanbide-organoen edo presio-taldeen erabakietan, eta herri, nazio eta nazioarte mailako botorako eskubidea izateak duen garrantzia. Bigarren hezkuntzako eskola erakunde politiko moduko bat da; izan ere, eskoletan boterea eta agintea baliatzen da: ikasleek bertan gaitasun politikoari buruzko zerbait ikasteko aukera izango dute. Batez ere bi ikasgai ikasi behar ditu gizarte demokratikoari buruz. Lehenik eta behin, demokraziak iritzi-dibertsitatea eta desadostasunak dakartzala berrekin; horiek indarkeriarik erabili gabe eta gizabanakoak edo taldeak desberdintasunerako dituen eskubideak defendatzeko moduan konpondu behar dira. Bigarrenik, ezarriko politika edo printzipioak jasan ordez, demokrazia batean jendeak eztabaidatzeko eta aukeratzeko eskubidea duela.

Herritar-mailako alderdiei buruzko hezkuntza du ezaugarri Europako ikasketa-planak. Hala ere, kontinentean hainbat ikuspegi eta uste daude. Mendebaldeko Europan herritartasunerako hezkuntza-modu tradizionala ikuspegi historikotik egin da: Europako garapen politikoa, konstituzio, lege eta erakundeetan oinarritua, eta filosofia politikoarekin eta nazio-arteko harremanekin osatua. Metodo horrek ikasleak informatzea zuen helburu. 1970eko hamarkadaren erdialdetik aurrera, gizarte-zientzien metodologiaren eraginpean, ikuspegi hori egokitu eta aldatu egin zen: kontzeptuak eta prozesuak aintzat hartzen hasi ziren, sistema demokratiko batean parte-hartze aktiboa izateko jarrera eta trebetasun egokiekin batera.

Izan ere, beharrezkoa izan zen politika-hizkuntza argitzea, eskolan hezkuntza politikoa garatzea ahalbidetzeko. Kontzeptu politikoak termino teknikoak izateaz gain, tresna analitikoak ere badira, eta politika ulertzearen eta horri buruzko eza-gutzen arteko lotura dira. Ezagutza horiek honela sailkatzen dira: kontzeptu orokorren arabera (hala nola boterea, agintea, askatasuna, eskubideak); sinesmenak edo ideologiak adierazten dituzten kontzeptuak (hala nola sozialismoa, komunismoa, kapitalismoa, liberalismoa, anarkismoa); bereziki demokraziari aplikatzekoak diren kontzeptuak, Europan egitura-politiko nagusia den heinean (hala nola parlamentua, hautaketa, presio-taldea, prentsa librea); eta XXI. mendearen hasierako berariazko interes-alderdiei buruzko kontzeptuak (emakumearen eskubideak, haurren eskubideak, abortua, neoliberalismoa, globalizazioa). Politika ulertzeak funtzionatzeko dituen egitura eta prozesuak ulertzea eskatzen du: gobernuaren makineria (herri, eskualde, nazio eta nazioarte mailako egiturak, alderdi politikoen ekarpena, presio-taldeak, interesak, industria-harremanak, hezkuntza-sistema); kezka eta eztabaida gehien sortzen duten alderdiak (helburuak, lehentasunak, balioak, baliabideak, emaitzak); eta prozesu politikoan parte hartzen duten taldeak (ministroak, alderdiak, sindikatuak, enpresa-erakundeak, gizarte edo erlijio mailako mugimenduak). Iradokizun horiek ez dira ez esklusiboak, ez nahitaezkoak, eta irakasleek herri edo nazio mailako egoerei buruz egiten duten azterketaren arabera hautatuko dituzte kontzeptuak.

Politika-gaitasuna erakusten duten jarrera-motei dagokienez, jarrera-mota horiek dibertsitatea eta hautaketa aurretiko baldintzek zehazten dituzte: nahigarrienak tolerantzia, aurreiritzirik eza eta amore emateko beharra dira. Horiek horrela, gazteek askotan oso atsegin izaten dituzte gai batzuk, eta euren ideien arabera jarduten lehenak izaten dira. Ziur egon behar dute amore ematea onartzeak ez dakarrela konpromisorik eza. Aitzitik, gizarte demokratikoan bizitzeak tolerantziaren mugak zaintzea eta horiei buruzko irizpideak eskatzen ditu. Non finkatzen ditugu muga horiek? Hainbat kontzeptu —totalitarismoa, esaterako—, hainbat jarrera —partzialtasun nabarmena, esaterako— eta hainbat portaera —terrorismo-ekin-tzetan parte hartzea, bai eta larderia eta bandalismoa ere— ezin dira bateratu demokraziak bizirautearekin, eta horrelakorik onartzea axolagabekeria izatez gain, ez litzateke zentzuzkoa izango. (58) Funtsezko giza eskubideen, norbere eskubide naturalen aurkako erasoak dira. Horien aurrean gizarteak gutako bakoitza babestu beharko gintuzke. Hezkuntza politikoak arrazakeria, sexu-jazarpen, zapalkuntza, esplotazio edo erlijio-intolerantzia kasuak atzemateko tresnak eman behar die gazteei, eta beraz, gizarte demokratikoaren parametroak ezagutzeko, horrela defendatu ahal izateko.

Europako Kontseiluak demokraziari buruzko nazioarte-mailako zenbait hitzaldi antolatu ditu, eta hitzaldi horiek harrera desberdina izan dute herrialde guztietan. Danimarkan, hezkuntza politikoa irakasle espezializatuek ematearen alde daude. Europako hegoaldeko herrialdeek aintzat hartu dute alfabetizazio politikoa lortzeko beharra. Erresuma Batuan, aditu batzuek zalantzan jarri dute eskola-sistema demokratikoa ote den:

Adibidez: Gazteen iritziak entzun ordez, haiei gehiegi hitz eginez, gazteak demokrazian bizitzeko gaitzen ote ditugu? Liburuetatik koadernoetara kopiatzeak herritar autonomoak sortzen al ditu? Zigor fisikoa erabiltzeak ikasleak demokrazian bizitzeko prestatzen al ditu? (59)

Izan ere, duela gutxi arte Ingalaterran hezkuntza politikoari —ikasketa-planean barne harturiko irakasgai gisa— ez zioten garrantzi handirik ematen ez ikasleek, ez irakasleek, ez eta gurasoek ere. (60) Ironikoa da parlamentu-tradizioaz harro dagoen herrialde batean herritartasunari buruzko hezkuntzaren aurrean halako errezeloa eduki izana. Europan gero eta gehiago integratzeak eragin zuen 1992tik aurrera nazio-mailako ikasketa-planetan beharrezkoak diren aldaketak egitea.

(61) Alemaniarrek oso bestelako jarrera izan dute. *Land-etako* (eskualdeak) Hezkuntza Ministroek Europari buruzko gaiak ikasgelan txertatzearen inguruan erabaki garrantzitsuak hartu zituzten 1978an eta 1990ean; erabaki horiek irakasleentzako jarraibideak ezartzen dituzte ezagutza politikoaren eta jarreraren arloetan (ikus 7. eta 8. taulak).

### 7. taula Europa ikasgelan

Alemaniako Land-etako Hezkuntza Ministroen erabakia, 1978ko ekaina	
<p>Eskolak honako hauei buruzko ezagutzak eta ideiak komunikatu behar ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Europaren izaera eta dibertsitate berezia</li> <li>• Europako indar historiko aktibo nagusiak</li> <li>• Europako gizarte eta ekonomia mailako egiturak</li> <li>• Legeari eta politikari buruzko pentsamenduaren garapena Europan eta askatasunaren ideia</li> <li>• 1945etik Europa antolatatu eta integratzeko egin diren ahaleginak</li> <li>• Baterako ekintzaren eta eskualdez gaindiko erakundeen garrantzia, ekonomia, politika eta gizarte mailako arazoak konpontzeko</li> <li>• Europan interes-oreka lortzeko beharra</li> <li>• Europako Erkidegoan lankidetzak duen garrantzia</li> <li>• Europako Erkidegoko kide diren herrialdeen eta munduko beste herrialde batzuen arteko lankidetzaren garrantzia</li> <li>• Europan erabakiak hartzeko aintzat hartzen diren balioak eta interesak.</li> </ul>	<p>Eskolako hezkuntza-helburuek oinarri dituzten funtsezko balioak [...] nazioz eta estatus osaturiko Europako familia baten bizimoduan kokatu behar dira. Horrek zera eskatzen du:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ulertzeko, aurreiritziak deuseztatzeko eta komunean daukaguna aintzat hartzeko prest egotea, eta aldi berean Europako dibertsitatea ezagutzeko jarrera.</li> <li>• Giza Eskubideen aldeko Europar Konbentzioaren eta Gizarte Gutunaren printzipioen araberako europar legezko tresnak garatzea</li> <li>• Auzotasun oneko lankidetzak eta Europako interesei dagokienez bidezko akordioak lortzeko borondatea</li> <li>• Giza eskubideak, aukera-berdintasuna, ekonomia, gizarte eta lege mailako segurtasuna eta mugitzeko askatasuna gauzatzea</li> </ul> <p><i>Hezkuntza hori Europako heritar gisa gazteek dituzten erantzukizunen inguruan gaitzeko diseinatuta dago.</i></p>

Aurrekari historikoez erakusten dute erkidegoak batera existi daitezkeela, baina Estatu-nazio bat —edo estatu-nazioez osaturiko erakunde bat— sortzeko ekintza hitzartua eta iraunkorra, bai eta batasunerako tresna komunak ere, behar dituela. Europako gizarte bakarrean oinarrituriko «Europako Estatu Batuak» sortzeko aukera oraindik ere urrun dago. Hala ere, azken urteotan aurrerapauso asko egin dira —eta gehiago egingo dira 2004. urtean 10 herrialde gehiago sartzen direnean—. Europako biztanleei zuzenean egin zaie batasunerako deia, eta Europako Kontseiluak eginkizun garrantzitsua izan du; izan ere, horren aldeko deklarazio ugari egin ditu, batez ere hezkuntza-eremuan. Eskolak Europako interdependenziaren ideia sustatzera animatu dituzte, bakeari, giza eskubideei, eta ingurumena zein kultur ondarea babesteari dagokienez gazteei Europako herritarrak diren heinean duten erantzukizuna transmititzeko. (62)

Aldi berean nazioaz gaindiko entitate baten ezaugarriak sortu dira: pasaporte komuna, bandera, himnoa, eta duela gutxi, dibisa bakarra. Gizarte guztiek behar dituzte euren santu-zeinuak, antza. Historia modernoan lehenengo aldiz, Europako zati handi bat gizarte-mailako nortasun bakarraren ezaugarriak hartzen ari da. Hezkuntza pertsonalak, sozialak eta politikoak kontuan izan behar dute errotiko bilakaera hori.

## 8. taula Europa ikasgelan: Europari buruzko sentsibilizazioa

## Alemaniako Land-etako Hezkuntza Ministroen erabakia, 1990eko abendua

Eskolak honako hauei buruzko ezagutzak eta ideiak komunikatu behar ditu:

- Europako dibertsitate geografikoa, haren egitura naturalen, sozialen eta ekonomikoen emaitza gisa
- Europako egitura politikoak eta sozialak
- Europa eratu duten indar historikoak, batez ere, legeari, Estatuari eta askatasunaren ideiarri buruzko europar ikuspuntua
- Garapen-ereduak, eta askotarikoa izan arren, europar kultur komunaren ezaugarriak
- Europako izaera eleanitza eta berezkoa duen kultur aberastasuna
- Europako ideialaren historia eta 1945etik integratzeko egin diren ahaleginak
- Interesen harmonizazioa eta baterako ekintza, Europan ekonomia, ekologia, politika eta gizarte mailako arazoak konpontzeko
- Europako erakundearen zereginak eta lan-metodoak


Eskolako hezkuntza-helburuek oinarri dituzten funtsezko balioak [...] nazioz eta estatus osaturiko Europako familia baten bizimoduan kokatu behar dira. Horrek zera eskatzen du:

- Ulertze-maila aberasteko, aurreiritziak deuseztatzeko eta komunean daukaguna aintzat hartzeko prest egotea, Europako dibertsitatea baieztatuz
- Norbere kultur nortasuna gordez kultur mugak gainditzen dituen kulturarekiko aurreiritzirik gabeko jarrera
- Europako legezko konpromisoen balioekiko eta justizia-administrazioarekiko errespetua, Europan aintzat harturiko giza eskubideen esparruan
- Auzotasun onean batera existitzeko gaitasuna eta Europaren interes guztiak gauzatzeko akordioak lortzeko borondatea, horretarako besteen mesederako sakrifizioak egin behar bada ere
- Askatasunaren, demokraziaren, giza eskubideen, justiziaren eta segurtasun ekonomikoaren alde egitea
- Europan eta munduan bakeari eusteko borondatea

- (1) Alderdi horietako batzuk 4, 5 eta 6. kapituluetan eztabaidatu dira.
- (2) Ondorengo obran nerabeek jasotzen dituzten eraginen laburpena ageri da: Blackledge, R. (1982), *Reflections and observations on CDCC Preparation for Life*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 19-21. orr.
- (3) (1982), *Final meeting of Special Project Southern Europe*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 16-21. orr.
- (4) Schleicher, K. (1980), *Report on ET Seminar on Education for Parenthood and Family Responsibilities*, Blackledge-n aipatua, 19. or.
- (5) Befring, E. (1980), *Preparation for Family Life and Life in Society*, Estrasburgo: CDCC.
- (6) Balle, Francis (1990), 'The information society, schools and the media' Eraut-en, *Education and information society*, 102. or.
- (7) *Ibid*, 102-3. orr.
- (8) (1989), *Bulletin of the European Commission*, 6 (17), 1.19. pt.
- (9) Blackledge, *Reflections and observations*, 16-17. orr.
- (10) Befring, *Preparation for Family Life*, 20. or.
- (11) R (87) 9 gomendioa, EUROFIT Handbook, Erroma: Europako Kontseilua.
- (12) Starkey, Hugh (1982), *CDCC Report on Social Education for Teenagers*, Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- (13) Deforge, Yves (1981), *Living Tomorrow*, Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- (14) Ministroen Batzordearen r (83) 13 gomendioa: Guidance for Preparing Young People for Life.
- (15) (1988), *Report of the Secretary General on Problems of Education and Training in Europe*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 10. or.
- (16) Austin, Roger (1989), *The European Studies Project*, Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- (17) *Report of Teachers' Seminar on Sex Stereotyping in Schools*, Blackledge-n aipatua, *Reflections and observations*, 15. or.
- (18) Strobot, Maitland (1988), 'The world in the European classroom', *Forum* (maiatza).
- (19) Lanot, J-R. (1983), Rey-n eginiko ekarpena, *Migrant Culture*.
- (20) (1987), *Report of Activities of the Council of Europe*, Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- (21) Clanet, C. (1986), *L'intégration pluraliste*, Toulouse: ERESI.
- (22) Bliss, I. (1990), 'Intercultural education', *European Curriculum Network*, 15, 10-18. orr.
- (23) Ideia horiek kulturartekotasunari buruzko CDCCren mintegietan eztabaidatu zituzten Madrilen 1987ko maiatzean.
- (24) Ikusi 6. kapitulua.
- (25) Craft, M. (1983), Rey-n eginiko ekarpena, *Migrant Culture*.
- (26) Nielsen, Jorgen (1981), *Report on Cultural Values and Education*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 17, 31. orr.
- (27) Gailly, A.F. (1982), *Report on Tropenmuseum Junior*, Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- (28) Trybus, K. (1985), *Report on Europe in Primary Schools*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 19-21. orr.
- (29) (1986), *Report on Study Sessions of Young People for Democratic Action*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 17. or.
- (30) Lahnemann, J. (1981), The training of teachers of children of migrant workers' Nielsen-en, *Report*.
- (31) Lister, Ian (1984), *Teaching and Learning about Human Rights*, Estrasburgo: CDCC.
- (32) Porcher, *Children of Migrant Workers*, 67-99. orr.
- (33) Alkan, M eta E. de Vreede (1989), *Education in a plural society*, Brusela: ATEE.
- (34) *Ibid*.
- (35) Ikusi Liegeois, J.P. (1987), *Gypsies and Travellers*, Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- (36) Pearse, *Report on Human Rights Education*, 13. or.
- (37) Sarlis, Paul (1989), 'Nationality and mixed marriages', *Forum* (urtarrila).
- (38) *Report on Activities of the Council of Europe*, 84. or.
- (39) Ver Starkey, *Report on Human Rights Education in Schools*.
- (40) (data gabe) *Practical Manual*, Paris: UNESCO.
- (41) Lister, *Teaching and Learning about Human Rights*, 2-5. orr.
- (42) Ministroen Batzordearen R (85) 7 Gomendioa.

- (43) Mariet, F. (1980), *Report on ET Seminar on Human Rights in Upper Secondary Education*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 4. or.
- (44) Corset, P. (1981), *Report on The Secondary School and the Media*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 20. or.
- (45) *Ibid*, 9. or.
- (46) *Report of France —The Information Society— a Challenge for Education Policies?*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 51.2 . or.
- (47) *Ibid*.
- (48) Masterman, Len (1988), *The Development of Media Education in Europe*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 11. or.
- (49) *Ibid*, 16. or.
- (50) Balle, *The Information Society*, 106. or.
- (51) Ikus 6. Kapitulu.
- (52) Masterman, *The Development of Media Education*, 10. or.
- (53) *Ibid*, 23-5. orr.
- (54) Corset, *Report on The Secondary School and the Media*, 22. or.
- (55) Mariet, *Report on Human Rights*, 24. or.
- (56) Starkey, *Report on Human Rights Education*, 16. or.
- (57) Mariet, *Report on Human Rights*, 17. or.
- (58) Slater, J.G. eta R. Hennessey (1977), 'Political competence' *Report on Bullying-en*, Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- (59) Slater eta Hennessey, 'Political competence', 4. or.
- (60) 1939 baino lehenago, hezkuntza politikoa eta herritarrei buruzkoa Britainia Handiak zuen eginkizun inperialarekin lotzen zen; geroago Commonwealth-arekin.
- (61) Herritarrak honako termino hauetan hartzen ditu aintzat: gizabanako, familia, komunitate, nazio eta nazioarte mailako dimentsioetan.
- (62) (1988), *Boletín Oficial de las Comunidades Europeas*, 31 (C177).





8

IKASGELAZ GAINDIKO HEZKUNTZA



- IKASGELATIK KANPOKO IKASKUNTZA
- TRUKE-PROGRAMEN GARAPENA EUROPAKO HEZKUNTZAN
- TRUKEEN ESPERIENTZIAK IKASLEENTZAT DUEN BALIOA
- EUROPAKO KONTSEILUAREN EKARPENA ESKOLAZ KANPOKO JARDUERETAN
- EUROPAKO BESTE EKIMEN BATZUK, GAZTEEN ARTEKO TRUKEAK, BISITAK ETA LOTURAK SUSTATZEKO
- ASIALDIA, BIDAIK ETA TURISMOA

## IKASGELATIK KANPOKO IKASKUNTZA

Europari buruzko ikaskuntza ezin da inoiz ikasgelan soil-soilik egin. Lehenik eta behin, eskolaren hezkuntza-gaitasuna bizitza errealekiko duen atzerapen saihestezinak mugatzen du. Hezkuntzaren zati garrantzitsu bat ez dator testu-liburuetatik eta irakasleen hitzetatik; esperientziatik, pertsonetik eta lekuekiko harremanetatik dator. Gainera, ikaskuntza, helduaroan jarraitzen duen prozesua da. Adierazpen horiek ez dute ezer berririk azaldu. «Europar zeharreko bira handia» Europako aristokrazia eta goi-burgesiarentzat goi-mailako hezkuntzaren sistema historikoa izan zen. XVIII. mendetik Bigarren Mundu Gerraren bezpera arte, klase pribilegiatuak atzerrian bidaiatuz ezagutu zuten euren kultur ondarea. Dena den, berriro ere atsegin-bidaiak egiten hasi zirenean, neska-mutil gutxi batzuek izan zuten aprobetxatzeko aukera.

Beste belaunaldi bat iragan zen bidaiatzeko erraztasunek aparteko garapena izan eta maila ertaineko diru-sarrerak zituen jendeari leku berriak nahiko prezio onean bilatzeko aukera eman zioten arte. Mugitzeko askatasun berri horrek hezkuntzari buruzko pertzepzioetan eta bizitzaren beste alderdi batzuetan ere izan zuen eragina. Bigarren hezkuntza kalera, lantokira, ikastegira, eta udako kanpamentura irten zen; «atzerriko» familien etxeetara eta Europako hirietako monumentu historiko, bataila-eremu eta leku santu ospetsuetara. Aukera, elkargune eta jarduera sorta zabala ireki zen, eta ikasgelak ikaskuntza-leku efektibo gisa mugak dituela bazekiten guztiek txalotu egin zuten ekimen hori.

Azken hori egia da bereziki arteei eta humanitateei dagokienez, arlo horietan hezkuntza-helburuak hein batean afektiboak baitira. Irakasle guztiek dakite sinesgarritasuna oztopatzen duen hesi bat dagoela lehen eskuko ezagutzen eta ikusentzunezko teknologiak transmititzen duen zeharkako esperientziaren artean. Hala ere, esan liteke hesi hori hein batean desagertu egin dela baliabide «birtual» berriei esker. Europari buruzko sentsibilizazioa sustatzearekin zerikusia duen Europako Kontseiluaren eta Europako Batzordearen dokumentazio ofizialean bilduta dago eskolako ikaskuntza hainbat modutan osatzeko beharra. Funtsezko gomendioek azpimarratu dute gazteentzat bidaiatzea, gazteen arteko trukeetan parte hartzea, eta Europako haien parekoekin harreman zuzena izatea garrantzitsua dela: goi-mailako funtzionario batek azaldu du ezinezkoa dela Europa eraikitzea gazteen artean horrelako trukeerik egin gabe.

Erresuma Batuko hezkuntza-arloko hainbat agintariek «Europako eremuko gaitzearen» printzipioa plazaratu dute; horren arabera, gazte guztiek esperientzatu beharko lukete bizitza, ikastea eta lana Europako beste herrialde batean, derrigorrezko hezkuntzan ari diren bitartean. (1) Horrez gain, kontuan hartu beharrekoa da Europako gizartearen dagoen aldaketa-giroaren pisua —gazteen kulturaren igualitarismoa zein izaera taldekoa, eta azken hamarkadetan gizartearen izan den demokratizazioa—, horrek ikasketa-planetik kanpoko jarduerak hezkuntzaren zati garrantzitsua direlako ideia indartzen baitu.

## TRUKE-PROGRAMEN GARAPENA EUROPAKO HEZKUNTZAN

Eguno bigarren hezkuntzako eskolan, trukeak baliabide baliotsua bilakatu dira. «Truke» terminoa kasu horretan jardueraren sorta zabal bat adierazteko erabiltzen da. Beste komunitate edo herrialdeetako jendearekin, eta jende horren bizimoduarekin izandako harreman pertsonaletik sorturiko edozein motatako zuzeneko kultur esperientzia da trukea. Harremanek ez dute zertan izan iraupen jakin bat, era askotakoak izan daitezke. Trukeak, berriz, mota hauetakoak izan daitezke: banakako edo taldeko ikasketa-bidaiak, bi herrialdeetako ikasleen, irakasleen edo hezkuntza-administrazioaren arteko tru-

ke formalak, baterako proiektuak, eskola-loturak, kultur bidaiak, hirien arteko senidetzeekin zerikusia duten ekitaldiak, eta postatrukea, ikus-entzunezko aurkezpenak, satellite bidezko konexioak eta bideokonferentziak.

Azken hamabost urteetan, Europako eta nazioarte-mailako trukeen kopurua etengabe hazi da. Ez da erraza horri buruzko estatistikak lortzea, baina argi dago 1963an Italiak eta Alemaniak Ituna sinatu zutenetik, eta *Office Franco-Allemande de la Jeunesse* sortu zenetik Alemaniako eta Frantziako gazteen artean egin ziren truke ugariak bi herrialde horien arteko harremanak aldatu zituztela. Aitzitik, Erresuma Batuko gazteek harreman gutxiago izan dituzte euren auzoko herrialdekoekin; hala ere, horiek hobetzen ari dira. Azken kopuruaren arabera, bost mila eskolak dituzte beste herrialde batzuekiko harremanak; 70.000 banakako truke (etxez etxekoak) egin dira Frantziaren eta Erresuma Batuaren artean; 12.000, Alemaniaren eta Erresuma Batuaren artean; eta kopuru handi bat Danimarkarekin, Herbehereekin, Espainiarekin, Italiarekin eta beste herrialde batzuekin. (2)

Frantzia da truke horietarako Ingalaterrak duen kiderik garrantzitsuena, eta ondoren Alemania, Espainia, Italia eta Errusia. Trukeen kopuruak goranzko joera du. (3) Musika, historia, kirol eta ingurumen-hezkuntzaren arloetan truke bereziak daude. Jarduera artistikoak eta gazteen orkestrek eskainitako kontzertu-birak zein musikari-talde txikiagoenak oso lagungarriak dira nazioartean elkar ulertzeko, edo ikuskatzaile frantses batek esan zuen bezala: [truke horiek] «Askatasunmezu bat zabaltzen dute; pertsonen eta herrien arteko mugak gaintzen dituzte eta komunikaziorako bide paregabea dira». (4) Antzinako bataila-eremuetara eginiko ikasketa-bidaiek Europako aniztasuna modu intoleranteenean ikusteko balio dute; Grezia eta Erromako monumentu klasikoak bisitatzeko eginiko ikasketa-bidaiek Europako kulturaren sorrera modu bisualean azaltzen dute.

Europako herrialde guztietan desberdinak dira ikasketa-bidaietarako baliabideak eta gazteek dituzten aukerak. Alemaniako *Land-ek* euren *Auslandsämter* (nazioarteko bulegoak) propioak dituzte, eta truke-programak bultzatzen eta diruz laguntzen bete duten eginkizuna oso emankorra izan da. Frantziak gazteen arteko trukeetarako bulego propioa du, eta, Alemaniak bezalaxe, gazteentzako programekiko ikuspegi positiboa du, eta hezkuntza-arloko berrehun GKErekin baino gehiagorekin dihardu elkarlanean. Europar Batasunak mugigarritasuna sustatzeko duen konpromisoa Gazteen arteko Truke Bulego propioaren bidez erakusten du. Eskandinavian tradizioa da gazteek hizkuntz ikastaroetarako eskola-bidaiak egitea. Dena den, azken urteetan nazioartekotasunari eta ingurumenari buruzko gaiak eta Europaren etorkizun komuna azpimarratu dira. (5)

Irakasleen arteko trukeerako aukerak ere areagotu egin dira. Adibidez, 1990etik «lan-trukeko» programa bat garatu dute Erresuma Batua, Austria, Belgika, Danimarka, Frantzia, Alemania, Italia, Espainia, Suitza eta Errusiaren artean. Europako Batzordeak garrantzi handia eman die ikasleen zein irakasleen arteko trukeei, SOKRATES programaren COMENIUS atalaren bidez. Gaur egun, bigarren fasean dago, hau da, 2002-2006 fasean. Europarekiko sentsibilizazioa areagotzeko politikaren ezaugarri nagusi gisa, estatu kideak harreman-sorta zabal bat sortzera gonbidatu ditu, irakasleak, ikasleak eta gurasoak barne hartzen dituzten harremanak sortzera, hain zuzen. Europari buruzko dimentsioa indartzeko neurriei buruzko txostenek erakusten dute aurrerapauso handiak egin direla; hala ere, prozesu horri luzaroago eutsi behar zaio, besteak beste, gaur egun Europar Batasuna hedatze-prozesuan dago-eta.

Europako hainbat herrialdetan truke-programak osatzen dituzten ekimen pilotuak egin dira. Erresuma Batuan Europari buruzko Ezagutzarako Proiektu Pilotua garatu da. Hezkuntza-arloko hamabi agintarik hartu dute parte eta oso emaitza onak izan ditu. (6) Bigarren Hezkuntzako hiru eskolak Ekonomia Zientziak ikasten dituzten 16-17 urteko ikasleentzat Frantziako iparraldeko euren parekoekiko trukeak antolatzen dituzte, eta arazoan konponketari eta industria-arloko esperientziari buruzko jarduerak landu dituzte. Brusela, Strasburgo eta Luxenburgora egindako bisitaldiak hezkuntza politiko eta sozialari buruzko ikastaroetan Europako gobernu-mekanismoen gaineko ikaskuntza sendotzeko erabili dira. Europari buruzko ikasketen gaineko proiektu angloirlandar bati esker, bigarren hezkuntzako azken urteko Ipar Irlandako ikasle batzuek Belgikako Irlandar Ikasketa Zentroa bisitatu dute, eurek bezala tradiziozko kultur eta erlijio mugak dituzten herrialdeetan bizi

diren beste gazte batzuk ezagutzeko. Beste proiektu batek ikasleak Bolzano-ra —Tiroleko Alto Adigio-ko hiriburua— bidaltzen ditu. Bolzano politika, kultura eta hizkuntza mailako eraginen elkargune historikoa da. Proiektu pilotuez gain, truke horiek (hizkuntzak ikastekoak barne hartu gabe) kultura arteko ikaskuntzaren esparruan izan dituzten emaitzei buruzko ebaluazio sakonak egin dira, Leicester-en (Erresuma Batuan), Saarland-en (Alemanian) eta Seine Maritime-n (Frantzi-an) arteko hiru aldeko loturetan oinarrituta.

Truke-programa gehienak ikasleen, ikastaldeen edo eskolen artean egiten dira. Hala ere, Europako hirien arteko hezkuntza-mailako lotura-programak ere badira, hala nola Bristol eta Bordeleren artekoa. Gaur egun, berrogeitik gora tokiko hezkuntza-agintaritzak britainiarrek (LEA) dituzte loturak Frantziako euren parekoekin, *département*-etan. Bedfordshire-ko LEAk hogeita bost eskola koordinatzen ditu, L'Oise-rekin duen lotura dela-eta. Programa zabalagoak egitea errazteko, hezkuntza-agintaritzek partzuergoek esku hartzen duten eskualde-mailako loturak daude. Berlingo Harresia, bota zutenetik Ekialdeko eta Mendebaldeko Europako eskolen arteko loturak izugarri areagotu dira. (7)

## TRUKEEN ESPERIENTZIAK IKASLEENTZAT DUEN BALIOA

Ikasleen arteko trukeen ohiko helburua hizkuntza-trebetasunak hobetzea izan da. Hori oraindik ere oso garrantzitsua da programa gehienetan, baina beste herrialde batean bizi izandako esperientziak beste inguru eta bizimodu batzuk enpatiaz ulertzea ekarri behar du, eta horregatik Utrecht-eko Sinposioan Geografiako irakasleei deialdia egin zieten «ikasleentzat, irakasleentzat eta Geografiaren irakaskuntzan esku hartzen duten beste batzuentzat Europako eremuko trukeak eta ikasketa-bidaia [...] bultzatzeko». (8) Hala ere, ikasle bakoitzaren aukerak eta haren anfitroioarenak oso desberdinak izan daitezke, eta ezin da kuantifikatu hezkuntza-mailan ikasle bakoitzak lortzen duen onura. Hainbat faktoreren menpe egongo da hori. (9)

Irakasleak, ordea, ados daude planifikazioa eta prestakuntza kontu handiz egiteko beharrari eta *ad hoc* jarduerak saihesteari dagokienez; helburu garbiak eta errealistak izatea ere bada garrantzitsua. Beste herrialde baterako bisitaldian hainbat jarduera egin behar dira, eta jarraipen-lana alde aurretik planifikatu behar da. «Etxez etxeko» trukeak balioentzat hartzen badira ere, gurasoen eta irakasleen beraien lankidetzarik gabe, inoiz gutxitan izaten dira arrakastatsuak. Aldez aurretiko komunikazioetan edota irakasleen bisitetan alde batera utzi behar dira zailtasun pertsonal, finantzario eta linguistikoak. Ondo prestatuz gero, eta trukea ikaskuntzarako esperientzia konstruktibotzat hartzen bada, onura ugari izan daiteke. Ikasleek beren adineko beste batzuen jarrerak eta balioak ikusteko aukera dute. Hobeto jabetuko dira ingurumen-mailan dauden desberdintasunez, eta desberdintasun horiek bizimoduan dituzten eraginak ulertu beharko dituzte. Ikaskuntza horretan ez da ikasketa-metodo tradizionalerako arazorik izango.

Puntu hori argitzeko honen berri eman zuten: Parisen lehen trukea izan eta bertatik iritsi berria zen Veneziako ikasle-talde bat ohartu zen «euren esperientziak ikasgeletatik aterarazi zituztela eta historia, geografia, gizarte, erlijio eta ekonomia mailako errealtateetara hurbildu zituztela, liburuen laguntzarik gabe [...] Ikasgaia bidaia bera da; bidaia da aurreko eta ondorengo une guztien ardatza, diziplina arteko jarduera natural gisa». (10) Bestela esanda, italiar ikasle horiek eskolako irakasgaien muga zorrotzak gainditu ahal izan zituzten, eta beste ideia batzuk barnertzeko eta euren buruarenganako zein komunikazio-trebetasunekiko konfiantza-sentimendua garatzeko aukera izan zuten. Oso modu egokian, esperientzia horrek euren aurreiritziak eta usteak zuzentzeko eta lagun berriak egiteko, azken batean, euren hezkuntza pertsonala eta soziala aberasteko, aukera eman zien. Hiru aste iraun zuen Venezia-Paris trukean esku hartu zuen irakasleak honela laburbildu zituen truke horrek bere ikasleei ekarri zien onura: «Elkar ezagutzen ikasten dute, eta baita klaxek, errezeleok, esamesek, mesfidantzek, beldurrek eta gorrotoek eragindako akatsak gainditzen ere. Agian, mende eta gizarte bortitz eta berekoi honetan zoriontsu bizitzen ikasi ahal izango genuke». (11)

## EUROPAKO KONTSEILUAREN EKARPENA ESKOLAZ KANPOKO JARDUERETAN

Urte askoan, Europako Kontseiluak ardurak izan ditu Europako estatu kideetako gazteak biltzeko jarduera eta ekitaldi berezien antolamenduan. Era berean, beste erakunde batzuekin, Europar Batasunarekin, esaterako, lotura estuak ditu, eta bigarren hezkuntzako eskolako irakasleek eta ikasleek esku hartzen duten eskolako eta eskolaz kanpoko jarduerak bul-tzatzen ditu.

Prozesu interesgarrietako bat informazioaren eta komunikazioaren teknologiaren aprobetxamendu positiboa da. Euro-pako eskola gehienetan nahikoa ordenagailu dutenez, ikastegien arteko komunikazioak hobetzeko horiek nola erabili behar diren eztabaidatzeko bilerak antolatu dira, Exeter-eko Hizketaldiak Erresuma Batuan, esate baterako. Bilera horie-tan datu-baseak prestatzen dituzte, posta elektronikoa eta txata zein satellite bidezko konexioak erabiltzen dituzte. (12) Europar Ikasketei buruzko Proiektuak Erresuma Batuko, Irlandako eta Belgikako ikasleak hartu zituen barne, eta posta elektronikoa erabili zuen lehenetakoa izan zen, baina gaur egun horren erabilera oso hedatuta dago. Lehen Shell-ek (13) babestutako posta elektronikoko lotura angloholandarrak aipatu ditugu; horiez gain, Europako hainbat herrialde eta esku-aldetan komunikazio elektronikoko sareak ezarri dira, eta Alemaniako, Frantziako eta Erresuma Batuko hainbat hiritako eskolen artean hiru aldeko sareak ezarri dituzte.

Dena den, oraindik ere zuzeneko harreman pertsonalak dira gazteak elkartzeko modurik egokiena. Ikasle-talde askok aprobetxatu ahal izan dituzte Europako Kontseiluak antolaturiko bidaiak. Grezia, Italia, Alemania eta Erresuma Batua he-rialde anfitrioiak izan dira programa horren baitan beste herrialde batzuetako gazteek eginiko bisitaldietan. Beste berri-kuntza batzuk ere izan dira: Belgikan, Suitzan, Danimarkan, Austrian eta Luxenburgon eginiko Haurrentzako Antzerki Topaketak, eta Gazte Antzerki Topaketa, Stratford-upon-Avon hirian eginikoa, Royal Shakespeare Company-k egoitza duen hirian, hain zuen. Europako Ekialdeko herrialdeek ere, batez ere Bulgariak, Hungariak eta Txekiar Errepublikak in-teres handia adierazi dute horrelako jardueren inguruan. Europako eskualdeek ere parte-hartze garrantzitsua izan dute Topaketa horietan: Espainiako Balear Uharteek, Kataluniak eta Euskadi, eta Danimarkako Faroe Uharteek ordezkariek eta talde dramatikoak bidali dituzte. (14) Hezkuntza-arloko prentsan txalotu egin dituzte ekitaldi horiek: «Europako lau mu-turretako trebetasun dramatikoaren harrobian oinarrituta lingua franca berri bat sortu da. Gazteek bakarrik sortzen duten ar-gitasunez, energiaz eta zabaltasunez, hizkuntza-mugak gainditu egin ziren». (15)

Hirien arteko senidetzeen politikak ere —Europako Kontseiluaren babes duela hartu behar da kontuan— Bigarren Hez-kuntzako gazteen artean lotura estuagoak sortzen ditu. Senidetze-akordioaren artean desberdintasun ugari badago ere, normalean honako ekitaldi hauek izaten dituzte: alkateen bisita, udal-agintarien ongietorria, jaialdiak, kultur bisitaldiak eta gazteen parte-hartzea eskatzen duten ekitaldiak. Ohikoa da inplikaturiko erkidegoetako bisitariei abegi pribatua eskain-tzea. Horrelako programen funtzionamendu ona garbi ikusteko, jatorri erromatarra duten Ingalaterrako bi hiriren adibidea hartuko dugu, askotan Erdi Aroko historian bata bestearen aurka ageri diren hirien adibidea, hain zuzen: York eta Lancas-ter. Gaur egun, Yorkeko artzapezpiku-hiria Dijon-ekin —Erdi Aroko Burgundia-ko (Borgoina) Dukerriaren probintziako hi-riburua— senidetuta dago, eta baita Alemaniako Münster hiriarekin ere. Münster artzapezpikutzak karolinjioaren egoitza zen, bai eta XIII. eta XIV. mendeetan Ingalaterrarekin artile-merkataritzan Hansa Ligako kide gisa ziharduen merkataritza-gunea ere. Lancaster —York baino askoz ere txikiagoa da eta biztanle-kopuru erdia du— europar laukote bateko kidea da. Senidetzeen programan kide dituen hiru udalerrak hauek dira: Perpinyà, antzina Rosselló probintziako hiriburu gotor-tua; Rendsburg, behinola Eider ibaiaren gaineko hiri gotortua, Schleswig-Holstein eskualdearen muga; eta Aalborg, Jutlandiaren iparraldean, Danimarkako kokaleku zaharretako bat.

Senidetzeei esker, Lancasterrek gazteentzako bi jarduera garrantzitsu ditu. Ekitaldi nagusia urteko Gazte Jokoak dira. Joko horiek Olinpiadetan daude oinarrituta eta 1974tik ospatzen dira. 400 bat ikasle joaten dira senidetutako hirietatik ber-

tako 150 bat ikaslerekin parte hartzeko. Gainera, eskola-mailako trukeak ere egiten dira, batez ere, hizkuntzak ikasteko. Yorken eta Dijonen arteko loturak 1950eko hamarkadaren hasieran sortu ziren bigarren hezkuntzako bi eskola kide zirenean. Bi hamarkadaren buruan, programa Yorkeko eskola guztietara hedatuta zegoen eta bertako hezkuntza-agintaritzak hartu zuen trukeak antolatzeke ardura. Ehunetik gora ikaslek bisitatzen dute Dijon urtero; Münsterrera, berriz, lau-rogel bat joaten dira. Lancasterreko Jokoen parekorik ez badute ere, musika-mailan badute lotura, eta Yorkeko eta Münsterreko musikarien arteko trukeak egiten dituzte.

Senidetzeak «europar esperientzian» sartzeko moduetako bat dira. Europako Kontseiluak, Europako Batzordeak eta Europako Kultur Fundazioak babesturiko «Europako Eskolaren Eguneko Lehiaketa» programak ikasleen artean Europari eta Europako kultur ondasunari buruzko sentsibilizazioa sustatzen du, eta hezkuntzan Europari buruzko dimentsioa indartzea du helburu. Ikasleek banaka, taldeka edo ikasgelaka har dezakete parte, arte, literatura, edo ikus-entzunezko aurkezpenen ataletan, eta epaimahaiek saritu egiten dituzte. Hainbat sari-mota daude: nazio-mailako ziurtagirietatik hasita, zilarrezko dominetaraino eta Europar zehar bidaiatzeko diru-laguntzetaraino. Azken urteotan 23 herrialdeetako milioi bat ikasleek baino gehiagok hartu du parte. (16) Estrasburgoko Europako Gazte Zentroak eta Europako Gazte Fundazioak, beste jarduerak batzuen artean, Europako Kontseiluak arlo horretan dituen programen esparrua finkatzen dute, eta Europako Gazte Astea antolatzen dute. (17)

Europako gizartean gazteak presio-taldetzat hartzen direnez, hainbat erakundek —politikoak zein apolitikoak— Europako Kontseiluaren agintepeko gaien buruzko hizketaldi eta azterlanetarako nazioarteko foro gisa erabiltzen dute Europako Gazte Zentroa. Europako Gazte Fundazioa gazte-talde askorentzako elkargunea izan da, gazte sozialista, judu, nekazari, liberal eta erradikalentzat, hain zuzen. Bakearen aldeko Gazteen Mintegia ere bertan egin dute. (18) Berlineko Harresia bota ondoren, Ekialdeko Europar sortu ziren gazte-erakundeen elkargunea ere izan da, eta erakutsi du Ekialdeko eta Mendebaldeko gazteen arazoak zenbateraino diren antzekoak: drogak, askatasun pertsonala, ingurumena, mugigarritasuna, bakea eta segurtasuna. Era berean, paneuropar lankidetzarako eta Ipar-Hego elkarrizketarako interesa erakutsi du, bai eta Hamabosten Europaren (halere, laster Hogeita Bostena izango da) eta Berrogeita Lauren Europaren arteko nolabaiteko dikotomia ere. (19) Kontseiluaren helburua parte-hartzea areagotzea da; izan ere, funtsezkotzat jotzen du paneuropar ekitaldi handietan inplikatzeko nazioartean enpatia eta elkar ulertzea lortzeko.

Bigarren hezkuntzako eskolako ikasle gazteentzat eskolaz kanpoko jardueraren helburua eskolako irakaskuntza eta ikas-kuntza sendotzea da. Baina ikaskuntza guztia irakasleen profesionaltasunaren eta gogoaren baitan dago, eta funtsezkoa da bigarren hezkuntzako eskolatan irakasten dutenen eskarmentua eta ikuskera haien ikasleei herritar informatu eta buruargi gisa garatzen laguntzeko behar bezain zabalak izatea. Europako Kontseilua horretaz ohartuta dago, eta Europako irakasleei diruz laguntzeko programa garatu du urteetan. Programa horri esker, 500 bat hezitzailek beste Estatu kide batzuetako ikastaroetan parte hartzeko aukera izango dute. Orain arte, 20.000 irakasle inguruk erabili du programa hori.

## EUROPAKO BESTE EKIMEN BATZUK, GAZTEEN ARTEKO TRUKEAK, BISITAK ETA LOTURAK SUSTATZEKO

Europako biztanleak elkarrengana hurbiltzea lortzeko programen eta erakundeen kopurua nabarmen hazi da azken bi hamarkadetan. Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako programa garrantzitsuak daude, bai eta gazteen talde berezientzat eta SOKRATES, ERASMUS, GRUNTVIG eta MINERVA izeneko lehen eta bigarren hezkuntzako, lanbide-heziketako, eta hezkuntza teknikoko proiektuetarako ere. Zorrotz hartuta, programa horiek azterlan honen esparrutik kanpo daude, eta eskolen arteko trukeetan lanean diharduten erakunde ugari dagokienez, ohar batzuk baino ezin dira egin. Hala ere, UNESCOren Klubak aipatu behar dira —lehenengoa 1947an sortu zen—: horiei esker sortu ziren Europar Astea antolatu zuten Europar Klubak. UNESCOren Eskola Elkartuen Proiektua (ASPRO) are garrantzitsuagoa da:

nazioarte-mailako lankidetzak eta elkar ulertzeko hezkuntza-programa hori eredutzat erabili dute ondoren egin diren ekimen askotan. (20)

Eskolaz kanpoko jarduerak —eskola-mailako trukeak barne— ASPROren programen ezaugarrietako bat ziren, baina ikaskuntza-erlako berariazko helburuei lotuta zeuden beti. Parte hartu zuten lehenengoetako bat Danimarkako eskola bateko gazte-talde bat izan zen: Italiako hegoaldean izan ziren herri bakanduen birgaitze ekonomikoa aztertzeko; Suitzako ikasle batzuek, ordea, Greziari buruz egin zuten proiektu bat herrialde horretara eginiko bisitaz sendotu zuten. Eskola Elkartuen Proiektuak etengabe frogatu du nazioartean elkar ulertzeko hezkuntza tolerantziako eta umiltasuneko jarrera positiboaren baitan dagoela. UNESCOren proiektua hazi egin da hasi zenetik, eta gaur egun 170 herrialdetako 7.000 ikastegi baino gehiago hartzen ditu barne.

Gainera, beste ekimen batzuen artean, Frantziako gobernuak ikasle-sorta bati diru-laguntzak ematen dizkio kultur jaialdietan eta gazteen arteko topaketetan parte hartzeko. Danimarkako gobernuak ikastegiaren arteko trukeetan oinarritutako *CloseUp Europe* izeneko programa babestu zuen. Erresuma Batuan, Historialari Gazteen programak Erromatar Inperioko Europar utziriko kultur oinordetza aztertzeko proiektu batean lanean diharduten Erresuma Batuko, Frantziako, Danimarkako eta Poloniako eskola-sare bat babesten du.

Era berean, aipagarriak dira egin diren «tutoretzapeko lan» (*work shadowing*) batzuk; esperimentu horietan ikasleek proiektu praktikoetan lan eginez ikasten dute. Gero eta ikastegi gehiagok hartzen dute aintzat ikasleei lan-arlorako trebetasun eta jarrera egokiak garatzen laguntzeak duen garrantzia. Hala ere, 1986an irakasleek ikusi zuten bazegoela lanari buruzko esperientzia norbere ingurutik Europako beste herrialde batzuetako enpresa eta erakundeetara hedatzeko aukera. Orduz geroztik parte hartzen duten herrialdeetako —Erresuma Batua, Espainia, Italia, Frantzia eta Alemania— berrogeita hamar ikastegi baino gehiago jarri dira harremanetan. Kasu bakoitzean, ikasleen elkarrenganako abegiak lan-eskarmentuaz gain, truke-herrialdeko familia-bizitza eta turismo-mailako erakargarritasunak esperimentatzeko aukera eman zien parte hartu zuten ikasleei. Azkenik, Europako eremuko lankidetzan eta truke-programetan parte hartzen duten lanbide-organoak aipatu behar dira. Irakasleak Europar Prestatzeko Elkartea (ATEE) eta Europako Irakasle Elkartea (EAT) helburu horiek lortzeko lanean aritu dira etengabe. Bigarren Hezkuntzako Eskolako Zuzendarien Europako Elkartea —elkarte hori berriagoa da— ere babesten ditu hizkuntzak ikastearren eta kultur aukerak sustatzearren egiten diren Europar Batasuneko eskolen arteko loturak.

Baina, zalantzarik gabe, Europar Batasuna da trukeak bultzatzen dituen erakunde garrantzitsuena. Europako Batzordearen COMENIUS programaren bidez, lehen eta bigarren hezkuntzaz arduratzen den SOKRATES plan orokorraren zatia bidez, alegia, ekintza ugari jartzen dira martxan, eta horien artean, trukeak. COMENIUS eskola-proiektuen helburua ikastegiaren arteko nazioz gaindikoa lankidetzak sustatzea da. Parte hartzen duten herrialdeetatik, gutxienez hiru herrialdeetako ikasle-irakasleei interes komuneko gai batean edo gehiagotan elkarrekin lan egiteko aukera ematen diete proiektu horiek. Lankidetzak horri esker, parte hartzen dutenek honako hauetarako aukera izaten dute: esperientziak trukatzeko, Europako kultur, gizarte eta ekonomia mailako aniztasunaren hainbat alderdi ezagutzeko, euren ezagutza orokorrak hobetzeko, eta besteen iritziak hobeto ulertu eta baloratzeko. COMENIUS eskola-proiektuek ikastegiko ohiko jardueretan txertatuta egon behar dute, ikasketa-programaren osagarriak izan behar dute, hainbat ikasgela integratu, eta ikastegian ahalik eta eragin handiena izatea lortu behar dute. Proiektu batean parte hartzen duen ikastegi bateko ikasle guztiak proiektu horren jardueretan esku hartzeko aukera dute. Dena den, hoberena litzateke ikasleek proiektuaren fase guztietan parte hartzea, jardueren plangintza, antolamendua eta ebaluazioa barne. Esperientzia horiek gehien bat lankidetzak-prozesua bera dute kontuan, hau da, proiektu bat egitea Europako beste herrialde batzuetako kideekiko lankidetzan. Oro har, proiektuak direla-eta hainbat produktu sortzen dira, hala nola egunkariak, liburuxkak, ekitaldi artistikoak, webguneak, CD-ROMak, etab.



Eskola-elkarteen esparruan nazioz gaindiko mugigarritasuneko hainbat jarduera egiten dira, honako hauek, besteak beste: proiektuak egiteko bilerak; parte hartzen duten ikastegietako langileen eta ikasleen arteko bilerak, proiektuen plangintzari, antolamenduari, aplikazioari, kontrolari eta ebaluazioari buruz eztabaidatzeko; eta irakasleen arteko trukeak (truke horiek bisitaldietan egiten dira: irakasle batek hainbat jarduera —batez ere irakaskuntza-jarduerak— egiten ditu proiektuaren esparruan elkarturiko ikastegi batean). Horri esker, irakasleek ere honako leku hauetan egin ditzakete egonaldiak: enpresa batean, gobernuz kanpoko sektorean, edo sektore publikoan, adibidez, gizarte-zerbitzuetan, GKEetan, tokiko agintaritzetan, irabazi-asmorik gabeko erakundeetan, elkarteetan, etab. Irakasleen egonaldiak lotura zuzena izan behar dute proiektuaren gaiarekin, eta ikastegiko zuzendariaren ikasketa-bisitaldiek, berriz, proiektuaren jarduerekin. Egonaldi horiek antolatzearen helburua, ikastegiko zuzendaritzak proiektuan duen inplikazio-maila areagotzea da. Azkenik, ikasgela-mailako trukeak babesten dira COMENIUS hizkuntz proiektuen esparruan. Proiektu horiek hamalau urtetik gorako ikasleentzat dira. Gutxieneko iraupena hamalau egunekoa da, bidaiari barne, eta diru-laguntzak ematen dira helduak laguntzailer joateko; hamar ikasleko talde bakoitzeko gehienez bi heldu joango dira, eta nolahi ere, emakume bat eta gizon bat, talde mistoa bada.

## AISIALDIA, BIDAIAK ETA TURISMOA

Gerraosteko Europari buruzko eskola formalak interesgarriagoak egiteko izaten diren zailtasunei buruz ari zela, irakasle batek esan zuen ikasleentzat «Espainian, Italian edo Grezian oporretan izan badira bakarrik dela interesgarria Gerraosteko Europaren gaia. Modu pizgarrian aurkeztu behar zaizkiela [eskola formalak]». (21) Hitz horiek, paradoxikoak dira hein batean, ez baita oso ohikoa oporrak hezkuntzarekin lotzea. Izan ere, oporretako esperientziek askotan jendeak beste herrialdeei buruz dituen aurreiritziak sendotu egiten dituzte. Dena den, aisialdirako gero eta denbora gehiago emateak eta turismo-industriaren hedapenak, atzerrian ikasteko bidaiak egitea ahalbidetzeaz gain, jende askori oporretan atzerriara joateko aukera eman diote. Autoz, trenez, hegazkinez edo itsasontziz eginiko oporretan, haur eta nerabe askok Europako soinu eta irudi aukera aberatsa ezagutzen dute. Aukera horiek ikasleen elikadura-ohiturak, hiztegia eta gustuak aldarazi dituzte, eta gauza desberdinek ez dutela zertan arrotz izan pentsatzera animatu dituzte ikasleak. Garbi dago Europaren aniztasunaz jabetzea —askotan oinarrizko mailan bada ere— hura ulertzera eta ezagutzera iristeko lehen urratsa dela.

Euren familiekin oporretan joan nahi izateko helduegi direnean, Bigarren Hezkuntzako azken kurtsoetako ikasle askok lan egiteko edo hizkuntza bat ikasteko oporrak egiten dituzte, Bonn-eko (Alemania) *Pädagogischer Austauschdienst* deiturikoetan edo Ekialdeko Europako ingelesa ikasteko kanpamentuetan, esaterako. Horri dagokionez, Erresuma Batuko *Central Bureau*-k ikasketa-oporrei buruzko gida bat argitaratu du, opor horiek hezigarriak eta dibertigarriak izateko:

Ikastaro askotan hizkuntzak baino askoz ere gehiago ikasten da; adibidez, Espainian, espainiera, euskara edo katalana ikasteaz gain, gitarra edo dantza flamenkoa ikas daitezke; Frantzian, sukaldaritzari edo ardoari buruzko lantegietan parte hartzeko aukera izango duzu; eta Italian, italiar artea, zeramika edo eskultura ikasteko aukera dago. (22)

Kezka berrietako bat Ingurumen Hezkuntza izan da. Lehen begiratu batean, turismoaren, hezkuntzaren eta ingurumena-  
ren arteko loturek ahulak badirudite ere, irakasle gehienek eta natura defendatzeko nahiz ekosistema babesteko lanean diharduten erakundeek hiru alderdi horiek elkarren menpekoak direla onartu dute. Haurrek naturarekiko berez duten jakin-mina ondo dokumentatuta dago. Europako fauna eta flora ikastea helburu duten ikasketa-bidaietan, oso litekeena da faunak eta florak haurren interesa, edo agian lilura, piztea. Natur erreserbetan, parkeetan, landetxe-eskoletan, eta naturaren interpretaziorako zentroetan natura eta ikaskuntza modu desberdinetan uztartzen dira. Bigarren Hezkuntzako ikasle zaharrenei dagokienez, atari zabaleko jarduerak —mendi-ibiliak, eskalada, espeleologia— oporretako interes horiek helduaroan praktikatzeko jarraitzeko aukera ematen diete. Hala ere, ez dugu ahaztu behar turismoak ingurumenean izan

dezakeen eragina oso txarra izan daitekeela. Hori dela-eta, aisialdiaren industrian erantzukizun aktiboa onartzeko beharra piztu da. Mediterraneoko turismo-helmugetara, esate baterako, urtean ehun milioitik gora bisitari iristen dira, eta horrek eragin itzelak ditu azpiegituran zein ingurumenean. Eta eskualde alpinoetan ere masa-turismoa jasan behar izan dute. Hori guztia dela-eta, beharrezkotzat jo da Europako biztanleek turismo alternatiboa egitea; turismo alternatibo horrek ekologiari dagokionez, tokian tokiko komunitateekiko kudeaketa sentikorra eta adeitsua izan behar du. (23)

Idea horiek hezkuntzan dituzten eraginak eztabaida-fasean daude oraindik ere. Turismoa geografia-programetan ondo ezarritako eduki-arloa da, baina ikasleek ez dute erabat ulertuko, horren esanahia ez bada lotzen eskolan ikasten dena esperientzia praktikoa ematen duen aisialdi edo truke programa batekin. Adibidez, Erresuma Batuan bada *Travel and Tourism* (Bidaiak eta Turismoa) izeneko ikastaro bat 15-16 urteko ikasleentzat, eta besteak beste, ikasleek Frantziako jatetxe eta hoteletan lan egiten dute. Schleswig-Holstein eskualdean bertako presio-taldeak kanpaina turistiko berezien bidez jarrerak aldarazten saiatu dira, gazteen aisialdi-beharrak asebetetzeaz gain. (24)

Europako Kontseiluak beste estrategia bat ere sustatu du: kultur turismoaren kontzeptua. Abandonaturik zeuden Europako kulturaren arloak babesteko mugimendutik, eta horrek turismo eta aisialdi industriekin duen loturatik sortu da hori. Arlo horiek honako hauek dira: antzinako europarren merkataritza eta arte zein espiritu mailako jardueren testigantza fisikoak. Udako eskolen bidez izan den helduen hezkuntzaren hazkundera eta opor aktiboan onarpena ere pizgarriak dira. Kultur turismoaren balioak ere Europar Batasunaren eta UNESCOren babesa du; hala, Europako Kontseiluak kultur bide bat gauzatzeko ekimena —«Zetaren Bidea» deiturikoa— UNESCOren proiektu osoaren zati bat izan zen. Proiektu horrek antzina merkatariek Europan zehar egiten zituzten bideak, arkitektura zein industria ondarea eta eskualdeen arteko eragin artistikoak (5. kapituluan azaldutakoak) lotzen ditu, eta aukera izugarriak ditu ikasgelatik kanpoko diziplina arteko irakas-kuntzarako.


Hemen aintzat hartu diren ekimen guztiek iradokitzen dute gazteentzako bidaia antolatuek mende berrian garatu beharreko alor bat jarraituko dutela izaten. Mugitzeko askatasuna gizarte demokratiko batean gehien balioesten den eskubideetako bat da. Ezin da ukatu mugitzeko ahalmenarako oztopoak daudela, baina horiek murrizten ari dira. (25) Aurkeztu diren adibide gehienak Mendebaldeko Europari buruzkoak badira ere, Ekialdeko Europako gazteek Mendebaldera bidaiatzeko duten askatasunak dimentsio bat gehitu dio Europar Batasunaren hedapenarekin sortu den Europako gizarte mugikorraren panoramari.

Oinarrizko bilakaera hori sendotzeko, merkataritza, zientzia eta teknologia alorretako gobernuen arteko ekimenak daude. Gainera, bilakaera horrek Europako Kontseiluaren helburu nagusia islatzen du: Europako biztanleak lankidetzaren-espíritu batean elkartzea. Horretarako, ideia estereotipatuak alde batera utzita, desberdintasunak errespetatzen eta kulturaren, historiaren eta ingurumenaren arteko lotura komunak aintzat hartzen ikasi behar da. Helburu horiek lortzea askoz ere errazagoa da Europako beste herrialde batzuetan zuzeneko esperientziaren bidez, ikasgelan bakanduta baino. Gainera, helburu garrantzitsuak dira; izan ere, beste europar batzuk ulertzen ikastea alde aurretiko baldintza da erabateko elkar ulertzea lortzeko. Veneziako irakasle batek Europako eremuko lehenetsun hori ulertu eta modu adierazgarrian azaldu zuen:


Europa ez da liburuaren bidez eraikitzen; aitzitik, bidaiatuz, muga politikoak ukatuz eraikitzen da; gazteek horrela hezi nahi dute, ahal bezain laster [...]. Gure bihotzetan eraikitzen da Europa, eta bihotzera, esperientziaren bidez, giza harremanen bidez iristen da, adin bereko gazteen eguneroko bizitza eta interesak ondo ezagutuz. (26)

Garai batean plan horiek atzera bota zituzten, idealismo errukiortzat hartu baitzituzten, baina egungo irakasleek errealtak izan behar dute. Irakasle horrek Italiako ikasle-talde batengan itxaropen eta aukera gisa ikusi zuena Europako eskola gehienetan ere gauza daiteke.

## 10. irudia Ikasgelaz haratago hezkuntzaren laburpena



- (1) *Report on UK European Awareness Project*, Londres: Central Bureau for Exchange Visits.
- (2) Platt, James (1981) «The role of educational visits» (Paper for Symposium on Europe), Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- (3) (1988-9) *Annual Report Statistics*, Londres: Central Bureau for Exchange Visits.
- (4) Zweyacker, A. (1980), «The contribution of extracurricular activities to education on human rights» Mariet, F. *Report on Teaching Human Rights-en*, Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- (5) (1989, 1990, 1991) *Introduction to the International Education Centre, Svendborg*.
- (6) *Report on UK European Awareness Project*.
- (7) (1987-8), *Annual Reports of the Central Bureau for Exchange Visits, 1986-8*, Londres: Central Bureau for Exchange Visits.
- (8) Graves, Norman (1991), *Report of Utrecht Symposium*, Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- (9) *Report on Exchange as a Resource*, UK EEE, 1981eko martxoa.
- (10) Serra, M. (1989), «The educational usefulness of international exchanges» *EUROEDNEW*, 27/28-n aipatua, 77. or.
- (11) *Ibid*.
- (12) Carpenter, J. (1989), *Report on computerised school links, Exeter*, Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- (13) Ikusi 6. Kapituluua.
- (14) Lovegrove, H., *Final Report of 1<sup>st</sup> European Youth Theatre Encounter*, Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- (15) (1987), *The Times Educational Supplement*, abuztuaren 14a, *ibid-en* aipatua.
- (16) (1989, 1990), *Reports of Europe at school*, Bonn: Europe at School Coordinating Unit.
- (17) Roy, Alain (1989), *Final report of youth event for the 40<sup>th</sup> anniversary of the Council of Europe*, Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- (18) (1988) *Final Report on Youth Peace Seminar*, Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- (19) Roy, *Final report of youth event*.
- (20) UNESCO (1987) *Yes, We Can ... Together*, Paris: UNESCO.
- (21) Goodson, I. eta V. McGivney (1985) *European Dimensions and Secondary School Curriculum*, Lewes: The Falmer Press.
- (22) (1989), *School Unit News*, (Central Bureau, udazkena), 4. or.
- (23) Travis, Anthony (1988), «Alternative Tourism», *Naturopa*, 59, 25-9. orr.
- (24) (1989), *School Unit News*, (Central Bureau, udazkena), 8. or.
- (25) Danneman, Gerhard (1988), «Barriers to youth mobility», *Youth of the 22*, 1, 9. or.
- (26) (1989) «European Education in Italy's secondary schools» *EUROEDNEW*, martxoa, 75. or.



# 9

## EUROPA ETA MUNDUA



- NAZIOARTEKO IKUSPEGI BATEN GARAPENA
- HEZKUNTZARA DIMENTSION OROKORRA  
GAINERATZEAREN FUNTSEZKO ARRAZOIA
- EUROPA ETA MUNDUA: ESTRATEGIAK ETA  
IKUSPUNTUAK
- MUNDUKO BESTE ZONALDEAK ULERTZEA
- GARAPEN OROKORRA ETA IPAR-HEGO HARREMANAK

## NAZIOARTEKO IKUSPEGI BATEN GARAPENA

Hezkuntzak dituen horizonte geroz eta zabalagoen adierazgarri baino ez da irakaskuntza eta ikaskuntza gelatik kanpoko mundurantz zabaldu izana. Pertsonen geroz eta mugikortasun handiagoa tarteko, 1960ko hamarkadaz eta komunikabi-deen iraultzaz geroztik, mundua «herrixka global» baten modura ikustearen kontzeptua erreala goa bihurtu da, eta guz-tiok ere hitzetik hortzera darabilgu globalizazio terminoa. Horren guztiaren ondorioz, zenbait espezialistek zalantzan jartzen dituzte Europako gazteak bizitzarako eta herritartasunerako prestatu behar diren moduari buruzko suposizioak. Hori be-reziki garrantzitsua da, «Europarako hezkuntza» bitarteko eta helburu *nazionalen* kontua soilik dela pentsatzen baitute oraindik ere agintari askok. Herbehereetako esperientziari jarraiki, *Centrum voor Europese vorming in het Nederlandse or-derwijs* (CEVNO) erakundeko presidente Henk Oonk-ek «ezer baino lehen, funtsezkoa da “nazioarteko hezkuntzaren” kontzeptua garatea» gomendatu zuen, eta horrek UNESCOren eta Europako Kontseiluen adierazpenak baieztatzen ditu, «munduko gainerakoarekin elkartasun-sentimendua erakusteko» eskatuta Europako gizarteari. Hezkuntzak «herri guztien, haien kulturen, zibilizazioen, balioen eta bizimoduaren ulerkuntza eta haiekiko errespetua» adierazi behar duela ere esaten dute, eta ikasleek «nazioarteko dimentsioa eta ikuspegi orokorra» esperimentatu behar dituztela, «betiere hezkun-tza-arloan, maila guztietan eta modu guztietan». (1)

1945az geroztik, jende ugari agertu da nazioarteko hezkuntzaren alde. Une hartan, Nazio Batuen agentziek nazio-arteko elkar ulertzerako bultzatu zuten hezkuntza. Hainbat naziotako ikasleen arteko lankidetzak praktikorako meka-nismoa ekarri zuen UNESCOk, Eskola Elkartuen bere Proiektuaren bidez (ASPRO), eta 1970eko hamarkadaz geroz-tik, Nazio Batuen Haurrentzako Fondoak (UNICEF) laguntza eskaini du hezkuntza-materialak maila orokorrean produzitzeko. Nazio-eremuan, Erresuma Batuko Munduko Herritartasunerako Hezkuntza Zentroak gai orokorrak aztertze-ko aukera sustatzen du 1939az geroztik, eta Garapen Orokorrerako Hezkuntza Zentro Britainiarrak aurrera-bide ugari egin ditu curriculum-ikerketako bere programarekin. Aldi berean, Europako iparraldeko estatu asko aban-goardian jarri dira ikuspegi orokorra lantze-ari dagokionez, eta bigarren hezkuntzako euren ikasketak-plan berri-  
Bigarren Mundu Gerraz geroztik gizarte eskandinaviarrak izan dituen helburu humanitarioak adierazten ditu. Ildo horretan, orpo-  
z orpo dituzte Herbehereak, CEVNO erdiko ardatza bihurtu baita bertan hezkuntza orokorrerako, due-  
la berrogei urtez geroztik. Beste zenbait herrialdek euren ikasketak-planak aldatu dituzte hainbat arazo orokor  
Historia eta Geografia programetan barne hartzeko; Austriaren hezkuntza-helburu orokorrak (*Allgemeine Bildungsziel*)  
ezartzen duenez, hurrek «Austriaren, Europaren eta munduaren bizitza» konpartitu behar dute, eta Historia eta  
Geografia irakasteko orientazio-ildoetan garatzen du printzipio hori. (2) Estatu-  
etako hainbat sistematan gai orokorrak jor-  
ratzen dituzte diziplina askotariko edo diziplina arteko ikasketetan, gizarte-zientzietako kontzeptuak erabili-  
ta: Ikas-  
keta Moderno Eskoziarrak, Gizarte Ikasketak Modernoak eta Alemaniako *Gemeinschaftskunde* deiturikoa aipa litezke  
alor horretan.

Hala ere, 1979az geroztik, Lankidetzak Kulturalerako Kontseiluak (CDCC) alor ugari zabaldu ditu, europarrak ez diren herri-  
aldeekin hezkuntza-elkarrizketa izatearen alde eginiko kanpaina tarteko. Europari buruzko irakaskuntza eskulib-  
oak irak-  
asleak eurozentrismoaren akusaziopean utzi zituenaz jabetuta, geroz eta interes handiagoa hartu zuen CDCCk Ikas-  
keta Orokorraren eta Garapenerako Hezkuntzaren curriculum-programetan. Dena den, ikuspegi horrek dakartzan arriskuez  
ere jabetu dira Kontseiluko adituak. Eurozentrismoari propio aurre egiteko ikastaroek bestelako etnozentrizitate-moduak  
eragin ditzakete, «Historia Beltza» (3), esaterako, eta oinarri logikorik ez badu, nazioarteko hezkuntzak inkoherentziari eta  
milikeriari zabaltzen die atea.

## HEZKUNTZARA DIMENTSIO OROKORRA GAINERATZEAREN FUNTSEZKO ARRAZOA

Nazio Batuek eta bestelako erakundeek argitaratu dituzte gai orokorrak barne hartzeko justifikazio nagusiak. UNESCO-ren estatutuek jada ohartarazi zigutenez, «pertsonek buruan hasten dira gerrak, eta pertsonen buruan, hain zuzen, erai-ki behar dira bakerako defentsak». Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 26. artikulua adierazten duenez, «nazio, eta talde etniko eta erlijioso guztien arteko elkar ulertzea, tolerantzia eta adiskidetasuna sustatu behar ditu hezkuntzak». Horri jarraiki, nazioarteko hezkuntzaren funtsezko arrazoia ardatza zera izan zen, haren ondorioa munduko bakea sustatuko zuten etorkizuneko belaunaldi europarrak izango zirela. Filosofia horren ildotik sortu zen herrialde eskandinaviarretan Bakerako Hezkuntza mugimendua, eta Bakeari buruzko Ikasketak Bradford-eko Unibertsitatean eta Galeseko Ikastetxe Atlantikoan. Johan Galtung eta Magnus Haavelsrud-en aitzindari-lanaren fruitua izan zen Bakerako Hezkuntza, eta bigarren hezkuntzako eskoletan garatu da Finlandiako eta Suediako nazioko agintarien babesarekin. Kontzeptu garrantzitsuen definizioan egin dute aurrera, «bake positiboaren» ideia barne hartuta, eta emoziozko konpromisoa eta jarduteko nahia baliatzen dituzten irakasteko estrategietan. (4) Bakearen arrazoa pizgarri suertatu da Austrian nazioarteko hezkuntzarako. Herrialde horretan, Hezkuntza eta Kultura Ministerioak 1962an ezarritako araudiek adierazten dutenez, bigarren hezkuntzaren helburuetako bat «gazteei gizateriaren zeregin komunetarako laguntza eskaintzeko aukera ahalbidetzea da, askatasunerako eta bakerako duten debozioa tarteko».

Bakean dagoen munduak baterako existentzia eta elkarren mendekotasuna onartzea esan nahi du. UNESCOk Nazioarteko Elkar Aditzerako Hezkuntzari buruz egindako Gomendioak hezkuntza-politiketan erantzukizunak dituztenek «herri eta nazioen arteko geroz eta handiagoa den elkarren mendekotasun orokorraren kontzientzia» suspertzea eskatzen du, ikaskuntza, prestakuntza, informazioa eta ekintza uztartuta. Hainbat modutan erantzun zieten herrialdeek NBEk egindako deialdi horri, eta oraingoan ere Austria dugu estatuaren erantzun konstruktiboaren adibide egokia. 6-10 urte bitarteko ikasleentzako planak ezartzen du «mundurako oro har jarrera irekia» izateko oinarria (*Heimat- und Lebensnähe* testuinguruan), eta «3. eskolan» (8 urte), berriz, lehentasun berezia ematen zaio atzerriko herrialdeko pertsonekin izan beharreko zuzeneko harremanari. Ikuspegi hori gehiago garatu da bigarren hezkuntzako eskolan, irakasle austriarrek euren nazioarteko erantzukizunak serio hartzen dituztela erakutsita. (5) Dena den, hezkuntza-politikak lantzen dituztenek botere orokorraren alde aurreko baldintza berriak hartu behar dituzte kontuan. Iraultza demografikoaren eraginez langile-klase gazte eta geroz eta hiritarragoa sortu da Asiako hegoaldean eta Indonesian, bertan munduko biztanleen erdia baino gehiago bizi dela ahaztu gabe, eta bertan ekonomia globalizatu batean egitura politiko eta ekonomikoen sistema konplexuak irauten duela kontuan izanda. Ezin dira alde batera utzi elkarren mendekotasun desberdinaren errealitateak, ezta mundu globalizatu batean beste eskualdeetako sistema ekonomikoak eta kulturak baztertu ere.

Testuinguru orokorreko irakaskuntza europarraren oinarri logistikoa azaldu dugu orain arte termino orokorretan. Hala ere, badu zentzurik dimentsio orokorra ikasketa-planean sartzeko, berariazko arrazoiak eta arrazoi pragmatikoak tarteko. Eskola kulturazko erroka dela-eta, lehenengo lehentasuna komunitate etniko desberdinetako haurren arteko elkar ulertze kulturalaren amildegia gainditzea zela konturatu ziren irakasleak. Funtsezkoa izan zen talde guztien ezjakintasun eta mesfidantzari aurre egitea, eta erroturiko hertsikeriaz eta aldian-aldian ikasleen eta haien gurasoen artean sorturiko arrotzekiko intolerantziaren arduratzea. Ikasketa-planen egituraren zegoen soluzio bat, programen murrizketa konbentzionalak gaindituta ikuspegiak zabaltzea ahal izateko edukiei eta estrategiei dagokienez. Ikasleei munduko kulturen aniztasun izugarriaren ideia osatuagoa eskaintzea izan da helburua, bakartze edo eskusibitate sentimenduak hausteko, horiek baitira aurreiritzien eta pentsamendu estereotipatuaren arrazoiak.



Hortaz, dimentsio orokorraren eginkizunetako bat gazteengan egokiak ez diren jarrerak kentzea da, erregionalismoak, xenofobia nazionalak, eurozentrismoak edo beste edozein diskriminazio-moduk eragindakoak direla ere. Alde positiboan, dimentsio orokorrak edozein kidesun kultureleko pertsonarengan sentsibilitatea garatzeko aukera suspertu behar du. Zenbait irakurlek arazo bat ikus dezakete baieztapen horretan: izan ere, deklarazio bera egin zen hezkuntza-arloko dimentsio europarraren alde. Hala eta guztiz ere, irakaskuntza europarra Europaren eta beste zibilizazioen arteko elkarrekintza positiboari buruz ikasleak kontzientziatzeko moduan planifikatzen bada, inolako interes-gatazkarik ez duela zertan egon argudia liteke. Aitzitik, irakasleen helburua «enpatia orokorra garatzea» bada «[...] jendearen pertzepzioak, eta jende horren eta haien munduaren zati esanguratsuaren emozioak, usteak, balioak eta nahiak *erabilia*», ikuspegi orokorrak eta europarrak elkar sendotu behar dira, batez ere jarreraren eta ezaugarrien arloan. (6) Japoniako, Brasilgo edo Magrebeko nerabeek aurre egin beharreko egoerekin enpatizatzen ikasten badugu, errazagoa izango zaie Europako gazteei euren kulturaren beraren indibidualtasunak ulertzea:

Nazioarteko arazo, egoera eta kulturak ikasteak gure gizarteak hobeto ulertzea ere eragin dezake, haiek ikuspegi zabalagoan kokatuta. Prozesu horretan, ezagutza-maila handiagora irits liteke, eta ez soilik komunean daukagunari, eta premien eta giza eskubide unibertsalen pertzepzio argiagoari dagokionez, baita alderdi desberdinei buruz ere. Prozesu horretan ez dugu gure gizarte-nortasunaren oinarria iraultzen, baizik eta sendotzen, hori baita eskolen kezka. (7)

Bada beste curriculum-argudio bat, ikasketa-planaren ezagutzekin eta edukiekin loturikoa. Orekaren eta ikuspegiaren garrantzia aintzat hartzen da humanitateetan: denborazko, espaziozko eta gizarte-esperientzia arloko oreka, berehalakoaren eta ezagunaren, eta ezezagunaren eta urrutikoaren arteko oreka. Nerabezaroaren ikuspuntutik, ikuspegien arteko zatiketak puntu jakin bateraino ezabatu dira. Komunikazioaren teknologiari esker, urrutiko gertakariak etxetik irten bezain laster gertatzen direnak bezain arruntak izan litezke. Kabulgo, Bagdadeko, Sarajevoko, Tiananmengo Plazako, Berlingo edo Buenos Aireseko eszenak ezagun egiten zaizkigu —telebista-pantailako irudiak direnez— «tokiko»aren eta «nazioarteko»aren arteko bereizketa faltsutzeko moduan, batez ere gazteentzat. Nazioarteko ordena ez da, inondik inora, homogenea edo egonkorra, baina kalterako litzateke muga kultural edo geografikoak ezartzea Europako gazteen hezkuntzan. Aitzitik, Historiaren irakaskuntzari buruzko Helsingör-eko Sinposioa horizonte nazional eta europarrak ahal den neurrian ikuspegi orokor bateraino zabaltzearen alde agertu zen. Dena den, Gizarte Gaietarako Amerikako Kontseilu Nazionalak irmo agertu zuen hezkuntza orokorrak Historia eta Gizarte Gaietako ikasketa-planak soilik barne hartu behar ez ditueneko ustea, eta aitzitik, programa guztiak jorratu behar dituela. Bruce Murray-k ohartarazi zuenez, «munduaren historiaren une paregabean gaudela onartu behar dugu [...]». Ikuspegi orokor berri bat behar dugu etsi-etsian, zientzia-gertakariekin koherentea, baina askoz ere zabal eta barnehartzailleagoa». (8) Austriako *Gymnasium* bateko hiru ikaslek berretsi zuten haren iritzia ondoren, Europako Kontseiluaren konferentzia batean; haiek adierazitakoaren arabera, ikuspegi garrantzitsuak lortu zituzten zenbait gai azpimarragarrien ikaskuntzan Biologiako, Kimikako, Fisikako, Zientzia Politikoetako, Musikako eta Arteko euren eskoletan. (9)

Arrazoi argi eta garbiak daude Europaren eta munduko beste kulturen arteko lotura kulturalak garatzeko (ikus laburpena kapitulu honen amaieran). Hala ere, ariketaren parametroekin erabat seguru egon beharra dago justifikatzeko. Bi alderdi hartu behar dira kontuan. Programak eta ordutegiak eraginpean hartzen dituen puntu praktikoa da lehena: Nola barne har litezke planetaren beste eremuak *Europari buruz* irakatsi eta ikasteko prozesuan? *Europako bizitzarako* ikasleen prestaketa ikasketa orokorrek duten eraginkortasun eta egokitasunari buruzko gaia da bigarrena: Nola lagunduko die dimentsio orokorrak etorkizunean heldu, aita edo ama eta herritar gisa izango duten zereginean?

## EUROPA ETA MUNDUA: ESTRATEGIAK ETA IKUSPUNTUAK

Eztabaida zabalaren ardatz nagusia izan dira galdera horiek CDCCn 1980ko hamarkadaz geroztik, eta denbora ugari eskaini zaio irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren helburuei buruzko gogoetari, edukien hautaketari, estrategiei, ikuspuntuei eta hezkuntza-materialei. (10) Zaila da haien iritziak tarteko (betiere haien esperientzietan oinarrituta) elkarrizketarako lagundu duten hainbeste espezialistaren eta irakasleren ondorioak laburbiltzea. Kapitulu honen amaieran helburuen laburpean aurkezten da haien asmoen gogoia. Irakasleek interpreta ditzaketan termino orokorretan adierazten dira helburu horiek, eskola bakoitzaren zirkunstantzia propioen arabera. Praktikan, gehienek agian onartuko dituzte hezkuntzaren azpian dauden printzipioak nazioarteko elkar aditzerako eta independentzia orokorrerako, baina ikuspegi ugari adierazi dira estrategien eta ikuspuntuen gaiari buruz.

Oro har, hiru kategoriatan bana litezke ikuspegi horiek. Lehenik, irakasgai tradizionalen aldekoak ditugu, jakintzagaien ikasketa-plan formalean beste kulturei buruzko material berria barne hartzeko aukera bultzatzen dutela. Ikuspuntu horren defentsan, jakintzagai-kopuru handia nazioarteko dimentsioan sar liteke, gutxi-asko. Bigarrenik, hor dugu diziplina anitzeko edo diziplina arteko ikuspuntuaren aukera, hainbat herrialdetan jada ezarri dutela eta beste zibilizazio baten konplexutasunak irakasteko tresna malguaren lanak egin ditzakeela kontuan izanda. Beste hirugarren aukera bat ere bada, bigarrenaren bilakaera. Orduategiak eta curriculum-tarteak Arlo Ikasketetako bereziki diseinaturiko unitateak (modulu solte gisa, edo diziplina anitzeko edo diziplina arteko ikastaroren baten zati gisa) sartzeari ahalbidetzen badute, tresnarik egokiena izan litezke, Arlo Ikasketek definizioz berezko kohezioa baitute, eta egokiak dira kontzeptuak aztergai dituen ikuspunturako, helburuetan eta hemen aurkezten den oinarri logikoan inplizitua dagoela jakinda (ikus 9. taula). Bigarren hezkuntzako eskolako ikasketa-planaren arlo bat urtero modulu desberdin batean barne hartzea izan liteke soluziorik integraztaileena, ikasketa europarretarako hornikuntzarekin batera.

Komenigarriak edo egokiak ote direnari buruz, Europako Kontseiluko espezialistek konbentzitzeko moduko argudioak azaldu dituzte berriazko kulturak Europako ikasleen ikasteko esperientzian barne hartzeko, 16-18 urte bitarteko taldeari

**9. taula** Nazioarteko elkar aditzerako irakaskuntza eta ikaskuntza

Jakintzagaien ikuspegiak: Bana-banako irakasgaiak	Espezialisten ikuspegiak: Arlo-ikasketak	Diziplina anitzeko edo diziplina arteko ikuspegia
<ul style="list-style-type: none"> <li>● Geografia</li> <li>● Historia</li> <li>● Zientzia Ekonomikoak</li> <li>● Soziologia</li> <li>● Gizalege Hezkuntza</li> <li>● Erlitio ikasketak</li> <li>● Artea</li> <li>● Musika</li> <li>● Hizkuntza/Literatura</li> <li>● Biologia</li> <li>● Etxeko Ekonomia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Ipar Amerikako Ikasketak</li> <li>● Asiako Hego-ekialdeko Ikasketak</li> <li>● Txinako Ikasketak</li> <li>● Japoniako Ikasketak</li> <li>● Asiako Ikasketak</li> <li>● Afrikako Ikasketak</li> <li>● Latinoamerikako Ikasketak</li> <li>● Ipar-Hego Gaiak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Ikasketa Orokorrak</li> <li>● Garapenerako Hezkuntza</li> <li>● Ingurumen Hezkuntza</li> <li>● Bakerako Hezkuntza</li> <li>● Kultura arteko Hezkuntza</li> <li>● Hezkuntza Politikoa</li> <li>● Ikasketa Modernoak</li> <li>● Giza Eskubideetako Hezkuntza</li> <li>● Komunikabideetako Hezkuntza</li> <li>● Gizarte Hezkuntza</li> </ul>

dagokionez. Kultura horien bereizgarritasuna, munduko jokalekuan denborak aurrera izan duten garrantzia edota Europaren iragan eta oraindirako termino politiko, ekonomiko eta kulturaletan duen esanahia eta etorkizunerako duten garrantzia izan dira justifikazio ohikoenak. Argudio horiek guztiak kontuan hartu dira kapituluaren amaierako helburuen laburpenean. Ohar horiek guztiak kontuan hartuta, azken urteetan Europako Kontseiluaren programan aztertu ziren herrialdeei eta kulturei buruz erakusteko inplikazioetan sakontzeko unea iritsi da.

## MUNDUKO BESTE ZONALDEAK ULERTZEA

### Ipar Amerika

Ez da oso harrigarria Europako Kontseiluaren mahai-inguru programak batez ere Estatu Batuei eta Kanadari buruzko irakaskuntza lehenetsi izana, ez eta programak herrialde horietako irakasleak irakasle europarrekin lotzea ere, euren esperientzien bateratze-lana egin eta arazoak batera aztertu ahal izateko. AEBek duten superpotentziaren estatusa eta bi kontinenteen arteko lotura berezia kontuan izanda, erabaki oso gomendagarria da hori. Gainera, NATOren indar iparramerikarrak eta horien familiartekoak Europako lurrean egoteak eta komunitate iparramerikar askoren sustrai europarrek, horren ondorioz «eragin-zirkulu» atlantikoaren zati direla kontuan izanda, indartu egiten dituzte argudio horiek. Eta azkenik, Iparramerikako herri-kulturak Europako gazterian duen eragina hartu behar da kontuan. Horri jarraiki, Europako Kontseiluaren mintegiak eta hitzaldi garrantzitsuak antolatu dira, Europako eta Ipar Amerikako irakasleek eta espezialistek parte hartu dutela, Estatu Batuei eta Kanadari buruzko irakaskuntzaren funtsezko gaiak eztabaidatzeko.

Lau lehenengo mintegietan parte hatu zutenek eskoletan ezkutaturiko ikasketa-planaren ahalmena ezagutarazi zuten, ziur asko Ipar Amerikari buruzko irakaskuntzaren helburuen eta funtsaren aurka doala kontuan izanda. Komunikabideak ziren indar hori, irudi liluragarriez osatutako euren mamuekin eta mitoak sortzeko gaitasun mugagabearekin. Estatu Batuen ikuspegi partzial eta zatikatuaren efektua eragiten zuen Europako ikasleen artean. Hala eta guztiz ere, beste kultura baten irakaskuntzak eta ikaskuntzak ezin zituen alde batera utzi ikasleek eskolatik ekartzen zituzten euren lehenengo urteetan barneraturiko usteak, izan ere estereotipaturiko pentsamendu askoren oinarri baitira. Europako eskolan, Estatu Batuei buruzko irakaskuntzak Historia, Geografia, Gizarte Ikasketaren bat eta Ingelesa Atzerriko Hizkuntza gisa biltzen ditu (azken hori izaten da lotura nagusia, ingelesa hizkuntza nazionala den herrialdeetan izan ezik). Zenbait irakasleek beste arazo batzuk ere aipatu zituzten, jakintzagaiaren konplexutasun eta aniztasunarekin, eta zeharkako ikuspegiak ezarekin loturikoak, eta baita ere Estatu Batuei buruzko azken argitalpenei dagokienez eguneratuta egoteak dauzkan zailtasunak, hori guztia gelan erabiltzeko zein norberaren informaziorako.

Iruzkina biltzen zituen bibliografia bat izan zen lehen mintegiaren emaitza oso baliagarria, Ipar Amerikako gizarteari buruzko obra egin berriak biltzen baitzituen. Gainera, Europako irakasleek helburu argiak eta irizpide diskriminatzaileak nahitaez identifikatu behar zirela adostu zuten, Estatu Batuei buruz ikasleek zer ikasi beharko luketen hautatzeko. Ondorengo mintegietan gai horiek jorratu eta hainbat ikuspegi proposatu dira, Danimarkako, Norvegiako, Portugaleko eta Erresuma Batuko espezialisten esperientzia baliatuta: kasuen bitarteko ikaskuntza, gai orokorrak, funtsezko kontzeptuak, haurra aztergai duen ikaskuntza, bereizitako jakintzagaien erabilera eta diziplina askotariko ikuspegia. Helburuen definizioan aurrera egin da Estatu Batuei buruz Europan irakasteko, Frank Fitz-Gibbon-en lanaren laguntza nabarmenarekin; balioen eredu bifokalaren alde agertu da, enpatia helburu afektiboaren eta berezitasun, antzekotasun eta desberdintasuneko prozedurazko kontzeptuen inguruan. (11)

Europako Kontseiluaren zenbait argitalpenetan adierazi dira Ipar Amerikako eta Europako kulturaren arteko zenbait funtsezko alde. Henri Jannen iritziz, euren askatasunen benetako babesak ekarri behar die askatasunak Europako biztanleei (euren ikuspegiaren arabera), hau da, segurtasun efektiboa eta ez soilik legezko bermeak. Horren arrazoia Europako biztanleek «Estatuari dioten beldur sakon, antzinako eta psikologikoa» da, baina aldi berean agintearen eta trabarik gabeko askatasunaren premia eskizofrenikoa ere badute, mendeetako borrokaren ondorio. Ipar Amerikako biztanleak, aitzitik, tradizio horiekin hautsi ondoren, «emigratzaile etengabeak» bihurtu dira termino soziologikoetan, eta ontzat ematen dute berme pertsonalak edo konstituzionalak ematen dizkien Estatuak. Europako biztanleek, berriz ere historiaren biktima, gizartea eta euren espiritueltasuna bereizten dute, eta utopia ideologikoak —zenbaitetan kristauak, zenbaitetan sozialistak edo liberalak edo filosofikoak— bilatzen dituzte, eta Ipar Amerikakoek, berriz, euren gizartearen eraikuntzan zeregin bat dutelako ideiarekin hezita, gizartea bera identifikatzen dute euren utopiarekin. Horrek argitzen du hainbat nozioren esanahia, «amets amerikarra», «muga berria», edo «Ipar Amerikako bizimoduaren» mitoa, adibidez. Azkenik, bada alde bat Europako eta Ipar Amerikako «aniztasunaren» kontzeptuen artean. Europako aniztasuna, bere atzean mendeetako historia izaki, soziopolitikoa da batez ere; alderdi demokratikoez gizarite politikoaren aukerak eskaintzen dizkiete hautesleei. Ipar Amerikako aniztasuna adostasun soziopolitikoan oinarritzen da, hauteskondeek erlijioarekin eta etika pertsonalarekin dute zerikusia. (12) Ipar Amerikako gizartearen balio nagusiak arrakasta, lana, humanitarismoa, orientazio morala, pragmatismoa, aurrerabidea, kanpo-adostasuna, arrazionaltasun zientifikoa, abertzaletasuna, demokrazia eta indibidualtasuna dira. (13) Balio horiek sustrai europarrak badituzte ere, Ipar Amerikan aldatu egin dira, esanahi berriak hartu arte.

Irakasleek komunitate atlantikoaren aldeak eta balio komunak nola moldatu jakin behar dute, trebetasun eta jarrera egoiak garatzen dituzten jardueren bidez aztertzeko. Honako hau da lehentasuna, Fitz-Gibbonek adierazten duenez:

Ipar Amerikako biztanleak egoera bat Europako biztanleek ikusten duten moduaren antzera gutxi-asko ikusteko prest zergatik egongo diren atzemateko gaitasuna; zergatik duten iparramerikarrek gauza batzuei beste batzuei baino garrantzi handiagoa emateko aukera handiagoa, eta nola lehentasun horiek eta europar askorenak desberdinak diren. Iparramerikarrek mundua eta euren burua ikusten duten modua ulertzea da garrantzitsua. Horrek soil-soilik egiten ditu iparramerikar. (14)

Antzeko ikuspuntuak adierazi dituzte balioen zentraltasunean oinarrituriko ikuspegiaren alde daudenean. Ikuspegi horren ondorioz 14-17 urteko ikasleentzako modulua sortu da, enpatia kontzeptuan oinarriturikoa. Irudiek eta estereotipoek «atzeritarren» eta «atzerriko lekuen» irakaskuntzari nola eragiten dioten adierazteko baliagarria da eredu hori. (15) Honako hau da proposamena:

1. Estatu Batuei buruzko estereotipo europarren *identifikazioa*, esate baterako:
  - AEB gizarite bortitza da.
  - Gizonek menderaturiko gizaritea da AEB.
  - AEBetako jendea aberatsa da, modu uniformearen.
  - AEB gizarite mugikorra da, aldatetarekin uztarturikoa.
  - Estatubatuarrak teknologiarren jarraitzaile sutsuak dira.
  - Estatubatuarrak tamainaren zale porrokatuak dira, eta «zenbat eta handiago, hainbat eta hobeto» uste dute.
  - Estatubatuarrak oso indibidualistak dira.
  - Estatubatuarrak oso orientatuta daude arrakastarantz.
  - Estatubatuarrak harroak dira AEBen ahalmen eta lorpenei dagokienez.
  - Estatubatuarrak munduaren ikuspegi inuzentea dute, euren kultura azalekoa delako.

- AEBetako emakumeak oparotasunaren ezti-gozoetan bizi dira edo feminista erradikalak dira.
  - Estaturatuak zinez sinesten dute euren sistema politikoan eta euren Konstituzioan
2. *Kontuan hartzea* Europarrek eta estaturatuak zenbateraino duten kultura komun bat eta zenbateraino osatzen duten «komunitate atlantiko bat».
  3. Europa eta Estatu Batuetako jarrean *azterketa* funtsezko idealekiko, erakundeekiko eta fenomenoekiko: esate baterako, aurrerabidea, berdintasuna, abertzaletasuna, materialismoa, teknologiak gizartean duen inpaktua eta interes nazional legitimoa.
  4. Estatu Batuetako balio kulturalen aniztasunaren eta unitatearen paradoxa eztabaidatzea, aberatsen eta pobreen arteko desberdintasunaren argitan, eta Estatu Batuetako gizartearen oreka etniko orokorra ere kontuan hartuta. «*Melting Pot*» eta «*E pluribus unum*» kontzeptuak egokiak al dira oraindik Estatu Batuetako gizarte modernoak deskribatzeko?
  5. Estatu Batuetako egungo balioen *identifikazioa*, honako hauek izan litezkeela kontuan hartuta:
    - Arrakasta.
    - Lana.
    - Humanitarismoa.
    - Orientazio morala.
    - Pragmatismoa.
    - Aurrerabidea.
    - Kanpo-adostasuna.
    - Arrazionaltasun zientifikoa.
    - Abertzaletasuna.
    - Demokrazia.
    - Indibidualtasuna.
    - Arrazakeria.
  6. *Galdere-sortetan oinarrituriko proiektua* Enpatia Modulua ezartzeko, honako hauek sakon aztertuta:
 

— Ingalaterra Berri Puritanoa	1690
— Siux Nazioa	1870
— Immigrazio Italiarra	1900
— «Mid West»eko bizilekuearako auzoak	1950
— Ghettoak Beltzak	1965
  7. *Metodoak*: Hasi aurretik iturriak eskolan/taldean eztabaidatzea, simulazioa eta rol-jokoak, taldeko lan aktiboa, ikasketa-bidaia laburrak, pertzepzio-aldaketei buruzko ikerketa ikerketaren emaitza gisa.

Oro har, arreta txikiagoa eskaini zaio Kanadari buruzko irakaskuntzari. Interes handiena agertu duten herrialdeak Finlandia, Norvegia eta Erresuma Batua dira; dena den, Kanadako biztanleen %25ek frantsesez hitz egiten duela eta tradizio kulturala, frantsesa zein elebiduna, zaintzen duela kontuan izanda, badago aukerarik herrialdeari buruzko ikasketa Europako herrialde frantses hiztunetara zabaltzeko. Espezialisten ustez, Kanada ikasteko modurik egokiena diziplina anitzeko

ikuspegia da, esperientzia kanadarretik sortzen diren kontzeptuen erakusgarri diren kasuen ikerketa erabilia, komunikazioa, erregionalismoa edo Zentro-Federazio arteko tentsioak, adibidez. (16)

### Asiako kulturak

Ipar Amerikako kultura ezagunetatik oso urrun, munduko oso bestelako zatiekin elkarrizketa izateko aukera ere aztertu du Europako Kontseiluak. Japoniaren kasuarekin hasita, CDCCko espezialistek deskubritu zuten, Europako gazte gehienek herrialde horri, haren gizarteari eta kulturari buruzko oso ezagutza gutxi eskuratzen dituzte bigarren hezkuntzan, nahiz eta potentzia baketsu eta nagusi gisa nabarmentzen den, gizarte monokultural gutxietako bat dela ere kontuan izanda, eta planetako hamar herrialde populatuenean artean dagoela ere ahaztu gabe. Nazioarteko garrantzia duten bost data azpimarratzen dira Japoniari buruzko ikaskuntzan: 1905, 1931, 1937, 1941 eta 1945. Europako gazteek Japoniako biztanleei buruzko estereotipo mentalak dituzte, nahiz eta jarrera arrazistek behera egin duten 1960ko hamarkadatik aurrera. Dena den, bigarren hezkuntzako ikasketa-planak arreta txikia eskaintzen dio Japoniari oraindik ere. Historiaren irakasuntzak oso modu eskasean jorratzen du Japoniak XVI eta XVII. mendean izandako arrakasta Mendebaldeko eragina arbuizatzeari dagokionez, eta hemeretzigarren eta hogeigarren mendean industrializatzea lortu zuen mendebaldekoa ez den nazio bakarra izana. 1980ko hamarkadaren erdialdeaz geroztik, badira antolaturiko zenbait lotura Europako eta Japoniako irakasleen artean trukeak eta ikasketa-bidaia egiteko. Hala eta guztiz ere, bi arazo nagusi daude gaur egun ere Europako bigarren hezkuntzan dimentsio japoniarrari eusteko. Alde batetik, irakasleek ez dute ziurtasunik eta ezagutzarik hizkuntzari, erlijioari, gizarte-balioei eta kultura tradizionalari dagokienez. Bestalde, baliabide-aukera desegokia da. Nahiz eta Europako irakasleek onartzen duten garrantzitsua dela ikasleei Japoniako gizarte tradizionalari buruz irakastea, praktikan irakaskuntza 1939az geroztiko munduko historiaren testuingurura, edo egungo gai ekonomiko eta nazioarteko harremanetara mugatzeko tentazioa dago. (17)

Txinaren kasuan oraindik serioagoa da, haren bolumen demografikoa eta azken hamarkadetan izan duen hazkunde ekonomiko nabarmena kontuan izanda. Txina ikasteko hezkuntza-justifikazioa ere bere kultura desberdin eta zaharrak eragiten du, Europaren «ispiluko irudi» bihurtu baita. Eurozentrismoarako antidoto egokia da bien arteko funtsezko aldean ikaskuntza, sinologo askoren ustetan. Bigarren Hezkuntzako Txinari buruzko irakaskuntzaren txosten batek argi eta garbi ezarri zituen curriculum arazo eta zailtasunak, baina ikasleek onbidean eskola amaitu aurretik Txinari buruz ikasi ahal izango dutena ere iradoki zuen. Zenbait espezialistak nortasun txinatarra ere aztertu zuten, balio sozialak argitu zituzten, eta arlo eta ezagutza garrantzitsuei, balizko irakaskuntza-iturriei eta ikuspegi alternatiboiei buruzko informazioa aurkeztu zuten. (18) Ikasketa-planak jakintzagai berriak erraz barne hartu ezin ditzakeela onartzen da, baina aurkikuntza zientifiko txinatar goiztiarrek egun jasotzen dutena baino askoz ere arreta handiagoa merezi dute. Zenbait testu tarteko, Europako gazteek Europari buruzko pertzepzio txinatarrek ezagutu ditzakete, eta Txinarekiko eta bertako jendearekiko jarrera europarrak. Arte txinatarrek hezkuntza-arloko potentzial handia ere badu, batez ere ikasle zaharrentzat.

Arrazoi sinesgarriak ere badira ikasketak Asiako gainerakora ere zabaltzeko. Zibilizazio historikoen kontinentea da, eta hainbat erlijio orokorren iturburua. Indiako azpikontinentea, eta euren iraganari harrotasunez eta etorkizunari konfiantzaz begiratzen dioten gizarte kulturantzak barne hartzen ditu. Asiak potentzial handia du giza baliabide eta baliabide naturalei dagokienez, eta geroz eta eragin handiagoa izango du ekonomia globalizatuan. Europan —eta bertako eskoletako getetan— dauden komunitate asiarrak kontuan hartuta, kultura arteko programen mesedetarako izango da Asia nazioarteko ikasketetan barne hartzea. Horizonteak zabaltzen dituzten eta kultura desberdinetako euren garaikideak errespetatzen ikasten duten langileak aberastu egingo dira balio pertsonalei dagokienez. Asiari buruzko aditu William Theodore de Baryk idatzi zuen bezala: «gaur egun, inork ezin du bere burua 'aurkitu' edo bere benetako nortasuna deskubritu, beste pertsonenekiko ez bada». (19)

Ez dago estrategia orokor bat Asia Europako ikasketa-planeari jorratzeko. Faktore askok dute eragina edukien aukeraketa-irizpideetan, Europako nazioen eta haien kolonia zaharren arteko lotura historikoak barne hartuta. Dirudenez, «ikasleek oso modu zatituan jasotzen dute Asiari buruzko informazioa. Edozein gizarte asiari ulertzeko, geografia, politika, ekonomia, erlijioa eta kultura nola gurutzatzen diren eta elkar eragiten duten ikusi behar dute ikasleek». (20) Hala eta guztiz ere, praktikan hain handinahiak ez diren zenbait estrategia nagusitzen dira. Oso onuragarria litzateke Europako arte-irakasleek Portugalen adibideari jarraitzea, bertan Ekialdearen antzinako forma artistikoak eta arte europarrean izan duten eragina ikasketa-planaren zati baitira. Asiako musikak eta literaturak ere egonkortasun handiagoa merezi dute Europako Bigarren Hezkuntzako eskoletan.

### Mundu islamikoa

Islamak munduan izan duen susperraldi politikoak superpotentzien eta estatu-nazio europarren nagusitasuna kolokan jartzeaz gain, Europako biztanleek zibilizazio islamikoari buruz gehiago jakin behar dutela ere erakutsi du. Integrismoaren eta zibilizazioen talkaren mamuek, irailaren 11z geroztik izugarri handitu direla kontuan hartuta, are eta beharrezkoagoa egin dute ikaskuntza hori. Hezkuntza-arloan, kultura arteko hezkuntza zabaltzea eskatzen du egoerak, ikasketetan gizarte eta kultura musulmanei buruzko ondo egituraturiko ikastaroen hornikuntza ziurtatzeko, ikasle guztiek eskuratzeko moduan, ez soilik komunitate etniko desberdinak nahasten diren zonaldeetan bizi direnentzat. Hemen kontua ez da soilik multikulturalismoa edo etorkinen eta bertako europarren komunitateen arteko harremana, Europako herrialdeetako kultura musulmaneko herritar-kopurua dezentea bada ere: milioi batetik gora Erresuma Batuan, 4,5 milioi Frantzian. Izan ere, Europako mugetatik kanpoko gizarte eta kultura musulmanen motak dira kontua, Mendebaldeko jende askok arrisku-bideko pertzepzio sinplista baitu. Azturei, ohiturei eta praktikei buruz (erlijiosoak barne) dagoen homogeneousasunik eza eta hitz egiten diren hizkuntzek erakusten dutenez, okerreko jokabidea da gai askori buruz orokortzea. Mundu islamikoaren hedadura ere gogorarazi behar da, haren proselitismo-botereaz gain, eta eragin eta kontrol musulmanaren epopeia, haren jatorrizko lekua gainditu baitzuen Afrikaraino, Indiaraino, Malasiara, Indonesiaraino, Asia Zentraleraino, eta, hurbilago, Mediterraneoan zehar Penintsula Iberiareraino eta Balkanetaraino. Gertaera horrek soilik —lurralde-hedadurak— nahitaezko bihurtzen du Islama Europako bigarren hezkuntzako eskoletako ikasketa-planetan barne hartzeko aukera.

Irakasle askorentzat, arazoa, arestian ikusi denez, Europatik *kanpoko* komunitate islamikoen historiaren, kulturaren edo gizarte-egituren ezagutzarik eza da. Irakasleen prestakuntza akademikoak irakasle asko erronka horretarako prestakuntza eskasarekin uzten ditu. Unibertsitateko Gizarte Zientzietako edo Humanitateetako zenbat karrerak barne hartzen dituzte Islamari buruzko ikasketak? Funtsezkoa da irakasleek informazio osoa izan eta Islamaren ikuspuntuez jabetzea, ondoren ikasleen ulerkuntza eta enpatia sustatu nahi badu. Estatu Batuetako irakasleek AEBei buruz irakasteko iradokizunak aurkeztu zituzten bezala, hemen ere haien kulturari buruzko irakasle musulmanen ikuspegiak ezagutu behar dira. Honela laburbiltzen du Mehdi Razvi teologo Imanak:

Islamaren 4 alderdi inplizituak, desberdinak baina erabat loturikoak eta bereiztezinak: 1. Jainkoaren errebelazioa Mahoma Profetaren bidez Korana tarteko, eta Profetaren Sunna (eredua). 2. Sinestun bakoitzaren berehalako esperientzia existentziala. 3. Komunitate islamikoaren errealitate soziopolitikoak. 4. Mundu hobe, bidezko eta harmoniatsuagoaren ikuspegi historikoa.

Europa osoko irakasleentzat ere baliagarria izango da Imanaren ikuspuntua kontuan hartzea Islamak Europarekin eta Europako kulturarekin dituen harremanei buruz:

Musulmanak Europako mapan agertu izan garen hirugarren aldia da hau, eta oraingoan, berriz, ez inbaditzaile gisa, baizik eta aukera ekonomiko hobekak bilatzen dituzten gizaki gisa. Hirugarren munduko zonalde pobreetatik etorri da batez ere gure jendea, kontuan izanda zonalde horiek esplotatu egin dituztela, bertako ekonomiak suntsitu, biztanleak deserrotu, intelektualak alienatu, garapen politikoa gelditu, eta jatorrizko kultura zatikatu eta birrindu...

Mendebaldeko potentziek gure baliabideak esplotatu dituzte, gure egitura tradizionalak suntsitu dituzte eta gure jendea pobrezia zitateko bizimodura kondenuatu dute [...] Esplotazio kolonial eta kolonial osteko horren aurkako borrokaren amaiera urrun dago oraindik, eta gatazka luze horretan erlijioa masa musulmanentzat elementu progresisten eta berez-berezko iraultzaileen elkartze-gunea izatera iritsi da. Herrialde musulmanak mendean hartu dituztenak gobernu liberalak, sekularrak, progresistak, sozialistak eta demokratikoak deiturikoak izan direnez, hitz horiek ez dute jada zentzurik gure jendearentzat [...]

Gure esperientzia historikoetan funtsezko alde hori ulertzen dugunean soilik hasi ahal izango gara uztartze-puntuak deskubritzen. Kultura islamikoa ezin da komunitate islamikoaren esperientzia historiko, psikologiko eta erlijiosutik banandu. Kultura erlijiosua da hitzaren zentzurik zabalenean. Hainbat tradizio —semitak, helenikoak, irandarrak eta indiarak, bakar batzuk besterik aipatuta— jarraiki hazi den kultura da, eta edukietan eta balioetan oso aberatsa izateaz gain, tokian tokiko eta eskualdeko aldaera-uzta oparoa ere eman du [...]


Fedea zein bizimodua da guretzat Islama, eta gure bizitza bana-banako eta pertsonalak arautzeaz gain, gizarte guztia ere arautzen du. (21)

Europa modernoaren eta Islamaren arteko aldeari buruzko deklarazio irmoa da. Gogora dezagun Europan fedearen eta gizarte-antolamenduaren elkartzea, lehen kristautasunak berezko zuena, sekularizazioak, XVIII. mendeko ilustrazioak eta, azkenik, XIX eta XX. mendeko ideologia politikoak higatu zutela. Islamak, berriz, liberalismo kapitalista zein marxismoa arbuatzen ditu. Irakasleek funtsezko alde hori argitu behar dute, balio-judiziorik egin gabe. Era berean, Erdi Aroko Islamak filosofiari, arteari, zientzia hutsei eta teknologiari eginiko ekarpena argitu behar diete irakasleek Europako gazteei. Lau mendetan, erudizio islamikoak hainbat jenio eman zituen, adibidez, Omar Khayyam eta Ibn Sina (Avicena izenez ere ezagaturikoa), *Medikuntza Kanona* lanaren egilea, munduko entziklopedia mediko ospetsuenetako bat; Ibn Rushd (edo Averroes), Kordobako filosofoa, medikua eta epaile nagusia; eta Ibn Tibbon, Marseillan jaiotakoa, Medikuntza Fakultateko burua Montpellierko Unibertsitatean, Ptolomeoren *Almagest* lanaren itzultzailea eta koadrantearen asmatzailea, ondoren marinel europarrek egokiturikoa. Ibn Batuta gehitu genezake, Marokoko Marko Polo, Sri Lankarako, Sumatrarako eta Txinarako bidaiak egin baitzituen, edo Al Battani, bere astronomia-azterlana dela-eta. Pertsona horien jenialtasuna eta Erdi Aroko pentsamenduan izan duten eragina gutxietsita dago gaur egungo eskola europarretan. (22)

Errenazimentuko aurkikuntza-bidaiei buruzko Europako Kontseiluaren elkartzeetan bilduriko hezkuntza-langileek ohartarazi zuten, «kontuz ibili beharra dago denboraldi berean beste zibilizazioek eginiko lorpenekin ere bidezko izateko», batez ere Afrikaren, Indiaren, Txinaren eta Japoniaren kasuan. (23) Zenbait parte-hartzailek euren kezka agertu zuten bidaia horiek arrakasta europar gisa goraiatzea dela-eta. Historiaren zenbait atal, marinel europarrek eginiko itsas bideen esplorazioa, esaterako, kultur elkarrekintzako adibide gisa interpretatu beharko dira, nazioarteko hezkuntzaren mesedetan (ikus 11. irudia)



## 11. irudia Elkartzearen edo aurkikuntzaren aroa?



*Iturria:* Bahree, Patricia (1986). *Asia in the European Classroom*, Estrasburgo: Europako kontseilua, 46. or.

## Brasil

Lehen ere aipatu ditugu portugaldarren bidaiei eta XV eta XVI. mendeko zabalkunde portugaldarri buruzko mintegiak. Era berean, Europako Kontseiluko Batzorde Parlamentarioak ebazpen bat onartu zuen Europaren eta Latinoamerikaren arteko kultur harremani buruz, eta gai horrekin jarraitzea erabaki zuen Latinoamerikako herrialde bateko kolonizatzaile eta kolonizatuei buruzko mintegi bat tarteko.

Brasil aukeratu zuten kasurako, aniztasun handiko mosaiko kulturala baita, elkartze etnikoen emaitza, Europako biztanleen (lehenik portugaldarrak, baina baita holandarrak, frantziarrak, ingelesak, suitzarrak, alemaniarrek, italiarrak eta poloniarrek ere), esklabo afrikarren (batez ere sudandarrak eta bantuak) eta bertako biztanleen artekoa. Kulturantzitasun brasildararen erroak identifikatzea eta elkartze-prozesua zein ondorengo sintesiak diziplina anitzeko ikuspegi batetik azaltzea izan zen mintegiaren helburua. Denboraldi kolonialari dagokionez kultura europarraren nagusitasuna faktore teknologiko eta ekonomikoek (batez ere hizkuntza eta erlijioa) azaltzen badute ere, mestizajearen eta akulturizazioaren efektuak bestelako gizartea eragin zuen Brasilen. Argi zegoen Brasilen eta bestelako herrialde latinoamerikarren garapenak

kulturaniztasuneko dimentsio pedagogikoa erakusten zuela, eta funtsezko arrazoiak zeudela Europako eskoletako Historia edota Gizarte Gaietako ikasketa-planetan barne hartzeko. (24) Europaren eta Latinoamerikaren arteko hezkuntza-arloko elkarriketa horrek jarraipena izan du beste zenbait mintegirekin eta hitzaldirekin.

### Saharaz behetiko Afrika

Europako Kontseiluak munduko bestelako zatiekin izan duen elkarriketaren azterketa ez litzateke osoa izango Afrikaren erreferentziarik egin gabe, eta Europako irakasleen mintegi baten xede izan zen Lahtin, Finlandian. Afrikaren eta Europaren arteko historiaren 500 urteak, Europaren aldetik Portugalek, Holandak, Belgikak, Frantziak, Alemaniak, Britainia Handiak eta Espainiak parte hartu dutela kontuan izanda, «mendekotasun eta esplotazioaren» historia gisa deskribatu izan dira; hortaz, Historiaren ikasketa-planek herri afrikarren bertako historia baztertzeko joera izan dute, eta baztertze horrek ikuspuntu estereotipatu eta okerrekoak eragin ditu testu-liburuetan 1980ko hamarkada arte. (25) Eta hori nahiz eta «Afrikak zer eskaini asko izan gainerako gizatasunari, bere forma artistiko anitzen aberastasunak eta giza arlo sakoneko bere filosofia soziala tarteko». (26)

Saharaz behetiko Afrikaren historia, ekologia eta kultura aztertzerakoan, kontraste pizgarriak erakusten ditu kontinenteak esperientzia europarretik begiratuta. Nabarmenagoak dira aldeak antzekotasunak baino: Europa industrializatuaren hiri-kultura eta Afrikaren zati handienaren landa-arloko edo herrixken kultura; lehenengoaren antitesia, alegia. Baina paradoxak ere badira; bere erara bada ere, Europako hegoaldeak ere landa-arloko egoera sozioekonomikoa du, (27) eta jatorri europarrek afrikanerrek sortu zuten apartheid sistema. Hala eta guztiz ere, Europako biztanleek ez dute, besterik gabe eta interpretazio generalistak tarteko, Afrika kontinente «azpigaratu» gisa ikusi behar, eta zera hartu behar dute aztergaitzat: nazioen arteko mendekotasuna eta Afrikako autolaguntza-mugimendua. Afrikaren etorkizuna baliabideen kontsumo-eskaeren eta Afrikako herrialdeen garapen-premien arteko orekaren menpe dagoela ikasi behar dute ikasleek.

## GARAPEN OROKORRA ETA IPAR-HEGO HARREMANAK

1980ko hamarkadan hasi zen garapen orokorrari eta Ipar-Hego banaketari buruzko hezkuntza. Lillehammerko (Norvegia) konferentziaz geroztik CDCCk funtsezko gai bat izan zuen eztabaida-agendan: nola uztartu kulturen arteko *de jure* berdindutasuna, giza eskubideen deklarazio unibertsalek inplizituki biltzen dutela kontuan izanda, *de facto* kultura menderatzaileak eta menderatuak izatearekin. Gai horrek nabarmen gainditzen du Europako eremua, intolerantzia eta giza eskubideen urraketa Europako historiaren ezaugarri izan badira ere. Dimentsio kulturalak, sozialak, erlijioitsuak, ekonomikoak eta geopolitikoak dituen gaia dugu. Curriculum-berritzerako programa batekin erantzun zuen Europako Kontseiluak, Garapenerako Hezkuntza izenburua duen diziplina arteko azterketa berria tarteko. Honela definitzen da: «kontzientzia orokorrerako hezkuntza, aurre egin beharreko arazoei buruzko sentsibilizaziorako —baita ulerkuntzarako ere—, eta banan-banan erantzukizunak konpartitzeko sentitzen dugun nahiaren alde, eta lankidetzeta-espirituarekin lan egiteko mailarik egokienetan —tokikoa, naziokoa eta nazioartekoa—». (28)

Definizioak garapenerako hezkuntzarako hamaika helburu biltzen dituen zerrenda barne hartzen du, ikasleak eskuratu beharreko trebetasun eta ezaugarrietan adierazitakoak. Michael Williams-ek matrize-formako gidaliburua argitaratu zuen garapenerako hezkuntza deskribatuta eta Haikkoko Sinposioan aurkeztu zuen *Mundua Gela Europarrear* izenburuarekin. (29)

Lan horrek jarraipena izan du harrezkero, Lathiko konferentzia tarteko, bertan garapen orokorraren eta gatazken lau alderdi eztabaidatu baitziren: energia, urbanizazioa, biztanleak eta desarmea. Ahal den tokietan garapenerako hezkuntza ikasketa-plan formaletatik kanpoko kultura arteko esperientziarekin osatzea gomendatu du CDCCk. Haikkoko Sinposioak argi utzi zuenez badira hainbat gai orokor —arrazismoarekin, gosearekin, premiekin, giza eskubideekin eta pobreziarekin hasi eta teknologia berriak, energia, gerra eta bakea, eta abar, barne hartuta— nazioarteko ikuspegitik erakutsi beharrekoak. Gai horien artean, bakerako hezkuntza eta giza baliabideak izan dira berriz ere arretagune CDCCren mintegietan, eta beste zenbait gai problematiko ere eztabaidatu dituzte bertan, esate baterako, motibazioa eta hezkuntza horren inplikazio metodologikoak. (30)

Ipar-Hego bereizketan Europak duen eginkizunari buruzko Europako Kontseiluaren konferentzia batetik sortu zen elkarren mendekotasunari eta elkartasunari buruzko Lisboako deklarazioa. Biler horren hezkuntza-arloko emaitzetako bat zera izan zen: gai horiek bigarren hezkuntzako eskoletan erakusteko eskuliburu bat argitaratu izana. Azkenik, konferentzia europar bat egin zen Madrilén GKEekin eta parlamentariekin. Madrilgo deklarazioa atera zen, «Europako gobernuek eta GKEek garapenerako hezkuntza —nazioan zein Europan— sustatzearen alde, Europako jendea Europaren eta garapen-bidean dauden herrialdeen arteko geroz eta elkarren mendekotasun handiagoaz eta elkartasunaren premiaz jabetu dadin».

Ipar-Hego zentroa sortzea onartu zuen Europako Kontseiluaren Ministro Batzordeak 1989an Lisboan, eta hurrengo urtean zabaldu zuten. Hiru urteko hainbat programa antolatzen ditu, hiru lan-ildo bilduta egungo programari dagokionez (2002-2004); «herritar guztientzako hezkuntza» da lehena, eta Europa osoan hezkuntza-sareak sortzea, koordinazio-espazioak ahalbidetzea eta gazteriaren erakundeak garapenerako eragile gisa sustatzea ditu helburu.

Europako Kontseiluak nazioarteko hezkuntzari ematen dion garrantziaren erakusgarri da irakasleentzat 24 mintegi egin izana, 1.200 parte-hartzaile bertaratu direla, gai orokorrak aztertzeko. Baina nazioarteko hezkuntza praktikara eramateko zereginak gogorra izaten jarraitzen du oraindik ere, CEVNOko zuzendariak adierazten duen bezala «nazioarteko hezkuntza» alderdi askotariko kontzeptua baita. Ikasleen trebetasunak, ezagutzak eta munduko beste kulturei eta erlijioei buruz duten ulerkuntza zabaltzeaz gain, «lankidetzak europarrak, garapenerako lankidetzak, bake eta segurtasunak, giza eskubideak eta ingurumenak beharrezko errespetua izatea» ziurtatu behar du». (31)

## IKASKETA-PLAN EUROPARRARI DIMENTSIO OROKOR BAT ESKAINTEKO FUNTSEZKO ARRAZOIEN LABURPENA

Dimentsio orokor bat gaineratu behar du ikasketa-plan europarrak, honako hauetarako:

1. Nazioarteko elkar ulertzea, bakea eta nazioen arteko lankidetzaren sustatzea
2. Elkarren mendekotasun politiko eta ekonomiko orokorraren errealitateei erantzutea, baita baterako existentziarako mekanismoen premiari ere
3. Etnozentrismoaren modu guztiei aurre egitea, eta Europako gizartean kultura arteko balio-sistema tolerantia eta arduratsua sortzeko laguntzea
4. Ikasleek Europa ulertzeko aukera aberastea, haien ikaskuntzan oreka eta ikuspegi zabala sustatzen duten konparazio-azterlanak eginda.

## BESTE KULTURA ETA GIZARTEEI BURUZKO IRAKASKUNTZA ETA IKASKUNTZARAKO HELBURUEN LABURPENA

1. Beste kultura eta gizartearen bereizgarria ezagutzei dagokienez identifikatzea, eta giza sorkuntzarako egin duten ekarpenaz jabetzea
2. Bestelako kultura orokorren eta zibilizazio europarraren arteko antzekotasunak, aldeak eta elkarrekintzar-  
arloak ulertzea
3. Jarrera enpatikoak eta giza erantzunak eragitea beste kulturetako pertsonetikiko, Europako gazteen balio-  
en eta ekintza pertsonalen sistemetan adieraziko direla kontuan izanda
4. Ikasleen trebetasun kognitibo eta estetikoak zabaltea eta haien irudimena beste kulturen datu geografiko,  
historiko eta soziologikoak, ikus-entzunezko bitartekoak eta haien lorpen bereizgarri diren forma literario  
eta artistikoak erabilia bultzatzea.

- (1) Henk Oonk, «Europe in Dutch Primary School» honako honetan: Trybus, Klaudia (1986), *Report on Europe in Primary Schools*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 26. or.
- (2) Halbritter, H. (1986), Trybus-en, *Report on Europe in Primary Schools*.
- (3) O'Connor, Edmund (1980), *World Studies in the European Classroom*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 11-12 orr.
- (4) *Ibid.*
- (5) «European aspects of the curriculum» Trybus-en, *Report on Europe in Primary Schools*.
- (6) Branson, M. (1984), «What do Americans think that the average European should know about the USA», honako honetan: Williams, Roy, *Report on Teaching about the USA*, Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- (7) O'Connor, *World Studies*.
- (8) Murray, Bruce (1975), *Navigating the Future*, New York: Harper and Row, 210. or.
- (9) Peacock, David (1981), *Report on CDCC Symposium Aims, Approaches and Problems*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 14. or.
- (10) Adibidez, Bigarren Eskolako Garapenerako Hezkuntzari buruzko Europako Irakasleen Mintegia, Donaueschingen, Alemania, 1980.

- (11) Fitz-Gibbon, J. (1984), «Reflections on European perspectives about teaching about the USA» Discussion paper, Washington D.C.
- (12) Janne, Henri (1981), «Europe's Cultural Identity» (Paper for Symposium of Europe), Estrasburgo: Europako Kontseilua, 9-12 orr.
- (13) Williams, *Report on Teaching about the USA*, 17. or.
- (14) Fitz-Gibbon, «Reflections on European perspectives», 10. or.
- (15) Carole Hahn-en ideietan oinarrituta, Williams-en *Report on Teaching about the USA*, 35-7 orr.
- (16) Galvao, Maria Emilia (1985), *Report on Teaching about Canada*, Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- (17) Tames, Richard (1981), *Teaching about a non-European culture: The case of Japan*, Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- (18) Thomas, Graham (1984), *Report on Teaching about China*, Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- (19) Bary, W.-rena (1972), «The liberal arts amid a culture in crisis», *Liberal Education*, LVIII (1).
- (20) *Ibid*, 28 orr.
- (21) Razvi, Imam Mehdi (1981), «Cultural values and education – a Muslim view», honako honetan: Nielsen, Jorgen, *Report on Cultural Values and Education*, Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- (22) Zibilizazio islamikoak kultura europarrari eginiko ekarpenari buruzko mahai-inguruak antolatu dira.
- (23) Honako honetan aipaturikoa, (1986), *Against Bias and Prejudice*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 47. or.
- (24) Caldeira, A. (1986), *Report on the Birth of Brazil*, Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- (25) Gunner, E. (1985), *Report on Teaching about Africa South of the Sahara*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 3-6 orr.
- (26) *Ibid*, 1. or.
- (27) (1982) *Conclusions: Southern Europe, Preparation for Life*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 27. or.
- (28) Williams, Michael (1986), «The world in the European classroom» (Discussion paper for CDCC conference in Haikoko), Estrasburgo: Europako Kontseilua, 10. or.
- (29) *Ibid*, 17. or.
- (30) Pearse, S. (1987), *Report on Human Rights Education in a Global Perspective*, Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- (31) Henk, «Europe in Dutch Primary School», 26. or.





# Laugarren zatia:

ALDAKETARAKO EGITURAK ETA ERAGILEAK



## 10. EUOPARAKO HEZKUNTZA ERAGINKORRERANTZ





10

EUOPARAKO HEZKUNTZA ERAGINKORRERANTZ



- ALDAKETAREN ETA ANIZTASUNAREN  
ATZE-OIHAL IRAUNKORRA
- HURRENGO URRATSA...
- «BIGARREN HEZKUNTZAKO EUROPAR ESKOLARANTZ»
- ONDORIOAK

## ALDAKETAREN ETA ANIZTASUNAREN ATZE-OIHAL IRAUNKORRA

Azterlan hau eztabaida batekin hasi zen, XXI. mendearen hasieran Europan eragina duten aldaketa esanguratsuei buruzko eztabaidarekin, hain zuzen ere. Eztabaidaren hari ezberdinak lotzeko eta ikasketa-planen aurrerapena ebaluatzeko, *aldaketaren* auzian ezarri behar dugu gure arreta. Azken hamarkada hau aldaketa handien eta eraldaketa politiko eta sozialaren garaia izan da. Maurice Craft irakasleak aurreikusi zuen jada orain hamabi urte XXI. menderako hezkuntza kulturantzaren premiei buruz hitz egin zuenean: «Ezein behatzaile bizkorrek ez du behatuko Europak [XXI. mendearen hasieran] dauzkan erronken eta aukeren azterketa baldin eta usteetan oinarrituta ez bada. Prozesu sozialak, mikro nahiz makro mailakoak, izugarri korapilatsuak dira eta erraza da gehiegi sinplifikatzea». (1) Interesgarria suertatzen da orain hamarkada bat gazteria europarrak, Bakearen aldeko Gazteriaren Mintegi batean (2), azalduetako nahiak kontuan hartzea. Honako hauek bildu zituzten euren nahien artean:

- Europako zatiketen amaiera,
- Europan bakea lortzea,
- pertsona eta ideien arteko truke askea,
- bizitoki europar komuna,
- norberak bizi nahi duen lekuan bizitzeko eskubidea,
- ama-hizkuntza erabiltzeko eskubidea,
- justizia,
- herrialde eta kultura txikiagoentzako edo minoritarioentzako babesa,
- herritarren partaidetza,
- hizkuntza komun bat,
- moneta komun bat.

Modu berean, eta gizarte-ezaugarrien iragarpen bat gidatzat hartuz (3), CDCCk 1990eko hamarkadarako aldaketa patrio edo eredu bat iragarri zuen, honako lorpen hauetan oinarriturikoa:

1. Europa osoa honako printzipio hauetan oinarrituko da edo oinarritzen saiatuko da: demokraziaren eta giza eskubideen printzipio politikoak, nahiz eta demokraziak hainbat forma har ditzakeen.
2. Deszentralizazioerantzko eta erregionalizazioerantzko gero eta joera handiagoa izango da, aldi berean erdiguneak aginte handiagoa izango duela —Bruselak? Estrasburgok? ala Berlinek?— eta estatu-nazioaren zereginari buruzko hainbat tirabira sortuko dira.
3. Eskolan, lanean eta bizitza publikoan partaidetza handiagorantzko mugimendu orokorrak aurrera jarraituko du, eta herritarren jarduerak funtsezko osagarri bihurtuko dira «jendearen Europan».
4. Gizarte europarrak kulturantza izaten jarraituko du, eta kultur aniztasuneko eta gizarteratzeko politika zabalga gauzatuko du, non talde minoritario guztien eskubideak aitortuko eta babestuko baitira.
5. Familiaren egituraren aldaketa gehiago izango dira eta ugalduta egingo dira guraso bakarreko familiak: hainbat eremutako gazteria europarrak ez du familia-bizitza tradizionala ezagutuko. Aldaketa horiek eragina izango dute ikasleen eta irakasleen arteko harremanetan eskolan. (4)
6. Sexu estereotipoak eta diskriminazioa ezabatu egingo dira, hasiera batean (unibertsalki ez bada ere, praktikan bai) lege-prozesu baten bidez.
7. Europak hiri-gizarte gisa garatzen jarraituko du, baina ingurumenaren babeserantzko joera garrantzitsua izango da, kontrolik gabeko industrializazioaren eta esplotazioaren ordez, turismo eta nekazaritza modu alternatiboak garatuko dira.

8. Eskualdeen artean oraindik ere aldeak izango dira enplegu patroia edo ereduetan. Oparotasun handiagoa izango dute komunikazio-sare modernoak dituzten eskualdeetan bizi direnek, eskualde baztertuago eta periferikoagoen kaltetan.
9. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek eragin handia izango dute merkataritzan, industrian, prozesu burokratiko eta gobernukoetan, hezkuntzan eta lan-ereduetan.
10. Gizartea gero eta mugikorreragoa izango da eta ohikoa izango da jaioterritik kanpo lan egitea biztanle kualifikatu eta profesional gero eta gehiagorentzat.
11. Joera demografikoak beherako bidean jarraituko du, jaiotza-tasa jaitsiko da eta biztanleria gero eta zaharagoa izango da.
12. Gero eta desadostasun eta tentsio handiagoa izango da honako hauen artean: familia tradizionalaren balioak, eskola-sistema, komunikabideak, eliza kristauak eta gizartea orokorrean.
13. Gizarte-presioaren ondorioz gobernuak nazioarteko ekimenak bultzatuko dituzte ingurumenaren kutsaduraren, kalte ekologikoen eta berotegi-efektuaren aurka.
14. XX. mendearen amaierako azken urteetatik aurrera, fronte handi batean garatuko da nazioarteko europar erkidego baten espiritua.
15. Komunikazioen iraultzaren ondorioz giza harremanak bizkortu diren mundu horretan, non ongizate ekologikoko funtsezko auziak euren kausetan eta efektuetan gero eta modu globalagoan ikusten baitira, eta non mundu garatuaren eta garapen-bidean dauden arteko aldea gero onargaitzagotzat hartzen baita, garrantzi handiagoa emango zaio bizitza publikoan, hezkuntzan eta komunikabideetan honako nozio edo ideia honi: «Europa testuinguru globalean».

Hamarkada bat baino geroago esan daiteke helburu horiek modu partzialean lortu direla. Alde batetik, sistema politikoen arloan homogenotasun handiagoa da, Europar Batasunaren partekaturiko egituretan sakondu da eta indarrean sartu da moneta komuna. Eskualdeen arteko aldea ez da Hamabosten Europaren barruan ikusten zen bezain nabarmena, neurri handi batean fondo estruktural europarren ondorioz, baina askoz ere gehiago nabaritu da 2004an Ekialdeko herrialdeak sartu ondoren. Aurrera egin da ingurumena defendatzeko ekintza adostua lortzeko bidean, modu nabarmenean Kioto-ko Protokoloa sinatu ondoren, baina arazo asko dago oraindik ere Europa barruan gauzatzeko (munduko beste hainbat ingurutan dagoen egoera okerragoa izanik, gainera). Gizartea aldatu egin da IKTBen inpaktuaren eraginez, eta gero eta mugikortasun handiagoa dauka, ez ordea iragarri zen bezainbestekoa, eta egitura tradizionalak, batez ere familiarenak, uste zena baino askoz ere sendago agertu dira. Emakumeentzako aukera-berdintasunean aurrera egin bada ere, generoan oinarrituriko diskriminazioa oso agerikoa da oraindik ere europar gizartean. Kultur aniztasuna eta gizarteratzea babesteko hainbat politika abiarazi dira, baina, hala eta guztiz ere, gizarte europarra urrun dago oraindik ere immigranteen eta gutxiengo etnikoen eskubideak defendatzetik eta babestetik. Frantzia, Austria, Herbehereetan, Belgikan, Danimarkan, Alemanian eta Erresuma Batuan eskuin muturreko alderdi xenoboien eta arrazisten gorakadak zalantzan jarri ditu ahalegin kulturantzak. Bestalde, zenbait herrialdetan bultzatu egin da, herrialde batzuetan gobernu bera izan da bultzatu duena, orokorrean migrazioaren eta bereziki musulmanaren aurkako bazterketa-jarrera, batez ere 2001eko irailaren 11ko atentatuaren ondoren. Ipar-Hego harremanen auziaz gero eta gehiago jabetzen garen arren, eskandaluzkoa da nola ari diren gero eta gehiago handitzen garatuta duden herrialdeen eta garatzeko bidean dauden herrialdeen arteko ezberdintasunak. Amaitzeko, orain ia hamabost urteko gazteriak azaldu zuen Europa bakean ikusteko nahia zeharo zapuztu da Jugoslavia izandakoa desegin ondoren piztu ziren gerrekin; Kroaziako, Bosniako eta Kosovoko gerrak, hain zuzen ere.

Garai berri bat hasi da Europan, funtsezko bi alderditan oinarrituko dena. Alde batetik datozen urteetan Europar Batasunaren zabalpena ikusiko dugu, ia kontinente osoa hartzeraino. Horrek erakunde-erreformako prozesu bat dakar lotuta, gaur egun Europaren Etorkizunari buruzko Konbentzioan gauzatu dagoena. Konbentzioa etorkizuneko konstituzio europarra eztabaidatzen ari da, hainbat tirabirarekin, jakina. Bestalde, Europak munduan izan behar duen zeregina definitu behar du. Horrek ondorio asko ditu Europaren hainbat politiketan: ingurumenean, garapenerako laguntzan, nekazaritzan,

segurtasunean eta defentsan eta, agian garrantzitsuena, merkataritzan. Horrez gain, agerikoa denez, oso ondorio garrantzitsuak ditu haren hezkuntza-politiketan.

Azken hamarkadan, oso mamitsua izan da Europako hezkuntza-sistemen funtzionamendurako baldintza orokorren inguruko eztabaida. Nahiz eta koordinazio-mailak gero eta handiagoak diren, sistema horiek gobernu-sistema nazionalen, eta batzuetan eskualdekoen, eraginpean egoten jarraitzen dute. Sistema horiek interes eta tradizio *nazionalen* (eta eskualdekoen) arabera gauzaturuta egon ohi dira. Hezkuntza-agintaritzek modu ezberdinean hartu dituzte kontuan nazioarteko erakundeen gomendioak, gobernu kanpoko erakundeen kezkez aparte, horiek izanik gizarte-oinarriaren iritzia ordezkatzeko dutenak. Puntu hori dagoeneko beste atal batzuetan nabarmendu dugu, baina merezi du hemen berriz ere errepikatzea: hezkuntza-ekimen nazioz gaindikoak, bigarren hezkuntzan dimentsio europarraren sarrera, adibidez, bideratzaile gisa diharduten talde eta norbanako askoren onspen metatuaren bidez bakarrik jar daitezke praktikan, eta sistema nazionalen marko bereziaren barruan. (5)

Tradizio nazionalen izaera dibergentea da ikasketa-plana «europartzea» oztopatzen duen faktoreetako bat. Elitismoaren eta integrazioaren arteko dikotomia, derrigorrezko eskolaratzearen iraupena, sartzeko adin-egiturak, eskolaren hautespena, transferentzia eta irteera, eskola-ordutegia eta ikaskuntzarekin loturiko jarduerak —etxerako lanak, adibidez— aldakorrek dira, eskolako gaiekin eta programekin batera. Herrialde batzuetan, hezkuntza orokorra programa finantziatzen bidez egiten da, «eta beste batzuetan, hezkuntza orokorra honela deskriba daiteke: merkatalgune handi batean igarotako erosketa egun bat». (6) Europar Batasuneko titulu akademiko eta profesionalen aintzatespena lortzeko hainbat neurri hartu den arren, hezkuntza-sistemetan alde handiagoak atzeman dira, eta gero eta aniztasun handiagoa ikasgelan. (7) Hala eta guztiz ere, egoera horrek aurrera egin du beste gertakari batzuen eskutik. Ikus daitezkeen joera bat ikasketa-plan formalaren zabalpena da, Europan bizitzeko prestakuntza-lehentasan berriak kontuan hartzearen (ingurumen-hezkuntza, garapenerako hezkuntza, hezkuntza pertsonala, soziala eta osasunerakoa, informatika eta herriarrak, 4, 5, 6, 7 eta 9. kapituluetan jorratuak). Beste joera bat helburuak ezartzea da, ikasleen ahalmena garatzen dela ziurtatzearen. Horrez gain, eskolatik kanpoko munduarekiko harreman estuagoak ezartzeko ideia sartu da, bai eta hezkuntzaren eta prestakuntzaren arteko loturak sortzeko ideia ere. Horrela, Belgikan derrigorrezko hezkuntza denbora partzialeko dedikazioz egin daiteke; Austrian eta Alemanian Lanbide-Heziketa eskolara bertaratzearekin txandakak daiteke. (8)

## HURRENGO URRATSA...

Hezkuntza-aniztasun hori aipatu dugu, izan ere zera adierazten baitu: hezkuntza-sistema europarretan uniformetasuna ez dela helburu ez errealista ez eta desiragarria ere. (9) Hala eta guztiz ere, horrek ez du ezabatzen gobernu nazional europarren funtsezko kanpaina baten premia, kanpaina jasangarria eta lankidetzazkoa izanik, europar lankidetzarekin konprometituriko nazioarteko erakundeen laguntzarekin. Bitarteko organo baten ideia proposatu da, Europako hainbat herrialdeetako eskolak lotuko dituen, hezkuntza-sistemen harmonizazioari buruzko ikuspegi orokorra eman dezan, beste hainbat gairen artean. Horrelako kanpaina bat laguntza publikoarekin abiarazteko modu alternatibo bat honela planteatu beharko litzateke: Europar Parlamentuan eta Europako Kontseiluko Parlamentu Batzarrean. Argi dago Europar Hezkuntzaren kontzeptua ezin dela eraiki «Europa» ikasketa-planari torlojo bidez lotzeko diseinaturiko formula hutsen edo inprobisaturiko estrategien bidez ere. Alferrrikakoa eta korrontearen aurka joatea litzateke, izan ere, hogeitaz urteko ernaldiaren ondoren, europar ikasketak oso gai garrantzitsu bihurtu dira, baztertu ezinezko gaia.

Zenbait gobernu aspaldi konturatu ziren eta euren iritzi propioak ezarri zituzten hezkuntza europarrari begira. Asmo-deklaraziorik esplikatuena Land alemanek egin zituzten 1979an eta 1990ean (ikus 7 eta 8. taulak):

Eskolak integrazio-prozesuari buruz eta euren harremanen antolamendu berriari buruz kontzientziatu behar ditu herrialde europarrak. Nortasun europarra garatzeko ekarpena egin nahi da eta gertakari bat ulertarazi: gure bizitzako alderdi askotan, erreferentzia europarreko terminoak aplikatzen dira eta erabaki europarrak behar dira. (10)

Beste gobernu batzuek ere aprobetxatu dituzte euren ikasketa-planen berregituratze-prozesuak europar hezkuntzarako duten konpromisoa azaltzeko. Europar Sentsibilizaziorako Proiektuan, Erresuma Batuan, tokiko hainbat hezkuntza-agintaritzek (LEA izenekoek) «europar gaikuntzen» ideia planteatu dute —LEA batek, adibidez, «gaikuntza-piramide bat» bihurtu du bere politiken deklarazioaren erdigune— gaikuntza horiek sentsibilizaziorako aurrerabidea dakartela. (11)

Aldi berean, laguntza-agentziak ugaritu egin dira, hala nola Europar Hezkuntzarako Zentro Nazionalak, premia espezifikoagoei erantzuten dieten beste organismo batzuekin batera, hala nola Hezkuntzako Informazio Teknologietarako Zentro Nazionala (NITEC) Irlandan, Ordenagailu bidez Lagundutako Ikaskuntza Zentroa Genevan edo *Centre de Liaison de l'Enseignement et des Moyens d'Information* (CLEMI) deiturikoa Frantzia. Gai horiek guztiak kontuan hartuz, CDCCren eta Europar Batasunaren informazioarekin batera, iritsi da balantzea egiteko garaia. Europar Batasuneko herrialdeetako Hezkuntza Ministroek 1988az geroztik etengabe aztertu dituzte europar dimentsiorako baliabideak, baina hezkuntza-sistema europarren arteko bateragarritasuna edukitzeko, estatu guztiek prest egon behar dute auditoretza nazionalak egiteko. Auditoretza horietan dimensio europarrarekin erlazionaturiko plangintza, finantzaketa, burutzapen, kontrol eta ebaluazio mekanismoak berrikusiko lituzkete. Berrikuspen horiek ezin dira modu bakanduan egin, izan ere, ideien konparaketa funtsezko osagarria baita bateragarritasunerako. Oso eremu geografiko zabal batean harreman-zubi gisakoa izateko Europako Kontseiluak duen gaitasuna funtsezkoa izan daiteke testuinguru horretan. Bestalde, onuragarria suerta daiteke, halaber, alde biko eta hiruko jardueren praktika zabaltzea.

## «BIGARREN HEZKUNTZAKO EUROPAR ESKOLARANTZ»

Azterlan honek bigarren hezkuntzan oinarritu nahi izan du. Eztabaida honi amaiera emateko baliagarria suerta daiteke sortu diren gai nagusien eta irakasleentzat, gurasoentzat eta ikasleentzat ere lehentasun garrantzitsuenen laburpena egin ten saiatzea. Hori egiteko eztabaida-puntu espezifikoak nabarmenduko dira eta, batez ere, egin behar diren eta erantzun behar diren galderak.

Esan liteke edozein herrialde europarretan badela hainbat eskola XXI. menderako «Bigarren Hezkuntzako Europar Eskolaren» prototipoa garatzeko eredu gisa balio dutenak, nahiz eta onartu beharra dagoen, halaber, aparteko erakunde horietako askok neska-mutiko talde espezifiko baten beharrei erantzuten dietela, sistema nazional batek dituen eskakizun zabalari erantzun beharrean. Eskola horietako askok gaitasun elebiduna azpimarratzen dute, atzerriko beste hizkuntzen eta literaturen ezagutza, europar hezkuntzaren zigilu gisa. Europako Batzordeko funtzionarioen seme-alabak hezteko ezarritako Eskola Europarrek, ikasle-multzo nazioanitzak dute eta atzerriko hizkuntzak erabiltzen dituzte komunikabide gisa. *International Baccalaureate Organisation* (IBO) erakundeak 115 eskolek eta Nazioarteko Europako Kontseiluko 150 eskolek ere esplizituki nazioarteko hezkuntza ematen diete euren ikasleei.

Eremu nazionalean, nazioarteko atalak dituzten edo elebidunak diren eskolak gutxiengoa dira hizkuntzen ikaskuntzarako programa aurreratuak dituzten eskolen barruan. Erresuma Batuan, eredu ezberdin bat sortu zen Europako Erkidegoan sartu zen unean. Eskola publiko integratu bat hartu zen «Europar Hezkuntza ekintzailearen» prototipo gisa, eta eskola horrek ikasleek Europa kontinentalean urte betez bizitzeko esperientzia antolatze bide berri bat zabaldu zuen (sistema ingelesaren barruan), testuinguru akademiko kontrolatu eta definituan, adibidez, *centre de vacances* edo *Gymnasium* aleman batean. Europar ikasketen jakintza-alorren arteko programa bat ere antolatu zuen, kontu handiz planifikatua,

ingurumen-ikaskuntzara zuzendua eta hizkuntzen eta humanitateen bidez lagundua. Tradizio minoritario bat ezarri zuen, beste eskola batzuen inspirazio-iturri izan dena. (12)

Aipaturiko kasu guztiak Europa sustatzen hasi den hezkuntzarako baliabide-moten adibideak dira. Hala eta guztiz ere, arreta handiagoz begiratu behar dira erabakitzeke dauden auzi edo gai batzuk, bost ataletan jorratzen direnak: eskolaren azpiegitura, ikasketa-plana, irakasleak, irakasleak eta euren prestakuntza, eta eskolaren eta kanpoko munduaren arteko harremanak. Aldi berean, bada europar dimentsiotik sortzen den funtsezko galdera sorta bat. Hezkuntzan zerikusia duten pertsona guztiek egin ahal izango dute galdera horien inguruko gogoeta etorkizun hurbilean.

### Kontrol-zerrenda

- Zer puntutaraino eskaintzen du hezkuntza europarrak «Hezkuntza Orokorreko» estilo berri onargarri bat, XXI. mendeko Europako bizitzarako, lanerako eta herritartasunerako prestakuntzaren eskakizunei erantzuteko modukoa?
- Nola lotu dezakegu dimentsio europarra lanbide-heziketarekin eta heziketa akademikoarekin informazioaren gizartean?
- Zer espero dezakegu XXI. mendean maila guztietako ikasleen gaitasunak garatzea helburu duen «Eskola Europarretik»?
- Dimentsio europarrak bigarren hezkuntzako ikasketa-planari hainbeste eskaera planteatzen dizkionez, estatu europarrek 18 urterainoko derrigorrezko hezkuntzaren erabateko zabalpena aztertu beharko lukete?

### Irakaskuntza eta ikaskuntza europar eraginkorrerako kontrol-zerrenda

- Adinaren arabera taldekatu behar al dira irakasleak ikaskuntza eraginkorra izan dadin?
- Irakasleek baimena eskatu behar al dute praktika berriekin esperimendu aurretik?
- Norbanakoaren erantzukizuna eta estatusa gaiaren espezialitatean oinarritzen dira edo funtzio administratibo baten burutzapenean? Irakasleen erantzunik onena eragiten al du horrek? Ba al dago lekurik sormenerako?
- Zergatik ematen da hainbeste denbora ikasleen gainbegiraketan eta kontrolean, haien ikaskuntza bultzatzen eman beharrean?
- Eskolako administrazioak bere erantzukizuna besteren esku uzten du ala eskuordetu egiten du?
- Erraz iritsi al daitezke zuzendaritzara?
- Hauen artean zer kontsultarako prozesu-mota gauzatzen da?:
  - a) zuzendaritza eta irakasleak
  - b) irakasleak eta ikasleak
  - c) langile laguntzaileak eta irakaskuntzan diharduten langileak
- Zer gai kontsultatzen dira?: akademikoak?, curriculumari buruzkoak?, jakintza-alorrekoak?, finantzekin loturiko gaiak?, eskolaren irudiarekin loturikoak?...
- Erabakiak hartzeko zer tresna daude?

- Ikasleek zer aukera dituzte eskolaren kudeaketa-arloetan zuzenean parte hartzeko? Zer alderditan?
- Eskolaren antolamenduak eskolan nagusi diren irakaskuntza-estiloak islatzen al ditu?
- Zeintzuk dira teknologia berrien antolamendu-inplikazioak beste herrialdeetako eskolekin loturak sortzerakoan?

### Eskolaren azpiegitura

Hiru alderdi daude azpiegiturari dagokionez: eskolaren antolamendua, administrazioa eta kontrola; balio-sistema edo jarreraren azpiegitura; eta eskola fisikoa —eraikinak, patioak eta ingurua—. Argudia daiteke «eskola europarrak» kudeaketa-eredu malgu baten onurarik jasoko ote lukeen, gainkarga administratiborik gabe. Ezagutzen dira hainbat kasu non antolamendu-eraginkortasunak eta ohiko administrazioak ikasketa-planaren burutzapena ordezkatu baitute. Egia esan, eskolako kudeaketa oneko praktiken oinarria ikaskuntza-prozesuak zuzenki bideratzean dago. (13) Administrazioari gogorazi behar zaio demokrazia dela Europako zatirik handienaren araua, eta agian honi buruzko gogoeta egin beharko litzateke:

Eskola da neska-mutikoak lehen harremana gauzatzen duen benetako lehen komunitatea [...] non boterearen eta gizarte-harremanen ideia bat garatzen baitu. Modu autoritarioan antolatzen bada, neska-mutikoak giza antolamenduan hori gauza normalizat hartzeko joera izango du: era berean, modu demokratikoan antolatzen bada eta parte hartzeko gonbidatzen dutela nabari badu, gizarte demokratiko batean parte hartzeko gaitasuna garatuko du [...] Gure ustez, benetako kontrol demokratikoaren kontzeptua askoz ere hobeto ikasten da praktikaren bidez. (14)

Ikuspegi horretatik, ona litzateke hainbat eskolatan oraindik ere nagusi diren praktika hierarkikoen eta nagusikerien inguruko gogoeta egitea.

Eskolaren antolamenduan eta kudeaketan abiarazi diren aldaketen artean informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien inpaktua aipatu beharra dago, kontuan hartuz inpaktu horretara erabat ohitu ez garela. Aldaketak izan dira, zalantzarik gabe, honako arlo hauetan:

- Bigarren hezkuntzako eskolaren funtzio tradizionala.
- Ikasketa-plan formala eta tradizionala.
- Ikasleen eta irakasleen arteko harremana, eta irakasleen boterea.
- Ikasgelaren antolamendua adin berekoen taldeka.
- Ikaskuntza autonomoaren eta autozuzenduaren (edo norberak bideratuaren) aukera, autohezkuntzara eraman dezan.
- Baliabideen nondik norakoa eta antolamendua.
- Hezkuntzaren eta prestakuntzaren iraupena Estatuaren kargura.

Egitura administratiboak jarreraren azpiegiturarekin edo «eskolaren balio-sistema» dei genezakeenarekin erlazionatzen dira zuzenean. Eskolaren balioen egituraren eta sistemaren inpaktuaren nondik norakoa neurtzea ezinezkoa bada ere garpn sozial eta pertsonalean, zalantzarik gabe eragina dute ikasleen jarreretan. «Eskola europarrean», «kontzientzia europar» batekin loturiko balio-sistema bat egon behar du, ikasleak «europar ona» bihurtzeko zereginak indartua. Eskolako balio-sistemak euren kideek malguak izateko duten gaitasuna islatu behar du eta honako hau onartzeko gaitasuna: «gure gizarte aldakorrean zibilizazio europarraren funtsezko balioek bizirik diraute (eta herriak estimatuko ditu oraindik ere), eta,



aldi berean, “balio berriak” adierazi eta hedatu behar dira, kultura arteko ulermena eta estimua errespetatzen dutenak, hain zuzen ere». (15) Balio berri horiek honela jarriko liriateke praktikan: «arrazismoa eta sexismoa ezabatzeko diseinaturiko politikak, bai eta giza eskubideak sustatzeko diseinaturikoak ere. Politika horiek gauzatzekoan dauden erantzukizunak argi eta garbi ikusi behar dira». (16) Bultzada demokratiko bat behar genuke eta ikasleek gelako eztabaidetan libreki parte hartu beharko lukete, galderak eginez eta irakasleekin lan eginez erantzunak aurkitzeko. Azkenik, demokraziak igualitarismo-espirtua inplikatzeko du: «eskolek aitortu behar dute lorpen akademikoak garrantzitsuak direla, baina baita lorpen artistikoak, musikalak, kirolak, fisikoak eta praktikoak ere». (17) Horrela beraz, honako galdera hauek egin behar genituzke:

### Kontrol-zerrenda

- Eskolak ba al daki zer zeregin duen hezkuntzaren arloan Europari dagokionez?
- Europako nazioen erkidego batean bizi garela sentiarazten al du?
- Eskolako balio-sistemak adibideen bidez irakasten al ditu demokrazia, tolerantzia, aurreiritziak gainditzea eta giza eskubideen defentsa?
- Eskolako balio-sistemak bere ikasle guztien ekarpenak bultzatzen eta baloratzen al ditu, bakoitzaren trebetasunak edozein izanik ere?
- Eskolak eskaintzen al die bere ikasleei ikasketa-plan formalean irakasten denarekin bat datorren ingurumota?

Horrek beste puntu garrantzitsu batera garamatza. Batzuek besterik uste badute ere, erraztasunak eta baliabide egokiak oso garrantzitsuak dira ikasleen hezkuntzarako eta aurrerabiderako. Demokrazia testuinguru demokratiko batean baka-riki ikas daiteke, eta «pentsamolde europarrak» inguru zibilizatuan hartu behar du bere bazka. «Eskola europarrean», lehen-tasuna eman behar zaio haren erantzukizunpean daudenen bizi-kalitateari.

Eskolak barne-eremu bat behar du bertan ikasleak elkartu ahal izan daitezen euren astialdian; europar pintura, marrazki, eskultura eta artisautzaren ageriko adibideak ezarriz (argazkiak, *collageak*, erreprodukzioak, objektuak, etab.), ikasle guztien gozamenerako; beste herrialde europarrei buruzko informazioari dedikaturiko eremu batzuekin. Bibliotekak ardatz gisa jokatu behar du erakusketa europarrentzat eta literatura europarrari buruzko atal bat behar du izan.

Eskolako jarraibide, ohar eta seinaleetan hiru hizkuntza erabili behar dira prozedura arrunten zati gisa. Jangela daukaten eskoletan menuak hiru hizkuntzatan ezar daitezke. Aste bereziak antola daitezke hainbat herrialdeetako janaria ezagutze-  
ra emateko. Horrez gain, «atzerriko» bisitariak gonbida daitezke eskolara. Laburbilduz, eskolako agintariak honako gal-  
dera honi erantzun behar diote:

### Kontrol-zerrenda

- Zer erraztasun, sistema, baliabide eta aukera daude eskolan giro europarra sortzen laguntzeko?

## Eskolako ikasketa-plana

Eskolako ikasketa-plana aterki gisako hitza da, izendapenak behar dituena. Jorratu dugu dagoeneko «ezkutuko ikasketa-planaren» gaia. «Ikasketa-plan paraleloa» kanpoko mundutik datozen mezuak eta arauak deskribatzeko erabiltzen da, batez ere prentsakoak, irratikoak, telebistakoak eta filmetakoak, nahiz eta Europako zati batzuetan Elizaren ahotsa ere sar-tu behar den. Azterlan honen ikuspegi nagusia, hala eta guztiz ere, «ikasketa plan formala» da.

Nola jakin daiteke europar programa koherente bat gauzatzen ari ote den? eta zer nolako ekarpena egin diezaiokie ikas-keta-plan formalak europar dimentsioari?

1. Abiapuntua zera da: eskolak kide guztiei kontsulta sakona egitea, ikasleen gurasoak barne hartuta. Komunitate osoak du eskubidea jakiteko zergatik izan daitekeen beharrezkoa aldaketa, eta horrez gain, europar dimentsioa ezartzeari dagokionez, Europako Kontseiluaren eta Europar Batasunaren ebazpenei buruzko informazio osoa jaso behar du.
2. Zuzendaritzak eta irakasleriak ziurtatu egin behar dute eskola-erkidegoak aldaketaren inplikazioak ulertzen di-tuela: ebazpenen oinarri logikoa, Europaren definizioa dokumentu ofizialetan, planteaturiko helburuak (2. kapi-tuluaren amaieran, adibide gisa, laburtuak).
3. Ikasketa-planaren auditoretza egiten da egungo ikasketa-planean Europa zer baliabide bitartez (gaiak, ikuspe-giak, giza baliabideak eta baliabide materialak) aurkezten ari den berrikusteko eta ebaluatzeko (bereizketa-irizpide egokiez baliatuz).

### Kontrol-zerrenda

- Europari buruzkoa nola erakusten da: jakintza-alor batean ala jakintza-alor arteko egitura batean?
- Europako historiaren zein alderdi jorratzen dira Historiako programan?
- Zein neurritaraino jorratzen ditu Historia/Gizarte Zientzien programak honako gai honetan: Europaren kul-tur ondarea, zientzien eta erlijioen garrantzia, eta giza eskubideak?
- Europako geografiaren zer alderdi jorratzen dira Geografia/Gizarte Zientzien programan? Zer modu osa-garrian laguntzen du Geografiaren irakaskuntzak Europaren ulerkuntzan?
- Hizkuntza Modernoen irakaskuntzak zer neurritaraino erantzuten die gaur egungo Europarako beharrezko-ak diren trebetasunei? Eskolak parte hartzen al du LINGUA programan?
- Zenbateraino hartzen da kontuan komunikabideetan hezkuntza kulturala edo estetikoa?
- Zer ekarpen egiten dute edo egin zezaketen Natur Zientziek?
- Zenbaterainoko garrantzia ematen zaio nazioarteko ulerkuntza sustatzeari?
- Egungo ikasketa-planeko zein gaik laguntzen dute Europako bizitzarako prestatzeko, gaitasun pertsonal, sozial eta politikoei dagokienez?
- Ikasketa-plan formalean zenbateraino bultzatzen dira bertako ikasleen eta beste herrialde europarretako eta ez europarretako ikasleen arteko truke eta harremanak?
- Zenbaterainokoak dira gaien arteko zeharkako loturak?
- Zer langile/baliabide proportzio dago gaur egun europar irakaskuntza/esperientzia hornitzera bideratua?

4. Auditoretzaren ondorioz, eta horrek europar dimentsiorako ikuspegi egituratuagoa eskatzen badu, curriculum-gaiei buruzko kontsulta-sorta bat egingo da, hala nola:
- Ikasketa-plana «europartzeko» metodologia: irakaskuntza eta ikaskuntza ikuspegiak; jakintza-alorrekoak/jakintza-alorren artekoak/zeharkakoak; ikasketa-planean dagoen oreka.
  - Europa gai tradizioaletan: ezagutzen/edukien, trebetasunen, jarreraren *input*-a.
  - Hizkuntza Modernoetako Politikak.
  - Garapen pertsonaleko eta sozialeko estrategiak.
  - Herritartasun/hezkuntza politikorako politikak.
  - Kultur hezkuntzako estrategiak.
  - IKTbak ikasketa-planean sartzea.
  - Nazioarteko eta kultura arteko hezkuntzarako estrategiak, garapenerako hezkuntza, ingurumen-hezkuntza, hezkuntza zientifikoa.
5. Ikasketa-planean berrikuntza ezarri behar dela erabaki ahal izango da:
- *Ezagutza osagarrien inputa* programa tradizioaletan, hala nola Historia, Geografia/Ingurumen Hezkuntza, Arte, Literatura, Zientzia.
  - *Gai batzuen garrantzia eguneratzea*, Hizkuntza Modernoen irakaskuntza, adibidez, atzerriko hizkuntza batean gutxienez gaitasun orokorra hobetzeko, hizkuntza-sentiberatasunerako programak hainbat hizkuntza europarrekin «harremana edukitzeko» ikastaroekin, eskola elebidunak antolatzea...
  - *Komunikazio-kanpaina garrantzitsua* hizkuntza-trebetasunak garatzeko: truke-programa, sareak, posta elektronikoaren erabilera, bideokonferentziak, etab.
  - *Trebetasunak lortzeko politika*: malgutasun handiagoa lortzeko premiatik eta pertsona arteko trebetasun eta trebetasun teknologiko gehiago lortzeko premiatik datorrena. Europar bizitzeko eta lan egiteko jakintza-alor arteko trebetasun-eskema bat adostu liteke.
  - *Jakintza-alorreko eta jakintza-alorren arteko planak* aurreko bi puntuak praktikan jartzeko, ikasketa-plan formalaren bitartez hedatuko den zeharkako programa bat bereziki, honako kontzeptu gako hauek erabiliz: batasuna/integrazioa, askatasuna/demokrazia/norbanakotasuna.
  - *Laguntza-programa* bat Europarekin erlazioaturiko eskolaz kanpoko jarduerekin, ikaskuntza aktiboa, inplikazio pertsonala eta zuzeneko esperientzia nabarmenduz.
  - *Europar dimentsioaren antolamendua eta kudeaketa*: langileen malgutasun handiagoa ahalbidetzea (hainbaten bidez: taldeak, ekipoak...) eta profesionaltasunaren gehikuntza prestakuntzaren bidez. Irakaskuntza-estrategiek honako hau eman behar dute:
    - jakintza-alorreko oinarri argia,
    - jakintza-gaien korrelazioa jakintza-alor barnekoek, anitzen eta zeharkakoek bidez,
    - bateragarritasunerako politika zorrotza, jakintza-gaien arteko errepikapena, bikoiztasuna edo bazterketa saihesteko,
    - irakasleen erantzukizunen definizio argia,
    - irakaskuntza estrategien burutzapenak dakarren erantzukizunean parte hartzeak eragindako oreka,
    - ikaskuntzan progresioa, eta ikasleen ikaskuntza-estiloetarako sentiberatasuna (18),
    - irakasleek trebetasun handia edukitzea ICTBen eta ikus-entzunezko baliabideen erabileran.
  - *Praktikan jartzeko mekanismoak*: aurrekontuak eta baliabideen kudeaketa, ICTB hardware, software, material argitaratua, ikerketen ondorioen erabilera handiagoa, CDCC, EURYDICE.
  - *Inplikazio pedagogikoak*: ikasgelako metodo konbentzionalak osatzeko, honako programa planifikatu hau:

- Ikaskuntza aktiboa eta partaidetza-teknikak.
  - Atzerriko hizkuntza bat erabiltzea gai bat erakusteko, adibidez, Historia.
  - Esperientzia autodidakta eta IKTBen bidezko komunikazioa.
  - Ikus-hezkuntza ingurumen eta kultur pertzepzioak pizteko.
  - Trukeak eta zuzeneko harreman pertsonala.
- *Ebaluazio-prozedurak*: sustapena aldakorra izango da sistema nazionalaren arabera, baina honako hauek ezarri behar dituzte:
- Edukien aurreratzea Europari buruzko ezagutzak emateko.
  - Trebetasun neurgarrien lorpen progresiboak.
  - Partzialtasunen, jarrera sexisten, arrazisten, eta abarren ezabapena.
  - Atzemaite positiboagoen ebidentzia, erantzun kooperatiboak.
6. Europar curriculum-ekimenaren barne-ebaluazioa adostutako politikak betearazi ondoren egin behar da, eta parte hartzen duten pertsona guztiei euren ekarpena eskatu behar zaie. Ebaluazioaren helburu nagusia honako hauek ezartzea da:
- Jatorrizko helburuak zenbateraino lortu diren.
  - Zer neurri osagarri hartu behar diren.
  - Ekimena aldaketarako bitarteko egokia izan ote den.

## Ikasleak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ikasketa-planean europar dimentsioa praktikan jartzerakoan ez da ahaztu behar oinarrian dagoen helburua zera dela: 11 urtetik 19ra bitarteko gazteei emandako esperientziaren kalitatea hobetu behar dela. Honako hau lor daitekeelakoan:

- *Eskubidea*: Europan bizitzeko, lan egiteko eta herritartasun aktiboa edukitzeko egokien prestatuko dituen hezkuntzarako daukaten eskubidea ziurtatzea, aukera-berdintasunerako eskubidea.
- *Autonomia*: ikasle guztien nortasun eta balio pertsonaleko sentiberatasuna sustatzea, bizitza helduan beren ekimena, sormena eta autonomia garatu ahal izan dezaten.
- *Motibazioa*: ikasleek Europarako, prestakuntzarako eta lanerako jarrera positiboa garatu behar dute, bai eta kultur ondare eta ingurumen europarrerako eta herritar europar gisa duten zereginerako jarrera positiboa ere.
- *Sarbidea*: komunikabideetarako prestakuntza, bereziki ikasketa eta telekomunikaziorako trebetasunetan, informazioa eta ezagutzak eskura ahal izan ditzaten.
- *Sentiberatasuna*: gai politiko, sozial, ekonomiko, ingurumeneko eta kulturekiko sentiberatasun eta ulermen handiagoa, Europari buruzko informazio zabalagoaren bidez, testuinguru global batean.
- *Enpatia*: gizarte kontzientziarako eta besteen egoerekiko enpatiarako gaitasuna, partzialtasunak eta pentsamendu estereotipatuak saihestuz.
- *Gaitasuna*: ezagutzak lortuz, ulerkuntza-arloak gehituz eta trebetasunak garatuz.

Eskubide horien ondorio gisa, Europako nerabeei eskatu zaie honako hauen aldeko jarrera azaldu behar dutela:

- Gizarteari, bere funtzio eta prozedurei, bere instituzio eta erakundeei, eta bere arau eta balioei buruzko jakin-mina azaltzeko jarrera.

- Gizartean egiten den bizitzaren alderdi guztien gainean pentsatzeko eta gogoeta egiteko, bai eta euren zerregin pertsonalaren inguruko gogoeta egiteko jarrera ere.
- Euren buruaz eta euren gaitasunez jabetzeko jarrera.
- Bizitzan eta gizartean, ahal den neurrian, parte aktiboa hartzeko eta erantzukizunak onartzeko prest egoteko jarrera.
- Giza duintasuna eta giza eskubideak lortzeko lagunduko duten balioekin eta arauekin pertsonalki konprometituta egoteko jarrera. (19)

### Irakasleak eta euren prestakuntza

Ikasketa-planean Europari buruzko edozein eztabaidak zera nabarmentzen du: «hezkuntza-sistema europarraren kalitatea eta arrakasta irakasleen gaitasunaren eta konpromisoaren arabera dira, eta horiek, halaber, haien prestakuntzaren kalitatearen eta egokitasunaren mende daude». (20) Hala eta guztiz ere, bereizketa egin daiteke irakasleen hasierako hezkuntzaren (IHH/EIP), irakasleen hasierako prestakuntzaren (IHP/FIP) eta etengabeko prestakuntzaren (EP/FC) artean, eta elkarrekin, ikerketa-arlo osoa osatzen dute.

Irakasleen hezkuntzak Europari buruzko ezagutzak erakustea, eta lanarekin eta herritartasunarekin zerikusia duten trebetasunak erakustea dakar, bai eta Europaren kontzientzia eta gizarte pluralista baten jarrera kooperatiboen kontzientzientzia sustatzea ere. Presio handia dago (Europako Kontseiluaren eta Europar Batasunaren gomendio eta ebazpen sorta batean adierazia) prestatzen ari diren irakasle guztiak Europako beste herrialde batean zuzeneko esperientzia bat izan dezaten, adibidez, Europaren historiari edo geografari buruz dituzten ezagutzak, esperientzian sendo oinarrituta egon daitezen eta landa-lanek, trukeek eta ikasketa-bidaiek sendotuta. Ez da baztertu behar, halaber, Europatik kanpoko esperientziaren alderdi positiboa. Irakasle europarrek Europa ikasi behar dute, baina beti testuinguru global batean kokatuz. Era berean, ama hizkuntzaz gain Europako hizkuntza bat ezagutzea baldintza izan behar du irakasleentzat, kultura arteko ikuspegi harrera ona egingo diela ziurtatu nahi badugu.

Azkenik, jarrerak osatzen dituzten elementuetako bat da ezagutza, beste bi elementu osatzaile honako dikotomia hauek izanik: balioak/emozioak eta erantzunak/portaerak. Europari buruzko irakaskuntza eraginkorrak motibazio-maila handia eskatzen du. Irakaskuntzan, politikak bideratzen eta kudeaketa-lanetan diharduten irakasle guztiei dagokien gaia da. Zuzendaritzak eta goi-mailako irakasleek erantzukizun berezia dute euren langileen garapen profesionalari dagokionez, izan ere europar dimentsio koherentea abiarazteko behar diren ideia berritzaileen «biderkatzaile» gisa jardun behar baitute. (21) Gainera, hezkuntza europarraren helburuek gobernu guztiei prestakuntza-ekimen jarraitu eta masiboak planteatzen dizkiete, baliabideei, aurrekontuei eta jarrerei dagokienez dituzten inplikazio guztiak kontuan hartuz. Azken buruan, behar dena inertzia instituzionala gainditzeko konpromisoa hartu duen europar irakasleria da, europar dimentsioan sutsuki sinesten duena eta eskoletan aplikatzeko gaitasuna duena.

Laburbiltzeko, hasiera bateko hezkuntzak eta prestakuntzak irakasleei honako hauek eman behar dizkiete:

- Europari buruzko ezagutza mamitsuak.
- Jakintzagaiaren metodologia eta dauzkan inplikazio pedagogikoak ulertzea.
- Europari buruzko lehen eskuko esperientzia; norberarenaz bestelako gutxienez herrialde batean bizi, lan egin edo ikasten egonda.
- Gutxienez atzerriko hizkuntza bat eta kultura bat ezagutzea.
- Irakasleei beren jakintzagaia atzerriko hizkuntza batean komunikatzea ahalbidetuko dien hizkuntza-gaitasuna.
- Jakintza-alor anitzeko ikuspegieta prestatzea.

- IKTBez baliatzeko gai izan daitezen prestatzea.
- Eskolaz kanpoko komunitateekin eta erakundeekin lankidetzan prestatzea.
- Gizarte demokratiko eta pluralistarako balio egokiez osatutako gune komun bat.
- Erakunde eta prozesu demokratikoetan aktiboki parte hartzeko motibazioa, bai eta kultura arteko egoerak onartzekoa ere.
- Ikasketa-planean Europaren kontzientzia eta europar dimentsioa praktikan jartzen lagunduko duten berrikuntzak egiteko motibazioa.

Gainera, etengabeko prestakuntzak honako hau ere eragin behar du:

- Zuzendaritzan eta irakasleengan jarrera fresko eta erantzun berriak sortzea.
- Egungo gizartearen erronka berriei aurre egiteko prestakuntza metodologiko, zientifiko eta teknologikoa ematea.

Bereziki, etengabeko prestakuntzako aukerak eman behar dizkie irakasleei honetarako:

- Aldaketa eta garapena testuinguru praktikoan ikasteko.
- Material didaktiko hobetuak sortzeko helburuarekin lankidetzan egindako ikerketetan parte hartzeko.
- Europari buruzko ezagutzen oinarria zabaltzea eta sakontzea, termino praktikotan eta akademikotan.

Jakin badakigu horiek helburu handinahi eta globalak direla. Eskolako errealitatean, nola lor daitezke helburu horiek? Nola ziurta daiteke irakaskuntzaren arloko langileek itxaropen horiek beteko dituztela? Ezein sistema ez dago akatsetatik libre, baina elkarrizketek irakasle berrien motibazio-maila eta ikuspegia ebaluatzea ahalbidetu behar dute honako galdera hau- en bidez:

### Kontrol-zerrenda

- Izan al duzu beste herrialde batean bizitzeko, lan egiteko edo ikasteko esperientziaren bat?
- Zer ikasi duzu esperientzia horretatik?
- Nola lagunduko duzu eskola honetan dimentsio europarra irakats dadin?

### Eskolaren eta kanpoko munduaren arteko erlazioa

Europarako hezkuntzak kanporantz orientaturiko ikaskuntzaren eta bizitzaren ikuspegia planteatzen du. Funtsezkoak dira europar hezkuntzarako herrian edo eskualdean parte hartzea, Europari norbere nazioak egin dion ekarpena eta Europa bere testuinguru globalean atzematea. Esan gabe doa europar eskola eskubide osoko erkidego gisa dagoela inplizituki sartua. Hortaz, eskola europarrak arreta berezia eman behar die hauei:

- bere inguruko lehen hezkuntzako eskolekiko harremanari,
- goi-mailako hezkuntzako, lanbide-hezkuntza eta hezkuntza teknikoko erakundeekiko harremanari, dimentsio europarrak beste maila batzuetan jarraitzen duela aitortzen baita,

- toki edo nazio mailako erkidegoan, baina batez ere munduan gutxien garatutako eskualdeetan, minusbalio-tasunak edo desabantailak dituztenei,
- komunikabideen eta tokiko enpresen ordezkari direnei, politikariei, eta erkidegoan lidergo-postuetan daudenei,
- Europako biztanleria osoari, baina batez ere eskolako ikasleen adin berekoiei.

### Kontrol-zerrenda

- Zer prozedura daude lehen hezkuntzako eskolekin harremanak izateko?
- Ba al da hizkuntzen arloan loturaren bat lehen hezkuntzako eskolen eta bigarren hezkuntzako eskola «europarren» artean?
- Elkarbanatzen al dira baliabideak inguruko eskolen artean?
- Eskolak sustatzen al du europar «gaikuntza» edo antzeko zerbait?
- Eskolak ba al du «Klub Europar» bat?
- Nola parte hartzen du eskolak senidetze-programetan?
- Zer programa-mota daude beste herrialde europar batzuekin truke aktiboa egiteko?
- Zer harreman-mota dauzka eskolak beste erakunde/pertsona europarrekin?
- Ikasleriaren zer portzentajek du zuzeneko esperientzia beste herrialde europar batean?
- Irakasleen zer portzentajek parte hartzen du ekimen europar/globalatan?
- Zer jarduera sustatzen ditu eskolak gazte minusbaliatuentzat?
- Eskolak ba al du UNESCOren Eskola Elkartuen programarekin edota Eskolaren Egun Europarraren lehia-ketarekin loturiko jarduerarik?
- Zer lotura ditu ezarrita eskolak tokiko komunikabideekin eta enprekin?
- Zer urrats egin ditu eskolak bere ikasleen artean nortasun eta herritartasun europarra garatzeko?

Amaitzeko, galdera horien inplikazioak aditu aleman batek jaso zituen hezkuntza-prozesuan parte hartzen duten guztiei egingdako eskaera batean. (22) Bigarren hezkuntzako eskolako zuzendaritzari eta irakasleei zuzenduz, honako hau esan zien:

#### Mesedez:

- Ez ahaztu sekula eskola bere inguruarekin, ingurumenarekin eta erkidegoarekin erlazionatuta dagoela.
- Zabaldu eskolak kanpoko mundura.
- Sartu erkidegoan eta haren erakundeetan, eta ekar itzazue eskolara.
- Gara itzazue ulerkuntza eta lankidetzeta hobea lortzeko prozedurak.

Ondoren, «gurasoei, erkidegoko erakundeen ordezkari, eta kazetari» hitz eginez, honako hau eskatu zien:

#### Mesedez:

- Ez jarri eskolaren aurka, hezkuntza erantzukizun eta zeregin propioak baititu;
- Gizarte-hezkuntzan laguntzeko aukera gisa onar ezazue;
- Eskolari animuak eta laguntza eman, sartu eskolan eta parte har ezazue eskola-erkidegoaren bizitzan;
- Lagundu nerabeei helduen mundua ezagutzen eta bertan sartzen.

Hezkuntzan inplikaturiko alderdien lankidetzarako eskaera horretan, zera gogoratzen da: eskolak eta irakasleak gero eta gehiago erantzukizun publiko baten eragileak direla, gurasoek eta herritarrek orokorrean eskolaren helburuen eta lorpenen etengabeko ebaluazioa egin behar dutela.

## ONDORIOAK

Hezkuntza-erakunde guztiek dute heziketa-eraginen bat. Gazteen nahien eta gaitasunen osaeran laguntzen dute, haien adimen-prozesuetan eta portaera-ereduetan eta, zeharka bada ere, haien nortasunetan. Eskolek zera jakin nahi dute: egungo gizartea zer gizarte-mota bilakatuko den datozen belaunaldietan. Europar gizarteak berriz ere ideia eta lorpen teknologikoen eragile berri gisa jokatzeko eta gai globaletan zeregin konstruktiboa eta humanitarioa betetzea, XXI. mendearen hasierako neska-mutiko europarren hezkuntza-kalitatearen arabera izango da neurri handi batean. Hezkuntza horrek Europa demokratiko, kulturantz eta hizkuntzanitzean bizitzeko prestatu behar ditu. Lehenaldiaren eta orainaldiaren berri eman behar die, euren kulturaren eta ingurumenaren berri, eskuraturiko ezagutzek etorkizunerako ulermena, enpatia eta ikuspegia eman diezaien. Haien gaitasun eta trebetasunak garatu behar ditu, beste kultura batzuetako pertsonekin komunikazio eta elkarrekinzako prozesu aktibo batean parte hartzeko aukera emanez, haien bizitzak Europa demokratiko bakar baten gizarte-testuinguruan kokatzen dituzten aldi berean.

Hori ez da ez internazionalismo faltsu baten aldeko erretorika, ez eta zibilizazio indarberritu baten goraiapmena ere. Eurozentrismoa eskatuz mozorroturiko mezu politikoa ere ez da. Hezkuntzak propagandaren ginetik egon behar du. Gazteek biharko Europarako dituzten hainbat itxaropenekin egiten dute topo irakasleek, eta ezin dute izan ez eurofobiko, ez eta hipernazionalista ere. Europa ez da idealizatzeko dagoen zerbaite. Jendearen itxaropenak nahasten, sumintzen eta desafiitzen jarraituko du, irakasleak eta ikasleak barne. Izan ere, horiek konturatzen dira, maizegi «Europa desagertu egiten dela hartaz modu argian eta ezberdinean pentsatzen saiatzen hasi orduko; puskatan txikitzen da, haren batasuna aitortu nahi dugun orduko». (23) Hala eta guztiz ere, batasun hori ez da beti izan indar zibilizatzaila eta, hori dela eta, gazteria europarrak ez ditu sekula ahaztu behar kristautasun unibertsalaren izenean egin diren gizagabetasunak edo estatu-nazio europarren sekularitasun boteretsua. Aldi berean, jabetu behar du aniztasuna banatzailea eta ahultzailea ere izan daitekeela, interes sektario eta nazionalak helburu komunak zaputuz ditzaketean bezalaxe. Eztabaidatu ezin dena zera da: belaunaldi berriek modu positiboan erantzun beharko diotela Asiak, Afrikak eta Amerika osoak duten nagusitasun demografikoari, bai eta Itsaso Bareko arroaren lehia ekonomikoari ere. Erronka horiek ezin dira borroka-espirituz planteatu, estatu-nazioak elkarren aurka jarriz, eta are gutxiago isolatuta; ekimen kolektiboak eta nazioarteko elkarriketa behar dituzte.

Gai global horiek jorrazteko prestakuntza-prozesua eskolan hasten da. Ikaskuntza-prozesu konplexua da, norbere buruaren ulerkuntzarekin hasten dena; pertzepzio-geruzaz geruza progresiboen bitartez zabaltzen da, «persona europar bat garena» atzematen dugun arte. Modu horretan, ikasketa-planeko «dimentsio europarrak» hezkuntzaren dinamikak aktibatzen ditu. Inork ere ez du esan erraza denik ikasleei europar kontzientziako erantzukizun eta autokritikako maila bat transmititzea —hau da, maila heldua—, ez eta arazorik gabe eskura dezakeenik ere, izan ere honengatik : «Europar pentsatzeko zailtasuna, printzipioz, *bat askoren barruan eta asko baten barruan* pentsatzeko zailtasuna da». (24) Baina bada erantzun erraz bat: hezkuntzan merezi duen ezer ez da irakasten trebetasunik gabe eta ez da asimilatzen ahaleginik gabe.



- (1) Craft, M. (1983), honako honetan egindako ekarpena: Rey, M., *General Report on Migrant Culture*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 9. or.
- (2) (1988), *Final report of European Youth Peace Seminar*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, B18.
- (3) Blackledge, R. (1982), *Reflections and Observations on CDCC Project Preparation for Life*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 23 or.
- (4) (1990), *Family Change and Future Policy*, Londres: Family Policy Studies Centre.
- (5) Ver Williams Michael (1986), «The World in the European classroom» *Haikko Symposium*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 3-5 orr.
- (6) Doebrick, P. (1989), «Trends in Education» *Understanding and Working with European Systems-en*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 6. or.
- (7) Newman, Simon (1989), «A European view of education systems» *Understanding and Working with European Systems-en*, 8. or.
- (8) *Ibid.*
- (9) Ver Slater, J. (1990), *Report on UK European Awareness Pilot Project*, Londres: Central Bureau for Exchange Visits, 13 or.
- (10) Europa Ikasgelan sartzeko Ebazpena, 1978ko ekainaren 8an.
- (11) Slater, *Report on UK European Awareness*, 7. or.
- (12) (1992), *Papers on International Secondary Education*, Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- (13) Fitz-Gibbon, F. (1989), *Towards the Self-Enablement of Schools*, Kirkby: Ruffwood School.
- (14) NUT (s.d) «Democracy in Schools» Lister, I. (1989), *Teaching and Learning about Human Rights-en*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 17 or.
- (15) Cotsapas, P., ekarpena honako hauek: Rey, *General Report on Migrant Culture*, 25. or.
- (16) Strakey, Hugh (1984), *Report on Human Rights Education*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 17. or.
- (17) *Ibid.*
- (18) Ver Salter, M., *Languages for Communication*, Londres: CILT, 8. or.
- (19) Zöllner, C. (1982), «Social education for teenagers» Strakey, H., *Report on Social Education for Teenagers-en*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 33. or.
- (20) (1988), *Report on problems in Education and Training*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 8. or.
- (21) Peacock, D. (1982), *Report on Europe: Aims, Approaches and Problems*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 43. or.
- (22) Zöllner, «Social education for teenagers», 32. or.
- (23) Roy, Alain (1989), *Final Report Youth Event for 40<sup>th</sup> Anniversary of the Council of Europe*, Estrasburgo: Europako Kontseilua, 3. or.
- (24) *Ibid.*






**ERANSKINAK**



- 
1. eranskina: **GOMENDIO ETA EBAZPEN OFIZIALAK**
  2. eranskina: **AGENTZIA NAZIONALAK**



# 1. eranskina

GOMENDIO ETA EBAZPEN OFIZIALAK





**R (83) 4 GOMENDIOA**  
**ESTATU KIDEETAKO MINISTROEN BATZORDEARENA, BIGARREN HEZKUNTZAKO ESKOLAN EUROPARI**  
**BURUZKO SENTSIBILIZAZIOA SUSTATZEARI BURUZKOA**  
(Ministroen Batzordeak 1983ko apirilaren 18an onartua, Ministrordeen 358. bileran)

Ministroen Batzordeak, Europako Kontseiluko Estatuetako 15.b artikuluan xedaturikoaren arabera:

Kontuan izanik Europako Kultur Konbentzioa (1954), Europan elkar ulertzeko hezkuntzaren beharra azpimarratzen duena;

«Gizalege-hezkuntzari eta ulerkuntzari» buruzko (64) 11 Ebazpena gogoan izanik:

Kontuan izanik Kultur Lankidetzarako Kontseiluaren «Bizitzarako prestakuntza» izeneko bigarren hezkuntzari buruzko 1. proiektuaren (1978-82) ikerketaren emaitzak;

Kontuan izanik Europako Kontseiluaren epe erdirako bigarren plana (1981-86), eta bereziki:

- 1) 10.1 helburua – Europaren kultur nortasunari buruzko sentsibilizazioa haren aniztasun osoa kontuan hartuta sustatzea, eta munduko beste inguru batzuekiko elkarriketarako eta elkar ulertzeko aukerak aintzat hartzea.
- 2) 11.3 helburua – nazio-mailako hezkuntza-sistemek jendeak Europarekiko duen sentsibilitatea bultzatzea, eta Europako biztanleen arteko komunikazio eta lankidetzaren sustatzea.

UNESCOren Konferentzia Orokorrak bere 18. bilkuran (Paris, 1974ko azaroaren 19a) onartutako Ebazpena, nazioartean elkar ulertzeko hezkuntzari, lankidetzari eta bakeari, eta giza eskubideetan zein funtsezko askatasunetan hez-teari buruzkoa, aintzat hartuta

Estatu kideetako gobernuari zera gomendatzen die:

- 1) Euren bigarren hezkuntzako politikak betearaztean kontuan izatea gomendio honen Eranskinean ezarritako printzipioak, edo eskumeneko agintariak horri buruz ohartaraztea.
- 2) Gomendio honek ahal bezain hedapen zabala izango duela ziurtatzea, Europari buruzko sentsibilizazioa ikasleen eta irakasleen artean sustatzeko lanetan esku hartzen duten pertsonen eta organismoen artean.

R (83) 4 Gomendioaren eranskina

Europari buruzko sentsibilizazioa bigarren hezkuntzako eskolan sustatzeko hezkuntza-programak egiten dituzten pertsonentzako gida-printzipioak:

1. Helburuak

- 1.1. Programak eskola bakoitzaren beharren eta interesen arabera izango dira.
- 1.2. Zera izango dute komunean: beste herri batzuekiko errespetua eta elkartasuna sustatzea, eta Europako zein munduko herritar-nortasuna sortzea.

1.3. Gazteek honako hauek lortu behar dituzte: demokrazia, giza eskubideak eta funtsezko askatasunak defendatzeko borondatea eta gaitasuna; mundu independentean moldatzeko gaitasuna; euren kultur ondare komuna ulertzea; eta Europako eremuko lankidetzaren alde diharduten erakundeak ezagutzea.

### 2. Ikuspegiak

Irakasgai bereizien edo diziplina arteko ikastaroen bitartez irakats daiteke Europari buruz. Eskolek aurreko eskolatze-faseetan ikasitakoan oinarrituta eraiki behar dute, eta Europari buruz irakasten dena gerora eraginkorra izango dela ziurtatu behar dute. Irakasgaiak euren artean koordinatuta saihestu daiteke zatiketa.

### 3. Edukiak

Bigarren hezkuntzako eskolek honako hauen ulerkuntza garbia transmititu behar diete ikasleei: demokrazia, giza eskubideak eta funtsezko askatasunak; tolerantzia eta pluralismoa; interdependentzia eta lankidetzeta; giza eta kultur batasuna eta aniztasuna; eta gatazka eta aldaketa.

Kontzeptu horiek argitzeko, hoberena nazioartean elkar ulertzea eta lankidetzeta beharrezkoak direla frogatzen duten gaiak jorratzea da, hala nola: gerrari aurre hartzea eta gatazkak modu baketsuan konpontzea, Europako kultur ondarea zaintzea, migrazioen eragina, oreka ekologikoa zaintzea, eta garapen-bidean dauden herrialdeekiko harremanak.

Hizkuntza Modernoak, Historia, Geografia eta Gizarte Ikasketak irakasgaiak oso lagungarriak izan daitezke Europari buruzko hezkuntzarako, baina ez da ahaztu behar Zientzien, Arteen eta Musikaren ekarpena.

### 4. Metodoak

4.1. Kide diren estatuetako eskola-sistemen aniztasuna dela-eta, ikasgeletan ere praktikak askotarikoak izan ohi dira. Hala ere, Europari buruz gauza gehiago ikasteko diseinatutako programak abian jartzean, irakasle askok bat egin dute honako hauetan:

- 1) Metodologia aktiboak erabiltzea, ikerketa-metodologiak, aurkikuntzak egitean oinarritutakoak; ikerketa personalak eta inkestak egitea eskatzen duten proiektuez baliatzea; kanpoko herrialdeekiko loturak, herri eta nazio mailakoak, ustiatzea.
- 2) Parte-hartze aktiboa izateko, erabakiak hartzeko, eta eskola-komunitatearen barruan erantzukizunak hartzeko aukera eskaintzea gazteei, gizarte demokratikoan eta librean bizitzeko prestatzearen.
- 3) Nazioarteko eremuan, ikasleak eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzera bultzatzea, esate baterako: Europako Eskolen Egunaren lehiaketan, UNESCOren Klubetan eta UNESCOren Eskola Elkartuen Proiektuan, eskoletan klub europarrak sortzea, eskolen arteko trukeak egitea, Europako erakundeetarako irteerak egitea, eta hiriak senidetzearekin loturiko ekitaldiak ikustea.
- 4) Nazioarteko gertakarien inguruan komunikabideek ematen duten informazioa modu kritikoan jarraitzera animatzea ikasleak.
- 5) Beste herrialdeetako erakundeen, eta gobernuarteko edo gobernuaz kanpoko nazioarteko erakundeen materialak eta oinarritzko baliabideak erabiltzea.

4.2. Europako gizartea gero eta kulturantzagoa denez, eskoletako ikaskuntza-prozesuetan beste kulturetako jendea modu aktiboan inplikarazi beharko litzateke, ahal den guztietan. Horrela, ikasleek jarrera toleranteak ikasiko dituzte, eta kolore, sinismen edo ohitura bestelakoak izan arren, guztiok oinarritzko duintasun eta behar komunak ditugula konturatuko dira.



#### 5. Irakasleen prestakuntza

Bigarren hezkuntzako eskoletan, Europari buruzko ezagutza garatzeko programek arrakasta izan ala ez izan, irakasten duenaren trebetasunaren eta gaitasunaren baitan dago, hein handi batean. Beraz, ezinbestekoa da hezitzaileek beharrezko ikastaroak egin ditzaten lanean hasi aurretik, eta baita ematen ari diren bitartean ere. Irakasleek ez ezik, eskoletako administrazioako arduradunek, ikuskatzaileek, aholkulariek eta zuzendariak ere egin beharko lituzkete ikastaro horiek. Horretaz gain, Europako beste herrialdeetan, edo beste herrialdeekin trukeak eginez, ikasteko aukeraz baliatzera bultzatu beharko lirateke irakasleak eta gainerako hezitzaileak.

#### 6. Kontrola eta Ebaluazioa

Alferrikako lana egitea saihesteko, eta baliabideei etekin handiena ateratzeko, Europari buruzko ezagutza sustatzeko programak zehatz-mehatz kontrolatu eta ebaluatu beharko lirateke, kide diren estatuetakoa bigarren hezkuntzako ikastetxeetan. Eta horrela, honako hauek aztertu ahal izango genituzke:

- 1) Programen helburuak zenbateraino betetzen ari ote diren.
- 2) Ikasleen interesak eta beharrak zenbateraino asetzen ari ote diren.

Horrelako ebaluazio bat eginez gero, kide diren estatuen artean esperientziak trukatzeko, eta praktika onak zeintzuk diren identifikatzeko lagungarri izan daiteke.

**EUROPAKO KONTSEILUA  
MINISTROEN BATZORDEA**

**MINISTROEN BATZORDEAK HIZKUNTZA MODERNOEI BURUZ KIDE DIREN ESTATUEI  
EGINDAKO GOMENDIOA, R (82) 18 ZENBAKIDUNA**

(1982ko irailaren 24an Ministroen Batzordeak hartutako erabakia, Ministroen Ordezkarien 350. bileran)

Ministroen Batzordeak, *Europako Kontseiluaren Estatutuaren 15.b artikulua*ren arabera,

Europako Kontseiluaren helburua kideen arteko batasun handiagoa lortzea denez, eta helburu hori kultura-eremuan ekintza bateratuak eginez lor daitekeela ikusirik;

1954. urteko abenduaren 19an, Parisen sinatutako Europako Kultura Konbentzioaren arabera;

Hizkuntza modernoak irakasteko Europako programa trinkoari buruzko 1969ko urtarrilaren 25eko (69) 2 ebazpena ikusirik;

Europako hizkuntza modernoei buruz Batzarrak emandako 814 (1977) Gomendioa kontuan izanik;

Kultura Lankidetzarako Kontseiluko 4. Proiektu Taldeak egindako «Modern languages: 1971-81» txostenari jarraiki;

1982ko otsailaren 23tik 26ra, Europako Kontseiluak Estrasburgon antolatu zuen Biltzarraren «Across the threshold towards multilingual Europe – Vivre le multilinguisme européen» lana gogoan izanik;

Europako hizkuntzen eta kulturen ondare aberatsa guztiok zaindu eta garatu beharreko baliabide komuna denez, eta aniztasun horrek komunikaziorako oztopo izateari utzi, eta elkar aberasteko eta ulertzeko zubi izan dadin lortzeko, irakaskuntzaren arloan lan handia egin behar dela aintzat harturik;

Europako hizkuntza modernoak hobeto ezagututa, ama-hizkuntza ezberdina duten europarren arteko komunikazioa eta trukeak erraztuko lirakeela jakinda, eta horren ondorioz, Europaren barruko mugikortasuna, elkar ulertzea eta lankidetzaren sustatu, eta aurreiritziak eta diskriminazioa murriztu;

Hizkuntza modernoak ikasteko eta irakasteko nazio mailako politikak ezartzean edo garatzean, etengabeko lankidetzara eta politikak koordinatzera bideratutako xedapenei esker, kide diren estatuek Europako eremuan prestakuntza hobia lortu ahal izango dutenez;

Nazio mailako hezkuntzako politiken eta sistemen esparruan, eta kultur garapenerako nazio mailako politiken esparruan, eskura dituzten baliabideen baitan, eta ahal duten neurrian, gomendio honen eranskinean zerrendatutako neurriak aplikatzea aholkatzen zaie Estatu kideetako gobernuari;

Kide diren estatuetako gobernuari eskatzen zaie euren herrialdeetako erakunde publikoei eta pribatuei gomendio hau eta honen oinarria den erreferentzia-dokumentua (1) helaraz diezazkieten, euren nazio mailako prozeduren bitartez.

(1) «Modern languages: 1971-81» txostena.

**R (82) 18 Gomendioaren Eranskina**  
**Hizkuntza modernoaren ikaskuntzaren eta irakaskuntzaren inguruan,**  
**kide diren estatuek aplikatu beharreko neurriak**

*A. Neurri orokorrak*

1. Ahal den neurrian, gizarteko sektore guztietan beste estatu kideetako (edo herrialde bereko beste komunitateetako) hizkuntzak ikasi ahal izateko bitartekoak badaudela, eta hizkuntza horiek erabiltzeko gaitasuna bermatzea, komunikazio-beharrak asetzeko, eta batez ere:
  - 1.1. Beste herrialde batean, eguneroko bizitzako egoerei aurre egiteko, eta norberaren herrialdean dauden atzerritarrei laguntzeko;
  - 1.2. Beste hizkuntza batean aritzen diren gazteekin eta helduekin informazioa eta ideiak elkartrukatzeko, eta besteekiko pentsatzen dutena eta sentitzen dutena adierazteko;
  - 1.3. Besteen bizitzeko modua, pentsamoldea eta kultura-ondarea ulertzeko.
2. Irakasleei eta ikasleei, maila guztietan eta egoeraren arabera, hizkuntzak ikasteko sistemak aplikatzeko ahaleginetan laguntzea, sustatzea eta bultzatzea (Europako Kontseiluaren «Hizkuntza Modernoak» programan definitzen diren moduan, pixkanaka-pixkanaka):
  - 2.1. Irakaskuntza eta ikaskuntza ikasleen beharretan, motibazioetan, ezaugarrietan eta baliabideetan oinarrituta;
  - 2.2. Ahal den modu zehatzenean, helburu baliagarriak eta errealak definituta;
  - 2.3. Material eta metodo egokiak garatuta;
  - 2.4. Ikaskuntza-programetara egokitutako galdetegiak eta tresnak sortuta, ebaluatzeko.
3. Ikerketa eta garapen programak sustatzea, hezkuntza maila guztietan, metodo eta material onenak sartzen laguntzeko, ikasgela eta ikasle mota bakoitzak, bere beharren arabera, komunikatzeko gaitasuna har dezan.

*B. Eskoletan, hizkuntzak ikastea*

4. Hamar urteko ikasleei edo bigarren hezkuntzako ikasleei (edo txikiagoei, egoeraren arabera), norberarena ez den Europako hizkuntza bat, gutxienez, irakastea bultzatzea, behar adina denbora emanez, eta derrigorrezko ikasketak amaitu ondoren, hizkuntza horretan ongi komunikatzeko gai izan daitezen (norberaren trebetasunaren baitan), bai eguneroko bizitzan, bai harreman sozialak eta pertsonalak egiteko, elkar ulertuz eta besteen kultura-nortasuna errespetatuz.
5. Eskoletan hizkuntza bat baino gehiago ikasteko xedapenak ezartzea:
  - 5.1. Europako edo beste nonbaiteko hizkuntza moderno bat baino gehiago ikasteko aukera emanez ikasleei, ahal izanez gero;
  - 5.2. Tokiko zirkunstantziak aintzat harturik, ahalik eta hizkuntza gehien ikasteko bitartekoak eskuragarri izatea bermatuz.
6. Ikasleen eta ikasgelen arteko nazioarteko hartu-emanak sustatzea, trukeak eginez, atzerrira irteerak eginez, edo bestela.

*C. Bigarren hezkuntzako goiko mailetan, goi mailako irakaskuntzan, etengabeko prestakuntzan eta helduen heziketan, hizkuntzak ikastea.*

7. Bigarren hezkuntzako goiko mailetan, goi mailako irakaskuntzan eta helduen heziketan, hizkuntzak ikasten jarraitu ahal izateko bitartekoak jartzera bultzatzea irakaskuntzako erakundeak, euren lan edo ikasketa eremuaren baitan, profesionalen nazioarteko mugigarritasuna eta maila guztietako lankidetzaren erraztearen.
8. Derrigorrezko hezkuntza bukatu duten ikasleek hizkuntzak hobeto ikasteko bitartekoen eskuragarritasuna bermatzea, behar eta motibazio profesionalen, sozialen eta pertsonalen arabera.
9. Ordura arte hizkuntza modernorik ikasteko aukerarik izan ez duten helduek hizkuntza moderno batean komunikatzeko adina trebetasun lortzeko, beharrezko neurri guztiak hartzea.

### D. Etorkinek eta euren senitartekoen hizkuntza ikastea

10. Langile etorkinek eta euren senitartekoen jarraian aipatuko ditugun helburu horiek lortu ahal izateko neurriak ezar daitezkeen bultzatzea:
  - 10.1. Xede-komunitateko hizkuntza ikastea, komunitatearen lan-bizitzan, politikoan eta sozialean parte hartu ahal izateko adina, eta batez ere, etorkinen seme-alabek hezkuntza ona izan dezaten, eta derrigorrezko hezkuntza amaitzean lan-mundura igaro daitezkeen;
  - 10.2. Euren ama-hizkuntza hezkuntza eta kultura arloko tresnatzat baliatzea, jatorrizko herrialdeekiko loturei eustearren eta hobetzearen.
11. Etorkinei hizkuntzak irakasten dizkieten profesionalentzako hasierako mailako eta aurreragoko prestakuntza-programak sartu eta garatu daitezkeen sustatzea, titulu ofizialak emanez.
12. Hizkuntza-programen garapenean parte-hartzea, baina xede-komunitatearen ordezkari diren erakundeen eta agintarien arteko lankidetzaren, eta etorkinen komunitatearen eta jatorrizko herrialdeen arteko lankidetzaren barne hartzen dituzten programen garapenean, irakaskuntzarako, irakasleak prestatzeko eta ama-hizkuntza garatzeko materiala sortzeko, batik bat.

### E. Irakasleentzako prestakuntza, hasierakoa eta aurreratua

13. Hizkuntza modernoan irakasleen hasierako eta aurreragoko prestakuntzarako metodoak garatzen eta txertatzen laguntzea, hizkuntzak modu eraginkorrean irakasteko jarrerak, ezagutzak, trebetasunak eta teknikak ikas ditza- ten, betiere komunikatzeko helburuarekin, hala nola:
  - 13.1. Goi mailako hezkuntzan, hizkuntza modernoak ikasteko ereduak hizkuntza-irakasle izango direnei pre- takuntza egokia ematen dien ala ez aztertuta;
  - 13.2. Irakasle-gai guztiak irakatsi behar duten hizkuntza hori ama-hizkuntza den herrialdean denboraldi bat igaro ahal izateko bitartekoak jarrita, alde biko edo alde anitzeko akordio bitartez;
  - 13.3. Irakasten ari diren irakasleen prestakuntza-programa trinkoari lagunduta, hizkuntza-irakasleentzat nazioarte mailako eta nazioarteko jendearekin antolatutako gaitasun-ikastaroekin, eta irakasle aktiboek ikastaro horietan parte hartzea erraztuta;
  - 13.4. Irakasle aktiboek irakasten duten hizkuntzaren jatorrizko herrialdean aldizka egonaldiak egin ditzaten indartuta.

### F. Nazioarteko lankidetzaren

14. Gobernu eta gobernu kanpoko erakundeen artean, nazio eta nazioarte mailako lankidetzaren bultzatzea, betiere hizkuntza modernoan ikaskuntzaren eremuan, irakasteko eta ebaluatzeko metodoak garatzen, eta materiala sor-

tzen eta erabiltzen konprometitutako erakundeak izanik, eta multimedia materiala sortzen eta erabiltzen konprometitutako erakundeak barne harturik.

15. Ahal den neurrian, norberaren egoera kontuan izaten saiatzea; irratiek eta telebistek beste estatu kideetakoekin lankidetzan aritu beharko lukete, hizkuntza modernoak ikasteko saioak, baita irakasten den hizkuntza hori hitz egiten den herrialdeetako bizimodua, gizartea eta kultura agertzen duten dokumentalak ere, planifikatzeko, ekoizteko eta ustiatzeko.
16. Hizkuntza irakasteko materialen eta ikastaroen kalitatea kontrolatzeko, nazioarteko lankidetzaz-neurriak aztertzea.
17. Hizkuntzen irakaskuntza, ikaskuntza eta ikerketa arlo guztiak barne hartzen dituen informazioa trukatzeko sistema europar eraginkor bat sortzeko neurri egokiak ezartzea, eta teknologia berriei etekin handiena ateratzea.
18. Ahal den neurrian, gomendio honen ataletan zerrendatutako neurriak aplikatzen dituzten programen berri Kultura Lankidetzarako Kontseiluari jakinaraztea, eta gobernuek diruz lagundutako programetan, ahal izanez gero, eragindako agentzien eta kide diren estatuetakoa antzekoen artean kontsultak egiteko eta lankidetzarako xedapenak sartzea.

**KONTSEILUAREN ETA KONTSEILUAN BILDURIKO  
HEZKUNTZA-MINISTROEN EBAZPENA  
HEZKUNTZAKO EUROPAR DIMENTSIOARI BURUZKOA  
1988KO MAIATZAREN 24KOA  
(88/C 177/02)**

KONTSEILUAK ETA KONTSEILUAN BILDURIKO HEZKUNTZA-MINISTROEK,

1985eko irailaren 27an lortu zituzten ondorioei dagokienez;

Europar dimentsioa hezkuntzan sendotzeko borondatea berretsiz, Stuttgart-eko «Europar Batasunari buruzko Adierazpen irmoari» (1983ko ekaina), Fontainebleau-ko Europako Kontseiluko (1984ko ekaina) ondorioei, eta Milan-eko Europako Kontseiluan (1985eko ekaina) onartutako «Herritarren Europa» txostenari jarraiki;

Europar dimentsioa hezkuntzan aprobetxatzea Erkidegoa garatzeko eta 1992. urterako barne-merkatu bateratua sortzeko helburua gauzatzeko elementu lagungarri gisa aintzat hartuta;

Parlamentuak 1987ko azaroaren 20an hartutako Ebazpena aintzat hartuta;

Hezkuntza Batzordearen txostena aintzat hartuta;

Europar dimentsioa hezkuntzan zabalago jorratzearen eta ondoko hauei jarraiki abiarazitako jarduera guztien arteko lotura azpimarratuz: hezkuntzari buruzko ekintza-programa (1976ko otsailaren 9a); hezkuntzatik bizitza aktiborako igarotzeko aukera hobetzeko proiektu pilotuen programa; eta ERASMUS, COMETT eta Gazteak Europaren alde (YES) programak;

Europarren artean elkar ulertzeko beste Estatu kide batzuetako hizkuntzak ikasteak eta gazteen arteko trukeek duten garrantzia nabarmenduz,

HONAKO EBAZPEN HAU HARTU DUTE:

I. HELBURUAK. Ebazpen honen xedea europar dimentsioa hezkuntzan sendotzea da, 1988-1992 denbora-tarterako hiztaturiko neurri-sorta gauzatzuz; neurri horiek honako hauek lortzeko lagungarriak izan beharko lukete:

- europar nortasunaren zentzua sendotzea gazteengan, eta europar zibilizazioak zein Europako herriek gaur egun euren garapenerako hartu dituzten oinarrien balioa gazteei argitzea; honako oinarri hauek hain zuzen ere: demokraziaren printzipioen babesa, gizarte-justizia, eta giza eskubideekiko errespetua (Kopenhageko Adierazpena, 1978ko apirila);
- gazteak prestatzea Erkidegoaren garapen ekonomiko eta sozialean parte hartzeko, eta Europar Batasuna eratze-ko aurrerapen nabarmena egitea, Europako Agiri Bakunean ezarrita dagoen bezala;
- gazteei horrek dituen abantailak ulertaraztea, baina baita espazio ekonomiko eta sozial zabalagoa irekitzen diela-eta horrek dakartzan erronkak ere;
- Erkidegoari eta Estatu kideei buruz dituzten ezagutzak hobetzea, historia, kultura, ekonomia eta gizarteari dagokienez, bai eta Europako Erkidegoko Estatu kideen eta Europako zein munduko beste herrialde batzuen arteko lankidetzak duen garrantzia irakastea ere.

II. EKIMENA. Europako Kontseiluak Herritarren Europari buruz hartu duen Erabakiari jarraiki, helburu horiei beste bultzada bat eman beharko litzateke; horretarako, Estatu kideek eta Erkidegoak neurriak sendotu beharko dituzte.

A) Estatu kideei dagokienez. Haien politiken eta berriazko hezkuntza-egituren mugen barruan, Estatu kideak ahal duten heinean ahaleginduko dira ondoko neurri hauek hartzeko:

1. Europar Dimentsioa hezkuntza-sistemetan txertatzea
  - Dokumentu batean europar dimentsioa hezkuntzan txertatzeko gaur egun duten politika ezartzea, eta eskolek eta gainerako ikastegiak dokumentu hori eskuragarri izatea ahalbidetzea.
  - Hezkuntzako sektore guztietako organismo eskudunak europar dimentsioa hezkuntzan sendotzeko proiektuen eta neurrien alde jardutera bultzatzea.
2. Eskola eta hezkuntza programak
  - Europar dimentsioa haien eskola-programetan horretarako egokiak diren irakasgai guztietan berriaz txertatzea, adibidez: literaturan, hizkuntzetan, historian, geografian, gizarte-zientzietan, ekonomian eta arteetan.
3. Ikasmateriala
  - Beharrezkoak diren neurriak hartzea ikasmaterialak kontuan har dezan europar dimentsioa sustatzeko helburu komuna.
4. Irakasleen prestakuntza
  - Irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntzan gehiago azpimarratzea europar dimentsioa.
  - Helburu hori lortzeko honako hauek lagungarriak izan daitezke: ikasmaterial egokia hornitzea; Erkidegoari eta bere politikei buruzko dokumentazioa eskuragarri izatea; gainerako Estatu kideetako hezkuntza-sistemei buruzko oinarritzko informazioak bideratzea; beste Estatu kide batzuetako irakasleen prestakuntza-zentroekiko lankidetzak, bereziki ikasleen eta irakasleen mugigarritasuna ezartzen duten programa komunak garatuz; etengabeko prestakuntzaren esparruan berriazko jarduerak ezartzea, jardunean dauden irakasleak hezkuntzako europar dimentsioari buruz sentsibilizatzearen eta Erkidegoaren jarduerari buruz jakinaren gainean egoteko aukera irakasle horiei ematearren; beste Estatu kide batzuetatik etorritako irakasle batzuei etengabeko prestakuntzako jarduera jakin batzuk egiteko aukera ematea. Hori europarra izatearen adierazle zehatza eta integrazio-prozesua errazteko bide garrantzitsua izango litzateke.
5. Herrialde guztietako ikasleen eta irakasleen arteko harremanak bultzatzeko neurriak sustatzea
  - Estatu kideetako ikasleen eta irakasleen arteko harremanak eta elkartzeak mugak gaindituz bultzatzea maila guztietan, europar integrazioari eta Europako beste herrialdeetako bizitzaren errealitatei buruzko esperientzia ematearren; harreman eta bilera horiek euren hizkuntza-gaitasuna hobetzeko eta gai kultural, zientifiko eta teknikoari buruz duten informazioa eta eskarmentua areagotzeko erabiltzea; horrela, ekimen horiek ahalik eta gazte zein irakasle gehien hartu beharko lukete barne; gurasoak eta guraso-elkarteak harremanen, trukeen eta egonaldien antolakuntzan parte hartzera bultzatzea; informazioa eta aholkuak ematea atzerrian harremanak, trukeak eta egonaldiak izateko interesa duten eskolei, irakasleei eta ikasleei, eta harremanak zein trukeak egiten laguntzea; ikasleek atzerrian egiten dituzten egonaldi luzeetako baldintzak aztertzea, eta atzerriko egonaldi horiek sustatzea.

## 6. Neurri osagarriak

- 1992. urteari begira, Europaren irudia hezkuntzan sendotzeko lana berriro ere suspertzea, Herritarren Europari buruzko Txostenari jarraiki, ekitaldi bereziak antolatuz; horri dagokionez, honako hauek ego-kiak dira:
  - hezkuntzan europar dimentsioa txertatzeko modu eraginkorrei buruzko mahai-inguruak eta minte-giak, bai eta hezkuntza-maila guztietara egokitutako ikasmaterialaren erabilerari eta prestatzeari buruzkoak ere;
  - ikasketa-planetik kanpoko eskola ekimenak eta jarduerak prestatzea, hala nola, eskolen arteko senidetzea eta «Klub Europarrak» sortzeko aukera sustatzea, europar dimentsioa sendotzearren bide berriak zabaltzeko;
  - eskolen parte-hartzea Europaren Eguna (maiatzak 9) dela-eta antolatzen diren jardueretan;
  - eskolen parte-hartzea Europako eskolen arteko lehiaketetan, eta Estatu kide bakoitzean antolatzen diren hizkuntza, artea, zientzia edo teknika arloetako lehiaketen arteko lankidetzak bultzatzea;
  - Estatu kideen arteko lankidetzak areagotzea eskola-kirolen arloan.

B) Europako Erkidegoari dagokionez. Estatu kideen ekimenei sostengua emateko eta sektore horretan lankidetzak efektiboak lortzeko, Batzordeari honako hauek betetzeko eskatu zaio, horretarako 19. a atalean aipaturiko Lan Taldearen laguntza izango duela kontuan izanik:

## 1. Informazio-trukea

- Kontzeptuei eta neurriei buruzko informazio-trukea sustatzea Estatu kide guztietan; lorturiko esperien-ziaren emaitzak Estatu kide guztietan ezagutuko direla bermatuko du horrek;

## 2. Ikasmateriala

- Erkidegoari buruzko oinarriko dokumentazioa prestatzea (bertako erakundeak, helburuak eta gaur egungo zereginak) eskoletarako eta irakasleentzat;
- hezkuntzan europar dimentsioa sendotzeko ikasmaterialari buruzko informazio-trukea —irakasgaien edo irakasgai-taldearen arabera sailkatutako informazioa, alegia— erraztea;
- ikasmaterialaren mamia eta ikasmateriala jorratzeko modu berriak aldatzeko analisiak egitea;
- ikasmateriala egiten eta argitaratzen dutenak bertan europar dimentsioa txertatzeko beharri buruz sentsibilizatzea;

## 3. Irakasleen prestakuntza

- Hezkuntzan adituentzako ikasketa-egonaldietako programa erabiltzea (ARION programa) europar dimentsioa hezkuntzan txertatzearren;
- ERASMUS programak eskaintzen dituen aukerak erabiltzea, irakasleak izateko ikasketak egiten ari diren ikasleei, prestatzen ari diren bitartean, atzerriko herrialde bateko esperientzia emateko, bai eta prestakuntza-zentron eta irakasleen arteko lankidetzak areagotzeko ere;
- Hainbat Estatu kideetako irakasleen hasierako prestakuntzako eta prestakuntza aurreratuko erakunde- en arteko lankidetzari sostengua ematea, hezkuntzan europar dimentsioa sustatzeko ikasmateriala garatzeari dagokionez;
- 1989-1992 denbora-tartean urtero irakasleentzako Udako Unibertsitate Europarra antolatzea, horiek lorturiko eskarmentua trukatu ahal izateko eta irakasleen prestakuntzan europar dimentsioa txertatze-ko aukera hobetzeko bide berriak zehaztearren.



## 4. Berariazko ekimen osagarriak

- Ikasleen eta irakasleen trukeak sustatzeko ardura duten organismo nazionalen arteko lankidetzak eta ikuspuntuaren trukea bultzatzea.
- Gobernu kanpoko erakundeek hezkuntzako europar dimentsioaren txertatze-prozesuetan parte hartzeko aukera bultzatzea.
- Hezkuntzako europar dimentsioa Europako eremuko ikus-entzunezko baliabideak erabiliz sendotzeko aukerak aztertzea.
- Europar dimentsioa hezkuntzan txertatzearen alde diharduten Estatu kideetako institutuen edo hezkuntzako ikerketa-zentroen arteko lankidetzak erraztea, honako hauek eman lezaketen laguntza kontuan izanik: Europako Unibertsitate Institutua (Florentzia), Europako Ikastetxea (Brujas), Herri Administrazioaren Europako Institutua (Maastricht) eta Europako Eskolak.
- Eskolako kirola Europako eremuan harremanak eta elkar ulertzea bultzatzearen hobeto erabiltzeko modua aztertzea, bai eta eskolen arteko europar jokoak ezartzeko baldintzak ere.


## 5. Lan Taldea

- Zeregin horiek gauzatzeari dagokionez, arlo horretan lankidetzak efektiboak lortzearen, Batzordeak lan-talde baten laguntza izango du. Lan-talde hori europar dimentsioaren inguruko koordinazio-erantzukizuna duten Estatu kideetako ordezkariak osatuko dute. Ordezkari horiek Batzordeak izendatuko ditu, dagokion Estatu kideak proposatuta.

III. HARTURIKO NEURRIEI BURUZKO TXOSTENA. Hezkuntza Batzordeari eskatu diote 1991ko ekainaren 30a baino lehenago hezkuntzako europar dimentsioa sendotzeko Estatu kideetan eta Erkidegoan martxan jarritako ekimenen garapenari buruzko lehen txostena aurkezteko.

IV. FINANTZIAZIOA. Erkidegoak II. B puntuan aipaturiko ekimenen finantzazioa eta haren zenbatekoa Erkidegoaren arauen eta prozeduren arabera erabakiko dira.





# 2. eranskina

AGENTZIA NAZIONALAK





## ALEMANIA

### ERASMUS

Deutscher Akademischer Austauschdienst (DAAD)  
Kennedyallee 50  
D-53175 Bonn  
Tel.: (49) 228 882.277  
Fax: (49) 228 882.551  
E-mail: [Erasmus@daad.de](mailto:Erasmus@daad.de)  
Internet:  
<http://eu.daad.de/sokrates/programminhalte/main.html>

COMENIUS, LINGUA (Schulbereich), ARION  
Pädagogischer Austauschdienst der Kultusministerkonferenz (PAD)

Lennéstr. 6  
D-53113 Bonn  
Tel.: (49) 228 501.298/256  
Fax: (49) 228 501.420/259  
E-mail: [pad.comenius@kmk.org](mailto:pad.comenius@kmk.org)  
Internet: <http://www.kmk.org/pad/sokrates2/>

COMENIUS (sprachbezogene Aktivitäten ausser an Schulen und an Lehrerbildungseinrichtungen); GRUNDTVIG 3 (Mobilität)

Hervorgegangen aus Carl Duisberg Gesellschaft e. V. und Deutsche Stiftung für Internationale Entwicklung  
Weyerstr. 79-83  
D-50676 KÖLN  
Tel: (49-221) 209.8292  
Fax: (49-221) 209.8114  
E-mail: [claudia.laubenstein@inwent.org](mailto:claudia.laubenstein@inwent.org)  
Internet: <http://www.europa.inwent.org>

GRUNDTVIG 1 (Projekte), 2 (Lernpartnerschaften) and 4 (Netzwerke) ; LINGUA (ausser an Schulen : siehe PAD oben); MINERVA ; alle sonstigen Aktionen

Bildung für Europa  
Nationale Agentur beim Bundesinstitut für Berufsbildung  
Friedrich-Ebert-Allee 38  
53113 Bonn  
Tel.: (49) 228 107.1608  
Fax: (49) 228 107.2964  
E-mail: [Sokrates@bibb.de](mailto:Sokrates@bibb.de)  
Internet: <http://www.na-bibb.de>

## EURYDICE

Eurydice - Informationsstelle des Bundes beim Bundesministerium für Bildung, Wissenschaft, Forschung und Technologie  
Heinemannstrasse 2  
D-53175 Bonn

Harremanetarako pertsona: Christian Stertz  
Tel.: 49-228-55.22.86  
Fax: 49-228-57.36.03  
E-mail: [Christian.Stertz@BMBF.BUND400.DE](mailto:Christian.Stertz@BMBF.BUND400.DE)  
Länder

Eurydice - Informationsstelle der Länder im Sekretariat der Kultusministerkonferenz  
Lennéstrasse 6  
D-53113 Bonn  
Harremanetarako pertsona: Gerdi Jonen  
Tel.: 49-228-50.12.70  
Fax: 49-228-50.12.29  
E-mail: [eurydice@kmk.org](mailto:eurydice@kmk.org)

---

## AUSTRIA

Sokrates Nationalagentur  
Schreyvogelgasse 2  
A-1010 Wien  
Tel.: (43) 1 534.08.17  
Fax: (43) 1 534.08.20  
E-mail: [office@sokrates.at](mailto:office@sokrates.at)  
Internet: <http://www.sokrates.at>  
WAP: [wap.sokrates.at](http://wap.sokrates.at)

## EURYDICE

Bundesministerium für Unterricht und Kulturelle Angelegenheiten  
Österreichische EURYDICE-Informationstelle  
Abt. I/6b  
Minoritenplatz 5  
A-1014 Wien  
Harremanetarako pertsona: Elfriede Tajalli  
Tel.: 43-1-531.20.47.07  
Fax: 43-1-531.20.99.47  
E-mail: [elfriede.tajalli@bmuk.gv.at](mailto:elfriede.tajalli@bmuk.gv.at)

---

## 2. ERANSKINA: AGENTZIA NAZIONALAK

### **BELGIKA** (Vlaamse Gemeenschap)

Vlaams SOCRATES-Agentschap  
H. Consciencegebouw 5C10  
Koning Albert II – laan 15  
B-1210 Brussel  
Tel.: (32) 2 553.95.83  
Fax: (32) 2 553.95.65  
E-mail: renilde.reynders@ond.vlaanderen.be

### **EURYDICE**

Vlaamse Eurydice-Eenheid  
Ministerie van de Vlaamse Gemeenschap  
Departement Onderwijs  
Afdeling Beleidscoördinatie  
Hendrik Consciencegebouw 5 C 11  
E. Jacquainlaan, 165  
B-1210 Brussel  
*Unitateko Burua:* Katekijne Janssens  
Harremanetarako pertsona: Iris Canaerts  
Tel.: 32-2-553.95.74  
Fax: 32-2-553.95.65  
E-mail: iris.cannaerts@ond.vlaanderen.be

### **BELGIKA** (Frantses komunitatea)

SOCRATES ekintza guztiak Erasmus izan ezik  
Ministère de la Communauté française  
Cellule SOCRATES  
Boulevard Léopold II, 44  
B-1080 Bruxelles  
Tel.: (32) 2 413.40.43  
Fax: (32) 2 413.40.42  
E-mail: socrates@cfwb.be  
Internet: <http://www.cfwb.be/socrates>

### **ERASMUS**

Agence francophone belge Erasmus  
Place du Parc 20  
B-7000 Mons  
Tel: (32) 65 37.36.60  
Fax: (32) 65 37.36.62  
E-mail: [agence.erasmus@umh.ac.be](mailto:agence.erasmus@umh.ac.be)

### **EURYDICE**

Unité francophone d'Eurydice  
Ministère de la Communauté Française  
Direction Générale des Rel. Internationales  
Bureau 6A/002  
Boulevard Léopold II, 44  
Cité Administrative de l'Etat  
B-1080 Bruxelles  
Harremanetarako pertsona: Dominique Barthélemy  
Tel.: 32-2-413.29.53  
Fax: 32-2-413.29.82  
E-mail: [dominique.barthelemy@cfwb.be](mailto:dominique.barthelemy@cfwb.be)

### **BELGIKA** (Deutschsprachige Gemeinschaft)

EU-Agentur  
Ministerium der Deutschsprachigen Gemeinschaft  
Hütte 79 (Bk.28)  
B-4700 Eupen  
Tel.: (32) 87 56.82.24  
Fax: (32) 87 55.77.16  
E-mail: [socrates@demetec.net](mailto:socrates@demetec.net)  
Internet: <http://www.dglive.be/>

### **EURYDICE**

Ministerium der Deutschsprachigen Gemeinschaft  
Agentur für Europäische Programme  
Agentur Eurydice  
QUARTUM Centre  
Hütte 79/Bk 28  
B-4700 Eupen  
Harremanetarako pertsona: Edgar Hungs  
Tel.: 32-87-56.82.10/11  
Fax: 32-87-55.77.16  
E-mail: [info.eu@demetec.net](mailto:info.eu@demetec.net)

### **BULGARIA**

Bulgarian SocratesNational Agency  
Human Resource Development Centre (HRDC)  
15, Graf Ignatiev St., 4<sup>th</sup> floor,  
1000 Sofia, Bulgaria  
Tel.: (359) 2 980.13.16, 980.07.20  
Fax: (359) 2 980.78.90, 971.34.57  
E-mail: [agency@socrates.bg](mailto:agency@socrates.bg)

EURYDICE  
 Equivalence & Information Centre  
 International Relations Department  
 Ministry of Education, Science and Technology  
 Eurydice Unit  
 Knjaz Dodukov blvd, 2A  
 BG-1000 Sofja  
 Harremanetarako pertsona: Rossitza Velinova  
 Tel.: 359-2-988.49.74  
 Fax: 359-2-988.06.00  
 E-mail: r.velinova@minedu.govrn.bg

---

## DANIMARKA

CIRIUS  
 Fiolstraede 44  
 DK-1171 Copenhagen K  
 Tel: (45) 33 95 70 00  
 E-mail: cirius@ciriusmail.dk  
 Internet: <http://www.ciriusonline.dk>

EURYDICE  
 Eurydice's Informationskontor i Danmark  
 Institutionsstyrelsen  
 Undervisningsministeriet  
 Frederiksholms Kanal 21  
 DK-1220 København K  
 Harremanetarako pertsona: Lis Thomsen  
 Tel.: 45-33-92.52.01  
 Fax: 45-33-92.55.67  
 E-mail: lis.thomsen@uvm.dk

---

## ERRESUMA BATUA

SOCRATES ekintza guztiak Erasmus izan ezik  
 British Council  
 Education and Training Group  
 Ingalaterra eta Gales  
 10 Spring Gardens  
 London SW1A 2BN  
 Tel.: (44) 20 7389.41.57  
 Fax: (44) 20 7389.44.26  
 E-mail: [socrates@britishcouncil.org](mailto:socrates@britishcouncil.org)  
 Internet: <http://www.socrates-uk.net>

Eskozia  
 Third Floor, The Tun  
 4 Jackson's Entry  
 Holyrood Road  
 UK-Edinburgh EH8 8PJ  
 Tel.: (44) 131.524.5700  
 Fax: (44) 131.524.5701

Ipar Irlanda  
 Comenius 1 hauetarako ere: Ipar Iralanda, Gales,  
 Ingalaterrako Ipar-Mendebaldea, West Midlands eta  
 Ingalaterrako Hego-Mendebaldea  
 Norwich Union House  
 7 Fountain Street  
 UK-Belfast BT1 5EG  
 Tel.: (44) 28.9024.8220  
 Fax: (44) 28.9023.7592

ERASMUS  
 UK- Socrates Erasmus Council  
 Research and Development Building  
 University of Kent  
 Canterbury  
 UK-Kent CT2 7PD  
 Tel.: (44) 1227 76.27.12  
 Fax: (44) 1227 76.27.13  
 E-mail: [erasmus@ukc.ac.uk](mailto:erasmus@ukc.ac.uk)  
 Internet: <http://www.erasmus.ac.uk>

EURYDICE  
 Eurydice Unit for England, Wales & Northern Ireland  
 National Foundation for Educational Research  
 The Mere,  
 Upton Park  
 Slough  
 Berkshire SL1 2DQ  
 United Kingdom  
 Harremanetarako pertsona: Gill Holt / Jenny Loose  
 Tel.: +44 (0) 1753-57.41.23  
 Fax: +44 (0) 1753-53.14.58  
 E-mail: [eurydice@nfer.ac.uk](mailto:eurydice@nfer.ac.uk)  
 Eurydice Scotland Unit  
 Scottish Executive Education Department  
 International Relations Branch  
 Area 2-A(CP)  
 Victoria Quay  
 UK-Edinburgh EH6 6QQ  
 Harremanetarako pertsona: Douglas Ansdell  
 Tel.: +44 (0) 131-244.09.14  
 Fax: +44 (0) 131-244.70.01  
 E-mail: [eurydice@scotland.gov.uk](mailto:eurydice@scotland.gov.uk)

---

### ERRUMANIA

Agentia Nationala Socrates  
Bld. Schitu Magureanu Nr. 1  
Etaj 2 – Sector 5  
RO-70626 Bucuresti  
Tel.: (40) 1 311.35.05 / 312.11.87  
Fax: (40) 1 311.35.00  
E-mail: agentie@socrates.ro  
Internet: <http://www.socrates.ro>

### EURYDICE

Eurydice Unit  
SOCRATES National Agency  
1 Schitu Măgureanu–2<sup>nd</sup> floor  
RO-70626 Bucuresti  
Harremanetarako pertsona: Alexandru Modrescu, coordinator  
Tel.: 40-1-311.35.05  
Fax: 40-1-311.35.00  
E-mail: alexandru.modrescu@socrates.ro  
Harremanetarako pertsona: Tinca Modrescu  
E-mail: Tinca.Modrescu@socrates.ro  
Harremanetarako pertsona: Sorana Marin  
E-mail: Sorana.Marin@socrates.ro

### ESLOVAKIAR ERREPUBLIKA

Slovak Academic Association for International Cooperation  
(SAAIC)  
SOCRATES National Agency  
Staré Grunty 52  
SK-842 44 Bratislava  
Tel.: (421) 2 654.24.383 / 654.12.335  
Fax: (421) 2 654.24.483  
E-mail: socrates@saaic.sk  
Internet: <http://www.saaic.sk/socrates>

### EURYDICE

Eurydice Unit  
Slovak Academic Association for International Cooperation  
Staré Grunty 52  
SK-84244 Bratislava  
Harremanetarako pertsona: Marta Ivanova  
Tel.: 421-7-65.42.64.95  
Fax: 421-7-65.42.64.95  
E-mail: ivanova@saaic.sk

### ESLOVENIA

EU Programmes Agency  
Ob železnici 16  
SL-1000 Ljubljana  
Tel.: (386) 1 5864.240  
Fax: (386) 1 5864.231  
E-mail: Socrates@cpi.si  
Internet: <http://www.cpi.si/speu>

### EURYDICE

Eurydice Unit  
Ministry of Education and Sport  
Zupanciceva, 6  
SL-1000 Ljubljana  
Harremanetarako pertsona: Tatjana Plevnik  
Tel.: 386-1-478.53.80  
Fax: 386-1-478.56.13  
E-mail: tatjana.plevnik@mss.edus.si

### ESPAINIA

Socrates programako ekintza guztiak Erasmus izan ezik  
Agencia Nacional Sócrates  
Sra. Encarna Herrero Herrero  
Ministerio de Educación y Cultura  
Paseo del Prado, 28 - 8<sup>a</sup> planta  
E-28014 Madrid  
Tel.: (34) 91 506.56.85  
Fax: (34) 91 506.56.89  
E-mail: a.socrates@educ.mec.es  
Internet: <http://www.mec.es/sgpe/socrates/>

### ERASMUS

Agencia Nacional Erasmus  
Vicesecretaría General del Consejo de Universidades  
Ciudad Universitaria s/n  
E-28040 Madrid  
Tel.: (34) 91 453.98.42  
Fax: (34) 91 453.98.85  
E-mail: mariateresa.diez@cuniv.mec.es

### EURYDICE

Unidad EURYDICE  
Ministerio de Educación y Cultura  
CIDE-Centro de Investigación y Documentación Educativa  
c/General Oráa, 55  
E-28006 Madrid  
Harremanetarako pertsona: Mercedes Muñoz-Repiso  
Tel.: 34-91-745.94.00 - 745.94.02 (zuzeneko zenbakia)  
Fax: 34-91-745.94.37  
E-mail: mercedes.munozrepiso@educ.mec.es



**ESTONIA**

Foundation Archimedes  
 SOCRATES Estonian National Agency  
 Kohtu 6  
 EE-10130 Tallinn  
 Tel.: (372) 696.24.10  
 Fax: (372) 696.24.26  
 E-mail: [socrates@archimedes.ee](mailto:socrates@archimedes.ee)  
 Internet: <http://www.socrates.ee>

**EURYDICE**

Eurydice Unit  
 Estonian Ministry of Education  
 Tõnismägi, 9/11  
 EE-10130 Tallinn  
 Harremanetarako pertsona: Reet Neudorf  
 Tel.: (372) 628.13.33  
 Fax: (372) 631.12.13  
 E-mail: [reet@hm.ee](mailto:reet@hm.ee)

---

**FRANTZIA**

Agence Socrates – Leonardo da Vinci  
 Programme Socrates  
 10, Place de la Bourse  
 F-33080 Bordeaux Cedex  
 Tel.: (335) 56.79.44.00  
 Fax: (335) 56.79.44.20  
 E-mail: [contact@socrates-leonardo.fr](mailto:contact@socrates-leonardo.fr)  
 Internet: <http://www.socrates-france.org>

**EURYDICE**

Unité d'Eurydice  
 Ministère de l'Éducation nationale  
 Délégation aux Relations internationales et à la Coopération  
 Centre de ressources pour l'information à l'international  
 Rue de Grenelle 110  
 F-75357 Paris  
 Harremanetarako pertsona: Thierry Damour  
 Tel.: 33-1-55.55.67.66  
 Fax: 33-1-55.55.74.61  
 E-mail: [eurydice@education.gouv.fr](mailto:eurydice@education.gouv.fr)

---

**GREZIA**

I.K.Y.  
 Directorate of Special Programmes and International  
 Scholarships  
 Unit for European Union Programmes  
 Lyssicratous 14  
 GR-10558 Athens  
 Tel: (30) 10 37.26.300 / 32.36.690  
 Fax: (30) 10 33.12.759 / 32.21.863  
 E-mail: [socrates@iky.gr](mailto:socrates@iky.gr)  
 E-mail2: [erasmus@iky.gr](mailto:erasmus@iky.gr)  
 Internet: <http://www.iky.gr>

**EURYDICE**

Ministry of National Education  
 And Religious Affairs  
 Direction CEE - Section C  
 Mitropoleos 15  
 GR-10185 Athena  
 Harremanetarako pertsona: Antigoni Faragoulitaki  
 Tel.: 30-1-323.74.80  
 Fax: 30-1-323.74.80  
 E-mail: [eurydice@ypepth.gr](mailto:eurydice@ypepth.gr)

---

**HOLANDA**

COMENIUS, ARION  
 Europees Platform voor het Nederlandse Onderwijs  
 Nassauplein 8  
 NL-1815 GM Alkmaar  
 Tel.: (31) 72 511.8502  
 Fax: (31) 72 515.1221  
 E-mail: [algemeen@europeesplatform.nl](mailto:algemeen@europeesplatform.nl)  
 Internet: <http://www.europeesplatform.nl>

**ERASMUS**

Nuffic  
 Dutch National Agency for Socrates  
 Postbus 29777  
 NL-2502 LT Den Haag  
 Tel.: (31) 70 42.60.257  
 Fax: (31) 70 42.60.259  
 E-mail: [socrates@nuffic.nl](mailto:socrates@nuffic.nl)  
 Internet: <http://www.socrates-programma.nl>

## 2. ERANSKINA: AGENTZIA NAZIONALAK

GRUNDTVIG, MINERVA, LINGUA  
Europees Platform voor het Nederlandse Onderwijs, dependance  
Bezuidenhoutseweg 253  
NL-2594 AM Den Haag  
Tel.: 31 70 3814448  
Fax: 31 70 3831958  
E-mail: [dependance@europeesplatform.nl](mailto:dependance@europeesplatform.nl)  
Internet: <http://www.europeesplatform.nl>

EURYDICE  
Eurydice Eenheid Nederland  
Afd. Informatiediensten D073  
Ministerie van Onderwijs, Cultuur en Wetenschappen  
Postbus 25000 - Europaweg 4  
NL-2700 LZ Zoetermeer  
Harremanetarako pertsona: Anneke van Dorp  
Tel.: 31-79-323.35.02  
Fax: 31-79-323.48.23  
E-mail: [a.vandorp@minocw.nl](mailto:a.vandorp@minocw.nl)

### HUNGARIA

Tempus Public Foundation  
Socrates Nemzeti Iroda  
Ülloi út 82, H-1082 Budapest  
Postal address:  
H-1438 Budapest 70., POB 510  
Tel.: (36) 1 210.97.00 / 210.97.10  
Fax: (36) 1 210.97.01  
E-mail: [socrates@tpf.hu](mailto:socrates@tpf.hu)  
Internet: <http://www.tpf.iif.hu>

EURYDICE  
Ministry of Culture and Education  
Eurydice Unit  
Szalay u. 10-14  
H-1054 Budapest  
Harremanetarako pertsona: Istvan Kovács  
Tel.: 36-1-302.00.36  
Fax: 36-1-269.20.65  
E-mail: [istvan.kovacs@mkm.x400gw.itb.hu](mailto:istvan.kovacs@mkm.x400gw.itb.hu)

### IRLANDA

SOCRATES ekintza guztiak Erasmus, Minerva eta Arion izan ezik  
Léargas - The Exchange Bureau  
189 Parnell Street  
IRL-Dublin 1  
Tel.: (353) 1 873.14.11  
Fax: (353) 1 873.13.16  
E-mail: [education@leargas.ie](mailto:education@leargas.ie)  
Internet: <http://www.leargas.ie/education>

ERASMUS AND MINERVA  
Higher Education Authority - Erasmus  
Marine House  
Clanwilliam Court  
IRL-Dublin 2  
Tel.: (353) 1 661.27.48  
Fax: (353) 1 661.04.92  
E-mail: [erasmus@hea.ie](mailto:erasmus@hea.ie)  
[minerva@hea.ie](mailto:minerva@hea.ie)  
Internet: <http://www.hea.ie>

### ARION

Department of Education and Science  
Marlborough Street  
IRL-Dublin 1  
Tel: (353) 1 889.2018  
E-mail: [mchughf@educ.irg.gov.ie](mailto:mchughf@educ.irg.gov.ie)

### EURYDICE

Eurydice Unit  
International Section  
Department of Education and Science  
Marlborough Street  
IRL - Dublin 1  
Tel.: 353-1-889.24.34/36  
Fax: 353-1-889.23.76/7  
E-mail: [defaoitem@educ.irg.gov.ie](mailto:defaoitem@educ.irg.gov.ie)

### ISLANDIA

Office of International Education / Socrates National Agency  
Neshagi 16  
IS -107 Reykjavik  
Tel.: (354) 525.43.11  
Fax: (354) 525.58.50  
E-mail: General: [ask@hi.is](mailto:ask@hi.is)  
Comenius: [katei@hi.is](mailto:katei@hi.is)  
Erasmus 1, Minerva: [oeo@hi.is](mailto:oeo@hi.is)  
Erasmus 2: [bey@hi.is](mailto:bey@hi.is)  
Grundtvig, Lingua: [rz@hi.is](mailto:rz@hi.is)  
Internet: <http://www.ask.hi.is>

**EURYDICE**

Ministry of Education, Science and Culture  
 Division of Evaluation and Supervision  
 Eurydice Unit  
 Sólhvólgata 4  
 IS-150 Reykjavík  
 Harremanetarako pertsona: Margret Hardardóttir  
 Tel.: 354-560.95.66  
 Fax: 354-562.30.68  
 E-mail: margret.hardardottir@mrn.stjr.is

---

**ITALIA**

Agenzia Socrates Italia  
 INDIRE  
 Via Nardo di Cione 22  
 50121 Firenze  
 Tel.: (39) 055 2380.326/328/338/387/388/389  
 Fax: (39)055 2380.330/343/399  
 E-mail: socrates@bdp.it  
 socrates.finanziario@bdp.it  
 comenius1@bdp.it  
 comenius2@bdp.it  
 comenius3@bdp.it  
 arion@bdp.it  
 erasmus@bdp.it  
 grundtvig@bdp.it  
 minerva@bdp.it  
 lingua@bdp.it  
 jointactions@bdp.it  
 Internet: <http://www.indire.it/socrates>  
 Agenzia Socrates Italia  
 Sezione ERASMUS  
 Via Montagne Rocciose 60  
 I-00144 ROMA  
 tel. (39) 06 54210483  
 fax (39) 06 54210479  
 E-mail: erasmus@indire.it

**EURYDICE**

Unita di Eurydice  
 Ministero della Pubblica Istruzione  
 Biblioteca di Documentazione Pedagogica  
 Via Buonarroti 10 - Palazzo Gerini  
 I-50122 Firenze  
 Harremanetarako pertsona: Giovanni Biondi  
 Tel.: 39-55-238.03.05  
 Fax: 39-55-238.03.30  
 E-mail: actions@bdp.it

---

**LETONIA**

Academic Programme Agency  
 Valnu Iela 2  
 LV-1050 Riga  
 Tel.: (371) 7 223.983  
 Fax: (371) 7 820.171  
 E-mail: socrates@apa.lv  
 Internet: <http://www.apa.lv>

**EURYDICE**

Ministry of Education & Science  
 Department of Education Integration and Co-ordination of  
 International Assistance Programmes  
 Eurydice Unit  
 Valnu 2  
 LV-1050 Riga  
 Harremanetarako pertsona: Aija Lejas-Sausa  
 Tel.: (371-7) 212.923  
 Fax: (371-7) 213.992  
 E-mail: eurydice@izm.gov.lv

---

**LIECHTENSTEIN**

SOKRATES-Büro Liechtenstein  
 c/o Schulamt  
 Austrasse 79  
 FL-9490 Vaduz  
 Tel.: (423) 236.67.82  
 Fax: (423) 236.67.71  
 E-mail: [helmut.konrad@sa.llv.li](mailto:helmut.konrad@sa.llv.li)  
 Internet: [www.socrates.li](http://www.socrates.li)

**EURYDICE**

National Unit of Eurydice  
 Schulamt  
 Herrengasse 2  
 FL-9490 Vaduz  
 Principality of Liechtenstein  
 Harremanetarako pertsona: Hans-Peter Walch  
 Tel.: (423) 236.67.58  
 Fax: (423) 236.67.71  
 E-mail: [hanspeter.walch@sa.llv.li](mailto:hanspeter.walch@sa.llv.li)

---

### LITUANIA

ES Socrates programos koordinavimo paramos fondas  
(EU Socrates Programme Coordination Support Foundation)  
Gelepinio Vilko g. 12  
LT-2600 Vilnius  
Tel.: (370-5) 212.33.64  
Fax: (370-5) 212.24.81  
E-mail: [socrates@socrates.lt](mailto:socrates@socrates.lt)  
Internet: <http://www.socrates.lt>

### EURYDICE

Eurydice Unit  
Ministry of Education and Science  
A. Volano 2/7  
LI-2691 Vilnius  
Harremanetarako pertsona: Jolanta Spurgiene  
Tel.: (370-2) 61.00.34  
Fax: (370-2) 61.20.77  
E-mail: [eurydice@smm.lt](mailto:eurydice@smm.lt)

### LUXEMBURG

SOCRATES ekintza guztiak Erasmus eta Minerva izan ezik  
Ministère de l'Éducation Nationale, de la Formation  
Professionnelle et des Sports  
34-36 avenue de la Porte Neuve  
L-2227 Luxembourg  
Tel.: (352) 478.52.89/478.51.90  
Fax: (352) 478.51.37  
Harremanetarako pertsona: Karin Pundel  
E-mail: [karin.pundel@men.lu](mailto:karin.pundel@men.lu)  
Internet: <http://www.socrates.lu/index.html>

### ERASMUS, MINERVA

Centre de Documentation et d'Information pour les Etudes  
Supérieures  
280, route de Longwy  
L-1940 Luxembourg  
Tel.: (352) 456.464/605  
Fax: (352) 454.544  
E-mail: [nathalie.dock@mcesr.lu](mailto:nathalie.dock@mcesr.lu)

### EURYDICE

Unité d'Eurydice  
Centre de Psychologie et d'Orientation Scolaire  
Route de Longwy 280  
L-1940 Luxembourg  
Harremanetarako pertsona: Raymond Harsch  
Tel.: 352-45.64.64.604  
Fax: 352-45.45.44  
E-mail: [raymond.harsch@cpos.educ.lu](mailto:raymond.harsch@cpos.educ.lu)

### MALTA

Socrates Co-ordination Committee - European Union  
Programmes Unit  
Room 105  
Administration Building  
University of Malta  
Msida MSD 06  
Malta  
Tel.: +356 3290 2204  
Fax: + 356 21 323 807  
E-mail: [socrates@um.edu.mt](mailto:socrates@um.edu.mt)

### NORVEGIA

Centre for International University Cooperation (SIU)  
Norwegian Council for Higher Education  
Box 7800  
N-5020 Bergen  
Tel.: (47) 55 54.67.00  
Fax: (47) 55 54.67.20/21  
E-mail: [siu@siu.no](mailto:siu@siu.no)  
Internet: <http://www.siu.no>

### EURYDICE

Royal Norwegian Ministry of Education,  
Research and Church Affairs  
Eurydice Unit  
Akersgaten 44  
P.O. Box 8119 Dep.  
N-0032 Oslo  
Harremanetarako pertsona: Fred-Arne Ødegaard  
Tel.: 47-22-24.74.47  
Fax: 47-22-24.27.30  
E-mail: [eurydice@kuf.dep.no](mailto:eurydice@kuf.dep.no)

### POLONIA

Fundacja Rozwoju Systemu Edukacji, Program Socrates  
(Foundation for the Development of the Education System,  
Socrates Programme)  
ul. Mokotowska 43  
PL - 00-551 Warszawa  
phone: +48/ 22/ 622.34.47, 629.25.74  
fax: +48/ 22/ 622.37.10  
E-mail: [socrates@socrates.org.pl](mailto:socrates@socrates.org.pl)  
internet: [www.socrates.org.pl](http://www.socrates.org.pl)

**COMENIUS 1**

phone: +48/ 22/ 622.37.12

**COMENIUS 2**

phone: +48/ 22/ 629.78.79

E-mail: tadeusz.wojciechowski@socrates.org.pl

**ERASMUS**

phone: +48/ 22/ 629.77.79

E-mail: erasmus@socrates.org.pl

beata.skibinska@socrates.org.pl

**GRUNDTVIG, MINERVA**

phone: +48/ 22/ 622.34.47, 629.25.74

E-mail: grazyna.klimowicz@socrates.ogr.pl

**LINGUA**

phone: +48/ 22/ 622.34.47, 629.25.74

E-mail: pawel.poszytek@socrates.org.pl

**ARION**

phone: +48/ 22/ 622.34.47, 629.25.74

E-mail: beata.osmulska@socrates.org.pl

**EURYDICE**

Eurydice Unit

Foundation for the Development of the Education System

Socrates Agency

Al. Szucha 25

PL - 00-918 Warszawa

Harremanetarako pertsona: Anna Smoczynska

Tel.: 48-22-628.04.61 ext189

Fax: 48-22-622.37.10

E-mail: annasm@men.waw.pl

**EURYDICE**

Unidade de Eurydice

Ministério da Educação

Departamento de Avaliação,

Prospectiva e Planeamento (DAPP)

Av. 24 de Julho 134

P-1350 Lisboa

Tel.: 351-21-394.92.89/97/98/96

Fax: 351-21-395.76.10

E-mail: eurydice@dapp.min-edu.pt

**SUEDIA**

International Programme Office for Education and Training

Box 220 07

S-104 22 Stockholm

Tel.: (46) 8 453.72.00

Fax: (46) 8 453.72.01

E-mail: info@programkontoret.se

Internet: <http://www.programkontoret.se>**EURYDICE**

Eurydice Unit

Ministry of Education and Science

Drottninggatan 16

S-10333 Stockholm

*Unitateko Burua:* Bodil Bergman

Harremanetarako pertsona: Jakob Johansson

Tel.: 46-8-405.17.52

Fax: 46-8-20.32.55

E-mail: eurydice.sweden@education.ministry.se

**PORTUGAL**

Agência Nacional para os Programas Comunitários

Sócrates e Leonardo da Vinci

Av. D. João II

Edifício Administrativo da Parque Expo

Lote 1.07.2.1 - Piso 1 - Ala B

P-1990-096 Lisboa

Tel.: (351) 21 891 99 33/34

Fax: (351) 21 891 99 29

E-mail: [agencianacional@socleo.pt](mailto:agencianacional@socleo.pt)Internet: [www.socleo.pt](http://www.socleo.pt)**SUOMI/FINLANDIA**

Centre for International Mobility (CIMO)

Hakaniemenkatu 2 / Hagnäsgratan 2

(P.O. Box 343)

FIN-00531 Helsinki

Tel.: (358) 9 77.47.70.33

Fax: (358) 9 77.47.70.64

E-mail: [socrates@cimo.fi](mailto:socrates@cimo.fi)Internet: <http://www.cimo.fi>

## 2. ERANSKINA: AGENTZIA NAZIONALAK

### EURYDICE

Eurydice Finland  
National Board of Education  
P.O. Box 380  
SF-00531 Helsinki  
Visits: Hakaniemenkatu 2  
SF-00530 Helsinki  
Harremanetarako pertsona: Matti Kyrö  
Tel.: 358-9-77.47.7274  
Fax: 358-9-77.47.78.69  
E-mail: eurydice@oph.fi

---

### TXEKIAR ERREPUBLIKA

CSVs SOCRATES Office  
U Lu\_ického semináře 13  
CZ-11801 Praha 1  
E-mail: socrates@csvs.cz  
Internet: <http://www.csvs.cz/socrates>

### ERASMUS, COMENIUS, LINGUA

Tel.: (420) 2 57.53.05.04 / 57.53.29.87  
Fax: (420) 2 57.53.24.07

### MINERVA

Tel.: (420) 2 57.01.13.12/2 57.53.29.87  
Fax: (420) 2 57.53.24.07

### GRUNDTVIG, ARION, bestelako Ekintzak

Tel.: (420) 2 57.53.43.33/ 57.53.43.73  
Fax: (420) 2 57.53.18.22

### EURYDICE

Eurydice Unit  
Institute for Information on Education - ÚIV/IIIE  
Senovážne namesti 26  
CZ-11121 Praha 1  
Harremanetarako pertsona: Stanislava Brozova  
Tel.: 420-2-24.398.353  
Fax: 420-2-24.398.278  
E-mail: brozova@alfa.uiv.cz

---

### ZIPRE

Ministry of Education and Culture  
National Socrates Coordination Unit  
Kimonos and Thoukidides Street  
CY-1434 Lefkosia  
Tel.: (357) 2 800.600/649/941  
Fax: (357) 2 428.268  
E-mail: [minedu@cytanet.com.cy](mailto:minedu@cytanet.com.cy)  
Internet: <http://www.moec.gov.cy>

### EURYDICE

Eurydice Unit  
Ministry of Education and Culture  
Pedagogical Institute  
Latsia  
P.O. Box 12720  
CY-2252 Nicosia  
Harremanetarako pertsona: Gregory Makrides  
Tel.: 357-2-480.491  
Fax: 357-2-480.505  
E-mail: [makrides@cyearn.pi.ac.cy](mailto:makrides@cyearn.pi.ac.cy)

---